21. Eta Iainko eternalak egin ziotzaten Adami eta Ebari larruzko arropak eta hetaz beztitu izan zituen.

22. Eta Iainko Eternalak erran zuen, horra, gizona egin da gutarik bat bezala iankintsun onaz eta gaitzaz. Bañan orai begiratu behar da, benturaz aitzia eztezan eskua eta biziaren arbolatik ere har eztezan eta handik ian dezan eta bizi dadiñ bethierekotz.

23. Eta Iainko eternalak eman zuen gizona Hedengo baratzetik kanpoan, lurra iorratzeko, zeñetarik hartua izatu baitzen.

24. Eta khasatu zuen gizona: eta ezarri zituen kerubiñak Hedengo baratzeko oriente aldetik, harat

hunat dabillan ezpatarekiñ biziaren arbolako bidea
guardatzeko.

LAURGARREN KAPITULUA

Kaiñen eta Abelen sortzea.

*4 Abelen sakrifizioa errezebitua,
eta Kaiñena arbuaiatua:*

*8 Horrengatik Kaiñek despaturik
hiltzen du bere anaia.*

*11 Iainkoren madarizionea Kaiñen gañean,
bizia ordean salbo uzten dioela.*

17 Kaiñen ondokoak eta hekien bizitzeko traña.

*25 Sethen baithan bedinkaturikako
hazia kontinuatua da.*

1. Adamek bada ezagutu zuen bere emaztea, zeñak konzebitu baitzuen, eta erdi baitzen Kaiñez, eta erran baitzuen, izatu dut gizon bat Eternalaganik.

2. Eta berriz erdi izantzen haren anaia Abelez.

3. Gerthatu zen bada zenbeit denboraren buruan ofrendatu zioela Kaiñek Eternalari lurreko fruitu ofrenda.

4. Eta Abelek ere ofrendatu zioela bere arthaldeko lehensorthuetarik eta hekien gizenetik eta Eternalak begiratu zioen Abeli eta haren ofrendari.

5. Bañan etzioen begiratu Kaiñi ez eta haren ofrendari ere: eta Kain despitatu zen hagitz, eta haren bisaia beheratu zen.

6. Eta Eternalak erran zioen Kaiñi, zergatik despitatu aiz? eta zergatik beheratu da hire bisaia?

7. Ungi egiten baldin baduk ezta errezibitua izango? bañan ungi egiten ezpaduk bekhatua athean zia-gok. Haren gutziak bada hiregana zihoazek eta haren gañean erregiñatzen duk.

8. Eta Kain mintzatu zen bere anaia Abelekiñ. Eta nola larrean baitziren, altxatu zen Kaiñ bere anaia Abelen kontra eta hiltzuen.

9. Eta Eternalak erran zioen Kaiñi, non da Abel hire anaia? zeñak ihardetsi baitzuen, etzeakiat, ene anaia-
ren guarda naiz ni?

10. Eta erran zuen lainkoak, zer egin duk? hire anaiaren odolaren boza lurretik oihuz ziaготak niri.

11. Orai bada madarikatua izango aiz lurreko alde-tik ere, zeñak ideki baitu bere ahoa errezibitzeko hire eskutik hire anaiaren odola.

12. Lurra iorratuko duan orduan, eztarok errenda-tuko gehiago bere berthutea: oraño herratuturik ihesi ibilliko aiz lurraren gañean.

13. Eta Kaiñek erran zioen Eternalari: nik iasan ahal dezakedan baño handiago da ene punizioea.

14. Horra, khasatu nauk egun lur hunen gañetik, eta gorderik egongo nauk hire bisaiaren aitziañetik: eta herraturik ihesi ibilliko nauk lurraren gañean eta gertatuko duk nork ere aurkhituko bainau eta hark hillen nauela.

15. Eta Eternalak erran zioen: horrengatik nork ere hillen baitu Kaiñ, Kain mendekatua izango da zazpi aldiz bietan. Hala Eternalak ezarri zuen señaile bat Kaiñen baithan nork ere aurkhituko baitzuen eta hark hill etzezantzat.

16. Eta Kaiñ ilkhi zen kanpora Eternalaren aitziañetikan eta egotu izantzen Nodko herrian Hedengo oriente aldean.

17. Gero Kaiñek ezagutu zuen bere emaztea, zeñak konzebitu baitzuen eta erdi izan baitzen Henokez, eta egiñ izan zuen hiri bat: eta deithu izan zuen hiriaren izena Henok bere semearen izenaz.

18. Gero Hirad sorthu zitzaion Henoki, eta Hiradek enjendratu zuen Mehuiael, eta Mehuialek enjendratu zuen Methusael eta Methusaelek enjendratu zuen Lemek.

19. Eta Lemekek hartu zituen bi emazte: bataren izena zen Hada eta bertzearen izena Tsilla.

20. Eta hada erdi izatu zen labalez, zeña izatu baitzen xoletan daudezenen eta artzañen aita.

21. Eta haren anaiaren izena izatu zen lubal, zeña izatu baitzen xirribika eta organo iotzaille guzien aita.

22. Eta Tsilla ere erdi izan zen Tubalkaiñez, zeña izatu baitzen kobre eta burdiñ errementa guzien olhagizona, eta Tubalkaiñen arreba izan zen Nahama.

23. Eta Lemekek erran zioten Hada eta Tsilla bere emazteei, Lemeken emazteak, adi zazue ene boza, entzun zazue ene hitza: hillen dut gizon bat nik zaurthurikan oraño gizon gazte bat, nik kolpatu eta.

24. Ezen Kain mendekatua izaten baldin bada zazpi aldiz bietan: Lemek mendekatua izango da hirurhogoi eta hamazazpi aldiz.

25. Eta Adamek ezagutu zuen oraño bere emaztea, zeña erdi izan baitzen seme batez, eta deithu zuen haren izena Seth: ezen lainkoak diotsa, eman darot bertze ume bat Abelen orde zeña hill baitu Kaiñek.

26. Eta Sethi ere sorthu zitzaion seme bat eta deithu zuen haren izena Enos. Orduan hasi izan ziren Eternalaren izena deitzen.

BORTZGARREN KAPITULUA

*Adameren eta Sethen ondokoen
Noerenñoko kontua.*

*21 Zeñen arteañ Henok launaren aitziñean
ibilli eta altxatua izan baita hartaz.*

1. Hemen da Adamen haurren kontua, lainkoak gizona kreatu zuen egunetik eta bere idurirat egin zuenetik.

2. Hek bada kreatu zituen harra eta emea eta bedinkatu zituen, eta deithu zuen hekien izena gizona, kreatuak izatu ziren egunean.

3. Hala Adam bizi izan zen ehun eta hogoita hamar urthe: eta enjendratu zuen seme bat bere idurira, bere imajinaren arabera, eta deithu zuen haren izena Seth.

4. Eta Adamen egunak, Seth enjendratu ondoan, izatu ziren zortzi ehun urthe: eta enjendratu zituen semeak eta Alabak.

5. Adam beraz bizi izatu zen denbora guzia, izantzen bederatzi ehun eta hogoita hamar urthe, gero hill izantzen.

6. Orobat Seth bizi izantzen ehun eta bortz urthe, eta enjendratu zuen Enos.

7. Eta Seth bizi izatu zen Enos enjendratu ondoan, zortzi ehun eta zazpi urthe eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

8. Seth beraz bizi izantzen denbora guzia, izatu zen bederatzi ehun eta hamabi urthe, gero hill izantzen.

9. Orobat Enos bizi izatu zen laurhogoi eta hamar urthe: eta enjendratu zuen Kenan.

10. Eta Enos Kenan enjendratu ondoan, bizi izatu zen zortzi ehun eta hamabortz urthe eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

11. Enos beraz bizi izatu zen denbora guzia, izantzen bederatzi ehun eta bortz urthe, gero hill izantzen.

12. Orobat Kenan bizi izatu zen hirur hogoi eta hamar urthe: eta enjendratu zuen Mahalaleel.

13. Eta Kenan, Mahalaleel enjendratu ondoan, bizi izatu zen zortzi ehun eta berrogoi urthe: eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

14. Kenan beraz bizi izatu zen denbora guzia, izantzen bederatzi ehun eta hamar urthe, gero hill izantzen.

15. Gisaberean Mahalaleel bizi izatu zen hirur hогоi eta bortz urthe: eta enjendratu zuen lered.

16. Eta Mahalaleel, lered enjendratu. ondoan, bizi izatu zen zortzi ehun eta hогоita hamar urthe: eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

17. Mahalaleel beraz bizi izatu zen denbora guzia izantzen zortzi ehun eta laur hогоita hamabortz urthe, gero hill izantzen.

18. Trazaberean lered bizi izatu zen ehun eta hirur hогоitabi urthe eta enjendratu zuen Henok.

19. Eta lered, Henok enjendratu ondoan, bizi izatu zen zortzi ehun urthe: eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

20. lered beraz bizi izatu zen denbora guzia izantzen bederatzi ehun eta hirurhогоita bi urthe, gero hill izantzen.

21. Moldeberean Henok bizi izatu zen hirurhогоita bortz urthe eta enjendratu zuen Methuszela.

22. Eta Henok, Methuszela enjendratu ondoan, ibilli izantzen lainkoarekiñ hirur ehun urthez: eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

23. Henok beraz bizi izatu zen denbora guzia, izantzen hirur ehun eta hirur hогоita bortz urthe.

24. Hala Henok ibilli izantzen lainkoarekiñ, eta etzen agertu gehiago: ezen lainkoak hartu izan zuen.

25. Moduberean Methuszela bizi izatu zen ehun eta laurhogoita zazpi urthe eta enjendratu zuen Lemek.

26. Eta Methdszela, Lemek enjendratu ondoan, bizi izatu zen zazpi ehun eta laurhogoita bi urthe eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

27. Methuszela beraz bizi izatu zen denbora guzia, izantzen bederatzi ehun eta hirur hogoita bederatzi urthe, gero hill izantzen.

28. Maneraberean Lemek bizi izatu zen ehun eta laurhogoita bi urthe eta enjendratu zuen seme bat.

29. Eta deithu zuen hare izena Noe, erraten zuela hunek solejituko gaitu gure obratik eta gure eskueta-ko neketik Eternalak madarikatu duen lurra dela kausa.

30. Eta Lemek Noe enjendratu ondoan, bizi izatu zen bortz ehun eta laurhogoi eta hamabortz urthe: eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

31. Lemek beraz bizi izatu zen denbora guzia izantzen zazpi ehun eta hirurhogoita hama zazpi urthe, gero hill izantzen eta Noek bortz ehun urtheren adiña zuela, enjendratu izantzuen Sem, Kam, eta lafeth.

SEIGARREN KAPITULUA

Gizonak osoki gaxtatu eta, deklaratzeko du lainkoak, ontzen ezpaldin badire sei hogoi urtheren barnean, hondatuko duela lurra uholde ieneral baten bidez.

13 Bitartean gizonen hegastiñen eta lurreko animalia guzien kasta begiratzeko manatzen du Noe egilera arka bat ematen dioen moldearen arabera.

1. Gerthatu izantzen bada gizonak lurraren gañean berretzen hasi izantziren orduan eta alabak enjendratu zituzten orduan

2. lainkoaren semeek ikhusirik gizonen alabak ederrak zirela, hetarik hartu zituztela emaztetzat beretzat, hautatu zituzten guzietarikan.

3. Eta Eternalak erran zuen, ene izpirituak etzu atsegiñ hartuko bethi gizonekiñ, ezen haragi dire hekien egunak bada izango dire ehun eta hogoi urthe.

4. Denbora hartan ziren jigantak lurraren gañean eta oraño lainkoaren semeak nahastatu ziren ondoan gizonen alabekiñ eta hei haurrez erdi zitzaizkoten

ondoan; horiok dire puxantak zeñak bethieretik izatu baitire iende ospea dutenak.

5. Eta Eternalari, ikhusirik gizonen malezia hagitz zela handia lurraren gañean eta hekien bihotzeko pentsamenduen imajinazione guzia etzela bertzerik gaxtakeria baizen noiz nahi:

6. Urrikitu zitzaion gizona egiñaz lurrean eta des-plazer izatu zuen bere bihotzean.

7. Eta Eternalak erran zuen: harraskatuko ditut lurraren gañetik kreatu ditudan gizonak, gizonetarik bestia abretaraño, herresta bestietaraño, oraño zeruko hegastiñetaraño ezen horiok egiñaz urriki dut.

8. Bañan Noek ediren zuen grazia Eternalaren aitziñean.

9. Hauk dire hemen Noeren ienerazioneak. Noe izatu zen gizon iustu eta osoa bere denboran, lainko-arekiñ zabillana.

10. Eta Noe enjendratu zituen hirur seme, Sem, Kam eta Iafeth.

11. Eta lurra usaindua zen lainkoaren aitziñean eta krueltasun bihurkeriez bethea.

12. Lainkoak bada begiratu zioen lurrari eta horra usaindua zen: ezen haragi guziak usaindu zuen bere bidea lurraren gañean.

13. Eta lainkoak erran zioen Noeri, haragi guziaren fiña ethorria duk ene aitzia: ezen lurra bethea duk krueltasun bihurkeriez hekiengatik: eta horra hek deseginen tiat lurrarekiñ.

14. Egiñ ezak hiretzat gofer zurezko arka bat egiñen dituk arkan egoitzak eta gantzutuko duk alkater-naz barnetik eta kanpotik.

15. Eta egingo duk hunela: arkaren luzetasuna izango duk hirur ehun beso: haren zabaltasuna berrogoita hamar beso, eta haren haltotasuna hogoita hamar beso.

16. Emango diok egun argia arkari, eta akhabatuko duk beso batez gañetikan, eta ezarriko duk arkaren athea haren sahetsetik: hala egingo duk arka behereko, bigarren, eta hirugarren zubi batekiñ.

17. Eta horra, erakharriko diat uholde bat lurraren gañera, desegiteko haragi guzia, zeñetan baita bizia-
ren hatsa zeruen azpian eta lurrean diren guziei ari-
mak egiñen diote.

18. Bañan ezarriko diat ene alientzia hirekiñ: hala sarthuko aiz arkan, hi eta hire semeak, eta hire emaztea eta hire semeen emazteak hirekiñ.

19. Eta haragi guziaren artean bizia duten guziatarik sarraraziko dituk parera arkan begiratzeko bizirik hirekiñ: erran nahi da, harra eta emea.

20. Hegastiñetarik bere motaren arabera, bestietarik bere motaren arabera eta herrestaki guziatarik bere motaren arabera: han sarthuko dituk guziatarik pareka hirekiñ, bizirik begira detzakantzat.

21. Hartzak oraño hirekiñ iaten diren ianhari guziatarikan, eta erretiratzak heuregana: izan daitezentzat iateko hanbat hiretzat nola hekientzat.

22. Hori egintzuen Noek: lainkoak manatu ziotzan gauza guzien arabera, hala egiñ izantzuen.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

*Noe, bere emaztearekiñ,
eta harengana ethorri ziren*

*animalia guziekiñ arkan barna sarthu
eta uholde ieneralak hondatzen du lurra.*

*21 Lurraren gañean bizi ziren kreatura guziak
hiltzen dire, arkan barna zirenak salbo.*

1. Eta Eternalak erran zioen Noeri, sar adi, hi eta hire etxe guzia arkan barna: ezen ikhusi aut iustu ene aitziñean denbora huntan.

2. Hartuko tuk bestia garbi guzietarik zazpi mota bakhotxetik, harra eta haren emea bañan garbi ezti-ren bestietarik pare bat, harra eta haren emea.

3. Zeruetako hegastiñetarik ere zazpi mota bakhotxetik, harra eta haren emea: kasta konzerba dadintzat lur guziaren gañean.

4. Ezen zazpi egunen barnean eragingo diat uria lurraren gañera berrogoi egunez eta berrogoi gauez eta harraskatuko tiat lurraren gañetik izatea duten guziak, nik egin ditudanak.

5. Eta Noek egin zuen Eternalak manatu ziotzan gauza guzien arabera.

6. Eta Noek sei ehun urtheren adiña zuen, ur'uholdea lurraren gañera ethorri izantzen orduan.

7. Noe beraz sarthu zen eta haren semeak, haren emaztea eta haren semeen emazteak harekiñ, arkan barna, uholde urak zirela kausa.

8. Bestia garbietarikan, eta bestia garbi eztirenetarikan, eta hegastiñetarikan, eta lurraren gañean higitzen diren guzietarikan.

9. Hek sarthu zitzaizkon Noeri birazka arkan barna, erran nahi da, harra eta emea, lainkoak manatu zioen bezala.

10. Eta gerthatu izantzen zazpigarren egunean uholde urak izatu zirela lurraren gañean.

11. Noeren biziaren sei ehunen urthean, bigarren illhabethean, illhabethearen hamazazpigarren egunean, egun hartan leze haundiaren ithurri guziak hautsi izan ziren eta zeruetako tapak ideki.

12. Eta uria erori zen lurraren gañera berrogoi egunez eta berrogoi gauez.

13. Egun hartan berean Noe eta Sem, Kam eta lafeth Noeren semeak sarthu ziren arkan barna, baita

Noeren emaztea ere, eta haren semeen hirur emazteak hekiekiñ.

14. Hek eta bestia guziak bere motaren arabera eta abrebestia guziak bere motaren arabera eta lurraren gañean higitzen diren herrestaki guziak bere motaren arabera, eta hegastin guziak bere motaren arabera, eta xoritxo hegaldun zer suerte nahi den guziak.

15. Ethorri zitzaizkon beraz haragiki guzietarik, bere baithan bizi hatsa dutenatarik birazka Noeri, arkara.

16. Bai haragiki guzietarikako harra eta emea hara ethorri izantziren, lainkoak manatu zioen bezala gero Eternalak herstu zuen athea beregana.

17. Eta ethorri izantzen uholdea berrogoi egunez lurraren gañera: eta urak haunditu ziren, eta goratu zuten arka eta altxatua izatu zen lurraren gañetik.

18. Eta urak borthiztu eta hagitz berretu izantziren lurraren gañean: eta arka flotatzen zen uren gañean.

19. Eta urak xoill hagitz borthiztu ziren lurraren gañean eta estali izantziren zeru guzien azpian ziren mendirik haltoen guziak.

20. Urak borthiztu ziren hamabortz besoz gañetik: hetaz mendiak estali izan ziren.

21. Eta lurraren gañean higitzen ziren haragiki guziak hill ziren, hanbat hegastiñak nola abrebestiak, bestiak eta herrestaki guziak lurraren gañean herrestaka dabiltzanak: eta gizon guziak.

22. Leihorrean ziren bizi hatsa bere sudur zillhotan zuten gauza guziak hill izan ziren.

23. Beraz lurraren gañean izatea zuten gauza guziak harraskatuak izan ziren, gizonetarik bestietaraño, herrestakietaraño eta zeruetako hegastiñetaraño. Horrela harraskatuak izatu ziren lurretikan: bañan Noe xoillki egotu izan zen goititurik eta harekin zirenak arkan barna.

24. Eta urek iraun izan zuten lurraren gañean ehun eta berrogoi ta hamar egun.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

*Uholde urak ehun eta berrogoita hamar egun
iraun ondoan erretiratzen dire.*

*13 Eta lurra idortu ondoan,
lainkoak manatzen du Noe*

arkatik ilkitzera han ziren guziekiñ

*20 Noek arkatik ilkhi eta sakrifikatzen dio launari,
zeñak erreberitzen baitu munduaren estatua.*

1. lainkoa bada orhoitu izan zen Noez, eta bestia guzietz eta arkan barna harekin ziren abrebестиaki guzietz: eta lainkoak iraganarazi zuen haize bat lurraren gañean, eta urak gelditu izan ziren

2. ezen lezeko ithurriak herstuak izatu ziren eta zeruetako tapak: eta uria idukia izatu zen zeruetarik

3. eta urak erretiratzen ziren lehen baño lehenago lurraren gañetikan: eta ehun eta berrogoita hamar egunen buruan xumetu izan ziren

4. eta zazpigarren illhabeteko hamazazpigarren egunean arka gelditu izan zen Ararateko mendien gañean

5. eta urak xumetuaz zihoazen lehen baño lehena-go hamargarren illhabeteraño, eta hamargarren illhabeteko lehen egunean mendi puntak agertu izan ziren.

6. Gero gerthatu zen berrogoi egunen buruan Noek ideki zuela arkako leiho egin zuena.

7. Hala utzi zuen belea, zeña ilkhi baitzen goaten zela eta bihurtzen zela urak lurraren gañean idor zitezzen arteraño

8. uso bat ere utzi izan zuen bereganik ikhusteko ea urak gutitu ziren lurraren gañetik.

9. Bañan usoa non bere oña phausa ez aurkhitu izanez, bihurtu izan zen harengana arkara: ezen urak ziren lur guziaren gañean. Eta hark bere eskua aitzin du eta hartu izan zuen eta erretiratu beregana arkan barna.

10. Eta bertze zazpi egun oraño iduriki ondoan, berriz utzi izan zuen usoa arkatik kanpora

11. eta arratsaldean usoa bihurtu zen harengana eta horra haren mokoan oliba osto atheratu zuena: eta Noek ezagutu zuen urak gutitu zirela lurraren ganetik

12. hala iduriki zuen oraño bertze zazpi egun, gero utzi zuen usoa, zeña ezpaitzen bihurtu gehiago haren-gana.

13. Eta gerthatu izan zen Noeren adiñaren sei ehun eta urthe batean lehen illhabeteko lehen egunean urak idortu zirela lurraren gañetikan: eta Noek arkako estalkia khendu eta begiratu zuela: eta horra, lur gaña idortzen zen.

14. Eta bigarren illhabeteko hogoita zazpigarren egunean lurra idor izatu zen

15. gero lainkoa mintzatu zitzaion Noeri ziotsala:

16. Ilkhi adi arkatik hi eta hire emaztea, hire semeak eta hire semeen emazteak hirekiñ.

17. Ilkhiarazitzak hirekiñ, hirekin diren bestia guziak haragi guzietarikakoak hala hegastiñak nola bestiak eta lurraren gañean higitzen diren herrestaki guziak. Ungi bethe bezate lurra, eta berret eta hauñitz egin beitez lurraren gañean.

18. Noe bada ilkhi izan zen haren semeak, haren emaztea eta haren semeen emazteak harekiñ.

19. Besti guziak, herrestaki guziak, hegastin guziak, Lurraren gañean higitzen diren guziak bere motaren arabera, ilkhi ziren arkatik

20. eta Noek egin zioen aldarebat eternalari eta hartu zituen bestia garbi guzietarik, eta hegastin garbi guzietarik eta ofrendatu zituen holokaustak aldarearen gañean.

21. Eta sentitu zuen Eternalak bake urrin bat eta erran zuen bere baithan, eztut gehiago madarikatuko Lurra, gizonak direla kausa: ezen gizonen bihotzeko imajinazionea gaxtoa da hekien gaztarrasunetik, eta hala eztiotet gehiago iazarriko gauza bizi guziei, egin dudan bezala

22. bañan Lurra izanen deño hazi ereintzeak eta biltzeak, hotza eta beroa uda eta negua eguna eta gaba eztire geldituko.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

Iainkoak bere benedizioneak erreberitzen dituela jenero humanoaren eta lurreko animalia guzien multiplikazionearen aldera akordatzen diote gizonei espresukiko hitzez haragia iatera.

6 Debekatzen diote nihor hiltzea eta odola iatea.

9 Eta gizonak seguratzeko, eztirela ethorriko gehiago uholde ieneraleko urak, ezartzen du bere alientzia hekiekiñ,

konfirmatzen duela zeruko arkobaren señaleaz.

20 Noek, Kamez trufatua izatu ondoan, madarikatzen du

haña, eta bedinkatzen ditu Sem eta Iafeth.

1. Eta Iainkoak bedinkatu zuen Noe, eta haren semeak, eta erran zioten, berret eta hauñitz egin zaitetze eta bethe zazue lurra.

2. Eta zuendako beldurra eta ikhara izan bedi lurreko bestia guzien gañean eta zeruetako hegastin guzien gañean, lurraren gañean higitzen diren gauza

guziekiñ, eta itsasoko arrain guziekiñ eman zaizkitzue zuen eskuen artean

3. higitzen diren gauza bizidun guziak izanen zaizkitzue ianharitzat eman darozkitzuet guziak belhar ferdea bezala.

4. Bizkitartean eztuzue ianen haragirik bere ari-marekiñ, zeña baita haren odola.

5. Eta egiaz galdetuko dut zuen odola, erran nahi da zuen arimen odola: galdetuko dut bestia guzien eskutikan eta gizonaren eskutikan, bai bere anaia bat bederaren eskutikan, galdetuko dut gizonaren arima

6. nork ere isuriko baitu gizonaren odola gizonaren baithan, haren odola isuria izango da. Ezen lainkoak bere imajinara egiñ izan du gizona.

7. Zuek beraz berret zaitezte, hauñitz, haundi egin zaitezte frankiaz lurraren gañean eta hartan hauñitz egin zaitezte

8. gisaberean lainkoa mintzatu zitzaioten Noeri eta haren semeei harekiñ, erraten zuela,

9. eta nitaz denaz bezanbatean, horra, ezarri diat ene alientzia zuekiñ eta zuen kastarekiñ zuen ondoan:

10. eta zuekin diren animalia bizidun guziekiñ hala hegastiñekiñ nola bestiakiarekiñ eta zuekin diren

Lurreko bestia guziekiñ, arkatikan ilkhi diren guziekiñ, lurreko bestia guzietaraño.

11. Ezarri diat beraz ene alientzia zuekiñ. Eta eztuk gehiago hondatua izango haragi batere uholde urez eta eztuk gehiago uholderik izango lurra desegiteko.

12. Gero erran zuen lainkoak, hau duk batasunaren señailea nik ematen dudana ene eta zuen artean, eta zuekin diren kreatura bizidun guzien artean irauteko bethiere:

13. Ezarriko diat ene arkoba hedoiean, zeña izanen baita batasunaren señaletzat ene eta Lurraren artean.

14. Gerthatuko den orduan estaliko dudala hedoiez lurra, arkoba agertuko duk hedoiean.

15. Eta izanen diat orhoitzapena ene batasunaz, ene eta zuen artean denaz, eta haragi guzietan bizi diren animalia guzien artean eta urak eztire gehiago izanen uholdetzat haragi guzia desegiteko

16. izanen duk beraz arkoba hedoiean, eta begiratu zioat, orhoit nadintzat bethiereko batasunaz lainkoaren eta animalia bizidun guzien artean, zernahi den haragitan diren lurraren gañean.

4. Iainkoak beraz erranzioen Noeri hori duk bata-sunaren señailea nik ezarri dudana ene eta lurraren gañean diren haragi guzien artean.

18. Eta arkatikan ilkhi ziren Noeren semeak izatu ziren Sem, Kam eta Iafeth. Eta Kam izatu zen Kanaan-en aita

19. hirur hauk dire Noeren semeak, zeñetaz lur guzia bethea izatu baitzen

20. eta Noe Iurreko nekhazalea hasi izantzen mahastia landatzen.

21. Hala edan izan zuen arnoa eta horditu izan zen eta billuzi zen bere tabernaklearen erdian

22. eta Kam Kanaan-en aitak, bere aitaren ahalkisuna ikhusirik, haña deklaratu zioten kanpoan bere bi anaiei.

23. Semek eta Iafeth-ek bada hartu izan zuten kapa bat zeña eman baitzuten bere bi sorbalden gañean, eta gibela zihoazela estali izan zuten bere aitaren ahalkisuna eta hekien bisaiak gibela bihurtuak ziren, hala etzuten ikhusi bere aitaren ahalkisuna

24. eta Noek bere arnotikan iratzarri eta, iakin zuen bere seme xumeenak egin zioena.

25. Hargatik erran zuen, madarika bedi Kanaan, bere anaien muthillen muthill izango da.

26. Erran ere zuen, bedinka bedi Semeren lainko eternala eta Kanaan hei egin bekiote muthill.

27. Lainkoak tira dezala eztimasunean lafeth eta hau egon dadillala semeren tabernakletan: eta Kanaan hei egin dakiotela muthill.

28. Eta Noe bizi izan zen uholdearen ondoan hirur ehun eta berrogoita hamar urthe.

29. Noe beraz bizi izan zen denbora guzia, izatu zen bederatzi ehun eta berrogoita hamar urthe, gero hill izan zen.

HAMARGARREN KAPITULUA

lafethen ondokoen kontua.

6 Kamen ondokoena

*8 [non baita errepresentatua
monarkien hastera Nimroten baitan].*

*21 Semeren ondokoena, eta
nazioneena uholdearen ondoan
lur guzia bethe dutenena.*

1. Hemen dire bada Noeren haur Sem, Kam, eta lafethen kastak: zeñei sorthu baitzitzaizten haurrak uholdearen ondoan.

2. lafethen haurrak dire Gomer, Magog, Madai, Iauan, Tubal, Mesex, eta Tiras.

3. Eta Gomeren haurrak Aszkenas, Rifath, eta Togarma.

4. Eta Iauanen haurrak Elisza, Tarszis, Kittim eta Dodanim.

5. Hautaz errepartituak izatu ziren nazioeen Irlak, bere lurretarik, bat bedera bere lengoaiaren arabera, bere famillen arabera, bere nazioeen artean.

6. Gisa berean Kamen haurrak dire Kus, Mitsraim, Put, eta Kanaan.

7. Eta Kusen haurrak Seba, Hauila, Sabtah, Rahma, eta Sabteka. Eta Rahmaren haurrak Szeba eta Dedan.

8. Eta Kusek enjendratu zuen Nimrod, zeña hasi baitzen puxant izaten Lurrean,

9. hori izatu zen ihiztari puxant bat Eternalaren aitziñean.

10. Eta horren gobernuaren hastea izan zen Babel, Ereka, Akkad eta Kalne Szinharreko herrian

11. herri hartarika ilkhi izan zen Asur, eta egiñ izan zuen Ninibe, eta hiriko karririk eta Kalah,

12. Eta Resen Ninibe eta Kalahren artean, zeña baita hiri haundi bat.

13. Eta Mitsraimek enjendratu zuen Ludim, Hana-mim, Lehabim, Naftuhim,

14. Pathrusim, Xasluhim [zeñenganik ilkhi baitire filistintarrak] eta Kaftorim

15. eta Kanaanek izatu zuen Sidon bere lehen semea eta Heth:

16. lebusiarrak, amorhearrak, girkasziarrak,

17. Hebiarrak, harkiarrik, eta siniarrak,

18. Aruadienarrak, tsemarriarrak, eta hamatiarrak eta ondoan barraiatu dire kananearren famillak.

19. eta izan ziren kananearren bazterrak Sidonetik, Gerar aldera heldu aizenean, Gazaraño, Sodom eta Gomorraidera, Adma eta Tseboim aldera Leszaraño.

20. Hor dire Kamen haurrak bere famillen eta hizkuntzen arabera, bere lurretan eta nazionetan.

21. Orobat Sem, Heberren haur guzien aitari eta lapethen anaiari zeña baitzen haundiena, sorthu zitzaizkon haurrak.

22. Semeren haurrak beraz dire Helam, Asur, Arpakszad, Lud eta Aram.

23. Eta Aramen haurrak Hus, Hul, Gether eta Mas.

24. Eta Arpakszadek izatu zuen Szelah, eta Szelahk izatu zuen Heber

25. eta Heberri sorthu zitzaizkon bi seme: baten izena Peleg: ezen horren denboran Lurra errepartitua izatu zen: eta horren anaiaren izena, loktan.

26. Eta loktanek izatu zuen Almodad, Szelef, Hatsarmaueth eta Ierah,

27. Hadoram, Uzal, Dikla,

28. Hobal, Abimael, Szeba,

29. Ofir, Hauila, eta Iobab: horiok guziak dire loktanen haurrak

30. eta horion egoitza zen Meszatikan heldu aize-
nean Sefarro orienteko mendira.

31. Hor dire semeren haurrak, bere famillen eta
hizkuntzen arabera bere lur eta nazionetan.

32. Horiok dire beraz Noeren haurren famillak,
bere kasten arabera bere nazionetan: eta hautaz izatu
dire errepertituak nazioek lurrian uholdearen ondo-
an.

HAMEKAGARREN KAPITULUA

Babelko dorrearen egitea.

5 Poblua nahasia hizkuntzen

konfusionea dela kausa.

10 Semeren ondokoen kontua...

Abrahanenganaraño

32 zeña Tare bere aitarekiñ,

Lot bere anaiaren semearekiñ eta

Sarai bere emaztearekiñ khaldearren Urtikan

ilkhi eta ethortzen baita Karanara.

32 Tareren heriotzea.

1. Orduan Lur guzia hizkuntza batetako zen, eta hitz bereko.

2. Bañan gerthatu zen, nola partitu baitziren orientetik aurkhitu zutela larre bat Szinharko herrian, non egotu izan baitziren.

3. Eta erran zioten batak bertzeari, ea, egin detzagun ardilluak eta erre detzagun ungi ungi suan. Hala izatu zituzten ardilluak harri orde, eta buztiñoa izatu zitzaien morthero orde.

4. Gero erran zuten, ea, egin dezagun geuretzat hiri bat, eta dorre bat zeñaren punta izan bedi zerue-taraño: eta ardietsiko dugu ospea barraiatuak ez zai- tezen beldurrez lurraren gañean

5. Eternala bada iausti zen ikhustera hiria eta dorrea gizonen semeek egiten zituztenak.

6. Eta Eternalak erran zuen, horra, poblu hau bat da eta guziek hizkuntka bat dute: eta horra nola has- ten diren lan egiten, eta orai eztire debekatuak izan- go deusetan egiñ izan uste dutenetan.

7. Ea bada, iausts gaitezen eta nahas dezagun hor horion hizkuntza adi eztezaten elkharren hizkuntza.

8. Hala Eternalak barraiatu zituen handik lur guzietara: eta gelditu izan ziren hiria egitetik.

9. Horrengatik haren izena deithua, izan zen Babel: ezen Eternalak han nahasi izan zuen lur guziko hizkuntza eta handik barraiatu zituen Lur guziaren gañean.

10. Hemen diren Semeren kastak. Semek ehun urteren adiñean izatu zuen Arpakszad bi urte uholdea- ren ondoan.

11. Eta Sem Arpakszad enjendratu ondoan bizi izan zen bortz ehun urthe:eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

12. Gisaberean Arpakszad bizi izatu zen hogoita hamabortz urthe eta enjendratu zuen Szelah.

13. Eta Arpakszad Szelah enjendratu ondoan bizi izatu zen laur ehun eta hirur urthe: eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

14. Gisaberean Szelah bizi izan zen hogoita hamar urthe; eta enjendratu zuen Heber:

15. Eta Szelah Heber enjendratu ondoan, bizi izan zen laur ehun eta hirur urthe eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

16. Gisaberean Heber bizi izan zen berrogoita hamalaur urthe eta enjendratu zuen Peleg.

17. Eta Heber Peleg enjendratu ondoan, bizi izan zen laur ehun eta hogoita hamar urthe: eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

18. Gisaberean Peleg bizi izan zen hogoita hamar urthe eta izatu zuen Rehu.

19. Eta Peleg Rehu izatu ondoan, bizi izan zen bi ehun eta bederatzi urthe: eta izatu zituen semeak eta alabak.

20. Gisaberean Rehu bizi izatu zen hogoita hama-bi urthe eta enjendratu zuen Serug.

21. Eta Rehu, Serug enjendratu ondoan, bizi izatu zen bi ehun eta zazpi urthe: eta enjendratu zituen semeak eta. Alabak.

22. Gisaberean Serug bizi izatu zen hogoita hamar urthe eta enjendratu zuen Nakor.

23. Eta Serug, Nakor enjendratu ondoan, bizi izatu zen bi ehun urthe eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

24. Gisaberean Nakor bizi izatu zen hogoita bederatzi urthe eta enjendratu zuen Tare.

25. Eta Nakor, Tare enjendratu ondoan, bizi izatu zen ehun eta hemeretzi urthe: eta enjendratu zituen semeak eta alabak.

26. Gisaberean Tare bizi izan zen hirur hogoita hamar urthe, eta enjendratu zituen Abram, Nakor, eta Haran.

27. Eta hauk dire Tareren kastak: Tarek enjendratu zituen Abram, Nakor eta Haran: eta Haranek enjendratu zuen Lot.

28. Eta Haran hill izan zen bere aitaren aitziñean bere sorlekhuari, kaldearren ur berrian.

29. Eta Abrahamek eta Nakorrek hartu zituzten emazteak. Abranen emaztearen izena izan zen Sarai:

eta Nakorren emaztearen izena izan zen Milka, Haranen alaba, Milkaren eta liskaren aita.

30. Eta Sarai agorra zen eta etzuen haurrikan.

31. Tarek hartu izan zituen bere semea Abram, eta Lot bere semearen semea zeña baitzen Haranen semea eta Sarai bere alaba ederra, bere seme Abraharen emaztea eta ilkhi izan ziren elkharrekiñ kaldearren ur herritikan, Kanaaneko herrirat goateko. Hala ethorri izan ziren Karaneraño eta egotu izan ziren han.

32. Eta Tareren egunak izatu ziren bi ehun eta bortz urthe, gero hill izan zen Karanen.

HAMABIGARREN KAPITULUA

Abranen bokazionearen deklarazioea zeñetan konfirmatua baita promes exelenten bidez.

*4 Haren arabera badabilla Kanaaneko herrian
7 eta egiten ditu aldareak:*

*10 bañan Kanaanetikan gosetez khasatua izaturik,
erretiratzen da Ejiptura:*

*14 non bere emaztea goratzen baitzaio
bere edertasuna dela kausa eta gero
bihurtzen baitzaio osorik aberastasun haundiekiñ
Jainkoaren probidentzia partikular batez.*

1. Eta Eternalak erran zioen Abrani, goan adi hire herritik eta hire ahaideen artetik: eta hire aitaren etxetik nik erakutsiko daroadan herrira.

2. Eta egiñaraziko aut nazione haundi bat, eta bedinkatuko aut, eta errendatuko diat haundi hire izena eta izango aiz benedizioea.

3. Bedinkatuko tiat hi bedinkatuko autenak: eta izango dituk bedinkatuak hitan lurreko familia guziak.

4. Abram beraz goan izan zen Eternalak erran zioen bezala eta Lot goan zen harekiñ. Eta Abranek

hirurhogoita hamabortz urtheren adiña zuen Karanetik kanpora ilkhi izan zen orduan.

5. Sarai bere emaztea ere hartu zuen Abranek eta Lot bere anaiaren semea eta bere ontasun irabazi zituzten guziak eta Karanen izatu zituzten presunak: hala ilkhi izan ziren ethortzeko Kanaaneko herrirat zeñetan sarthu izan baitziren.

6. Eta Abram iragan izan zen herritikan Sikemeko lekhuraño eta Moreko zelhaieraño, eta orduan herrian ziren kananearrak.

7. Eta Eternala agertu zitzaion Abrani, eta erranzioen, emanen ziotet herri hau hire ondokoei. Eta Abranek egin zioen han aldare bat Eternalari zeña agertu baitzitzaion.

8. Eta handikan aldaratu izan zen mendi aldera, Beth-El oriente aldera, eta hedatu zituen bere tabernakleak Beth-El zuela okzidentetik, eta bai orientetik: eta han egin zioen aldare bat Eternalari

9. gero Abram partitu zen handik zihoala eta aitzintzen zela eguberdi aldera

10. bañan emazte bat ethorri izan zen herrira, eta Abram iausti izan zen Ejiptura han bijaietan ibiltzeko. Ezen bazen herrian gosete haundi bat.

11. Eta gerthatu zen nola hurbiltzen baitzen Ejiptuan sartzeko, erran zioela Sarai bere emazteari, horra, baziñakusat emazte eder bat aizela ikhusteko

12. hargatik gerthatuko dun ejiptuarrek ikhusten auten orduan, erranen dutela, hau horren emaztea da eta hillen niauten, bañan hi bizirik utziko aute.

13. Erran zan beraz, othoizten aut, ene arreba aizela, hi aizela kausa niri ungi egin dakidantzat eta hi aizela moien ene bizia salba dadintzat.

14. Gerthatu zen beraz, Abram Ejiptura ethorri izan zen bezain sarri, ejiptuarrek ikhusi zutela emazte hura hagitz zela ederra.

15. Faraonen gortheiko buruzagiek ere ikhusi zuten haña eta laudatu zuten haren aitzinean: hala goratua izatu zen eramana izateko Faraonen etxera.

16. Zeñek ontasun egin baitzioen Abrani haren amoreagatik: ezen izatu zituen ardiak, idiak, astoak, muthillak, neskatoak, asto emeak, eta kameluak.

17. Bañan Eternalak iazarri zioen Faraoni plaga handiez baita haren etxeari ere, Sarai Abranen emaztea zela kausa.

18. Faraonek bada deithu izan zuen Abram eta erran zioen, zer egin dautak? Zergatik eztarotak deklaratu hire emaztea zela?

19. Zergatik erran duk ene arreba da? eta enetzat hartu nuen emaztetzat: bañan orai, horra hire emaztea, har ezak eta oha.

20. Eta eman zioten hartazko kargua presunaia batzuei, zeñek eraman izan baitzituzten hura, haren emaztea, eta haren ziren gauza guziak.

HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

Abram eta Lot Ejiptutik bihurtu eta apartatzen dire bata bertzeaganik.

10 Lot erretirutzen da Sodoma aldera.

12 Bañan Abram egoten da Kanaaneko herrian

*14 zeña berriz prometatua baitzaio launaz
baita ondore handi bat ere.*

1. Abram bada igan izan zen Ejiptutik eguberdi aldera, hura, haren emaztea, eta haren ziren gauza guziak, eta Lot harekiñ.

2. Eta Abram puxant egin zen abrebestietan, zillhar eta urretan.

3. Eta bihurtu izan zen eguberdiko bidetarik Beth-Elat, haren tabernakleak egiñ izatu ziren lekhura hastean Beth-El eta hai artean,

4. aldarea zen lekhuan zeña lehenik egin baitzuen han: eta han Abranek othoiztu zuen Eternalaren izena.

5. Lotek ere zeña baitzebillan Abranekiñ, bazituen ardiak, idiak eta tabernakleak.

6. Eta Lurrak eziñ ekhar zetzakeen hañak elkharrekiñ egoteko: ezen hekien ontasunak haundiak ziren, halako maneraz non eziñ egon baitzitezken elkharrekiñ.

7. Hargatikan mobitu zen disputa Abranen arthaldearen artzañen artean, eta Loten arthaldearen artzañen artean. Eta orduan zeudezen kananearrak eta feresiarrak herrian.

8. Eta Abranek erran zioen Loti, othoizten aut, ezten disputarik ene eta hire artean, ez eta ene eta hire artzañen artean ere, ezen anaiak gaituk.

9. Herri guzia ezta hire manuko? aparta adi, othoizten aut, eneganikan. Ezkerra agradatzen bazaik, goanen auk eskuñera: eta eskuña agradatzen bazaik, goanen auk ezkerrera.

10. Lotek beraz bere begiak altxatu eta ikhusi izan zuen lordango plano guzia zeña baitzen [Eternanalak Sodoma eta Gomorra hondatu baño lehenago] ihinztua alde guzietarik Tsoharrat ethor adiñ arteraño, Eternalaren baratzea bezala, eta Ejiptuko herria bezala.

11. Eta Lotek hautatu zuen beretzat lordango plano guzia, eta goan izan zen oriente aldera: hala apartatu izan ziren bata bertzeaganik.

12. Abram bada egotu zen Kanaango herrian, eta Lot egotu izan zen planoko hirietan eta han xuxendu zituen bere tabernakleak Sodomaraño.

13. Bañan ziren Sodomako iendeak gaxtoak eta hagitz bekhatoreak Eternalaren kontra.

14. Eta Eternalak erran zioen Abrani [Lot harengatik apartatu ondoan] altxa tzak orai hire begiak, eta begira zak aizen lekhotikan, setentrion, eguberdi, oriente, eta okzidente aldera.

15. Ezen emanen daroat hiri, eta hire ondoreari sekulako dakusaan herri guzia.

16. Hala egiñen diat hire ondorea izanen dela lurreko herrautsa bezala. Nihork konda ahal baldin badeza lurreko herrautsa hire ondorea ere izango duk kondatua.

17. Altxa adi beraz eta pasaia adi herrian, haren luzetasunean eta haren zabaltasunean: ezen emanen daroat.

18. Abram beraz, bere tabernakleak aldaratu eta, ethorri zen egotera Mamreko planotara, zeña baita Hebronan eta egin zioen han aldare bat Eternalari.

HAMALARGARREN KAPITULUA

*Sodomako eta Gomorrako Erregeen,
eta bertze adiskide eta hauzoen desagitea.*

12 Lot eramana da presonier

Planoko hiritako zakhuan

13 bañan begiratu da pillaia guziarekiñ

Abranen bidez.

18 Zeñak ematen baitio haren detxuma

Melkisedeki zeñez baita bedinkatua.

*21 Handik deusere beretzat iduki nahi eztuela bañan
uzten diotela bere adiskideei parte heldu zitzaiotena.*

1. Gero gerthatu zen Amrafel Szinharko Erregeren,
Araiok Ellasarko Erregeren, Kedor-Llahomer Helameko
Erregeren, eta Tidhal nazioeen Erregeren denboran,

2. horiok egin zutela gerla Berah Sodomako Erregeren
kontra eta Birsah Gomorrako Erregeren kontra,
eta Szinab Admako Erregeren kontra, eta Szemeber
Tseboimgo erregeren kontra, eta Belahko Erregeren
kontra, zeña baita Tsohar.

3. Hauk guziak bategin ziren Siddingo Zelhaiean, zeña baita itsaso gazia.

4. Zerbitzatu zuten hamabi urthez Kedor-Lahomer, bañan hamahirurgarrenean erreboltatu izan ziren.

5. Hamalaurgarren urthean beraz Kedor-Lahomer ethorri izan zen, eta Errege harekin zirenak: eta iazarrri zioten refeinarrei Karnaimgo Haszterothdan, eta zuzinarrei Hamen, eta eminarrei Kiriathaimgo planoan.

6. Eta horienarrei Skir bere mendian. Parango larreraño desertu gañean.

7. Gero bihurtu ziren eta ethorri ziren Miszpatko Henera, zeña baita Kades eta egin zuten hamalekitarren herri guzia, eta hamorheonarrek ere hatsatsontamarren zaudezenek.

8. Orduan ilkhi izan ziren Sodomako, Gomorrako, Admako, Tseboimgo eta tsoharrenden Belahko Erregeak, eta arrimatu zuten bere batailla bere armada Siddingo zelhaiean hekien kontra.

9. Erran nahi da Kedor-Lahomer Helamgo Erregeren kontra, eta Tidhal nazioneen Erregeren kontra, eta Amrafel Szinharko Erregeren kontra, eta Arjok Ellasarko Erregeren kontra. Laur Errege bortzen kontra.

10. Ordean Siddimgo Zelhaia alkaterna phutzuz bethea zen. Eta Sodomako eta Gomorrako Erregeak ihesi goan ziren eta han erori izan ziren eta gañerakoak ihes egin zuten mendirat.

11. Hartu zituzten bada Sodomako eta Gomorrako ontasun guztiak eta hekien ianhari guziak gero goan izan ziren.

12. Lot ere Abranen anaiaren semea hartu zuten eta haren ontasun guziak eta goan ziren. Ezen Sodomana egoten zen.

13. Handik itzuri izan zen zenbeit, ethorri zen Abram hebrearra abertitzera, zeña egoten baitzen Mamre amorhearraren, Eskolen eta Haneren anaia-
ren lanotegietan, zeñak baitziren Abranekiñ iuntatuak.

14. Abranek bada aditu zuen orduan haren anaia preso eramana izatu zela, armatu zituen hirur ehun eta hemezortzi haren etxean sorthurikako zerbitzarietarik hala iarraiki zitzaioten Daneraño.

15. Eta gabaz aurthiki izan zuen bere burua bandaka hekien gañera, hark eta haren zerbitzariak: eta iazarri izan zioten, eta ondotik iarraiki izan zitzaient Hobareraño, zeña baita Damasko ezkerretik.

16. Eta eraman zituen ontasun guziak, eta Lot bere anaia ere ekharri izan zuen, eta haren ontasun guziak: eta emazteak eta poblua ere.

17. Eta Sodomako Errege goan zitzaion aitziñera, nola bihurtzen baitzen desegiñikan Kedor-Lahomer eta Errege harekin zirenak Lanotegiko zelhaiean zeña baita zelhai Errealala.

18. Melkisede Salengo Erregek ere ekharri zituen ogia eta arnoa [eta hori zen lainko puxant soberanoaren sakrifikatzailea]

19. Eta bedinkatu zuen, ziotsala, bedinka bedi Abram lainko puxant, soberanoaz, zeru eta lurreko launaz

20. eta lauda bedi lainko puxant, soberanoa, zeñak ezarri baititu hire etsaiak hire eskuetan: eta Abranek eman zioen guzien hamargarrena detxuma.

21. Eta Sodomako Erregek erran zioen Abrani, indatzik presunak eta harretzak ontasunak hiretzat.

22. Eta Abranek erran zioen Sodomako Erregeri, altxatu zioat neure eskua Eternal lainko puxant, soberano, zeru eta Lurreko launari, diodala,

23. hartzen baldin badut deusik hire diren gauza guzietarik, oraño haribatetarik zapata lokharriraño: erran eztezaantzat aberastu dut Abram.

24. Lekhat solament presuna gazteek ian dutena, eta enekiñ ibilli diren gizonen partea, erran nahi da, Haner, Eszkol, eta Mamre, zeñek hartuko baitute bere partea.

HAMABORTZGARREN KAPITULUA

*Iainkoak erreberitzen dio Abrani
ondore haundi baten promesa.*

6 Hori siñhetsi eta iustificatua da.

*7 launak alientzia egiten du horrekiñ
konfirmatzen duela kanpotikako seña leez,
13 eta prometatzen duela emanen dioela
horren ondoreari Kanaango herria
laur ehun urtheren buruan.*

1. Gauza horion ondoan Eternalaren hitza adreztatu zitzaien Abrani bisionean ametsetan erraten zuela, Abram, ez adillala beldur, hire harroña eta hire golar-do haundia nauk ni.

2. Abranek ihardetsi izan zuen, laun Eternala, zer emanen darotak? Haur kastarik gabe niabillak: eta ene etxeko gobernua duena Dammesek Eliheser hau duk.

3. Abranek erran zuen oraño, horra, eztarotak eman ondokorik, haurrik eta horra, ene etxean sorthurikako muthilla izanen duk ene primu.

4. Eta horra Eternalaren hitza adrezatua izan zitzaion, erraten zuela, hori eztuk hire primu izanen: bañan hire erraietarik ilkhiko dena izanen duk hire primu.

5. Gero hura kanpora eraman izan zuen, eta erran izan zioen, begira zak orai zeruetara eta kondatzak izarrak, konda ahal badetzak, horrela izango duk hire ondorea.

6. Eta Abranek siñhetsi zuen Eternala eta hori iustiziatzat iduki izan zioen.

7. Gero erran zioen, Eternala nauk ni, kaldearren urtik ilkhiaz audana, hiri emateko herri hau posedi dezaantzat.

8. Eta erran zuen, laun Eternala, zertan ezagutuko dut hura posedituko dudala.

9. Eta ihardetsi zioen, har diezadak hirur urthetako bildots bat eta hirur urthetako ahuntz bat, eta hirur urthetako xikhiro bat, eta usotortoil bat eta uso bat.

10. Hartu zituen bada gauza horiok guziak, eta erditik egin zituen, eta eman zuen erdi bakhotxa bata bertzearen aitziñaz aitziñ: bañan etzituen xoriak erditik egiñ.

11. Orduan iautsi izan zen xori tropela bat gorp-hutz hekien gañera eta Abranek haizatu zituen.

11. Eta gerthatu izan zen, nola iguzkia estaltzen baitzen, lo haundi bat erori zela Abranen gañera, eta horra illhuntasun haundi izialdura bat erori zen haren gañera.

13. Eta Eternalak erran zioen Abrani, iakin zak egiaz hire ondorea egonen dela arrotz bezala haren ezten herrian: eta zerbitzatuko dituztela lekhuko iendeak, eta aflijitua izanen dela laur ehun urthez.

14. Bañan iuiatuko ere diat nik nazio hek zerbitzatu dutena: eta ondoan gero ilkhiko dituk ontasun haundiekiñ.

15. Eta hi goanen aiz hire aitengana bakean, eta ehortzia izango aiz zahartasun onean.

16. Laurgarren arrazan bihurtuko tuk hunat. Ezen Amorheen hobena eztuk oraño akhabatu.

17. Gerthatu ere zen, iguzkia estali eta, izatu zela illhuntasun bat osoki beltza: eta horra labe bat khea egiten duena, eta su illhiti bat zeña iragan baitzen erditik egiñ izatu ziren gauza hekien artetikan.

18. Egun hartan Eternalak tratatu zuen alientzia Abranekiñ, erraten zuela, eman zioat herri hori hire ondoreari, Ejiptuko ibaiatik ibaia haundiraño, erran nahi da, Eufrateko ibaia,

19. keniarrak, keniziarrak, kadmoniarrak,

20. hetiararak, fereziararak, refearrak,

21. amorheararak, kananearak, girgasziararak eta
iebusiararak.

HAMASEIGARREN KAPITULUA

Sarai agorrak ematen dio emaztetzat

Abrani Agar bere neskatoa.

4 Agarrekin, konzebitu eta arbuiatzen du bere andrea.

3 Zeñetaz gaizki tratatua izanik ihesi goaten baita.

7 Bañan bihurtu eta aingeruaren abisu eta promesaren arabera, erditzen zaio Ismaelez Abrani laurhogoi eta sei urtheren adiña duenari.

1. Saraik bada Abranen emazteak etzioen egiñ haur batere: bañan bazuen neskato bat ejiptuarra Agar zeritzana.

2. Hala erran zioen, horra orai Eternalak debekatu niauk haur egitetik, athor, othoizten aut, ene neskato-agana, benturaz haurkasta izango diat haren bidez eta Abranek obeditu zioen Sarairen hitzari.

3. Sarai Abranen emazteak bada hartu zuen Agar bere neskato ejiptziarra eta eman zioen emaztetzat Abram bere senharrari, hamar urthez Kanaango herrian egotu ondoan.

4. Ethorri zen bada Agargana, zeñak kontzebitu baitzuen eta ikhusirik kontzebitu zuela, mesprezio egin zuen bere Andream.

5. Orduan Saraik erran zioen Abrani, egiten darotaten injuria hire gañera heldu duk: neure neskatoa ematen daroat hire galtzarbean: bañan ikhusi dik kontzebitu zuela, horrengatik mesprezio egiten dik nitaz. Eternalak iuiatzen dik ene eta hire artean.

6. Orduan Abranek ihardetsi zioen Sarairi, horra hire neskatoa heure eskuan dun, egin dion nahi dunan bezala. Saraik bada aflijitu zuen haña eta ihesi goan zen haren aitziañetikan.

7. Bañan Eternalaren aurkhitu izan zuen haña ithurri ur baten aldean, desertuan, Szurreko bidean den ithurriaren ondoan.

8. Hala erran zioen, Agar Sarairen neskatoa, non-dik heldu aiz? eta norat oha? eta ihardetsi zuen, ihesi nihoak Sarai ene etxeko andreamen aitziañetik.

9. Eta Eternalaren aingeruak erran zioen, bihur adi hire etxeko andreama, eta humilia adi haren azpian.

10. Gehiago Eternalaren aingeruak erran zioen, berretuko diat hagitz hire ondorea: halako maneraz non ezin kondatuko baita hañ haundia izanen duk.

11. Eternalaren aingeruak erran zioen oraño horra, kontzebitu dun, eta erdiko aiz seme batez, zeñaren izena deithuko baithun Ismael: ezen Eternalak entzun diñ hire aflikziona.

12. Eta haña izanen dun gizona basa astoa: horren eskua izanen dun batbederaren kontra, eta batbederaren eskuak horren kontra: bere anaia guzien eskoñean egongo da.

13. Hark bada deithu zuen Eternalaren izen hari minzaten zitzaiona, bisioneko lainko borthitza aiz hi. Ezen erran zuen eztut nik oraño ikhusi hemen ni ikhusten ninduenaren ondoan?

14. Hargatik deithu zuten phutzu hori, bizi den ni ikhusten nauenaren phutzua, zeña baita Kades eta Bereden artean.

15. Agarrek bada egin zioen seme bat Abrani. eta Abranek deithu zuen bere seme Agarrek egin zioenaren izena Ismael.

16. Eta Abranek laur hogoi eta sei urtheren adiña zuen, Agar Ismelez erdi izan zitzaion orduan.

HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

*Iainkoak ezartzen du bere sekulako
alientzia Abranekiñ,
ganbiatzen dioe Abranen izena Abraham izenera.*

*7 Prometatzen du bere aldetik
izanen dela Abrahamen
eta haren ondorearen Iainkoa eta haren eta haren
ondokoei galdetzen diote,
ibill daitezela haren aitziñean.*

*10 Ordenatzen du zirkontzizionea
alientziaren señaletzat
eta ganbiatzen du Sarai izena Sara izenera,*

*19 prometatzen duela Isaak zeñari
konfirmatu nahi baitio bere alientzia.*

*23 Abrahamek Iainkoari obeditzen dioela,
bere burua zirkontzizatzen du bere iende guziekiñ.*

1. Gero Abrahamek laurhogoi eta hemeretzi urthe-
ren adiña zuela, Eternala agertu zitzaion eta erran
zioen, ni nauk Iainko borthitza, hagitz puxanta. Ibill adi
ene aitziñean, eta izan adi oso.

2. Eta ezarriko diat ene alientzia ene eta hire artean eta berretuko aut hagitz largoki.

3. Orduan Abraham erori zen bere bisaiaren gañera: eta lainkoa mintzatu zitzaion, zioela,

4. nitaz denaz bezanbatean, horra, ene alientzia hirekin duk, eta egingo aiz hauñitz nazioneren aita,

5. eta hire izena eztuk gehiago izendatuko Abram, bañan hire izena izanen duk Abraham: ezen ezarri aut hauñitz nazioneren aitatzat,

6. eta-berretaraziko aut hagitz largoki eta egiñaraziko nazione: oraño Erregeak ilkhiko dituk hireganik.

7. Ezarriko diat beraz ene alientzia ene eta hire artean eta hire ondorearen artean hire ondoan bere adiñetan, izateko sekulako alientzia bat: ni hiri lainko izan nakiantzat, eta hire ondoreari hire ondoan

8. eta emanen daroat hiri eta hire ondoreari hire ondoan arrotz bezala hi agoen herria, erran nahi da, Kanaango herri guzia sekulako posesionetzat: eta hei lainko izanen niatzaiotek.

9. Abrahami ere erran zioen lainkoak, bañan hik, begiratuko duk ene alientzia, hik eta hire ondoreak hire ondoan bere adiñetan.

10. Hemen duk ene alientzia zeña begiratuko baituzue ene eta zuen artean, eta hire ondorearen artean

hire ondoan: erran nahi da, zuen arteko har guziak zirkuntzizatuko direla.

11. Horrela zirkuntzizatuko duzue zuen prepuzioko haragia eta hori izanen da ene eta zuen arteko señaletzat.

12. Zortzi urthetako haur guziak zirkuntzizatuko dire zuen artean zuen ienerazionetan, hanbat etxean sorthu dena nola arrotz guzien diruz erosirikako eskla-boa hire kastatik eztena.

13. Eztitek beraz faltatuko zirkuntzizatzeraz hire etxean sorthu dena, eta hire diruaz eresia dena, eta izanen duk ene alientzia zuen haragian, izateko sekulako alientzia bat.

14. Eta har ez zirkuntzizatuturikakoa, zeñaren prepuzioko haragia ezpaita zirkuntzizatua izatu, harako presuna hura khendua izango duk bere pobluen arte-
tik, zeren eta hautsi izan baitu ene alientzia.

15. Oraño lainkoak erran zioen Abrahami, Sarai hire emazteaz denaz bezanbatean eztuk deithuko gehiago haren izena Sarai, bañan haren izena izanen duk Sara.

16. Eta bedinkatuko diat haña: eta oraño emanen daroat seme bat harenganik. Bedinkatuko diat eta

egingo duk nazione: eta pobluen Erregeak ilkhiko dituk harenganik.

17. Abraham beraz erori izan bere bisaiaren gañera eta egin zuen hirritxo bat, ziotsala bere baithan, erran nahi da, ea ehun urtheren adiñetako gizonari sor ahal dakikeon arraza? eta Sarak laurhogoi eta bederatzi urtheren adiñean haurra egin dezan?

18. Eta Abrahamek erran zioen lainkoari oxola bada Ismael bizi dadiñ hire aitzinean.

19. Eta lainkoak erran zuen, egiaz Sara hire emaztea erdiko zaik seme batez, eta deithuko duk haren izena Isaak eta ezarriko diat ene alientzia harekiñ izateko sekulako alientzia bat haren ondorearentzat haren ondoan.

20. Entzun izatu aut oraño Ismaelez denaz bezanbanean. Horra, bedinkatu diat haña eta berretaraziko eta haundiaraziko diat xoill hagitz frankoki. Enjendratuko tik hamabi printze: eta egiñaraziko diat nazione haundi bat.

21. Bañan ezarriko diat ene alientzia Isaakekiñ, zeñetaz Sara erdiko baita dathorren urthean sasoñ huntan berean.

22. eta akhabatu zuen harekiko mintzatzea: eta lainkoa igan izan zen Abrahamen aitzineetik.

23. Eta Abrahamek hartu zuen bere semea Ismael, eta haren etxean sorthurikako guziak, eta bere diruaz erosi zituen guziak, erran nahi da, haren etxeko iendetarik ziren har guziak: eta zirkuntzisu zuen hekien prepuzioko haragia egun hartan berean, lainkoak erran izan zioen bezala.

24. Abrahamek laurhogoi eta hemeretzi urtheren adiña zuen, bere burua zirkuntzisu zuen orduan bere prepuzioko haragian.

25. Eta Ismael haren semea hamahirur urtheren adiñean zen, zirkuntzisu izatu zen orduan bere prepuzioko haragian.

26. Egun hartan berean Abraham zirkuntzisu izan zen: eta Ismael haren semea.

27. Eta haren etxeko iende guziak, hanbat etxean sorthu zirenak, nola diruz arrotzetarik errosiak izatu zirenak zirkuntzisuak izatu ziren harekiñ.

HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

Abrahamek bereganatzen ditu aingeruak

9 zeñek erreberitzen baitiote

Sarari Isaakezko promesa.

12 Zeñetaz hura hirri egiñ

eta erreprehenditua baita launaz.

10 Sodomaren destrukziora hurbilla.

Eternalak Abrahami deklaratu eta othoitz egiten du

Abrahamek lainkoak destruitu nahi zituen hirientzat,

han aurkhi ahal bazitezen kasuan

hamar gizon prestutaraño.

1. Gero Eternala agertu zitzaion hari Mamreko lekhu zelhaietan nola iarririk baitzegoen tabernakleko atxean eguneko beroan.

2. Ezen bere begiak altxatzen zituela begiratu zuen: eta horra, hirur personaia zihatozen harengana eta hark, hek ikhusi eta laster egin zuen hekien aitzinañera tabernakleko atxetik, eta ahuspez iarri izan zen lurrean.

3. Eta erran izan zuen, ene launa, othoizten aut, aurkhitu baldin badut grazia hire baithan, ezadillala iragan, othoizten aut, hire muthillaz haratago.

4. Har bezate, othoizten zaituztet, ur xorta bat eta garbitzatzue zuen oñak: gero errepausa zaitezte arbolaren baten azpian.

5. Eta ekharriko dut ogi pozin bat, zuen bihotza borthitz dezazuentzat: ondoan gero iraganen zarete haratago: ezen hargatik zarete iragan zuen muthillagana, eta hek erran zuten, egik erran duan bezala.

6. Abraham bada goan izan zen laster tabernaklara Sararengana eta erran zuen, khexa adi, hartzatzik hirur neurri irin lore, orhatzak eta egitzik ophillak.

7. Gero Abraham kurri goan zen arthaldera, eta hartu zuen xahal samur, eta on bat eta eman zioen muthill bati zeña khexatu baitzen haren alogatzera.

8. Gero hartu zuen burra eta esnea eta xahal alogatu zutena, eta ezarri zuen hekien aitziñean. Hura ere hekien ondoan zegoen arbolaren azpian, eta ian zuten.

9. Eta erran zioten, non da Sara hire emaztea? eta ihardetsi zuen, hara non den tabernaklean

10. Eta hekien arteko batek erran zuen, eztiat faltatuko bihurtzera hiregana denbora huntan berean

non baikare: eta horra, Sara hire emazteak izanen dik seme bat. eta Sarak entzuten zuen haña tabernakleko athean, zeña baitzen haren gibelean.

11. Bañan Abraham eta Sara zaharrak ziren, eta aintzinduak adiñean halako manieraz non Sarak ezpaitzuen gehiago emazteak izatera kostumatu duten hura.

12. Eta Sarak hirri egin zuen bere baithan, ziotsala, zahartu eta, izanen dut nik atsegiñik? Gehiago ene launa zaharra da.

13. Eternalak erran zioen Abrahami, zergatik hirri egin du Sarak, erraten duela, bañan egiaz haurra egingo dut nik, ikhusirik zahartu naizela?

14. Bada gauza batere Eternalari gorderizakorik? Bihurtuko nauk hiregana sasoñ huntan denbora huntan berean non baikare eta Sarak izanen dik seme bat.

15. Sarak ukhatu zuen, ziotsala, eztiat hirri egiñ: ezen beldurtu zen. Eta erran zuen, eztun horrela: ezen hirri egin dun.

16. Gero personaia hek altxatu ziren handik, eta begiratu zuten Sodoma aldera: eta Abraham hekiekiñ goaten zen, laguntzen zituela,

17. eta Eternalak erran zuen, estaliko Abrahami egitera nohan gauza?

18. Iklusirik Abraham, egin behar dela egiazki nazione haundi eta borthitz bat eta hartan izango direla bedinkatuak lurreko nazione guziak?

19. Ezen badakusat manatuko diotela bere haurrei, eta bere etxeari bere ondoan, begira dezatela Eternalaren bidea, egiteko iustu eta zuzen dena: Eternalak ethor eragin detzan Abrahamen gañera erran diotzan gauza guziak.

20. Eta Eternalak erran zuen egiaz Sodoma eta Gomorrako oihua haunditu da, eta hekien bekhatua hagitz pisatu da.

21. Iautsiko naiz orai, eta ikhusiko dut, erran nahi da, ea egin duten osoki enegana ethorri izan den oihuaren arabera, eta horrela baldin bada, iakingo dut.

22. Personaia hek bada handik bihurtzen zirela bazihoazen Sodoma aldera bañan Abraham egotu oraño Eternalaren aitziñean

23. eta Abraham hurbildu zen eta erran zuen, desegiñen duk orobat iustua gaxtoarekiñ?

24. Benturaz baituk berrogoi eta hamar iustu hirian barna, hek ere desegingo dituk? eztiok barkha-

tuko hiriari han izanen diren berrogoi eta hamar iustuengatik?

25. Eztakiala gertha egin dezakala horlako gauza bat hill eragin dezakala iustua gaxtoarekiñ eta izan dadillala iustua gaxtoa baño ez gehiago ez gutiago. Eztakiala gertha, zioat. Lur guzia iuiatzen duenak eztu egiñen iustizia.

26. Eta Eternalak erran zuen, aurkhitzen baldin baitut Sodomak berrogoi eta hamar iustu hirian barna, barkhatuko diot lekhu guziari hekien amoreagatik.

27. Eta Abrahamek ihardetsi zuen, ziotsala, horra orai hartu diat ausartzia mintzatzeko launari, herrauts eta hauts naizelarik.

28. Benturaz eskas izanen dituk bortz berrogoi eta hamar iustuetarik, hondatuko duk hiri guzia bortzen-gatik? eta ihardetsi zioen, eztiat hondatuko, han aurkhitzen baldin baitut hetarik berrogoi eta bortz.

29. Abrahamek persegitu zuen hari mintzatzera, ziotsala, beharbada aurkhituko dire han hetarik berrogoi? eta erran zuen, eztiat egingo berrogoien amoreagatik.

30. Eta Abrahamek erran zuen, othoi launa estadi-llala hasarra, eta mintzatzeko nauk: beharbada aurkhi-

tuko dire hetarik hogoi eta hamar? Eta erran zuen eztiat egingo, han hetarik hogoi eta hamar aurkhitzen baldin baitut.

31. Eta Abrahamek erran zuen, horra orai hartu diat ausartzia launari mintzatzeko: benturaz aurkhituko dire hogoi? Eta erran zuen eztiat hondatuko hogoi en amoreagatik.

32. Eta Abrahamek erran zuen, othoi launa eztadi-llala hasarra, eta mintzatuko nauk solament aldi huntan beharbada aurkhituko dire han hetarik hamar? Eta erran zuen, eztiat hondatuko hamarren amoreagatik.

33. Eta Eternala goan izan zen akhabatu zuen orduan Abrahamekintz mintzatzea. Eta Abraham bihurtu izantzen bere lekhura.

HEMERETZIGARREN KAPITULUA

*Bi aingeru Sodomaren hondatzera egorriak
alojitzen dire Loten etxean.*

*4 Sodomarrak Loti bortxa egin nahi diotenak
itsutzen dituzte aingeruek,
Lot lehenik etxera erretiratu ondoan.*

*16 Aingeruek gidatzen dute Lot hiritik kanpora
bere famillarekiñ eta Lotek ardiesten du
aingeruenganik Tsoharko hirian salbatzea.*

*24 Sodoma eta lekhuzelhaieko hiriak
hondatuak su eta sufre uri batez.*

*26 Loten emaztea turnatua gatzezko imajina.
30 Lot mendian dagoela, haren alabek
bekhatu egiten dute harekiñ,
hortik sortzen dire Moab eta Hammon.*

1. Aratsaldean bada bi aingeru ethorri izan ziren Sodomara eta Lot iarririk zegoen Sodomako athean: eta hek ikhusi eta iaiki zen goateko hekien aitziñera eta iarri izan zen ahuspez bisaia lurraren kontra.

2. Eta erran zuen, horra, othoizten zaituztet, launak erretira zaitezte orai zuen muthillaren etxera, eta han aloji zaitezte gaurko gauaz: zuen oñak ere garbitzatzue: eta iaikiko zarete goiz, eta goango zarete zuen bidean. Zeñek ihardetsi baitzuten, ez: bañan iraganen diagu gaurko gaua karrikan.

3. Bañan hanbat khexarazi zituen hañak non erretiratu baitziren haren etxera. Eta haren etxean sarthu zirenean, egin zioten banket bat, eta errearazi zituen lemamirik gabeko ogiak, hala ian izan zuten.

4. Bañan hek etzitera goan baño lehen, hiriko gizonek, erran nahi dut, Sodomako gizonek inguratu zuten etxea, gaztetik zaharreraño, poblu guziak buru batetik bertzeraño.

5. Eta Lot deithu eta, erran zioten, non dire personaiak gaur, gauaz hire etxera ethorri direnak? Hek ekhar dietzaguk kanpora, ezagut detzaguntzat.

6. Lot bada ilkhi izan zen kanpora hekiengana athera eta bere ondoan athea zarratu eta,

7. erran zuen, othoizten zaituztet, ene anaiak, eztiozozuetela egin gaizkirik.

8. Horra, baitut bi alaba zeñek ezpaitute ezagutu oraño gizonek: ekhar dietzakitzuedan, eta hetaz egiñen duke nahi duzuen bezala, solament eztiozozuen

egin deusera personaia horioi: ezen horrengatik ethorri izatu dire ene etxetheillaren itzalera.

9. Eta hek erran izan zioten, erretira adi harat. Gero erran zuten, huna hau xoillki ethorri duk hemen egotera arrotz bezala, eta izanen gobernadore haundi? Orai egiñen daroagu hiri hei gaizkiago. Hala bortxa handia egiten zioten Loti, eta hurbildu izan ziren athea hausteko.

10. bañan personaiek bere eskuak aitzintzen zituztela, erretiratu zuten Lot beregana etxera: eta zarratu zuten athea

11. eta io zituzten itsutasunez gizon etxeko athean zirenak, ttipitik haundiraño: hargatik unhatu izan ziren athea bilhatzen.

12. Orduan personaiek erran zioten Loti, nor da oraño hiri heldu zaianik, edo suhi, edo seme, edo alaba, edo bertze zenbeit hiri heldu zaianik hirian? Erretiratzak lekhu huntarik.

13. Ezen lekhu hau hondatzera gihoazek zeren eta horion oihua haundi egin baita Eternalaren aitziñean: eta horren hondatzera bidaldu giatik.

14. Lot bada ilkhi izan zen, eta mintzatu zitzaioten bere suhiei, zeñek hartu behar baitzituzten haren alabak, eta erran zuen, iaiki zaitezte, ilkhi zaitezte lekhu

huntarik, ezen Eternala hiria hondatzera doha bañan iduritzen zitzairen haren suhie, trufatzen zela.

15. Gero argi alba altxatu zen bezain sarri: Aingeruek khexarazi zuten Lot, erraten zutela, iaiki adi, hartzak hire emaztea eta hire bi seme hemen aurkhitzen direnak gal ezadiñ beldurrez hiriaren punizionean.

16. Eta nola berantesten baitzuen, personaiek hartu zioten eskua, eta haren emaztearen eskua, eta haren bi alabena zeren eta Eternalak guphitesten baitzuen: hala eraman zuten eta ezarri zuten hiritik kanpoan.

17. Eta kanpoan ezarri zituzten bezain sarri, erran izan zuen batek, salbak zak hire bizia, ez begira hire gibelera, eta ezadillala geldi nihonere lekhu zelhaiean. Salba adi mendira, gal ezadin beldurrez.

18. Eta Lotek ihardetsi zioite ez launa, othoizten aut.

19. Horra, hire muthillak orai aurkhitu dik grazia hire aitziñean eta grazia egin darotakana miragarriki duk haundia, ene biziaren salbatzea. Bañan ezin salbatuko naite mendira, non ez nauen gaitzak ardiesten eta ez nadiñ hill.

20. Horra, othoizten aut harako hiri hura hurbil duk nik harat ihes egiteko, eta ttipia duk: othoizten aut, salba nadiñ harat: ezta ttipia, eta ene arima biziko da?

21. Eta erran zioen, horra, egiñ huntan ere entzun izatu aut: eztudala hondatuko hiria zeñetaz hi mintzatu izan bahaiz.

22. Khexa adi, salba adi harat: ezen eziñ egingo diat deusere, hi han sar adiñ arteraño. Hargatik deitua izatu zen hiri haren izena Tsohar.

23. Nola iguzkia altxatzen baitzen lurraren gañera, Lot sarthu izan zen Tsoharren.

24. Eternalak bada egin zuen uria zeruetarik Sodoma eta Gomorraren gañera, sufrea eta suba Eternalaren partez.

25. Eta hondatu zituen hiri hek, eta lekhu zelhai guzia eta hiritako habitant guziak eta Lurreko sorkiia.

26. Bañan Loten emazteak begiratu izan zuen haren gibelera, horrengatik egiñ izan zen gatz estok imajina.

27. Eta Abraham goizgoizean iaiki eta lekhura non egotu izan baitzen Eternalaren aitziñean.

28. Eta begiratu zuen Sodoma eta Gomorra aldera eta lekhu zelhai hartako lur guzietara, eta ikhusi izan

zuen khe bat igaten lurretik labe batetako khea beza-
la.

29. Bañan gerthatu zen lainkoak hondatzen zitue-
nean lekhu zelhaieko hiriak, orhoitu izan zela Abraha-
nez: eta bidaldu zuela Lot hondamendutik kanpora,
hondatu izan zituen orduan hiriak zeñetan egoten bai-
tzen Lot.

30. Eta Lot igan izan zen Tsohartik, eta egotu zen
mendian, eta haren bi alabak harekiñ: ezen beldur zen
egoteaz Tsoharren, hargatik egotu izan arroka zillho
batean hura eta haren bi alabak.

31. Eta lehensorthuak erran zioen gazteenari,
gure aita zaharra dun, eta hala eztun nihor lurrean
ethortzeko guregana Lur guziko usantzaren arabera.

32. Athor, eman diozogun arnoa edatera gure aita-
ri eta etzan gaitezen harekiñ: hala kontzerbatuko
diñagu gure aitaren zerbeit kasta.

33. Eman zioten bada arnoa edatera bere aitari
gau hartan: eta zaharrena ethorri zen eta etzan izatu
zen bere aitarekiñ bañan etzuen ezagutu ez noiz
etzan izan zen, ez noiz iaiki zen.

34. Eta biharamuna ethorri eta, zaharrenak erran
zioen gazteenari, horra, etzatu naun iragan gauean
ene aitarekiñ, eman diozogun oraño gaurgauaz arnoa

edatera: gero oha, eta etzan adi harekiñ, hala kontzerbatuko diñagu gure aitaren zerbeit arraza.

35. gau hartan bada eman zioten oraño arnoa edatera bere aitari: eta gazteena iaiki izan zen eta etzintzen harekiñ: bañan etzuen ezagutu ez noiz etzin zen, ez noiz iaiki zen.

36. Hala Loten bi alabek kontzebitu zuten bere aitaganik.

37. Zeñetarik zaharrena erdi izan baitzen seme batez, eta deithu baitzuen haren izena Moab, hori da moabiarren aita gaurko egun huntaraño.

38. Eta gazteena ere erdi izan zen seme batez eta deithu zuen haren izena Ben-hammi. Hori da Hammonnen hurren aita gaurko egun huntaraño.

HOGOIGARREN KAPITULUA

*Abrahamek egoitza egiten du Geraren,
non altxatua baita haren emaztea
Abimelek Erregeaz,*

*3 zeñak hori dela kausa hagitx erreprehenditua
eta punitua izatu eta launaz,*

9 errendatzen baitio Sara osorik Abrahami.

14 Zeñari egiten baitiotza present haundiak

*17 eta ondoan sendatua da bere familia guziarekiñ
Abrahamen othoitzua dela kausa.*

1. Eta Abraham goan izan zen handik eguberdiko herrira: eta egotu izan zen Kadesen eta Szurren artean, eta egotu izan zen arrotz bezala Geraren.

2. Eta Abrahamek erran zuen Sara bere emazteaz, ene arreba da. Abimelek bada Gerarko Erregeak bidaldu zuen eta hartu zuen Sara.

3. Bañan lainkoa ethorri zitzaion Abimeleki gabazko ametsetan: eta erran zioen, horra, hill aiz, hartu duan emaztea dela kausa: ezen ezkondua duk senhar batekiñ.

4. Eta Abimelek etzitzaion hurbildu hari ihardetsi zuen bada, launa, hillen duk nazione iustua ere?

5. Eztarot erran, ene arreba da? eta erran du hark berak ere, ene anaia da. Hori egin diat nik ene bihotzeko osotasunean eta ene eskuetako garbitasunean.

6. Eta lainkoak erran zioen ametsetan, bazeakiat egin duala hori hire bihotzeko osotasunean, hargatik guardatu ere aut ez bekhatu egitetik ene kontra. Horrengatikan eztaroat permetitu hura ukitzera.

7. Orai bada errenda diozok emaztea gizon horri: ezen profeta duk, eta egiñen dik othoitz hiretzat, bizi adintzat, bañan errendatzen ezpaduk, iakintzak hillen aizela heriotzez, eta hire diren guziak.

8. Eta Abimelek iaiki izan zen goizgoizean eta deithu zituen bere muthil guziak, eta erran zituen gauza horiok guziak, hek aditzen zutela zerengatik hagitz beldurtu baitziren.

9. Gero Abimelek deithu izan zuen Abraham, eta erran zioen, zer egin darokuk? Eta zertan ofentsatu aut, ekharrarazi izatu duan ene gañera eta ene erresumaren gañera bekhatu haundi bat? Egin darozkidak egiteko eztiren gauzak.

10. Abimelek erran zioen oraño Abrahani, zer ikhusi duk, zergatik egin duan gauza hau?

11. Eta Abrahamek ihardetsi zuen, zeren eta erra-
ten bainuen, hanbatenaz ezpaita lainkoaren beldurta-
sunik lekhu huntan, eta hillko naute ene emaztea dela
kausa.

12. Bañan oraño egiazki ene arreba da, ene aita-
ren alaba: ene amaren alaba ezten arren eta hala
eman izatu zait emaztetzat.

13. Eta gerthatu izan da, lainkoak eraman nauen
orduan harat hunat, ene aitaren etxetik kanpora,
erran izan diodala, hemen dun grazia hik niri egiñen
darotanana: ethorriko garen lekhu guzietan, erran
nitaz, ene anaia da.

14. Orduan Abimelek hartu zituen ardiak, idiak,
muthillak eta neskatoak, eta eman ziotzan Abrahami,
eta errendatu zioen Sara bere emaztea.

15. Eta erran zuen, horra, ene herria hire manuko:
egon adi non ere plazer izanen baituk eta han.

16. Eta erran zioen Sarari, horra, eman ziotzanat
hire anaiari milla zillhar pheza: horra, begi estalki bat
zaiñ hiri hirekin diren guzien aldera, eta bertze guzien
aldera: horrela izatu zen erreprehenditua.

17. Eta Abranek egin zioen eskea lainkoari: eta
lainkoak sendatu zuen Abimelek, haren emaztea, eta
haren neskatoak: gero haurrak egin zituzten.

18. Ezen Eternalak herstu zituen osoki Abimelen etxeko emasabel guziak, Sara Abrahamanen emaztea zela kausa.

HOGOIETABATGARREN KAPITULUA

*Isaak Sararenganik sorthu eta,
lainkoaren promesaren arabera
zirzuntzizatusa da zortzigarren egunean
8 bulharretik khendua den denboran,
Ismael hartaz trufatzen da eta khasatusa da
lainkoaren manuz, zeñak prometetzen baitio
hazia Abrahami Isaaken baithan.*

*17 Agar kontsolatusa da launaren aingeruaz,
zeñak konfirmatzen baitio promesa
Ismaelen ondoreaz.*

*22 Abrahamek egiten du alientzia Abrahamekiñ eta
kobratzen du bortxaz eraman izan zitzaion phutzua.*

1. Eta Eternalak bisitatu zuen Sara, erran izan zuen bezala; eta egiñ izan zioen nola ere mintzatu baitzen eta hala.

2. Sarak bada kontzebitu zuen, eta egin zioen seme bat Abrahami bere zahartasunean, lainkoak erran izan zioen sasoñean.

3. Eta Abrahamek deithu zuen bere seme [sorthu zitzaionaren, eta Sarak egin zioenaren izena] Isaak.

4. Gero Abrahamek zirkuntzisu zuen bere semea Isaak zortzi urtheren adiñetako, lainkoak manatu zioen bezala.

5. Eta Abrahamek ehun urtheren adiña zuen, Isaak bere semea sorthu zitzaion orduan.

6. Eta Sarak erran zuen, lainkoak hirri eragin darot: adituko duten guziek hirri egingo dute enekiñ.

7. Erran zuen oraño, nork errango zioen Abrahami, Sarak bulharra emanen ziotela hurrei? Ezen egin diot seme bat bere zahartasunean.

8. Eta haurra handitu izan zen eta bulharretik khendu: eta Abrahamek egin zuen banket haundi bat Isaak bulharretik khendu izatu zen egunean.

9. eta Sarak ikhusi zuen Agar ejiptuarraren semea [Abrahami egin zioena] musikatzen zela,

10. eta erran zioen Abrahami, khasa zak hunako neskato hau eta horren semea: ezen neskato hunen semeak ez tik primutuko ene Semearekiñ, Isaakekiñ.

11. Eta horrek hagitz desplazer egin zioen Abrahami bere Semearen okhasionez.

12. Bañan lainkoak erran zioen Abrahami, horrek eztiazakala desplazer egiñ haurraz eta neskatoaz.

Sarak erranen darozkian gauza guzietan obedi diozok haren hitzari: ezen Isaaken baithan deithuko zaik hazia.

13. Eta bitartean egiñaraziko diat oraño neskatoaren semea nazione bat, zeren eta hire hazia baita.

14. Abraham beraz iaiki izan zen goiz goizetik eta hartu zuen ogia eta flasku bat ur, eta eman ziotzan Agarri, ezartzen zituela haren sorbalda gañean: eman zioen, haurra ere, eta bidaldu zuen. Gero eman zitzaion bideari, eta errebelaturik ibilli izan zen. Beer-Szebahko desertuan.

15. Eta flasku ura faltatu izatu zen orduan, aurthiki zuen haurra arbolatxo baten azpira.

16. Hala goan izan zen, eta iarri zen aitziñaz aitziñ, urrun balesta aurthik kolpe bat bezala: ezen erran zuen eztezadan ikhus hiltzen haurra. Eta iarririk zegoela aitziñaz aitziñ, bere boza altxatu zuen eta nigar egin zuen.

17. Eta lainkoak aditu zuen hurraren boza, lainkoaren angeruak deithu zuen zeruetarik Agar: eta erran zioen zer dun, Agar? eztunala beldurrik, ezen lainkoak aditu diñ hurraren boza, den lekhotik.

18. Iaiki adi, altxa zan haurra eta hartzan hire eskuarekiñ: ezen egiñaraziko diñat nazione haundi bat.

19. Eta lainkoak ideki zituen haren begiak, eta ikhusi izan zuen urphutzu bat eta goan izan zen eta bethe izan zuen flaskua urez eta eman zioen edatera haurrari.

20. Eta lainkoa izatu zen haurrarekiñ, zeña haundi egin baitzen, eta egotu zen desertuan, eta izatu izan zen balesta aurthikitzaille.

21. Eta egotu izan zen Parango desertuan, eta bere Amak hartu zioen emazte bat Ejiptuko herritik.

22. Eta gerthatu zen denbora hartan, Abimelek eta Pikol haren armadako buruzagia, mintzatu zitziola Abrahami, ziotsala, lainkoa hirekin duk egiten dituan gauza guzietan.

23. Orai bada, iuramentu egin diezadak hemen lainkoaren partez, estarotakala erranen gezurrik niri, ez ene hurrei, ez ene hurren hurrei. Nik hiri egin daroadan graziaren arabera, hik egiñen darotak, niri eta hi arrotz bezala egotu aizen herriari.

24. Abrahamek ihardetsi izan zuen, iuramentu egiñen diat.

25. Bañan Abrahamek erreprehenditu zuen Abimele urphutzu bat zela kausa, zeña Abimeleken muthillek okupatu baitzuten bortxaz.

26. Eta Abimelek erran zuen, eztiat iakiñ izatu nork egiñ izatu duen gauza hura eta hik abertitu ere eznauk, eta eztiat hartaz oraño aditu mintzatzen egun baizen.

27. Abrahamek bada hartu zituen ardiak, eta idiak, eta eman ziotzan Abimeleki, eta egin zuten alientzia elkharren artean.

28. Eta Abrahamek eman zituen aparteaz zazpi bildots eme artzain tegitik, arthalde tegitik,

29. eta Abimelek erran zioen Abrahami, zer erran nahi dute harako zazpi bildots aparteaz eman dituan hek?

30. Eta ihardetsi zuen, hori duk hartuko dituala zazpi bildots hek ene eskutikan: hek niri lekhukotzat izan dakizkidantzat zillhatu dudala hunako phutzu hau.

31. Eta horrengatik deithu izan zuten lekhu hura, Beer-Szebah: ezen biek han iuramentu egiñ izan zuten.

32. Tratatu zuten bada alientzia Beer-Szebahn gero iaiki izan zen Abimelek eta Pikol haren armadako buruzagia, eta bihurtu ziren filistintarren herrira.

33. Eta Abrahamek landatu zuen hariz tegi bat Beer-Szebahn, eta han inbokatu zuen Eternalaren izena eternitateko lainko borthitza.

34. Eta Abraham egotu izan zen arrotz bezala filistintarren herrian denbora luzea.

HOGOIETABIGARREN KAPITULUA

*lainkoak frogatzeagatik Abrahamen fedea
manatzen du Isaken sakrifikatzer.*

*3 Abrahamek obeditzen dio launari eta
eramaten du bere semea erakusten zaion lekhura:*

*10 Bañan haña sakrifikatzer dohan pontuan,
debekatua da aingeruaren bozaz*

*13 eta ofrendatzen du holokaustatzat
lainkoak inkuntrararazten dioen xikhiro bat.*

15 Aprobaten du lainkoak

Abrahamen obedientzia eta

konfirmatzen diotza bere promesak iuramenturekiñ.

*19 Abrahamek bere etxera bihurtu eta
errezibitzen ditu Nakorren famillaren berriak.*

1. Gerthatu zen gauza horion ondoan lainkoak frogatu zuela Abraham, eta erran zioela, Abraham eta ihardetsi zuela, huna ni.

2. Gero erran zioen hartzak orai hire semea, hire bakhotxa maite duana erran nahi da, Isaak, eta oha

Morijako herrira eta han ofrenda zak holokaustatzat erranen daroadan menditarik batean.

3. Abrahamek bada goiz goizetik iaiki eta ezarri zuen astoaren gañean, eta hartu zituen bia bere mut-hilletarik berekiñ, eta Isaak bere semea. Eta holokaustarentzat egurra arraillatu eta lothu zitzaion bideari, eta goan izan zen lainkoak erran zioen lekhura.

4. Hirugarren egunean Abrahamek bere begiak altxatzen zituela, ikhusi izan zuen lekhua urrunetik.

5. Eta erran zioten bere muthillei, zaudete hemen astoarekiñ. Ni eta haurra goango gare hareraño, eta adoratuko dugu: gero bihurtuko gare zuengana.

6. Eta Abrahamek hartu zuen holokaustaren egurra, eta ezarri zuen Isaak bere semearen gañean eta hartu zuen suba bere eskuan eta kanibet bat, eta goan ziren horiak biak elkharregiñ.

7. Isaak bada mintzatu zitzaion Abraham bere aitari eta erran zuen, ene Aita. Abrahamek ihardetsi zuen, huna ni, ene semea. Eta erran zuen, huna suba eta egurra bañan non da bestia holokaustarentzat?

8. Eta Abrahamek ihardetsi zuen, ene semea, lainkoak probedituko du bestia holokaustarentzat. Eta bazihoazen hek biak elkharrekin bidean.

9. Eta hek ethorri eta lainkoak erran zioen lekhu-
ra, Abrahamek egin zuen han aldare bat, eta arrimatu
zuen egurra, hala estekatu zuen Isaak bere semea,
eta ezarri zuen aldarearen gañean egurraren gañean.

10. Gero Abrahamek bere eskua aitzintzen zuela
hartu zuen kanibeta bere semeari zintzurak egiteko.

11. Bañan Eternalaren aingeruak oihu egin zioen
zeruetarik, ziotsala, Abraham, Abraham zeñak iharde-
tsi baitzuen, huna ni.

12. Eta erran zioen, eztezakala eman eskua hau-
rraren gañean, eta eztiokakala egin deusere ezen orai
diat ezagutu lainkoaren beldur aizela, ikhusirik eztua-
la guphitetsi hire semea, hire bakhoitza, enetzat.

13. eta Abrahamek bere begiak altxatzen zituela
begiratu zuen, eta horra haren gibelean xikhiro bat,
zeña baitzegokan itxikirik hesi bati bere adarretari-
kan. Abraham bada goan izan zen eta hartu pen xikhi-
roa eta ofrendatu zuen holokaustatzat bere semearen
orde.

14. Eta Abrahamek deithu izan zuen lekhu haren
izena, Eternalak probedituko du. Hargatikan erraten
dute egun, Eternalaren mendian probeditua izango
da.

15. Eta Eterنالaren angeruak oihu egin zioen zeruetaritan Abrahami bigarreanean,

16. ziotsala, iuramentu egin diat neuroriz diotsa Eterنالak: zeren eta egin baituk gauza hori eta ezpaituk guphitetsi hire semea, hire bakhoitza,

17. egiaz bedinkatuko aut eta hagitz frankoki berretuko diat hire ondorea zeruetako izarrak bezala, eta itsas bazterrean den harea bezala: eta hire ondorea gozatuko duk bere etsaien atheaz

18. eta Lurreko nazione guziak bedinkatuak izango dituk hire hazian: zeren obeditu dioan ene bozari.

19. Hala Abraham bihurtu izan zen bere muthilletara eta iaiki eta goan izan ziren elkharrekiñ Beer-Szebahra.

20. Bañan gerthatu izan zen gauka horion ondoan norbaitek erran ziola Abrahami, ziotsala, horra, Milkak ere egin ziotzak haurrak Nakor hire anaiari.

21. Erran nahi da, huts haren lehensorthua, eta Buz haren anaia eta Remuel Aramen aita.

22. Eta Resed, eta Hazo, eta Pildas, eta lidlaf, eta Bethuel.

23. eta Bethuelek enjendratu du Rebeka. Milkak egin ziotzan zortzi haur horiok nakor Abranen anaiari.

24. Eta haren Ema oheko laguna erdi izan zen Tebahz, Gahamez, Tahasez, eta Mahakaz.

HOGOI ETA HIRURGARREN KAPITULUA

*Sararen adiña eta heriotzea
2 Abrahamek dolua ekharri eta
erosten du hetendarren larre bat
izateko sepultura zuzena,
19 eta han ehorzten du Sara.*

1. Sara bada bizi izatu zen ehun eta hogoitazazpi urthe zeñak baitire haren biziaren urtheak.

2. Eta hill izan zen Kirjath-Arbahn zeña baita Hebronen, Kanaango herrian. Hala ethorri izan zen Abraham auhen eta nigar egitera.

3. Eta bere hillaren aitzinietik altxatu eta mintzatu zitzaieten hetendarrei, erraten zuela,

4. Arrotza eta kanpokoa naiz ni zuen artean: eman diezadazue sepultura posesione bat zuen artean, ehortz dezadantzat ene hilla, khentzen dudala ene aitzinietikan.

5. Eta hetendarrek ihardetsi zioten Abrahami, erraten ziotela,

6. Ene launa, entzun gaitzak, printze exelent bat aiz hi, ehortz zak hire hilla gure sepultura hobereneta-rik batean. Eztarok gutarik batek ere errefusatuko bere sepultura, han ehortz eztezaantzat hire hilla.

7. Abraham bada altxatu izan zen eta iarri zen ahuspez, herriko pobluaren aitziñean, erran nahi da, hetiendarren aitziñean.

8. Eta mintzatu zen hekiekiñ ziotsala, plazer badu-zue ehortz dezadan ene hilla, khentzen dudala ene aitziñetikan, adi nazazue, eta zaitezte othoitz egille enetzat Hefron Tsoharren semearen aldera:

9. Eman diezadantzat Makpelako bere arroka zill-hoa zeña baita haren larrearen buruan. Hura eman diezadan zuen artean, balio duenaren prezioan, sepul-tura posesionetzat.

10. Eta Hefron iarririk zegoen hetiendarren bal-tsan. Hefron hetiendarrak bada ihardetsi zioen Abra-hani, [aditzen zutela hetiendarrek, erran nahi da, haren hiriko athetik sartzen ziren guziek] ziotsala,

11. Ez ene launa, entzun nazak, ematen daroat larrea, han den arroka zillhoa ere ematen daroat: ene pobluaren haurren aitziñean ematen daroat: han ehortz ezak hire hilla.

12. eta Abraham ahuspez iarri izan zen herriko pobluaren aitzinean

13. eta mintzatu zitzaion Hefroni, [aditzen zuela herriko poblu guziak] eta erran zuen, bañan plazer baduk, othoizten aut, adi nazak: emanen diat larrea-ren dirua: errezibizak hura eneganik, gero han ehortzi-ko diat ene hilla.

14. Hefronek ihardetsi zioen Abrahami, erraten zio-ela,

15. ene launa entzun nazak. Lurrak balio die laur ehun zillhar luis erdi ene eta hire artean. Bañan zer da hori? Ehortz ezak beraz hire hilla.

16. Eta Abrahamek Hefron aditu eta pagatu zioen mintzatu zitzaion dirua, aditzen zutela hetiendarrek, erran nahi da laur ehun zillhar luis erdi merkatarien artean kurritzen zutenak.

17. Eta Hefronen larrea zeña baitzen Makpelan Mamre aitzinean, hanbat larrea nola arroka zillho han zena eta arbola guziak zeñak baitziren larrean eta haren bazter guzietan inguru arrastatua izatu zen,

18. poseditua izateko Abrahamenez hetiendarren erran nahi da, hiriko athetikan sartzen ziren guzien presentzian.

19. Eta ondoan gero Abrahamek ehortzi izan zuen Sara bere emaztea Makpela larreko arroka zillhoan, Mamre aitzinean, zeña baita Hebron, Kanaango herrian.

20. Larrea beraz eta arroka-zillho han zena arras-tatua izatu zen hetendarrez Abrahamentzat sepultura posesionetzat.

HOGOITALAURGAREN KAPITULUA

Abrahamek iadan zahar egiñ eta egortzen du bere muthil zaharrena Mesopotamiara, iuramenta eragiten dioela, egingo duela bere eginbide guzia han hartzeko emaztea Isaak bere semearentzat.

10 Muthilla bedinkatua izanik lainkoaz bere bijaian arribatzen da Bethuelen etxera eta handik ekhartzen du Rebeka 62 zeña Isakek hartzen baitu emaztetzat.

1. Eta Abraham zahartu izan zen eta aintzindu adiñean: eta Eternalak bedinkatu zuen Abraham gauza guzietan.

2. Abrahamek bada erran zioen bere etxeko muthill zaharrenari zeñak baitzuen haren ziren gauza guzien gobernua, emak, othoizten aut hire eskua ene ixterraren azpian.

3. Eta iuramentu eragiñen daroat Eternalaz, zeruetako lainkoaz, eta lurreko lainkoaz, eztuala har-

tuko emazterik ene semearentzat kananeanren alabetarik, zeñen artean bainago:

4. bañan goanen aiz ene herrira eta ene ahaidetara, eta hartuko duk emaztea ene seme Isakentzat.

5. Eta muthill hark ihardetsi izan zioen, behar bada, etzitzaiok agradatuko emazteari ni segitzea herri huntara. Ekharri beharko dut nik sinfalta hire semea hi ilkhi izatu aizen herrira?

6. Abrahamek erran zioen, begirauk eramaketik hara ene semea.

7. Eternalak, zeruetako lainkoak, zeñak hartu bainau ene aitaren etxetik, eta ene ahaideen herritik, eta zeña mintzatu baitzait niri eta zeñak iuramentu egin baitarot, diotsala, emanen zioat hire ondoreari herri hau: hark bidalduko dik bere aingerua hire aitziñean, eta handik hartuko diok emaztea ene semeari.

8. Emazteak segitu nahi ezpahau, deskantsu izango aiz eragin daroadan iuramentutik: zer ere baita etzakala eraman hara ene semea.

9. Muthillak bada eman zuen eskua Abraham bere iaunaren ixterraren azpian, eta iuramentu egin zioen gauza hekien arabera.

10. eta muthilla bere nausiaren kameluen artetik hamar kamelu hartu eta, goan izan zen: ezen bere

nausiaren ontasun guziak bere eskuan zituen. Partitu zen bada eta goan zen Mesopotamiara, Narko hirira.

11. Eta errepausarazi zituen belhaunen gañean kameluak hiritik kanpoan, urphutzu baten ondoan arratsaldean, ur atheratzera dohazen hek ilkhitzen diren denboran:

12. Eta erran zuen, o eternala, ene iaun Abrahamen lainkoa, eman diezadak inkuntru egun eta egin diozok grazia Abraham ene iaunari.

13. Horra, egongo naiz ur ithurriaren ondoan eta hiriko iendeen neskatzak ilkhiko dire ur atheratzera.

14. Gertha dadillala bada, neskatzak gaztea, zeñari nik errango baitiot, eman, othoizten aut, hire pegarra, edan dezadantzat, eta zeñak ihardetsiko baitu: edantzak, eta oraño emanen ziotet edatera hire kameluei izan dadiñ, hik, Isaak hire zerbitzariari seña-latu dioan hura: eta handik diat ezaguturen nik egin dioala grazia ene iaunari.

15. Eta gerthatu zen, mintzatzera akhabatu zuen baño lehen, horra, Rebeka, Bethuelen alaba, Milkaren semearena, Nakorren emaztearena, Abrahamen anaiarena ilkhitzen zela bere pegarra zuela bere sorbalda gañean.

16. Eta neskatxa gaztea hagitz zen ederra ikhusteko eta phontzela, gizonak ezagutu etzuen bezalakoa eta iausti izan zen ithurrira, eta bethe zuen bere pegarra, eta igaten zen.

17. Muthillak beraz laster egin zuen haren aitziñera, eta erran zuen, eman diezadan, othoizten aut, ur xorta bat hire pegarretik edatera.

18. Eta erran zuen, ene iauna, edan zak. Eta berehala hartu zuen bere pegarra bere eskuan, eta eman zioen edatera.

19. Hari edatera ematera akhabatu ondoan, erran zuen: oraño ura atheratuko diat hire kameluentzat, edatera akhaba dezaten arteraño.

20. Eta hustu zuen berehala bere pegarra aspillera, eta goan zen oraño lasterka phutzura ur atheratze-
ra, eta atheratu izan zuen haren kamelu guzientzat.

21. Eta gizon hara espantaturik zegoen hartaz, kontsideratzen zuela, hitzik egin gabe, iakiteko ea Eternalak dohatsu egin zukeen haren bijaia, edo ez.

22. Eta kameluek edatera akhabatu zuten. Orduan, gizon hark hartu izan zuen urre erreztun bat bi ezkutu eta erdi pisatzen zuena, eta bi esku muthur edergarri haren eskutan ezartzeko, pisatzen zutenak ehun etaberrogoi eta hamar ezkutu urre pheza bat.

23. Gero erran zioen, noren alaba aiz? othoizten aut, iakiñaraz diezadan. Ezta lekhurik hire aitaren etxean han alojitzeko?

24. Hark ihardetsi zioen, Bethuelen alaba nauk, Milkaren semearena, zeña egin baitio horrek Nakorri.

25. Erran zioen oraño, baduk gure etxean lasto eta abreianhari hauñitz, baita alojitzeko lekhua ere.

26. Eta gizon makhurtu zen eta ahuspez iarri Eternalaren aitziñean

27. eta erran zuen, bedinka bedi Eternala ene iaun Abrahamen lainkoa, zeña ezpaita gelditu egitetik bere grazia eta egia ene iaunaren aldera. Ni bidean naizela Eternalak gidatu nau ene iaunaren anaien etxera.

28. Eta neskatxa gaztea goazen lasterka, eta egin zuen hartazko erreporta bere amaren etxean perpaus hekien arabera.

29. Rebekak bada bazuen anaia bat deithua Laban, zeñak laster egin baitzuen kanpora gizon harengana ithurri aldera.

30. Ezen ikhusi zuen bezain sarri errestuna eta eskumuthurretako edergarriak bere arrebaren eskuetan eta aditu Rebeka bere arrebaren hitzak, ziotsala, gizon hori horrela mintzatu zait niri: ethorri izan zen

gizona gana, eta horra, kameluen ondoan zen ithurri aldera.

31. Eta erran zuen, Eternalaren bedinkatua, sar adi: zergatik ago kanpoan? alegatu tiat etxea, eta lek-hua hire kameluentzat.

32. Ethorri zen beraz gizona etxera, eta desarnasatu zituzten kameluak eta eman zioten lastoa eta abreianharia, eta ura hanbat haren oñak garbitzeko, nola harekin ziren presunen oñak.

33. Eta eskañi zioten iatera. Bañan erran zuen eztut ianen, erran gabe erran gogo dudana, eta Labanek erran zuen, mintza adi.

34. Erran zuen bada, Abrahamen muthilla naiz

35. eta Eternalak hagitz bedinkatu du ene iauna horrengatik haundi egiñ izan da ezen eman diotza ardiak, idiak, dirua, urrea, muthillak, neskatoak, kameluak, eta astoak.

36. Eta Sara ene iaunaren emazteak egin dio seme bat ene iaunari iadan zahar egin dela zeñari eman baitiotza dituen guziak.

37. Eta ene launak iuramentu eragin darot erraten duela, eztiok hartuko emazterik ene Semeari kananearren neskatxetarik, zeñen herrian bainago.

38. Bañan goanen aiz ene aitaren etxera, eta ene ahaidetara, eta handik hartuko duk emaztea ene semearentzat.

39. Eta erran nioen ene iaunari, benturaz ezniauk segituko emazteak.

40. Eta ihardetsi zarotan, Eternalak, zeñaren bisaiaren aitziñen ibilli bainauk, egorriko dik bere aingerua hirekiñ, eta dohatsu errendatuko dik hire bijaia eta hartuko diok emaztea ene semeari ene ahaidetarik, eta ene aitaren etxetik.

41. Goaten baldin bahaiz ene ahaidetara, orduan deskantsu izango aiz eragin daroadan iuramentuaren madarizionetik: eta ematen ezpalin badarotek, deskantsu izango aiz eragin daroadan iuramentuaren madarizionetik.

42. Ethorri naiz bada egun ithurrira, eta erran dut, o Eternala, Abraham ene iaunaren lainkoa, orai dohatsu errendatzen baldin baduk ni nabillan bidea.

43. Horra egongo naiz ur-ithurriaren ondoan gertaha dadillala bada neskatxa zeña ilkhiko baita ur atheratzera eta zeñari erranen baitiot, indan, othoizten aut, edatera ur xorta bat hire pegarretik:

44. Eta erranen baitarot, edantzak, hik; eta oraño atheratuko diat hire kameluentzat, hura izan dadiñ

emaztea Eternalak señalatu dioena ene iaunaren semeari.

45. Neure baithan mintzatzera akhabatu nuen baño lehen, horra, Rebeka ilkhi da, bere pegarra bere sorbalda gañean duela, eta iausti da ithurrira, eta atheratu du ura, gero erran izan diot, emadan, othoizten aut, edatera.

46. Eta berehala beheratu du bere pegarra bere gañetik, eta erran du, edan zak: eta oraño emanen ziotet edatera hire kameluei. Edan dut bada, eta eman diote oraño edatera kameluei.

47. Interrogatu dut, erraten dudala, noren alaba aiz? ihardetsi izan du, Bethuelen alaba naiz, Nakorren semearena, zeña Milkak egin baitio orduan ezarri diot erreztun bat bekhokiaren gañean, eta eskumuthur edergarriak bere eskuetan.

48. Gero makhurtu naiz eta ahuspez iarri Eternalaren aitziñean, eta bedinkatu dut Eternala, ene iaun Abrahamen lainkoa, zeñak gidatu bainau egiazko bide-tikan, har dezadantzat ene iaunaren anaiaren alaba haren semearentzat.

49. Orai bada nahi baldin baduzue baliatu graziaz eta egiaz ene iaunaren aldera, deklaratu diezadazue:

non ez, deklaratu diezadazue oraño, eta bihurtuko naiz eskuiñ edo ezker.

50. Eta Labanek eta Bethuelek ihardetsi zuten, ziotsatela, egiteko hori Eternalaganik ethorri da: eziñ erran ahal giñezakek hire kontra ez ungerik ez gaizkerik.

51. Horra Rebeka hire manuko, hartzak, eta oha eta izan bedi hire iaunaren semearen emazte, Eternala mintzatu izan den bezala.

52. Eta gerthatu zen Abrahamen muthillak aditu zituen bezain sarri hekien hitzak, ahuspez iarri izan zen lurrean Eternalaren aitzinean.

53. Gero muthillak atheratu izan zituen zillhar eta urre erreztunak eta tresnak, eta eman ziotzan Rebekari: eta oraño eman ziotzaten present ederrak haren anaiaren eta haren amari.

54. Gero ian eta edan zuten hark eta harekin ziren iendeek, eta han alojitu izan ziren: eta goizean iaiki izan ziren orduan, erran zuen, bidal nazazue ene iau-nagana.

55. Eta anaiak eta amak erran zioten, neskatxa egon bedi gurekiñ zenbeit egunez, gutienez hama-rez: ondoan gero goanen da.

56. Eta erran zioten, ezteiadazuela berantetsiaraz, Eternalak dohatsu errendatu duenaz geroz ene bidea; egor nazazue, goan nadiñ ene iaunagana.

57. Orduan erran izan zuten deitzagun neskatxa eta galde diozogun bere ahoko errepusta.

58. Deithu izan zuten bada Rebeka, eta erran zioten, nahi dun goan gizon hunekiñ? Zeñak ihardetsi baitzuen, goango naiz.

59. Hala bidaldu izan zuten Rebeka bere arreba eta haren unhidea, elkharrekiñ Abrahamen muthilla eta haren iendeak.

60. Eta bedinkatu zuten Rebeka eta erran zioten, gure arreba aiz, izan adi fruitutsu milla milliunka, eta hire ondoreak posedi beza higinduko dutenen athea.

61. Iaiki izan beraz Rebeka eta haren neskatoak eta igan ziren kameluen gañera, eta segitu izan zuten gizon hura: muthill hark bada hartu zuen Rebeka, eta goan izan zen.

62. Eta Isaak bihurtzen zen ikhusten nauen bizidena ren phutzutik: ezen eguberdi aldeko herrian zegoen.

63. Eta Isaak ilkhi izan zen othoitz egitera larrean arratsaldean: eta begiak altxatzen zituela begiratu izan zuen eta horra kameluak zeñak baitzathozen.

64. Rebekak ere bere begiak altxatzen zituela ikhusi izan zuen Isaak, eta iauzi egin zuen beheiti kameluaren gañetik;

65. [ezen erran zioen muthillari, nor da harako gizon hura larrean gure aitziñean dabillana? eta muthillak ihardetsi zuen ene iauna da] eta hartu zuen belo bat, eta hartaz estali izan zen.

66. Eta muthillak kondatu ziotzan Isaaki egiñ izan zituen gauza guziak.

67. Gero Isaakek eraman zuen Rebeka, bere ama Sararen tabernaklera: hala hartu izan zuen, eta izatu zitzaion emaztetzat eta maitatu izan zuten: hala Isaak kontsolatu izantzen bere ama hill ondoan.

HOGOIETA BORTZGARREN KAPITULUA

*Abrahamek hartzen du emaztetzat Ketura
zeñak egiten baitiotza haurrak,
zeñak bidaltzen baititu Isaaken gibelera,
hori xoillki uzten duela primu,
eta ematen diotzatela presentak
bere emahelagunen haurrei.*

*7 Gero hiltzen da eta ehortzia da
Isaakez eta Ismaelez.*

*12 Ismaelen adiña eta heriotzea
eta harenganik ilkhi direnak.*

*20 Isaakek othoitz egiten du
Rebeka bere emaztearentzat
zeña baitzen agor eta entzuna da.*

*24 Hargatik erditzen da bi hurrez,
Esauz eta Jakobez*

*27 Hekien naturaleza errepresentatua da eta nola
Esauk saldu zioen primutasun zuzena Jakobi.*

1. Eta Abrahamek hartu izan zuen bertze emazte bat deithua Ketura.

2. Zeñak egin baitziotzan Zimran, Iokszan, Medan, Madian, Liszbak, eta Szuah.

3. Eta Iokszanek enjendratu zuen Szeba eta Dedan. Eta Dedanen haurrak izatu ziren Aszurim eta Letuszim, eta Leummim.

4. Eta Madianen haurrak izan ziren Hefa, Hefer, Hanok, Abidah, Eldaha. Horiok guziak Keturaren haurrak dire

5. eta Abrahamek eman ziotzan heldu zitzaizkon guziak, Isaaki:

6. Bañan bere emaohekolagunen semeei presentak eman ziotzaten, eta egorri zituen bere seme Isaaken gibelera oriente aldera, oriente partera, bera oraño bizi zela.

7. Eta Abraham bizi izan zen urtheak izatu ziren ehun eta hirurhogoita hamabortz urthe.

8. Abraham bada flakatuaz goanez hill izan ungi zaharturik, iadan zaharra eta egunez asea, eta erretiratua izatu zen bere pobluetara.

9. Eta Isaak eta Ismael bere semeek ehortzi izan zuten Makpelako arroka zillhoan, Hefron, Tsohar Hetiendarraren Semearen Larrean, zeña baita Mamren aitziñaz aitziñ:

10. Zeña baita, Abrahamek hetendarrenganik erosi zuen Larrea. Han bada ehortzia izatu zen Abraham Sara bere emaztearekin

11. eta gerthatu zen Abraham hill ondoan, lainkoak bedinkatu zuela Isaak haren semea. Eta Isaak, ikhusten nauen bizi denaren phutzuaren aldean egoten zen.

12. Hemen dire Ismael Abrahamen semearen ienerazioneak, zeña Agar ejiptuarrak Sararen neskatoak egin baitzioen Abrahami.

13. Eta hemen dire Ismaelen haurren izenak, zeñetaz izendatuak izatu baitire bere ienerazionetan. Ismaelen lehensorthua, Nebajoth, gero Kedar, Adbeel, Mibsam.

14. Miszmah, Duma, Masa,

15. Hadar, Tema, letur, Nafis, eta Kedma.

16. Horiok dire Ismaelen haurrak, eta horiok dire hekien izenak, bere herrien arabera, eta bere gazteluen arabera: erran nahi da, bere pobluen hamabi Printze

17. eta hauk dire Ismaelen biziaren urtheak, erran nahi da, ehun eta hogoi eta hamazazpi urthe. Hala flakatuaz goanez hill izan zen eta erretiratua izatu zen bere pobluen artera.

18. Eta egotu izan ziren Habilatik Szurreraño zeña baita ejiptuaren aitziaz aitzian, heldu aizen orduan asurera. Eta Ismaelek izatu zuen bere hedadura bere anaia guzien aldera

19. eta hauk dire Isaak Abrahamen semearen ienezarazioneak: Abrahamek engendratu zuen Isaak.

20. Isaakek Laurhogoien adiña zuen, hartu zuen orduan emaztetzat Rebeka Bethuel aramiendar Paddan-Aramgoaren alaba, Laban aramiendarraren arreba.

21. Eta Isaakek sesatu gabe othoiztu zuen Eternala bere emazteaz, zeren eta agorra baitzen: eta Eternala ukitua izatu zen haren othoitzez: hargatik Rebeka haren Emazteak kontzebitu izan zuen.

22. Bañan haurrak bere artean alegeratzen ziren haren sabelean: eta erran zuen, horrela baldin bada, zertako naiz ni? eta goan izan zen galdetzera Eternalagana.

23. Eta Eternalak erran zioen, bi nazione hire sabelean ditun, eta bi poblu ilkhiko ditun hire erraietarik eta poblu bat borthitzago izanen da bertze poblua baño: eta haundienak zerbitzatuko du mendreena.

24. Eta haren erditzeko denbora konplitu zen orduan, horra, baziren bi haur haren sabelean.

25. Eta lehenbizikoa ilkhi izan zen gorrikara, osoki illetsu illezko manteliña bat bezala: eta deithu izan zuten haren izena Esau.

26. Eta ondoan ilkhi izan zen horren anaia, itxikitzen zioela bere eskuaz Esauren Thaloñari: hargatikan haren izena deithua izatu zen lakob. Eta Isaakek hirur hogoi urtheren adiña zuen, hek sorthu izan ziren orduan.

27. Gero haurrak haundi egin ziren, eta Esau gizon aditua zen ihizian, larretako gizona: bañan lakob gikon simplea zen, tabernakletan zezeena.

28. Eta Isaakek maite zuen Esau: ezen ihizkia zen haren ianharia: bañan Rebekak maite zuen lakob.

29. Eta nola lakob hari baitzen eltzea egoseragiten, Esau bihurtu izan zen larretarikan, eta unhatua zen.

30. Eta Esauk erran zioen lakobi, indak iatera, othoizten aut, erreki hortarik horrako erreki hortarik ezen unhatua nauk. Hargatikan deithu izan zuten haren izena Edom.

31. Bañan lakobek erran izan zioen sal diezadak gaur hire primutasun zuzena.

32. Eta Esauk ihardetsi zuen horra, hiltzera nihoak, zertako baliatuko zait primutasun zuzena?

33. Eta Iakobek erran zuen, egin diezadak iuramentu gaur. Eta iuramentu egin zioen: hala saldu izan zioen bere primutasun zuzena Iakobi.

34. Eta Iakobek eman zioen Esaui ogia, eta illhar-ki egosiak eta ian izan zuen, eta edan, eta iaiki eta goan zen. Hala Esauk mesprezatu izan zuen bere primutasun zuzena.

HOGOIETA SEIGARREN KAPITULUA

*Isaak Geraren egoten da lainkoaren manuz
zeñak erreberitzen baitiotza
Abrahani egiñikako promesak.*

*7 Erreprehenditua da erranaz
Rebeka haren arreba zela,*

*Abimelek Erregez, zeñak bitartean manatzen baitio
bere poblu guziari ez egitera hari gaizkirik batere.*

*13 Gero aberastu eta khasatua da filislindarrez
zeñek khentzen baitiotzate oraño bere phutzuak.*

*23 Bañan lainkoaren promesez seguratua izanik
egoten da Beer-Szebahn.*

*26 Non Errege Abimelek egiten baitu alientza harekiñ
32 eta haren muthillek phutzu bat
zillhatzen dutela aurkhitzen dute ura.*

*34 Esauk hartzen ditu emazteak
bere ait eta amen borondatearen kontra.*

1. Gert(h)atu izan zen bada izatu zela gosetea
herrian.

Lehenbiziko goseteaz lekhora zeña izatu baitzen Abrahamen denboran. Eta Isaak goan izan zen Abimelek filistindarren Erregeagana Gerara.

2. Ezen Eternala agertu zitzaion, eta erran zioen, ezadillala iauts Ejiptura, egon adi nik erranen daroan herrian.

3. Ibili adi herri huntan, eta hirekiñ izango, nauk, eta bedinkatuko aut eta emanen darozkiat hiri eta hiri ondoreari bazter hauk guziak, eta konfirmatuko diat, hire aita Abrahami egin diodan iuramentua.

4. Eta berretuko diat hire ondorea zeruetako izarra bezala, eta emanen ziotzat hire ondoreari bazter horiok: eta Lurreko nazione guziak bedinkatuak izango dituk hire hazian.

5. Zeren eta Abrahamek obeditu baitio ene bozari, eta begiratu baitio ene ordenantza, ene manamenduak, ene erresoluzioneak, ene legeak.

6. Isaak bada egotu izan zen Geraren

7. eta lekhuko iendeek galdetu zuten orduan haren emazteaz, ihardetsi izan zuen ene Arreba da. Ezen beldur zen erratera, ene emaztea da: beldurrez, benturaz lekhuko iendeek hill eznazaten Rebeka dela kausa: ezen ederra da ikhusteko.

8. Eta gerthatu zen, han zenbeit denbora iragan ondoan, filistindarren Errege Abimelek leihotikan begira zegoela, eta horra, ikhusi zuen Isaak dostatzen zela Rebeka bere emaztearekiñ.

9. Abimelekek beraz deithu zuen Isaak, eta erran zioen, zer ere nahi den, horra, hire emaztea duk: eta nola erran duk, ene arreba da? eta Isaakek ihardetsi zioen, zeren eta phentsatu baitut, begiratu behar diat, benturaz hill eznadiñ hura dela kausa.

10. Eta Abimelekek erran zuen, zer egin darokuk hik guri hemen? Pobluairen arteko zenbeit etziter duk hire emaztearekiñ eta hobenduri errendarazitzer gaituk.

11. Abimelekek bada egiñ izan zioen ordenantza bat poblu guziari, ziotsala, nork ere ukituko baitu gizon hori edo horren emaztea eztu faltatuko hilla izatera.

12. Eta Isaakek ereindu zuen lur hartan eta ediren zuen urthe hartan ehungarrena. Ezen Eternalak bedinkatu zuen.

13. Gizon hori bada berretu zen, eta bethi haundituaz, berretuaz zihoan mirakuilluzki haunditu eta berretu izatu zen arteraño.

14. Eta izatu zituen arteraño bestiaki xehe eta larri eta orkhaitz hauñitz, zeñetaz inbidia ekharri baitzioten filistindarrek:

15. Halako maneraz non tapatu baitzituzten, haren aitaren muthillek zillhatu zituzten phutzu guziak, haren aita Abrahamen denboran, eta bethe izan baitzituzten lurrez.

16. Abimelekek erran zioen oraño Isaaki, goan adi gure gibelera: ezen egiñ izan aiz gu baño hagitz puxantago.

17. Isaak bada partitu zen handik eta gelditu zen Gerarko zelhaiean, eta egotu izan zen han.

18. Eta Isaakek berriz zillhatu zituen ur phutzuak, haren aita Abrahamen denboran zillhatu zituztenak, zeñak filistindarrek tapatu baitzituzten Abraham hill ondoan: eta deithu izan zituen, haren aitak deithu zituen zituen izen berez.

19. Isaaken muthillek bada zillhatu zuten zelhai hartan eta han aurkhitu zuten ur bizi phutzu bat.

20. Bañan Gerarko Artzañek iharduki zuten Isaaken Artzañekiñ, ziotsatela, ura gurea da; hargatik deithu izan zuen phutzuaren izena Hesek, zeren eta iharduki baitzuten harekiñ.

21. Ondoan zillhatu izan zuten bertze phutzu bat zeña zela kausa ere iharduki baitzuten: hargatik izan zuen haren izena, Sitnah.

22. Orduan aldaratu zen handikan, eta zillhatu zuen bertze phutzu bat, zeña zela kausa ezpaitzuten iharduki: hargatik deithu izan zuen horren izena Rehoboth, ziotsala, orai Eternalak largoan ezarri gaituenaz geroz, berretuko gero herri huntan.

23. Eta handik igan izan zen Beer-Szebahra.

24. Eta Eternala agertu zitzaion gau hartan berean eta erran zuen, hire aita Abrahamen lainkoa nauk ni, eztuala beldurrik: ezen hirekin nauk, eta bedinkatuko aut, eta berretuko diat hire ondorea Abraham ene zerbitzariaren amoreagatik.

25. Han beraz egiñ izan zuen aldare bat, eta inbokatu zuen Eternalaren izena, eta hedatu zituen han bere tabernakleak: eta Isaaken muthillek zillhatu zuten han phutzu bat.

26. Eta Abimelek ethorri izan zen harengana Gerartik, eta Ahusath haren adiskidea, eta Pikol haren armadako buruzagia.

27. Bañan Isaakek erran zioten, zer arrazoñ dela kausa heldu zarete enegana, ikhususirik higintzen nauzuela, eta egorri nauzuela zuen gibelera?

28. Eta ihardetsi izan zuten, klarki ikhusi diagu Eternala hirekin zela: eta erran diagu, izan bedi oroi iuramentua madarizionearekiñ gure artean, erran nahi da, gure eta hire artean: eta egin dezagun alien-tzia hirekiñ.

29. Gaizkirik egiten baldin badarokuk hala nola guk hi ukitu ezaugun bezala eta nola ezpaitaroagu egiñ unirik baizen eta egorri bahaugu bakean: hi orai Eternalaz bedinkatua.

30. Egin zioten bada banket bat, eta ian eta edan zuten.

31. Eta iaiki izan ziren goiz goizetik, eta iuramentu egin zioten batak bertzeari. Gero Isaakek bidaldu zituen, eta goan ziren harenganik bakean.

32. Gerthatu zen egun hartan berean, Isaaken muthillak ethorri zirela eta erran ziatzatela berriak zill-hatu izan zuten phutzu hartaz, erraten ziotela, aurkhi-tu diagu ura.

33. Eta deithu izan zuen Szibha. Horrengatik hiria-
ren izena izan da Beer-Szebah gaurko egun arteraño.

34. Esauk bada berrogoi urtheren adiñean zituen hartu emaztetzat Iudith Beeri hetiendarraren alaba eta Basmath Elon hetiendarraren alaba,

35. zeñak izatu baitzitzazkoten Izpirituko khirats
Isaaki eta Rebekari.

HOGOIETA ZAZPIGARREN KAPITULUA

Isaakek iadan zahartu eta bedinkatu nahi du Esau, eta egortzen du ihizira, aloga diozontzat zerbeit bere gogarako ianhari.

5 Bañan Esau larrean den bitartean, Jakob desgisatzen da bere amaren kontseilluaren arabera eta ekhartzen diotza Isaac bere aitari Rebekak alogaturikako ianhariak.

23 Hargatik eztu ezagutzen Isaakek Jakob eta bedinkatzen du.

30 Esauk ihizitik bihurtu eta galdetzen du bedinkatua izatera Isaakez.

33 Zeñak bitartean osoki espantaturik konfirmatzen baitu lakobi emanikako benedikzioea.

38 Eta ukitua izanik Esaturen deihadar eta nigarrez ematen baitio oraño zenbeit benedikzioe.

41 Rebekak kontseillu ematen dio lakobi erretiratzerara Paddan-Aramera, zeren eta Esauk erresolitu baitzuen haren hiltzera.

1. Eta gerthatu izan zen Isaakek, zahartu izan zen orduan eta begiak goibeldu zitzaizkonean, halako manieraz non ezpaitzuen deusere ikhusten, deithu zuela Esau bere seme lehensorthua, eta erran zioela, ene semea, eta ihardetsi zioela, huna ni.

2. Hala erran zuen, horra, orai zahar egin nauk, etzeakiat ene heriotzeko eguna.

3. Orai bada othoizten aut, hartzatzik hire errementak, hire fletxatokia, eta hire balesta, eta oha larretara eta atzeman diezadak ihizikia.

4. Eta aloga dietzakidak ene guztuko ianhariak ene gogara diren bezalakoak: eta ekhar dietzakidak eta ian dezadan ene arimak bedinka azantzat ni hill baño lehen.

5. Eta Rebekak aditzen zuen, Isaak bere seme Esauri mintzo zitzaion bitartean: Esau bada goan zen larrera ihizikia atzeman eta ekhartzera.

6. Rebeka beraz mintzatu zitzaion lakob bere semeari ziotsala, horra aditu diat mintzatzen hire aita Esau hire anaiari, diotsala,

7. Ekhar diezadak ihizikia, eta aloga dietzakidako ene gogarako ianhariak, eta hetarik ianen diat: gero bedinkatuko aut Eternalaren aitziñean hill baño lehen.

8. Orai bada, Ene seme, obedio diozok ene hitzari manatzen daroadan gauzan.

9. Oha orai arditegira eta han har dietzakidak bi bigthiriñ on ahuntzen artetikan, eta alogatuko ziotzat hire aitari bere gogarako ianhariak ale den bezalakoak,

10. Eta eramanen diotzak hire aitari, eta ianen dik, bedinka azantzat hill baño lehen.

11. Eta Iakobek ihardetsi zioen Rebeka bere Amari, horra, Esau ene anaia gizon illets dun bañan ni naun gizon ille gabea,

12. benturaz ene aitak ukituko niaun eta idukiko niaun enganalari batentzat eta erakharriko diñat ene gañera madarizionea eta ez benedizionea:

13. Eta bere Amak erran zioen: Ene seme, hire madarizionea izan dadilllala ene gañean: solament obedio diozok ene hitzari eta oha har diezadak erran daroadana.

14. Goantzen bada, eta hartu zituen izan zituen eta ekharri ziotzan bere amari, eta haren amak aphaindu zituen guztuko ianhariak nola ere zale baitzen haren aita eta hala.

15. Gero Rebekak hartu zituen Esau bere seme lehensorthuaren tresnarik ederrenak berekiñ etxean

zituenak, eta hetaz beztitu zuen lakob bere seme ondokoa.

16. Eta estali zituen ahuntzen artetikako bigthirin larruz haren eskuak eta lepho alde illerik gabe zena.

17. Eta eman zituen lakob bere semearen eskuan guztuko ianhari hek, eta alogatu izan zuen ogia.

18. Ethorri zen bada bere aita gana, eta erran zioen, ene aita, zeñak ihardetsi baitzuen, huna ni: nor aiz hi ene semea?

19. Eta lakobek erran zioen bere aitari: ni nauk Esau hire seme lehensorthua: egin diat nola ere hik niri erran baiharotan eta hala. Iaiki adi othoizten aut, eta iar adi eta ianzak ene ihizikitik, hire arimak benedikika nazantzat.

20. Eta Isaakek erran zioen bere semeari: zer da hau, horren laster ediren izan ahal duan, ene semea? eta erran zuen, hire lainko Eternalak egin dik hau inkuntratu izan den ene aitziñean.

21. Eta Isaakek erran zioen lakobi, ene semea hurbill adi, othoizten aut, eta ukituko aut iakiteko, ea hi aizen ene seme Esau bera, edo ez.

22. lakob bada hurbildu zen bere aita Isaakengana, zeñak ukitu baitzuen: gero erran zuen, boza hau

Iakoben boza da: bañan esku hauk Esauren eskuak dire.

23. Eta etzuen ezagutu ezen haren eskuak illetsuak ziren haren anaia Esauren eskuak bezala: halako manieraz non bedinkatu baitzuen.

24. Erran zuen bada, hi aiz ene seme Esau bera? ihardetsi zuen, ni nauk hura.

25. Erran zioen oraño, hurbill diezadak ianharia, eta ian dezadan ene semearen ihizikitik, ene arimak bedinka azantzat, eta hurbildu izan zuen, eta ian zuen. Arnoa ere ekharri zioen, eta edan zuen.

26. Gero Isaak bere aitak erran zioen, hurbill adi, othoizten aut, eta musu emadak, ene seme.

27. Eta hurbildu izan zen, eta musu eman zioen. Eta Isaakek sentitu zuen haren tresnen urriña eta bedinkatu zuen, erraten zuela, horra, ene semearen urriña, Eternalak bedinkatu duen larrearen urriña bezala.

28. Iainkoak bada eman diezaala zeruetako ihintzetik, eta lurreko gizenetik, ogi bihi franko eta arnorik hoberena,

29. pobluek zerbitza azatela, eta nazioneak iar daitezela ahuspez hire aitziñean, izan adi nausi hire anaien gañean, eta hire amaren semeak iar daitezela

ahuspez hire aitziñenean, hi madarikatuko auena madarika bedi, eta hi bedinkatuko auena, bedinka bedi.

30. Eta gerthatu zen Isaakek akhabatu zuen bezain sarri lakoben bedinkatzea, eta nola solament lakob ilkhitzen baitzen bere aita Isaaken aitziñetikan, haren anaia Esau bihurtu izan zela bere ihizitik.

31. Zeñak ere aphaindu baitzituen guztuko ianharriak, eta ekharri baitziotzan bere aitari eta erran baitzioen, ene aita iaiki bedi, eta ian beza bere semearen ihizikitik, hire arimak bedinka nazantzat.

32. Eta Isaak bere aitak erran zioen, nor aiz hi? eta erran zuen, hire semea nauk, hire seme lehensorthua Esau.

33. Eta Isaak sesitua izatu zen bere baithan mirakuilluzko mobimendu haundi batez: eta erran zuen, zein da eta non da bada ihizkia atzeman duen eta ekharri darotan hura, eta lan diat guzietarikan hi ethorri baño lehen: eta haña bedinkatu diat, hargatikan ere izango duk bedinkatua?

34. Eta Esauk aditu zituen bezain sarri bere aitarren hitzak, egin zuen harrigarrizko deihadar handi eta min bat. Gero erran zioen bere aitari, bedinka nazak, ni ere haiñ ungi, ene aita.

35. Bañan erran zuen, hire anaia ethorri duk tronperiaz eta eraman dik hire benediziona.

36. Eta Esauk erran zuen, eztute ungi deithu izatu haren izena lakob?, ezen iadan azpiratu izan niauk bi aldiz. Eramandik ene primutasun zuzena, eta horra, orai, eramandik ene benediziona. Gero erran zuen, eztarotak guardatu benedizionerik?

37. Eta Isaakek ihardetsi izan zioen Esauri, ziotsa-la, horra, ezarri diat haña nausi hire gañean, eta eman izan ziotzat bere anaia guziak muthiltzat: eta guarnitu diat ogiz eta arnorik hoberenez. Eta zer egiñen daroat bada nik, ene seme?

38. Eta Esauk erran zioen bere aitari, eztuk benediziona bat baizen, ene aita? Bedinka nazak ni, ni ere haiñ ungi, ene aita. Eta Esauk bere boza goratzen zuela, nigar egin zuen.

39. Eta Isaak haren aitak ihardetsi zuen, erraten zioela, horra, hire egoitza izango duk lurreko gize-nean, eta zerugañetako ihintzan.

40. Eta biziko aiz hire ezpataz, eta zerbitzatuko duk hire anaia: bañan gerthatuko duk nausi egiñ eta porroskatuko duala haren uztarria hire lepho gañetik.

41. Eta Esauk higindu izan zuen lakob bere aita bedinkatu zuen benediziona zela kausa eta erran

zuen bere baithan, ene aitaren dolu egunak hurbiltzen dire orduan hillen dut lakob ene anaia.

42. Eta salatu ziotzaten Rebekari Esau bere seme lehensorthuaren perpausak eta egorri zuen deitzera lakob bere seme ondokoa eta erran zioen, horra, Esau hire anaia kontsolatzen duk hitaz hillen auela.

43. Orai bada, ene semea, obedi diozok ene hitzari. Altxa adi, eta egik ihesi Karanera Laban ene anaia-gana:

44. Eta egon adi harekiñ zenbeit denboraz, hire anaiaren fulia iragan dadiñ arteraño,

45. eta haren kolera hireganik aldara dadiñ arteraño eta egin diotzaan gauzak ahanz dakizkon arteraño. Gero bidalduko diat hi erretiratzera handik. Zergatik gabetuko ninteke zuez biez egun batez?

46. Eta Rebekak erran zioen Isaaki, unhatu nauk bizitzen Ema hetiendar hauk direla kausa. lakobek hartzen baldin badu emaztetzat hetiendar hautarik, herri huntako hunako neskatxa hauk diren bezala, zertako baliatzen zait bizia.

HOGOIETA ZORTZIGARREN KAPITULUA

*Isaakek egortzen du lakob Paddan-Aramara
han hartzera emaztea eta bedinkatzen du.
6 Hori Esauk ikhusi eta, bere bertze emazteez
lekhora hartzen du emaztetzat Ismaelen alaba.
10 lakob kontsolatua da eta borthiztua bidean
zurubiaren bisioneaz,
zeñaren buruan zegoela lainkoak
erreberritzen baitiotza
haren aitei egiñikako promesak.
16 Hargatik bere ezagutzaren señaletzat
xaniatzen du lekhuaren izena, deitzen duela
Beth-El eta egiten dio botu bat lainkoari.*

1. Isaakek bada deithu izan zuen lakob, eta bedinkatu zuen, eta manatu zuen, ziotsala, eztuk hartuko emaztetzat Kanaango neskatxen artetikan.

2. laiki adi, oha Paddan-Aramara Bethuel hire amaren aitaren etxera, eta handik hartzat hiretzat emaztetzat Laban hire amaren anaiaren alabetarik.

3. Eta lainko borthitz guziz puxantak bedinka azala eta berretarazi, eta hauñitz egiñ azala, egiñ adintzat poblu bilduma.

4. Eta eman diezaala Abrahamen benedizioea, hiri, eta hire ondoreari hirekiñ, ardiets dezaantzat primutasuntzat hiri arrotz izatu aizena, lainkoak Abrahami eman dioena.

5. Isaakek bada egorri zuen lakob, zeña goan izan baitzen Paddan-Aramara, Laban Bethuel aramiendarren semeagana, Rebeka, lakob eta Esaturen amaren anaiagana.

6. Eta Esauk ikhusi zuen Isaakek bedinkatu zuela lakob, eta bidaldu zuela Paddan-Aramara handik har zezantzat emaztea beretzat: eta manatu zuela, bedinkatzen zuenean, ziotsala, eztezaala har emaztea Kanaango neskatxen artetikan.

7. Eta lakobek obeditu zituen bere aita eta bere ama, eta goan izan zela Paddan-Aramara.

8. Esauk beraz ikhusirikan Kanaango neskatxak desagradatzen zitzaizkola Isaak haren aitari,

9. goan izan zen Ismaelgana, eta hartu zuen emaztetzat [bere bertze emazteez lekhora] Mahalath, Ismael Abrahamen semearen alaba, Nebaiiothen arreba.

10. Iakob bada partitu zen Beer-Szebahtik, eta goan izan zen Karanara.

11. Eta inkuntratu izan zen lekhu batean, non iragan gaba, zeren eta iguzkia estali baitzen. Hartu zuen bada lekhuko harrietarik eta hetaz egiñ izan zuen bere buhurkia, eta lo egin zuen lekhu hartan.

12. Orduan egin zuen amets, eta horra zurubi bat phausatua zen lurraren gañean, eta haren buruak ukitzen zuen zeruetaraño, eta horra, lainkoaren aingeruak igaten eta iausten ziren hartarik.

13. Eta horra, Eternala haren gañean zegoen, eta erran zuen, ni nauk Eternala, hire aita Abrahamen lainkoa eta Isaaken lainkoa, emanen daroat hi lo atzan lurra, hiri eta hire ondoreari.

14. Eta hire ondorea izanen duk lurreko herrautsa bezala, eta hedatuko aiz okzidentera, eta orientera, eta septentrionera, eta eguberdira, eta lurreko arraza guziak bedinkatuak izango dituk hitan eta hire hazian.

15. Eta horra, hirekin nauk, eta begiratuko aut norat ere goango bahaiz eta han: eta bihurraraziko aut herri huntarat. Ezen ez aut utziko non eztaroadan egiñ erran daroadana.

16. Eta Iakob iratzarri izatu zen orduan bere lotarik, erran zuen, egiaz, Eternala lekhu huntan da, eta ezneakien deusere.

17. Eta beldurtu zen eta erran zuen, ala lekhu hau harrigarria baita! Ezta hemen lainkoaren etxea baizen, eta hemen da zeruetako athea.

18. Eta Iakob iaiki zen goiz goizetik eta hartu izan zuen harri bere buhurkia egiñ izan zuena eta alogatu zuen señaletzat, eta isuri izan zuen olioaren buruaren gañera.

19. Eta deithu zuen lekhu haren izena Beth-El: nola ere lehenago herriak izena Luz izatu baitzuen eta hala.

20. Eta Iakobek egin izan zuen botu bat, ziotsala, lainkoa enekin baldin bada, eta begiratzen baldin banau egiten dudan bijaian, eta ematen baldin bada-rot ogia iateko, eta tresnak beztitzeko,

21. eta bihur banadi bakean ene aitaren etxera: egiaz Eternala izanentzat lainko.

22. Eta hunako harri señaletzat alogatu dudan, hau izanen da lainkoaren etxea: eta hik niri emango darozkidakan gauza guzietarik emanen daroat osoki detxuma.

HOGOIETA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

*Iakob Paddan-Aramara ethorri eta
errezibitua da Labanen etxean,*

*15 eta zerbitzatzen du zazpi urthez izatekotzat
Rakel haren alaba emaztetzat.*

*21 Gero eztaiak egiten diren orduan, Lea ezarri izatu
eta arratsaldean Rakelen lekhuan,
asuietitzen da oraño*

*bertze zazpi urthetako zerbitzura
Rakel ere izatekotzat,*

*28 zeñaren eztaiak zelebratzen baititu
bizkitartean berehala Learen eztaien ondoan.*

*30 Rakel maitatua da Lea baño gehiago,
agorra da, bañak Leak egiten laur haur Iakobi.*

1. Iakob bada lothu zitzaion bideari, eta goan izan zen orientarren herrira:

2. Eta begiratu zuen, eta horra, phutzu bat larre batean, eta han berean hirur ardi tropela phutzu ondoan zeudezenak: ezen phutzu hartan edaraten

zituzten arthaldeak, eta bazen harri haundi bat phutzuaren zintzurrean.

3. Eta arthalde guziak hau bildu eta, khentzen zuten harria phutzuaren zintzur gañetik, eta edaraten zituzten arthaldeak: gero ezartzen zuten harria bere lekhuari phutzuaren zintzur gañean.

4. Eta lakobek erran zioten, ene anaiak, nongoak zarete? eta ihardetsi zuten, Karango gare.

5. Eta erran izan zioten, eztuzue ezagutzen Laban Nakorren semea? eta ihardetsi zuten, ezagutzen dugu.

6. Erran zioten, ungi dago? Ihardetsi zioten, ungi dago: eta horra, Rakel haren alaba, zeña heldu baita arthaldearekiñ.

7. Eta erran zuen, horra, egun zabala da oraño, ezta arthaldea erretiratzeko denbora: edara zatzue arthaldeak, eta goanaraz bazkatzera.

8. Ihardetsi izan zuten, eziñ ahal giñezake, arthalde guziak biribillka daitezten arteraño eta khen dezaten artean harria phutzuaren zintzur gañetikan, eta edara detzagun artean arthaldeak.

9. Eta nola oraño mintzo baitzen hekiekiñ, Rakel ethorri izan zen bere aitaren arthaldearekiñ: ezen artzaña zen haña.

10. Eta gerthatu izan zen, lakobek ikhusi zuen bezain sarri Rakel bere amaren anaiaren alaba eta Laban bere amaren anaiaren arthaldea, hurbildu izan zen eta khendu zuen harria phutzuaren zintzur gañetik eta edaratu zuen Laban bere amaren anaiaren arthaldea.

11. Eta lakobek musu eman zioen Rakeli, eta bere boza goratzen zuela nigar egin zuen.

12. Eta lakobek deklaratu zioen Rakeli, haren aitaren anaia zela, eta Rebekaren semea zela: eta laster egiñ izan zuen, eta erran zioen bere aitari.

13. Eta gerthatu zen Labanek aditu zituen bezain sarri bere arrebaren semearen berriak, laster egin zuela haren aitziñera, eta besarkatu zuela eta eman zioela musu, eta erakharri zuela bere etxera: eta kondatu ziotzan Labani gauza horiok guziak.

14. Eta Labanek erran zioen, egiazki ene hezurra eta haragia aiz: eta egotu izan zen harekiñ illhabethe bat osoki.

15. Labanek erran zioen oraño lakobi, zerbitzatu-ko nauk dohañik, zeren aizen ene anaia? deklaratu diezadak zer izanen den hire saria.

16. Labanek bada bazituen bi alaba: zaharrenaren izena zen Lea: eta gazteenaren izena Rakel.

17. Bañan Leak begiak minbera zituen, eta Rakelek gorputz thailu eder bat zuen eta ederra zen ikhusteko.

18. Eta Iakobek maite zuen Rakel, hargatik erran zuen, zerbitzatuko aut zazpi urthez Rakel hire alaba gazteenaren amoreagatik.

19. Eta Labanek ihardetsi zuen, hobeago duk hiri eman diezadaan haña ezen ez bertze gizon bati ematen banio: egon adi enekiñ.

20. Iakobek bada zerbitzatu zuen zazpi urthez Rakelentzat, zeñak iduritu baitzitkaizkon zenbeit egun guti bezala, zeren maite baitzuen.

21. Eta Iakobek erran zioen Labani, eman diezadak ene emaztea: ezen ene denbora akhabatu duk, harengana nohantzat.

22. Labanek bada biribillkatu zituen lekhuko iende guziak, eta egin zuen banket bat.

23. Bañan arratsa ethorri zen orduan, hartu bere zuen Lea alaba, eta ekharri zioen Iakobi, zeña ethorri baitzen harengana.

24. Eta Labanek eman zioen Zilpa bere neskatoa Lea bere alabari neskatotzat.

25. Bañan goiza ethorri izan zen orduan, horra, Lea zen: eta Iakobek erran zioen Labani, zer egin

darotak? Eztut zerbitzatu hire etxean Rakelentzat? Eta zergatik enganatu nauk?

26. Labanek ihardetsi zuen, eztute horrela egiten lekhu huntan, ematea gazteena zaharrenaren aitziñean.

27. Akhaba zak hunen astea, eta emanen daroagu hura ere ene etxean oraño egingo duan zerbitzuarentzat bertze zazpi urthez.

28. Iakobek beraz egin hala, eta akhabatu zuen Learen astea, gero Labanek eman zioen Iakobi emaztetzat Rakel bere alaba ere.

29. Eta Labanek eman zioen Bilha bere neskatoa, Rakel bere alabari neskatotzat.

30. Ethorri zen bada Rakelengana ere, eta maitatu izan zuen gehiago Rakel ezen ez Lea: eta zerbitzatu zuen oraño haren etxean bertze zazpi urthez.

31. Eternalak ikhusirik higindua zela Lea, ideki izan haren emasabela, bañan Rakel agor zen.

32. Eta Leak kontzebitu zuen eta egiñ izan zuen seme bat, eta deithu haren izena Ruben. Ezen erran zuen, zeren Eternalak begiratu baitio ene aflikzioneerri, hargatikan orai ere maitatuko nau ene senharrak.

33. Berriz kontzebitu izan zuen eta egin zuen seme bat, eta erran zuen, zeren eta Eternalak entzun

baitu higindua nintzela, eman izan darot hau ere: eta deithu zuen horren izena Simeon.

34. Eta kontzebitu zuen oraño eta egin zuen seme bat, eta erran zuen, oraingo aldian bada ene senharra egongo da enekiñ iuntaturik ezen egin diotzat hirur seme: hargatikan deithu izan zuten haren izena Lebi.

35. Oraño gehiago kontzebitu zuen eta egin zuen seme bat eta erran zuen, aldi huntan laudatuko dut nik Eternala. Hargatikan deithu zuen haren izena Iuda: gero gelditu zen haur egitetik.

HOGOI ETA HAMARGARREN KAPITULUA

*Rakelek agorra izanez emanen dio
bere neskatoa lakobi*

emaztetzat zeñarenganik izaten baititu bi seme.

*9 Leak orobat egiten du, zeñarenganik
izaten baititu bi seme eta alaba bat,*

22 eta Rakelenganik seme bat.

*25 Hala bere zerbitzu denbora akhabatu eta,
eskatzen dio kunjita Labani*

handik Kanaango herrira bihurtzeko:

34 bañan gelditurik Labanek egiten dioen

*promesa dela kausa, emanen diotzala bere saritzat
ardiak eta ahuntzak, merkatuak ethorriko litezkenak,*

*xoillki kolore batetako zirenetarik
egiten da harrigarri aberats.*

1. Orduan Rakelek ikhusirik etzioela egiten haurrik lakobi ieloskor izatu zen bere aizpa Leaz; eta erranzioen lakobi, eman dietzakidak haurrak, bertzela hilla nauk.

2. Horrengatik hasarratu izan zen lakob Rakelen kontra, eta erran zuen, lainkoaren lekhuana naiz ni, zeñak debekatu baitaron sabeleko fruitua.

3. Eta erran zuen, horra Bilha ene neskatoa, athor horrengana, eta haurra egiñen dik ene belhaunen gañean, eta izanen diat kasta haren bidez.

4. Eman zioen bada Bilha bere neskatoa emazteztat, eta lakob ethorri izan zen harengana,

5. zeñak kontzebitu baitzuen eta egiñ seme bat lakobi.

6. Eta Rakelek erran zuen, lainkoak iuiatu izan du enetzat, eta entzun izan du ene boza ere, eta eman darot seme bat: hargatik deithu izan zuen haren izena, Dan.

7. Gero Bilha Rakelen neskatoak kontzebitu zuen oraño, eta egin zioen bigarren seme bat lakobi.

8. Eta Rakelek erran zuen, xoill ungi gudukatu izan naiz ene aizparen kontra, hargatikan izatu ere dut nik bitoria: eta deithu izan zuen haren izena, Nefthali.

9. Leak beraz ikhusirikan gelditu zela haur egite-tik, hartu izan zuen Zilpa bere neskatoa eta eman zioen lakobi emaztetzat.

10. Eta Zilpa Learen neskatoak egin zioen seme bat lakobi.

11. Eta Leak erran zuen, tropela ethorri da, eta deithu zuen haren izena, Gad.

12. Berriz Zilpa, Learen neskatoak, egin zioen bigarren seme bat lakobi.

13. Eta Leak erran zuen, hori da ni dohatsu egiteko. Ezen neskatxek ni erraungo naute dohatsu: eta deithu izan zuen haren izena, Aszer.

14. Eta Ruben goan izan zen ogi bil denboran, eta aurkhitu zituen mandragorak larrean eta ekharri izan ziotzan Lea bere Amari. Eta Rakelek erran zioen Leari, eman diezadan, othoizten aut, hire semearen mandragoretarik.

15. Eta ihardetsi zioen, gauza gutia da hik niri eraman izan darotanala neure senharra, ene semearen mandragorak ere eramaten ezpaldinbadarozkidan? eta Rakelek erran zuen, lo egin beza bada gaurko gabaz hirekiñ, hire semearen mandragorengatik.

16. Eta lakob bihurtu izan zen orduan larretik arratsean, Lea ilkhi zitzaion aitziñera, eta erran zioen, ethorriko aiz ene gana: ezen gelditu aut merkaturia egiñikan ene semearen mandragorentzat: eta harekin lo egiñ izan zuen gau hartan.

17. Eta lainkoak entzun izan zuen Lea, eta kontzebitu zuen, eta egin zioen lakobi bortzgarren seme bat.

18. Eta erran zuen, lainkoak eman darot ene golar-
doa, zeren eta eman baitiot ene neskatoa neure sen-
harrari, eta deithu izan zuen haren izena, Isakar.

19. Eta Leak kontzebitu zuen oraño eta egin zioen
seigarren seme bat lakobi.

20. Eta Leak erran izan zuen, lainkoak eman darot
dote on batetarikan: oraingo aldian, ene senharrak
hantatuko nau ezen egin diotzat sei haur, eta deithu
zuen haren izena, Zabulon.

21. Ondoan gero erdi izan zen alaba batez, eta
deithu zuen haren izena, Dina.

22. Eta lainkoa orhoitu izan zen Rakelez, eta lain-
koak haña entzunik ideki zioen bere emasabela.

23. Orduan kontzebitu izan zuen, eta erdi izatu
zen seme batez eta erran zuen, lainkoak khendu du
ene laidoa.

24. Eta deithu zuen haren izena Iosep, erraten
zuela, Eternalak ematen darot bertze seme bat.

25. Eta gerthatu izan zen, nola Rakel erdi izatu
baitzen Iosepez, Iakobek erran zioela Labani, egor
nazak, eta bihurtuko nauk hemendik ene lekhura eta
ene herrira.

26. Eman dietzakidak ene emazteak eta ene hau-
rrak zeñen amoreakgatik zerbitzatu izan baihaut, eta

goango nauk ezen badakik zer zerbitzuz zerbitzatu audan.

27. Eta Labanek ihardetsi zioen, adi zak, othoizten aut, ediren baldinbadut grazia hire aitziñean. Ikhusi diat, Eternalak bedinkatu nauela hi aizela kausa.

28. Erran zioen oraño, deklarara zak, obligatua izango natzaikan saria, eta emango daroat.

29. Eta ihardetsi zioen, badakik nola zerbitzatu audan eta nolako egiñ izan den hire abrebestiakia enekiñ.

30. Ezen hik uena ni ethorri baño lehen gauza gutia zuan, bañan berretu izatu duk hanbatenaz eta gehiagoz, eta Eternalak bedinkatu izatu au ene ethortzean eta orai noiz egingo dut nik zerbeit gauza neure etxekotzat ere?

31. Eta Labanek erran zioen, zer emanen daroat? eta lakobek ihardetsi zuen: eztarotak emanen deuse-re egin nahi baldin badarotak hau, oraño bazkeragingo ditiat hire arthaldeak eta begiratuko tiat.

32. Iragan nadiñ gaur hire arthaldeen artean, eta eman betzate apartean ardi pikotatu eta nothatu guziak: eta bildotsen arteko gorrikara guziak: orobat ahuntzen arteko nothatuak eta pikotatuak: eta hori izango duk ene saria.

33. Eta hemendik aitzinera ene iustizia izango duk lekhuko enetzat: ezen ethorriko aitzinean ene golar-doaren gañera hire presentzian, ahuntzen artean pikotatuak edo nothatuak eta bildotsen artean gorrikara izango eztiren guziak izanen dire idukiak ohoinkeriatzat, aurkhitzen baldin badire ene baithan.

34. Orduan Labanek erran zuen, ungi duk: nahi diat: izan bedi nola ere erran baituk eta hala.

35. Eta egun hartan, apartatu izan zituen akher merkatu eta pikotatuak eta ahuntz pikotatu eta nothatu guziak, xuri non ere baitziren guziak, eta bildotsen artean gorrikara ziren guziak: gero ezarri zituen bere semeen eskuen artean.

36. Eta eman zuen hirur egunen bidea bere eta lakoben artean eta lakobek bazkarazitzen zituen Labanen gañerako arthaldek.

37. Bañan lakobek hartu zituen [...] eta gaztañ ondo xigor freskoak, eta pelatu zituen azal xuriak, agertzen zuela xigorretan zen xuria.

38. eta ezarri zituen xigor pelatu zituenak, arthaldeen aitzinean, edateko urasketan, non edatera ethortzen baitziren ardiak eta sartzen ziren beroan ethortzen ziren orduan edatera.

39. Ardiak bada berotzen ziren xigorak ikhustean, hargatik egiten zituzten ardi merkatu, pikotatu, eta nothatuak.

40. Eta lakobek errepartitu zituen bildotsak eta egin zuen Labanen arthaldeko ardiek izan zetzaten bistan merkaturikako ardiak eta gorrikara ziren guziak: eta ezarri zituen apartean, eta etzituen ezarri Labanen arthaldeen ondoan.

41. Eta gerthatzen zen ardi khexa berak berotzera ethortzen ziren aldi guziez, lakobek ematen zituela xigorak asketan barna arthaldearen begien aitziñean, sar zitezentzat beroan xigorrei begiraturik.

42. Bañan ardiak berankor zirenean, etzituen ezartzen, eta berankorrek Labani heldu zitzaizkon eta khexaberak lakobi.

43. Hala persunaia hori haundi egiñ izan zen ontasunez gehiago baño gehiago, eta izatu zuen arthalde franko, neskato eta muthil, kamelu, eta asto.

HOGOI ETA HAMEKAGARREN KAPITULUA

*Iakobek penetan dela Labanen haurren
murmurazioneak direla kausa errezibitzen du
lainkoaren manua handik
bihurtzeko Kanaango herrira.*

- 4 Hargatikan gauza guziak
bere emazteei erran ondoan
hekien konsentimenduarekiñ, partitzen da
bere familia guziarekiñ Laban abertitu gabe.*
- 22. Hori Labanek aditu eta iarraikitzen zaio ondotik,
eta atzematen du Galaadko mendian:*
- 24 Bañan Eternalaz erreprehenditua izanik
eztu egiten bortxarik batere, solament
errenkuratzen da zeren Iakob
erretiratzen den ixillikan,
eta zeren ebatsi izan diotzaten bere lainkoak*
- 36 hargatikan Iakobekiñ hagitz iharduki eta,
azkenean errezibitzen ditu haren defentsak, eta
harekiñ alientzia egiñik bihurtzen da bere herrira.*

1. Aditzen ditu bada Labanen haurren perpausak, ziotsatela, Iakobek hartu ditu gure aitari zihoazkon gauza guziak: eta gure aitari zihoazkon gauzen bidez ardietsi gloria hori guzia.

2. Eta Iakobek begiratu zioen Labanen bisaiari, eta horra, etzen haren aldera lehenago bezala.

3. Eta Eternalak erran zioen Iakobi, bihur adi hire aiten herrira, eta hire ahaidetara eta hirekiñ izanen nauk.

4. Iakobek beraz egorri zituen deitzera Rakel eta Lea larrera ethortzeko arthaldetara,

5. eta erran zioten, ezagutzen diñat zuen aitaren bisaian eztela ene aldera lehen bezala: bizkitartean ene aitaren lainkoa enekiñ izatu dun.

6. Eta badakizue, ene egiñ ahal guziaz zerbitzatu dudala zuen aita

7. bañan zuen aita trufatu izan dun nitaz, eta ganiatu izan diñ ene golardo hamar aldiz: guziarekiñ ere lainkoak etzion permetitu niri egitera gaitzik bate-re.

8. Horrela erraten zuenean, pikotatuak izanen dituk hire golardo: orduan ardi guziek pikotatuak egiten zituzten: eta erraten zuenean, merkatuak izanen

dituk hire golardo, orduan ardi guziek merkatuak egiten zituzten.

9. Eta lainkoak khendu izan du abrebestiakia zuen aitaganik, eta niri eman izan darot.

10. Ezen gerthatu izan zen ardiak beroan sartzen ziren denboran, altxatu nituela neure begiak, eta ikhusi nuela ametsetan, eta horra akherrak igaten ziren ahuntz merkatu, pikotatu, eta nothatuetara.

11. Eta lainkoaren aingeruak erran ziautanan ametsetan, lakob, eta ihardetsi niñan, huna ni.

12. Eta erran ziñan, altxatzak orai hire begiak, eta begira zak: akher guziak ahuntzetara igaten direnak merkatuak, pikotatuak, eta nothatuak dituk. Ezen ikhusi tiat hiri Labanek egiten darozkian guziak.

13. Ni nauk lainko borthitz Beth-Elkoa, non gantzutu baihuen harri señaletzat altxaturikakoa, han botu bat egiñ arotan orduan. Orai bada iaiki adi, ilkhi adi herri hortarik, eta bihur adi heure ahaideen herrira.

14. Rakelek bada eta Leak ihardetsi zuten eta erran zioten, badiagu oraño gure parte eta primutasuna gure aitaren etxean?

15. Ezkare hartaz idukiak izatu atze bezala? Ezen saldu gaitik: eta oraño lan izan dik osoki gure dirua.

16. Ezen aberastasun guziak lainkoak gure aitari khendu diotzanak guri heldu zitzaizkigun eta gure haurrei. Orai bada egitzik lainkoak erran darozkian gauza guziak.

17. Hala lakob iaiki izan zen, eta iganarazi zituen bere haurrak eta bere emazteak kameluen gañera.

18. Eta eraman zuen bere aitziñean bere abrebes-tiaki eta irabazi zituen ontasun guziak, eta poseditzen zituen eta Paddan-Aramen irabazi zituen gauza guziak, ethortzeko bere Aita Isaaken gana Kanaango herrira.

19. Eta nola Laban goan baitzen bere ardien mox-tera, Rakelek ebatsi izan zituen bere aitaren niniak.

20. Eta lakob itzuri zitzaion Laban aramiendarrari, zeren ezpaitzioen hitzik erran, ihesi baitzihoan.

21. Ihesi egin zuen bada bere gauza guziokiñ: eta partitu zen, eta iragan zuen ibaia, eta goan zen Galaadko mendi aldera.

22. Eta hirugarren egunean erran zioten Labani, lakob goan zela ihesi.

23. Orduan hartu zituen bere anaiak berekiñ, eta iarraiki izan zitzaion ondotik zazpi egunen bidean, eta atzeman izan zuen Galaadko mendian.

24. Eta lainkoa ethorri zitzaion Laban aramiendarri, ametsetan, gabaz, ziotsala, begirauk, benturaz ez adiñ ethor mintzatzerak lakobekiñ onetik gaitzera.

25. Labanek bada atzeman izan zuen lakob, eta lakobek landatu zituen bere tabernakleak mendian. Eta Labanek landatu zuen berea bere anaiekiñ Galaadko mendian.

26. Eta Labanek erran zioen lakobi, zer egin duk? niri itzuri atzait: eta eraman dituk ene alabak gerlako presonierak bezala.

27. Zergatik gorde izan aiz ihesi goateko, eta itzuri aiz eneganikan, eta eztarotak deklaratu, eta bidalduko indudan bozkarioekiñ, kanta, thanburiñ, eta xirribikarekiñ.

28. Eta eztarotak utzi musu ematera ene semeei eta ene alabei: orai erhoki eginduk hori egitean.

29. Eskuan diat ahala zuei gaizki egiteko: bañan zuen aitaren lainkoa mintzatu zitzaitan niri iragan gabea, erraten zarotala, begirauk mintzatzetik lakobekiñ onetikan gaitzera.

30. Ungi duk bada goan izan aizen horrela khexa, zeren eta hire aitaren etxerako gutizia haundia baihuen: bañan zergatikan ebatsi izan dituk ene lainkoak?

31. Eta Iakobek ihardesten zuela, erran zioen Labani, zeren beldur bainintzen, ezen erraten nian begiratu behar zela, benturaz gora ezezantzat hire alabak eneganikan.

32. Nori ere aurkhituko baitiotzak heure lainkoak eta hura, ez bedi bizi; ezagut zak gure anaien aitziñean, ea baden zerbeit gauza hirerik ene baithan, eta hartzak. Ezen Iakobek etzeakien Rakelek ebatsi zituela hek.

33. Laban bada ethorri izan zen Iakoben tabernaklera, eta Learen tabernaklera eta bi neskatoen tabernaklera, eta etzituen ediren izatu. Eta Learen tabernakletik ilkhirikan, ethorri izan zen Rakelen tabernaklera.

34. Bañan Rakelek hartu zituen niniak eta ezarri zituen kamelu baten bastan, gero iarri izan zen hekien gañean, eta Labanek miratu zuen tabernakle guzia, eta etzituen aurkhitu.

35. Eta erran zioen bere aitari, eztakiola desagrada ene launari, zeren eziñ iaiki ahal naiten horren aitziñean: ezen badut emazteei ethortzera usaturikako gauza hura. Eta miratu zuen, bañan etzituen ediren niniak.

36. Eta lakob hasarratu zen, eta iharduki zuen Labanekiñ, eta ihardesten zioela, erran zioen, zer da ene hobena? zer da ene bekhatua, khar handirekiñ ondotik iarraiki bahaitzat?

37. Erabili izan duk ene mañada guzia: zer gauza aurkhitu duk hire etxeko mañada guzitik? Ezartzak hemen ene anaien eta hire anaien artean, eta iuia bezate nork duen falta guk bietarik.

38. Hirekiñ izatu nauk iragan hogoi urthe hautan: hire ardi eta ahuntzek eztitek huts egiñ: eztitiat ian hire arthaldetako xikhiroak.

39. Izatu baldin bada zenbeit, basabestiaz zathikaturikakorik, eztarozkiat ekharri: neurorrek iasan izatu diat bidegabea: eta ene eskutikan galdetzen uen: oraño egunez ebasten zena, gauaz ebasten zena.

40. Egunaz beroak kontsumitzen nindian eta gauaz jeladak: eta ene loa ihesi zihoan ene begien aitzinnetikan.

41. Zerbitzatu aut iragan hogoi urthe hautan hire etxean, erran nahi da, hamalaur urthez hire bi alabentzat, eta sei urthez hire arthaldeentzat: eta ganbiatu darotak hamar aldiz neure golardoa.

42. Ene aitaren lainkoa, Abrahamen lainkoa, eta Isaaken ikhara izatu ezipaliz enetzat, egiaz bidalduko

orai hutsik. Bañan lainkoak begiratu zioek ene aflikzio-neari, eta ene eskuetako nekeari: eta erreprehenditu izan au iragan gauean.

43. Eta Labanek ihardetsi zioen Iakobi eta erran zuen, hunako neskatxa hauk ene alabak dituk, eta hunako haur hauk ene haurrak dituk, eta hunako arthalde hauk ene arthaldeak dituk, eta ikhusten dituan guziak eneak dituk. Eta zer gauza izan nintzaiokete gaur neure alaba hauri edo horion haur egin dituztenei?

44. Orai bada, ea trata dezagun alientzia hik eta nik, zeña izango baita señaletzat hire eta ene artean.

45. Eta Iakobek hartu zuen harri bat, eta xuxendu zuen señaletzat.

46. Eta erran zioten bere anaiei, bilzatzue harriak: zeñek harriak ekharri eta, egin baitzuten mahain bat eta ian baitzuten han mahañ haren gañean.

47. Eta Labanek deithu zuen hura legar Sahadut-ha. Eta Iakobek deithu izan zuen Galhed.

48. Gero Labanek erran zuen, mahañ hau izan bedi gaur lekhuko ene eta hire artean hargatik haren izena deithua izan zen Galhed.

49. Baita Mitspa ere: zeren erran baitzuen, Eterna-lak eman beza guardia hire eta ene gañean, bata ber-tzeaganik erretiratzera ethortzen garen orduan.

50. Aflijitzen baldin baituk ene alabak, eta hartzen baldin baduk emazterik ene alabez landan, eztuk izango nihor lekhuko gure artean, begira zak, lainkoa izango duk lekhuko ene eta hire artean.

51. Gehiago Labanek erran zioen lakobi, horra, mahañ hau, eta horra segnalea xuxendu dudana ene eta hire artean.

52. Mahañ hau izango duk lekhuko eta señale hori izanen duk lekhuko, nik, hiregana heldu naizela, eztu-dala iraganen mahañ hori: hik ere, enegana heldu aizela, eztuala iraganen mahañ hori eta señalea gaitz egiteko.

53. Abrahamen lainkoek eta Nakorren lainkoek iuia bezate gure artean, erran nahi da, hekien aitaren lainkoek. Bañan lakobek egin zuen iuramentu bere aita Isaaken ikharaz.

54. Eta lakobek ofrendatu zuen sakrifizio bat mendian: eta deithu zituen bere anaiek ogi iatera. Ian izan zuten bada ogia eta iragan zuten gaua mendian.

55. Eta Labanek goiz goizetik iaikirikan, musu eman zioten bere semeei eta bere alabei, eta bedin-

katu zituen eta goan izan zen. Hala Laban bihurtu izan zen bere lekhura.

HOGOI ETA HAMABIGARREN KAPITULUA

lakobek, seguratu izaturik aingeru tropela baten bisioneaz, iakiñarazilzen dio Esauri bere arribada:

6 Bañan aditurikan aitziñera heldu zitzaiola laur ehun

*gizonekiñ, aurkhitzen da
sesitua izialdura haundi batez.*

*7 Hargatikan errepartitzen ditu
dituen gauza guziak bi bandetara,*

9 gomendatzen zaio launari,

*13 eta alogatzen du present bat Esarentzat,
haren sosegarazitzeko.*

*24 Gero aingeru batekin guduan hariturik
eta ezin garaitu ahal izaturik, seguratu da
horlako bisione batez eta bere izenaren xanjatzeaz
beldur zitzaion hirriskuaren kontra.*

1. Eta lakob goan izan zen, eta lainkoaren ainguruak ethorri zitzaizkon aitziñera.

2. Eta lakobek ikhusi zituen bezain sarri erran zuen, hemen da lainkoaren egoitza, eta deithu izan zuen lekhu haren izena, Mahanajim.

3. Eta lakobek bidaldu izan zituen mandatariak bere aitziñean Esau bere anaiagana, Sehirko herrira, Edomgo lurrera:

4. Eta gomendatu zioten, ziotsala, hunela erranen diozue Esau ene iaunari, hunela erran izan dik lakob hire muthillak, egotu izan nauk arrotz bezala Labanen etxean, eta han egotu nauk orai arteraño.

5. Hala, badiat idi, asto, ardi, muthill eta neskato: hori bidaltzen zioat erratera ene iaunari, ediren deza-dantzat grazia horren aitziñean.

6. Eta mandatariak bihurtu izan ziren lakobengana, ziotsatela: Ethorri izan gaituk hire anaia Esaugana, eta oraño heldu duk hire aitziñera, Laur ehun gizon berekin dituela.

7. Orduan lakob hagitz beldurtu eta penetan izatu zen, eta errepertitu izan zuen harekin zen poblua, eta ardiak, eta idiak, eta kameluak bi bandetara, eta erran zuen,

8. Esau ethortzen baldin bada banda batetara, eta iazartzen baldin badio, egongo den gañerako banda salbatuko da.

9. lakobek erran zuen oraño: O ene aita Abrahamen lainkoa, ene aita Isaaken lainkoa, o Eternal niri

erran darotana, bihur adi hire herrira eta heure ahai-
detara, eta egiñ daroat ontasun.

10. Ttipiegi nauk, hire grazia guzien eta hire mut-
hillari egin dioan egia guziaren aldean: ezen iragan
diat ene makhillarekiñ lordan hau: bañan orai egin
nauk bi banda.

11. Othoizten aut, begira nazak ene anaia Esauren
eskutikan: ezen beldur niatzaiok, benturaz ethor ezta-
diñ, eta iazar eztiezadan eta amari haurren gañetik.

12. Eta erran duk, egiaz egiñen darout ontasun,
eta egiñaraziko diat hire ondorea Itsasoko harea beza-
la, hauñitz izan aren podorez nihork ere ezin konda
ahal dezakena.

13. Eta iragan zuen gaua lekhu hartan, eta hartu
izan zuen, eskura ethorri zitzaionetikan present bat
bere anaia Esaurentzat:

14. Erran nahi da, bi ehun ahuntz, hogoi akher, bi
ehun ardi, hogei xikhiro,

15. hogoi eta hamar kamelu esnedun, eta hekien
umeak, berrogoi xahal gazte, hamar zezen gazte,
hogoi asto eme, eta hamar asto kume.

16. Eta ezarri zituen bere muthillen eskuen artean,
tropela bakhotxa apart, eta erran zioten, iragan zai-

tezte ene aitziñean, eta egizue, izan dadin distantzia arthalde baten eta bertzearen artean.

17. Eta manatu zuen lehenbizikoa, ziotsala, ene anaia Esau inkuntratuko auenean, eta galdetuko daroanean, diotsala, norena aiz? eta norat oha? eta norenak dire hire aitziñean diren gauza horiok?

18. Orduan errango duk, ni nauk lakob hire muthillarena: hau duk present bat Esau ene iaunari egorria eta horra oraño gure ondotikan.

19. Eta orobat manatu zioen bigarrenari, eta orobat hirugarrenari eta orobat arthaldeen ondotikan zihoazen guziei, erraten zuela, mintzatuko zaizkote hitz horren arabera, Esauri, aurkhitzen duzuen orduan,

20. eta erranen duke oraño horra lakob hire muthilla gure gibeletikan, ezen erraten zuen, sosegaraziko diat haren bisaia present hunen bidez zeña goango baita ene aitziñean, eta horren ondoan ikhusiko diat haren bisaia: beharbada, gogotik ikhusiko niauk.

21. Presenta bada iragan izan zen haren aitziñean: bañan hura egotu izan zen gau hartan bere bandarekiñ.

22. Eta iaiki izan zen gau hartan, eta hartu zituen bere bi emazteak, eta bere bi neskatoak, eta bere hameka haurrak, eta iragan zuen labboko xirripa.

23. Hartu zituen bada eta iraganarazi zioten ibaia, elkharrekiñ iraganarazi zituen, zituen guziak.

24. Eta lakob bakharrik gelditu eta, gizon bat gudukatu izan zen harekiñ goizeko alba ager zediñ arteraño.

25. Eta gizon hark ikhusi zuen orduan ezin garai zezakela, ukitu izan zuen haren hanka tokia hala lakoben hanka hezurtokia bihurtu izan zen gizon gudukatzen zen orduan harekiñ.

26. Eta gizon hark erran zioen, utz nazak, ezen argi alba ageri duk. Bañan erran zuen, ez aut utziko, non ez nauan bedinkatu.

27. Eta erran zioen, zer da hire izena? Eta iharde-tsi zuen, lakob.

28. Orduan erran zuen, hire izena eztuk izanen gehiago errana lakob, bañan Israel: ezen nausi izatu aiz gudukatzen aizela lainkoarekiñ eta gizonekiñ, eta izatu aiz borthitzena.

29. Eta lakobek galdetu zuen, ziotsala, othoizten aut, deklarara diezadak hire izena. Eta ihardetsi zuen,

zergatikan galdetzen duk ene izena? eta han bedinkatu izan zuen.

30. Eta Jakobek deithu zuen lekhuaren izena Peniel: ezen ikhusi diat, dio, lainkoa bisaiaz bisaia, eta ene arima libratua izan da.

31. Eta iguzkia agertu zitzaion, Penuel iragan izan zuen bezain sarri, eta maingu zen bere hankaren gañean.

32. Hargatikan egungo egun arteraño, Israeleko haurrek eztute iaten muskulio erretiratzen denik zeña baita hanka tokian: zeren eta gizon hark ukitu baitzuen Jakob en hanka tokia erretiratzen den muskulioan.

HOGOI ETA HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

Iakoben eta Esaturen inkuntrada maitagarria.

4 Esauk begitarte ona egiten dio Iakobi.

*8 Haren othoitzagatik hartzen du
alogatu zioen presenta.*

12 Eta eskaintzen da haren laguntzera.

15 Bañan hark othoitz egiñ eta bihurtzen da Sehirrat.

*17 Iakob ethortzen da Sukothera, eta gero Sikemera,
non larre bat erosi eta han egiñ izan zuen aldare bat.*

1. Eta Iakobek bere begiak altxatu eta begiratu zuen: eta horra, Esau heldu zen, eta laur ehun gizon harekin: errepertitu ziotzaten bada haurrak Leari et Rakeli, eta bi neskatoei.

2. Eta ezarri zituen neskatoak eta hekien haurrak aitzinean, Lea eta haren haurrak ondoan, eta Raqel eta Iosep azkenik.

3. Eta hura iragan izan zen hekien aitzinean, eta iarri izan zen ahuspez zazpi aldiz, bere anaiagana hurbildu izan zen artean.

4. Bañan Esau laster egin zuen haren aitziñera, eta besarkatu zuen, eta erori zen haren lepho gañera, eta musu eman zioen: eta nigar egin zuten.

5. Gero bere begiak altxatzen zituela, ikhusi zituen emazteak eta haurrak, eta erran zuen, zer zaizkik hauk? Eta ihardetsi zuen, hauk dituk lainkoak bere graziai hire muthillari eman diotzan haurrak.

6. Eta neskatoak hurbildu izan ziren, hek eta hekien haurrak, eta iarri izan ziren ahuspez:

7. Gero Lea ere hurbildu izan zen, eta haren haurrak, eta iarri izan ziren ahuspez eta gero hurbildu izan zen Iosep eta Rakel zeñak oraño iarri baitziren ahuspez.

8. Eta erran zuen, zer egin nahi duk inkuntratu ditudan gauza hek guziekiñ? Eta ihardetsi zuen, hori duk grazia ediretekoztat ene launaren aitziñean.

9. Eta Esau erran zuen badiat franko, ene anaia: hirea dena, dela hirea.

10. Eta Iakobek ihardetsi zuen, ez, othoizten aut, orai ediren baldin badut grazia hire aitziñean, har dezaan ene presenta ene eskutikan: zeren eta ikhusi baitut hire bisaia, lainkoaren bisaia ikhusi banu beza-la: eta esmaratu izatu aiz ene aldera.

11. Hartzak, othoizten aut, ene present ekharria izatu zaiana: ezen lainkoak eman ziarotak bere graziaz, eta badiat gauza guzietarik. Presatu izan zuen bada hanbat non hartu izan baitzuen.

12. Eta Esauk erran zuen, parti gaitezen, eta goazen, eta goango nauk hire aitziñean.

13. Eta Iakobek erran zioen, ene launak bazeakik haur hauk minbera direla, eta kargatua naizela ardi eta xahal esnekumedunez: egun batez xoillki khexarazitzen baldin baituzte, arthalde guzia hillen da.

14. Othoi ene iauna iragan bedi bere muthillaren aitziñean, eta gidatuko naiz baratxe baratxe, ene aitziñean den bagaia trañaren arabera, eta haur haukien trañaren arabera, ene iaunaren etxera Sehirrera ethor nadiñ artean.

15. Eta Esauk erran zuen, othoizten aut egonaraz dezadan hirekiñ enekin den poblu huntarikan. Eta ihardetsi zuen, zergatik hori? ediren bezat grazia ene launaren baithan.

16. Hala Esau bihurtu izan zen egun hartan bere bide Sehirrart zihoanaz.

17. Eta Iakob goan izan zen Sukothera eta egin zuen etxe bat beretzat, eta egin zituen kabanak bere

abrebestiakiarentzat: hargatikan deithu izan zuen lekhuaren izena Sukoth.

18. Eta Iakob ethorri izan zen sendo eta salbo Sikemgo hirira Kanaango herrira, Paddan-Arametik zathorra, eta gelditu izan zen hiriaren aitziñean.

19. Eta erosi izan zuen [bere tabernaklea hedatu zuen] larre parte bat Hemor Sikemen aitaren haurren eskutikan, ehun zillhar pheza.

20. Eta xuxendu zuen han aldare bat, zeña deithu baitzuen, lainko borthitza, Israeleko lainkoa.

HOGOI ETA HAMALARGARREN KAPITULUA

*Sikemek, Dina lakoben alaba
goratu eta bortxatu eta,
4 eskatzen du emaztetzat,
lagun zuela Hemor bere aita.*

*13 lakoben hurrek tronperiaz baliaturik
prometatzen diote haña, kondizionerekiñ*

Sikemgo poblu guzia zirkuntzizatua izango zela.

*20 Hori konplitu eta, Simeon eta Lebi ethortzen dire,
eta hillzen dituzte Sikemgo gizon guziak
eta bere anaiekiñ pillatzen dute hiria.*

*30 Horrengatik lakob hagitz fastikatzen da,
eta eztaki zer egiñ bere etxea seguratzeko.*

1. Dina bada Leak lakobi egin zioen alaba ilkhi izan zen herriko neskatxen ikhustera.

2. Orduan Sikemek Hemor hebiendarraren semeak, herriko Printzeak ikhusi izan zuen haña, eta goratu zuen, eta etzitu izan zen harekiñ, eta bortxatu zuen.

3. Eta haren bihotza lothu zitzaion Dina lakoben alabari eta maitatu izan zuen neskatxa gaztea eta mintzatu zitzaion bere gogara.

4. Hemor bere aitari ere mintzatu zitzaion Sikem, ziotsala, hartzak neskatxa hori enetzat emazte izateko.

5. Jakobek bada entzun zuen bortxatu zuela haren alaba Dina, eta haren semeak haren arthaldearekiñ larrean ziren. Hala lakob ixillik egotu izan zen hek bihurtu artean.

6. Hemor beraz Sikemen aita ethorri zen lakobgana harekin minzatzera.

7. Eta lakoben hurrek egitekoa aditu zuten bezain sarri, bihurtu ziren larretikan, eta desplazertatu izatu zuten eta hagitz despertatu ziren Israelen kontra kometitu zuen itsuskeria zela kausa, lakoben alabarekiñ etziturikan: zein gauza ez baitzen behar egiñ.

8. Eta Hemor mintzatu zitzaion hei, erraten zuela, Sikem ene semeak zuen alaba baithan ezarri izan du bere afekzioea: eman diozozue, othoizten zaituztet, emaztetzat.

9. Eta iunta zaitetze gurekiñ, eman dietzagutzue zuen neskatxak, eta hartatzue gure neskatxak zuentzat.

10. Eta egon zaitezte gurekiñ eta herria zuen manuko izanen da: egon zaitezte han, eta trafika zazue eta posedi zazue.

11. Sikemek ere erran zioten haren aita eta anaiei, ediren dezadan grazia zuen aitziñean, eta erranen darotazuen hura, emango dut.

12. Hagitz haundi egizue ene gañean dotea, eta presenta, eta emango ditut nola ere errango baitarotazue eta hala: eta eman diezadazue neskatxa gaztea emaztetzat.

13. Iakoben semeek beraz ihardesten ziotela Sike-mi eta Hemor haren aitari eta tronperiaz mintzatzen zirela [zeren eta bortxatu baitzuen Dina hekien arre-ba],

14. erran izan zioten, eziñ egiñ ahal giñezake gauza hori, eman gure arreba prepuzioa duen gizon bati: ezen hori laido zaiku.

15. Bizkitartean alogatuko gare zuekiñ huntan, egiten baldin bazarete gu bezala, zirkuntzizatzen ditutzuela zuen arteko haur har guziak.

16. Orduan emanen darozkitzuegu gure neskatxak, eta hartuko ditugu zuen neskatxak guretzat eta egongo gare zuekiñ, eta egingo gare poblu bat.

17. Bañan obeditzen ezpaldin bagaitutzue zirkuntzisuak izateko, hartuko dugu gure alaba, eta goanen gare.

18. Eta hekien perpausak agradatu zitzaizkoten Hemorri eta Sikem Hemorren semeari.

19. Eta gizon gazteak etzuen berantetsi izatu hori egitera: ezen Iakoben alaba hagitz agradatzen zitzaion: eta bere aitaren etxeko iende guzietarik ohoragarriena zen.

20. Hemor beraz eta Sikem haren seme, ethorri izan ziren bere hiriko athera, eta mintzatu zitzaizkoten bere hiriko iendeei, ziotsatela,

21. iende hauk soseguzkoak dire, gurekin dire egon beitez herrian, eta trafika bezate. Eta horra, herria zabala da hedaduraz horion aitziñean: hartuko ditugu emaztetzat hekien neskatxak guretzat, guk ere gure neskatxak emanen diotzagute.

22. Bitartean iende horiok alogatuko dire gurekiñ huntan, gurekiñ egoteko, poblu bat egiteko, gure arteko har guziak zirkuntzisuak izan daitezen moienez, hek zirkuntzisuak diren bezala.

23. Horion arthaldeak eta horion sustantzia eta horion bestia guziak eztire gure izango? Solament aloga gaitezen horiokiñ, eta egon beitez gurekiñ.

24. Eta bere hiriko athetik ilkitzen ziren guziek obeditu zioten Hemorri eta Sikem haren semeari eta har guziak zirkuntzisuak izatu ziren bere hiriko athetik ilkhitzen ziren guzien artetikan.

25. Eta gerthatu zen hirugarren egunean, dolorean ziren orduan, Iakoben haurretarik biek, Simeonek eta Lebig Dinaren anaiek hartu zutela bat bederak bere ezpata, eta sarthu zirela ausarki hirian, eta hil zituztela har guziak.

26. Hill izan zituzten oraño ezpatahoz Hemor eta Sikem haren semea, eta hartu zuten Dina Sikemen etxetik, eta ilkhi izan ziren.

27. Eta Iakoben haurrak ethorri izan ziren, hek hill izatu eta, eta pillatu zuten hiria, zeren eta bortxatu baitzuten hekien arreba.

28. Eta hartu zituzten hekien arthaldeak, hekien idiak, hekien astoak, eta hirian eta larrean zena:

29. Eta hekien sustantzia guzia, eta hekien xeheria guzia: eta eraman zituzten preso hekien emazteak: eta pillatu zituzten etxetan ziren gauza guziekiñ.

30. Iakobek bada erran zioten Simeoni eta Lebiri, nahasi nauzue, higiñarazitzen nauzuela herriko habitantei, hanbat kananearrei nola fereziendarrei: eta iende guti diat: bilduko dituk bada ene kontra, eta

iazarriko ziarotatek, eta desegiña izango nauk ni eta ene etxea.

31. Eta ihardetsi izan zuten, egin dezaten gure arrebaz ema paillart batez bezala?

HOGOI ETA HAMABORTZGARREN KAPITULUA

*Iakob bere etxea purifikatu eta erretiratzen da
Bethelera lainkoaren manuz
6 non egiten baitu aldare bat.
8 Ehorzten du bere amaren unhidea
9 eta errezibitzen du launaren
promesen konfirmazio berria
10 Belh-Eltik partitzean Rakel hiltzean
Benjamiñez erditzean
22 eta Rubenek kometitzen du
adulter likhiskeria Billharekiñ.
28 Isaaken adiña eta heriotza.*

1. Iainkoak bada erran zioen Iakobi, iaiki adi, igan adi Beth-Elera, eta egon adi han, eta han egin diozok aldare bat Iainko borthitzari zeña agertu baitzitzaian ihesi indoan orduan hire anaia Esaturen aitzinetikan.

2. Iakobek beraz erran zioen bere famillari, eta harekin ziren guziei, khentzatzue arrotzen Iainko zuen

artean direnak, eta purifika zaitezte, eta ganbiatza-tzue zuen tresnak.

3. Eta iaiki gaitezen, eta igan gaitezen Beth-Elera, eta egiñen diot han aldare bat lainko borthitzari zeñak ihardetsi baitarot ene aflikzio egunean, eta izatu baita enekiñ goan izan naizen bidean.

4. Orduan eman ziotzaten lakobi arrotzen lainko hekien eskuan ziren guziuk, eta erreztun hekien beharritarik dilindan zeudezenak, zeñak gorde izan baitzi-tuen Sikemgo ondoan zen haritz baten azpian.

5. Gero partitu izan ziren, eta lainkoaren ikhara bat ethorri izan zen hekien ingurutan ziren hirien gañera halako maneraz non ezpaitzitzaizkoten iarraiki ondotik lakoben haurrei.

6. Hala lakob hori eta horrekin zen poblu guzia ethorri zen Luzera, zeña baita Kanaango herrian, zeña baita Beth-El.

7. Eta han egiñ izan zuen aldare bat, eta deithu zuen lekhu hura, Beth-Elko lainko borthitza: ezen lain-koa agertu zitzaion han, ihesi zihoan orduan bere anaiaren aitziñetik.

8. Orduan hill izan zen Debora Rebekaren unhi-dea, eta izatu zen ehortzia Beth-Elko beherean haritz

baten azpian zeñaren izena deithua izan baitzen Allon-Bakuth.

9. Berriz lainkoa agertu zitzaion lakobi, Paddan-Arametik heldu zen orduan eta bedinkatu zuen.

10. Eta erran zioen, hire izena duk lakob: hire izena eztuk izanen gehiago izendatua lakob, bañan hire izena izango duk Israel: eta deithu zuen haren izena Israel.

11. Lainkoak erran zioen oraño, lainko borthitza nauk ni, guziz puxanta: berret adi eta egiñ adi hauñitz nazione bat, bai nazione bilduma bat ethorriko dituk hireganik, oraño Erregeak ilkhiko dituk hire errañetarik.

12. Eta Abrahami eta Isaaki eman izan diotedan herria, emanen daroat hiri, eta emanen zioat hire ondoreari hire ondoan.

13. Hala lainkoa igan izan zen harenganik hari mintzatu zitzaion lekhu bererat.

14. Eta lakobek xuxendu zuen señaile bat lainkoa harekin mintzatu zen lekhu, erran nahi da, harri bat señaletzat eta isuri zuen gañetik ihinztur bat eta isuri zuen olio haren gañera.

15. lakobek bada deithu zuen lainkoa mintzatu zitzaion lekhuaren izena, Beth-El.

16. Gero partitu ziren Beth-Eltik, eta bazen oraño zerbeit herri espazio ttipi inguru ethortzeko Efratera: orduan Rakel erdi izatu zen haurraz eta penaz erdi izatu zen.

17. Eta nola baitzen erditzeko miñetan, emagiñak erran izan zioen, eztunala beldurrik: ezen hori zaiñ oraño hiri hemen seme bat.

18. Eta bere arimaren partiadan, [ezen hill izan zen] deithu izan zuen haren izena Benoni, bañan bere Aitak deithu zuen Benjamin.

19. Hala hill izan zen Rakel, eta izatu zen ehortzia Efratko bidean, zeña baita Beth-lehem.

20. Eta lakobek xuxendu zuen señaile bat haren sepulturaren gañean. Hori da Rakelen sepulturaren señailea gaurko eguna arteraño.

21. Gero Israel partitu izan zen, eta hedatu zituen bere tabernakleak Migdal-hederez haratago.

22. Eta gerthatu zen, Israel herri hartan zegoen orduan, Ruben ethorri izan zela eta etzan zela Bilha bere aitaren emahelagunarekiñ: hori Israelek aditu izan zuen. eta lakoben haurrak hamabi ziren,

23. Learen semeak, Ruben lakoben lehensorthua, Simeon, Lebi, Iuda, Isakar, eta Zabulon.

24. Rakelen semeak, Iosep, eta Benjamin.

25. Bilha Rakelen neskatoaren semeak, Dan, eta Nefthali.

26. Zilpa Learen neskatoaren semeak, Gad, eta Aszer. Horiok dire lakoben haur, Paddan-Aramen sort-hu zitzaizkonak.

27. Eta lakob ethorri izan zen bere aita Isaakengana Mamrera Kirjath-Arbahra, zeña baita Hebron non egotu baitziren arrotz bezala Abraham eta Isaak.

28. Eta Isaak bizi izatu zen denbora, izan zen ehun eta laur hogoi urthe.

29. Hala Isaak flakatuaz goan izanik hill izan zen, eta bildua izatu zen bere aitetara zahartu eta egunez asean izaturik: ete bere seme Esau eta lakobek ehortzi izan zuten.

HOGOI ETA HAMASEI-GARREN KAPITULUA

*Zer okhasionez Esau, bertzela Edom,
erretiratu izan den Sehirat.*

9 Esaturen ondokoen kontua.

*20 Orobat horiendarrena: zeñen artean
deithua baita Hana mandoak aurkhitu dituen.*

31 Horiendarren Erregeen kontua.

40 Orobat Esauganik iautsirikako printzeena.

- 1.** Hauk dire bada Esau Edom denaren ienerazio-
neak.
- 2.** Esauk hartu zituen bere emazteak Kanaango
neskatxetarik: erran nahi da Hada Elon hetiendarra-
ren alaba, eta Aholibama, Hanaren alaba eta Tsibhon
hebiendarraren Alaba ttipia.
- 3.** Hartu zuen oraño Basmath Ismaelen alaba,
Nebajothen arreba.
- 4.** Eta Hada erdi izan zitzaion Esauri Elifazez, eta
Basmath erdi izan zen Behuel.

5. Eta Aholibama erdi izan zen lehusez, eta lahla-
mez, eta Korahetz. Horiok dire Esauren haurrak zeñak
sorthu baitzitkaizkon Kanaango herrian.

6. Eta Esau hartu izan zituen bere emazteak, eta
bere semeak, eta bere alabak, eta bere etxeko presu-
na guziak, eta bere arthalde guziak, eta bere hazien-
dak, eta bere konkesta Kanaango herrian irabazi zuen
guzia, eta goan izan zen bertze herri batetara bere
anaia lakoben gibelera.

7. Ezen hekien ontasunak hañ haundiak baziren,
non eziñ egon ahal izango baitziren elkharrekiñ eta
arrotz bezala zeudezen herriak eziñ iasan ahal izango
zituen hekien arthaldeak zirela kausa.

8. Hala Esau egotu izan zen Sehirko mendian.
Esau Edom da.

9. Eta hauk dire hemen Esau Edomen aitaren iene-
razioneak Sehirko mendian.

10. Hauk dire hemen Esauren harren izenak, Elifaz
Hada Esauren emaztearen semea: Behuel Basmath
Esauren emaztearen seme.

11. Elifazen haurrak izatu ziren Teman, Omar,
Thsepo, Gahtam eta Kenaz.

12. Eta Timnah Elifaz Esauren semearen emaohe-
laguna izatu zen, eta erdi izatu zitzaion Hamalekez Eli-

fazi. Horiok dire hor Hada Esaren emaztearen haurrak.

13. Eta hauk dire hemen Behuelen haurrak, Nahath, Zerah, Szamma, eta Miza. Hauk izatu ziren Basmath Esaren emaztearen haurrak.

14. Eta hauk izatu ziren Aholibama Hanaren alabaren haurrak, Tsibhonen alaba ttipiarenak, eta Esaren emaztearenak zeña erdi baitzitzaion Esauri lehusez, lahlamez, eta Korahetz.

15. Hauk dire hemen Esaren haurren dukeak Elifaz Esaren lehensorthuaren haurrenak: Teman dukea, Oman dukea, Tsefo dukea, Kenaz dukea,

16. Korah dukea, Gahtam dukea, Hamalek dukea: horiok dire hor Elifazen dukeak Edomgo herrian: zeñak izatu baitziren Hadaren haurrak.

17. Eta hauk dire hemen Behuel Esaren semearen haurrenak: Nahath dukea, Zerah dukea, Szamma dukea, eta Miza dukea: horiok dire hor Behuelganik ilkhirikako dukeak Edomgo herrian zeñak izatu baitziren Basmath Esaren emaztearen haurrak.

18. Eta hauk dire hemen Aholibama Esaren emaztearen haurrenak: lehus dukea, lahlam dukea, Korah dukea, zeñak baitire Aholibama Manaren alaba Esaren emazteaganikan ilkhirikako dukeak.

19. Horiok dire hor Esau Edom denaren haurrak, eta horiok dire hor hekien dukeak.

20. Hauk dire hemen Sehir horiendarraren haurrak, zeñak herrian egotu izan baitziren, erran nahi da, Lotam, Szobal, Tsibhon eta Hana.

21. Diszon, Etser, eta Diszan: zeñak baitire horiendarren dukeak, Sehirren haurrak Edomgo herrian.

22. Eta Lotanen haurrak, izatu ziren Hori eta Hemam: eta Timnah zen Lotanen arreba.

23. Eta hauk dire hemen Szobalen haurrak erran nahi da Haluan, Manahath, Hebal, Szefo, eta Onam.

24. Eta hauk dire hemen Tsibhonen haurrak Aja, eta Hana. Hana hau da desertuan mandoak aurkhitu izan zituen hura, bere aita Tsibhonen astoak lan eragiten zituen orduan.

25. Eta hauk dire hemen Hanaren haurrak, Diszon, eta Aholibama Hanaren alaba.

26. Eta hauk dire hemen Disganen haurrak, erran nahi da Hemdan, Eszban, Lithran, eta Keran.

27. Eta hauk dire Etseren haurrak, erran nahi da, Bilhan, Zahauan, eta Hakan.

28. Eta hunako hauk dire Diszanen haurrak, erran nahi da, Huts, eta Aran.

29. Hunako hauk dire horiendarren dukeak, Lotan dukea, Szobal dukea, Tsibhon dukea, Hana dukea,

30. Diszori dukea, Etsar dukea, Diszan dukea. Horako horiok dire horiendarren dukeak, nola baitziren duke ezarriak Sehirko herrian.

31. Eta hunako hauk dire Edomgo herrian erregiñatu izan duten Erregeak, Errege batek Israeleko haurren gañean erregiña zezan baño lehenago.

32. Belahk bada Behorren semeak erregiñatu izan zuen Edomen, eta haren hiriaren izena zen Dinhaba.

33. Eta Belah hill izan zen, eta Iobab Botsrako, Zerahren semeak erregiñatu zuen haren lekhan.

34. Eta Iobab hill izan zen, eta Huszam, temanitarren herrikoak erregiñatu izan zuen haren lekhan.

35. Eta Huszam hill izan zen, eta Hadad Bedaden semeak erregiñatu zuen haren lekhan, zeñak garaitu baitzuen Madian Moabeko lurrian: eta Hauith zen haren hiriaren izena.

36. Eta Hadad hill izan zen, eta Masrekako Samlak erregiñatu zuen haren lekhan.

37. Eta Samla hill izatu zen, eta Szaul ibaia Reho-Bothekoak erregiñatu zuen haren lekhan.

38. eta Szaul hill izan zen, eta Bahal-hanan Hakborren semeak erregiñatu zuen haren lekhan.

39. Eta Bahal-hanan Hakboren semea hill izan zen, eta Hadarek erregiñatu zuen haren lekhuari: eta Pahu zen haren hiriaren izena eta haren emaztearen izena Mehetabeel, zeña baitzen Matreden alaba, eta Mezahaben alaba ttipia.

40. Eta hunako hauk dire Esauren dukeen izenak bere famillen arabera, bere lekhuari arabera, bere izenen arabera: Timnah dukea, Halua dukea, Ieteth dukea,

41. Aholibama dukea, Ela dukea, Pinon dukea,

42. Kenaz dukea, Teman dukea, Mibtsar dukea,

43. Magdiel dukea, eta Hiram dukea. Horako horiok dire Edomgo dukeak bere egoitzen arabera bere posesioneko herrian. Esau da Edomeren aita.

HOGOIETA HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

*Iosep maitatua beregainki bere aita lakobez
4 eta bigindua bidetabeki bere anaiez.*

*5 Bere bi ametzak kondatu eta
bigindua da gehiago hetaz.*

18 Hargatikan erresolitzen dute haren hiltzera.

*21 Rubenek debekatu izan ez-palitu
26 gero ludaren kontseilluz*

saltzen diote ismaelitar batzuei,

28 zeñek eramaten baitute Ejiptura.

*31 Azkenean ezaltzen diote bere egiña
dohakabeki bere aita lakobi*

*34 zeñak siñetsirikan hil zela Iosep
hartu baitzuen tristezia haundi bat.*

1. Iakob bada haren aita arrotz bezala egotu izan zen herrian egotu izatu zen, erran nahi da Kanaango herrian.

2. Hunako hauk dire Iakoben ienerazioneak. Iosepek hamazazpi urtheren adiña zuela lan eragiten

zituen bere anaiekiñ arthaldeak, eta muthill gaztea zen Bilharen haurren artean eta Zilparen haurren artean, haren aitaren emazteak. Eta Iosepek salatu ziotzan bere aitari hekien hitz gaxto laidagarriak.

3. Eta Israelek maite zuen Iosep bere bertze seme guziak baño gehiago, zeren eta bere zahartzean izatu baitzuen, eta egiñ izan zioen arropa pinkardatu bat.

4. Eta bere anaiek ikhusirikan aitak maite zuela hek guziak baño gehiago, higintzen zuten, eta ezin mintza ahal zekioten hari emeki.

5. Eta Iosepek egiñ izan zuen amets bat zeña deklaratu baitzioten bere anaiei, hargatikan higindu izan zuten oraño hanbatenaz gehiago.

6. Erran zioten bada, entzun zazue, othoizten zaituztet, egiñ izan dudan amets hau:

7. Horra, ogizamak amarratzen gintuen larrean, eta orduan ene ogizama altxatu izan zen eta egotu zen xuxen: eta horra zuen ogizamek inguratu zuten, eta ahuspez iarri izatu ziren ene ogizamaren aitziniñean.

8. Eta bere anaiek erran izan zioten, erregiñatuko uke beraz egiazki gure gañean? edo errealki gure nausi izango baldin bahintz? Hala higindu izan zuten oraño gehiago haren amets eta hitzak zirela kausa.

9. Berriz egiñ izan zuen bertze amets bat eta kondatu zioten bere anaiei, ziotsatela, horra, egin dut oraño amets bat: eta horra iguzkia eta illhargia eta hemeka izar iarri izan ziren ahuspez ene aitziñean.

10. Eta kondatu zioen orduan bere aitari eta bere anaiei, bere aitak erreprehenditu zuen, eta erran zioen, zer da egiñ izan duan amets hori? Ethorri beharko bide diagu nik eta hire amak eta hire anaiek lurrean ahuspez iartzera hire aitziñean?

11. Eta haren anaiek inbidia izatu zuten haren kontra: bañan haren aitak guardatzen zuen perpaus hori.

12. Haren anaiak bada goan izan ziren bazkeragitera bere aitaren arthaldeak Sikemen.

13. Eta Israelek erran zioen Iosepi, hire anaiek eztute bazkeragiten Sikemen? Athor, egor azadan hekiengana. Eta ihardetsi izan zioen huna ni hemen.

14. Eta erran zioen, oha orai begira zak ea hire anaiak eta arthaldeak ungi diren, eta iakiñaraz diezadak. Hala egorri izan zuen Hebrongo zelhaietik, eta ethorri izan Sikemeraño.

15. Eta gizon batek aurkhitu izan zuen larrez larre errebelaturik zebillala, eta gizon hark galdetu zioen, erraten zioela, zeren billha abilla?

16. Eta ihardetsi izan zuen, neure anaien billha niabillak: othoizten aut, erakuts diezadak non bazke-
ragiten duten.

17. Eta gizonak erran zuen, partitu dituk hemen-
dik: ezen aditu diat erraten zutela, goazen Dothaina-
ra. Eta Iosep goan zen bere anaien ondoan, eta ediren
izan zituen Dothainen:

18. Eta ikhusi izan zuten urrundik. Eta hekienganik
hurbildu baño lehen, phentsatu izan zuten haren kon-
tra haren hiltzera.

19. Eta erran zioten batak bertzeari, horra, nausi
ametsegille hori badathor.

20. Orai beraz zatozte, eta hil dezagun, eta aurt-
hik dezagun phutzu horiotarik batetara: eta erranen
diagu, bestia gaxto batek iretsi izan du: eta ikhusiko
diagu zer egingo diren haren ametsak.

21. Eta Rubenek entzun zuen hori, eta libratu izan
zuen hekien eskuetarik, ziotsala, eztiozogun khen
bizia.

22. Gehiago Rubenek erran zioten, eztezazuela
isur odola: aurthik zazue, desertuan den phutzu hortar-
a, eta eztezazuela eman eskua horren gañean:
hekien eskuetarikan libra zezantzat, bihurrarazitze-
ko bere aitagana.

23. Iosep bada bere anaiengana ethorri zen bezain sarri, erauntzi izan zioten bere arropa, haren gañean zen arropa pinkardatu hura.

24. Eta hartu izan zuten, eta etxatu zuten phutzura: bañan phutzua hutsa zen, eta etzen han urik.

25. Gero iarri izan ziren ogia iateko. Eta bere begiak altxaturik begiratu izan zuten eta horra bidearen gañeko ismaelitar tropela bat, Galaadetik heldu zena, eta hekien kameluek drogak zakharzketen, eta baltsamua, eta mirra, eta hori Ejiptura eramateko zihoazen.

26. Eta ludak erran zioten bere anaiei, zer irabazi izango da, geure anaia hiltzen badugu eta estaltzen haren odola?

27. Zatozte, eta sal diozoguten ismaelitar horioi, eta gure eskua eztadiñ izan horren kontra: ezen gure anaia, gure haragia duk, eta bere anaiek obeditu zuten.

28. Eta nola merkatari madianitarrak iragaten baitziren, atheratu izan zuten eta iganarazi zuten Iosep phutzutikan, eta saldu izan zioten ismaelitarrei hogoi zillhar pheza; eta horiok eraman izan zuten Iosep Ejiptura.

29. Gero Ruben bihurtu zen phutzura, eta horra, Iosep etzen gehiago phutzuan: orduan zathikatu zituen bere tresnak.

30. Eta bihurtu zen bere anaietara, eta erran zuen, haurra ezta aurkhitzen eta ni, ni nora goango naiz?

31. Eta hartu zuten Iosepen arropa, eta hill izan zuten akher bat ahuntzen artetikan, eta odolztatu izan zuten arropa.

32. Eta egorri zuten arropa pinkardatua, eta ekharrazazi zioten bere aitari, eta erran zuten, aurkhitu diagu hau: ezagutzak orai ea hire semearen arropa den, ala ez.

33. Eta ezagutu izan zuen, eta erran zuen, ene semearen arropa da; bestia gaxto batek deboillatu izan du: egiazki Iosep zathikatua izan da.

34. Eta Iakobek zathikatu zituen bere tresnak, eta ezarri zuen zakhu bat bere errañen gañean eta ekharri izan zuen dolua bere semearen gañean hauñitz egunez.

35. Eta haren seme eta alaba guziak ethorri ziren haren kontsolatzera: bañan errefusatu zuen kontsolazione guzia eta erran zuen, egiaz iauntsiko naiz dolua dakharkedala hobira ene semeagana. Hala nigar egiten zioen.

36. Eta madianitarrek saldu zioten Ejiptuan Potifar Faraonen ganbarazañari iauregiko prebostari.

HOGOI ETA HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

*Iuda ezkontzen da kananear batekiñ,
3 eta harenganik hirur haur izatu
eta ematen diote Tamar emaztetzat
hetarik biei bata bertzearen ondoan:*

*11 zeñak haurrik gabe hill eta,
bidaltzen du bere erraña prometaturik*

*ezkonduko duela bere hirurgarren semearekiñ,
12 bañan zeren eta ezpaitzuen konplitu promes hori,
Tamarrek maskatu eta kometitzen du
bekhatua harekiñ,*

*18 zeñenganik kontzebitzen baitu,
27 eta egiten baititu bi haur.*

1. Gerthatu zen denbora hartan Iuda iautsi izan zela bere anaienganik, eta aldaratu zela gizon hadu-llamitar batengana zeñak baitzuen izena Hira.

2. Eta Iudak han ikhusi zuen kananear baten alaba, zeñak baitzuen izena Szuah, eta hartu izan zuen, eta ethorri izan zen harengana.

3. Zeñak kontzebitu baitzuen eta egin seme bat eta deithu zuten haren izena Her.

4. Eta kontzebitu zuen oraño, eta erdi izan zen seme batez, eta deithu zuen haren izena Onan.

5. Gehiago erdi izan zen oraño seme batez, eta deithu zuen haren izena Szela. Eta Keziben zen huntaz erdi izatu zen orduan.

6. Eta ludak hartu zuen emaztea Her bere lehensorthuarentzat, zeñak baitzuen izena Tamar.

7. Bañan Her ludaren lehensorthua gaxtoa zen Eternalaren aitziñean, hargatikan Eternalak hillarazi izan zuen.

8. Orduan ludak erran zioen Onani, athor hire anaiaren emazteagana, eta hartzak emaztetzat, haren koñat aizen bezala, eta sor eragin diozok kasta heure anaiari.

9. Bañan Onan, ikhusirik etzela kasta izanen harena, bere anaiaren emazteagana ethortzen zen aldi guzietz lohitzten zen lurraren kontra, bere anaiari kasta eman etziozontzat.

10. Eta egiten zuena desagradatu zitzaion Eternalari: hargatik hillarazi zuen hori ere.

11. Eta ludak erran zioen Tamar bere errañari, egon adi alhargun hire aitaren etxean. Szela ene

semea handi dadiñ artean: ezen erran zuen, guardia egin behar da hill eztadiñ bere anaiak bezain ungi. Hala Tamar goan izan zen, eta egotu zen bere aitaren etxean

12. Eta zenbeit egunen ondoan hill izan zen Szuah ludaren emaztearen alaba. Ondoan luda kontsolatu izan zen, eta igan zen bere ardien murrizailleengana Timnathara, hori eta Hira hadullamitarra horren adis-kide haundia.

13. Tamarri bada iakiñarazi zioten, ziotsatela, horra, hire aitagiñ-harraua igaten dun Timnathara bere ardiak murriztera.

14. Orduan khendu zituen soiñetik bere alhargun habituak, eta estali izan zen belo batez eta alogatu zen, eta iarri izan zen kantoin batean zeña baitzen Timnatharako bidegañean: zeren eta baitzakusan Szela haundi egin zela, eta etzitzaiola eman izatu emaztetzat.

15. Eta ludak ikhusi zuen orduan hura, uste izatu zuen puta zela: ezen estali zuen bere bisaia.

16. Eta aldaratu izan zen harengana hura zen bidera, eta erran zuen, permeti zan, othoizten aut, ethor nadiñ hiregana: ezen etzeakien haren erraña

zela. Eta ihardetsi zuen, zer emanen darotak ethor adintzat enegana?

17. Eta erran zuen, egorriko daronat ahuntziño bat arthaldeko ahuntzen artetik. Eta ihardetsi zuen, bai, ematen badarotak bahia egor dezaan artean.

18. Eta erran zuen, zer bahi emanen daronat? Eta ihardetsi zuen, hire zigillua, hire mokanesa, eta hire eskuan eskuan duan makhilla: hori eman izan zioen, eta ethorri izan zen harengana, eta kontzebitu zuen harenganik.

19. Gero iaiki zen, eta goan izan zen, eta khendu zuen soñetik bere beloa, eta iauntzi zituen bere alhar-gun habituak.

20. Eta ludak egorri izan zuen ahuntziño bat ahuntzen artetikan bere adiskide haundi hadullamitarraren bidez, har zezantzat bahia emaztearen eskutik, bañan etzuen ediren izatu.

21. Eta galdetu zioten hura izatu zen lekhuko gizonei, ziotsala, non da bidegañean bistan zen puta hura? Eta ihardetsi izan zuten, eztuk izatu hemen putarik.

22. Eta bihurtu izan zen ludagana, eta erran zioen, eztiat aurkhitu haña, eta lekhuko iendeek ere erran ziarotatek eztuk izatu hemen putarik.

23. Eta ludak erran zuen iduk beza bahia berekiñ mespreziatuak izan ezkaitezen beldurrez. Horra, egorri diat ahuntziño hau, bañan eztuk aurkhitu izatu hura.

24. Eta gerthatu zen hirur illhabetheren inguru ondoan, erreportatu ziotela ludari, erraten zutela, Tamar hire erraña erori izan duk paillardizan: eta horra, izorra ere duk paillardizaz. Eta ludak erran zuen, ilkhiaz zazue, eta errea izan bedi.

25. Eta nola ilkhiazitzen baitzuten egorri zioen erratera bere aitargiñharrauari, izorra nauk gauza hauk dohazkon gizonaganik. Erran zuen oraño, ezagut zak, othoizten aut norena den zigillu hau, mokanes hau eta makhill hau.

26. ludak bada ezagutu zituen, eta erran zuen, ni baño iustuago duk: zeren eta ezpaitiot eman izatu Szela ene semeari. Eta etzuen ezagutu gehiago.

27. Eta gerthatu zen haurraz erditzeko denboran, horra bi haur ziren haren sabelean:

28. Eta nola hurrez erditzen baitzegoen, batek eman izan zuen eskua: eta emagiñak hartu zuen eta amarratu zuen haren eskugañean eskarlat hari bat erraten zuela, hunako hau ilkhitzen da lehenik.

29. Eta bere eskua erretiratu izan zuen orduan, horra haren anaia ilkhi zen. Eta erran zuen, nolako idekitzea egin dioan heurorri! Idekitzea dela hire gañean, eta deithu izan zuten haren izena Farez.

30. Ondoan gero ilkhi izan zen haren anaia zeñak baitzuen esku gañean eskarlat haria, eta deithu zuten haren izena Zara.

HOGOI ETA HEMERETZIGARREN KAPITULUA

Iosep Potifari saldua, bedinkatua da launaz.

*4 Hargatik bere nausiak ematen dio
bere egiteko guzien artha.*

*7 Bañan zeren ezpaitio egin nahi atsegiñ
bere etxeko andrearen amudio lohiari,*

17 laidatua da hartaz bere nausiaren baithan,

19 zeñak hersten baitu presondegian

*21 non bizkitartean lainkoak bere graziaz
lagundurik egiten baita presonjeren iabe.*

1. Iosep bada eraman zuten orduan Ejiptura, Potifar Faraonen ganbarazañ iauregiko prebost ejiptuarrak erosi izan zuen ismaelitarren eskutik zeñek ekharri izan baitzuten harat.

2. Eta Eternala Iosepekin zen: hala gizon dohatsua izatu zen, eta bere nausi ejiptuarraren etxean zen.

3. Eta haren Nausiak ikhusi zuen Eternala harekin zela, eta egiten zituen gauza guziak, Eternalak ungi goanarazitzen zituela haren eskuetan.

4. Iosepek beraz ediren zuen grazia bere Nausiaren aitziñean, eta zerbitzatzen zuen: eta horrek eman izan zioen bere etxearen kargua, eta eman ziotzan eskuan zihoazkon guziak.

5. Eta gerthatu zen, bere etxearen eta zituen guzien kargua eman zioenaz gerostik, Eternalak bedinkatu izan zuela ejiptuar haren etxea Iosepen bidez. Eta Eternalaren benedikzioea izatu zen haren ziren gauza guzietan, hanbat etxean nola larrean.

6. Hargatikan utzi izan zituen bere gauza guziak Iosepen eskuan: halako maneraz non ezpaitzen sartzen kontutan harekiñ deusezere, iaten zuen ogiaz baizen. Eta Iosepek thaila eder bat zuen eta ederra zen ikhusteko.

7. Gerthatu zen beraz gauza horion ondoan haren nusiaren emazteak aurthiki zituela begiak Iosepen gañera, eta erran zuela, etzan adi enekiñ.

8. Bañan bere Nusiaren emaztea errefusatu eta, erran zioen, horra, ene Nausia eztun sartzen enekin kontutan haren etxean diren gauzez eta eman ziarozkidan eskuan dituen gauza guziak,

9. eztun etxe huntan ni baño haundiagorik, eta etziarotan debekatu deusere. Hi baizen, hi haren emazte aizen bezala: eta nola egingo nuke gaizki

horren haundi hori eta egingo nuke bekhatu lainkoaren kontra?

10. Eta haña egun guzietz Iosepi hartaz mintzatzen zitzaien arren: bizki tartean etzuen obeditu izatu haren kontra etzateko, harekin izatekotzat.

11. Eta gerthatu zen egun bat, ethorri zela etxera bere lana egitera, eta etzela sehietarik batere etxean:

12. Orduan hartu izan zuen hañak bere beztimendutik, ziotsala, etzan adi enekin: eta utzi zuen bere beztimendua haren eskuan eta goan zen ihesi, eta ilkhi zen kanpora.

13. Hañak bada ikhusi zuen bezain sarri, utzi zuela bere beztimendua haren eskuan, eta goan zela ihesi kanpora,

14. deithu izan zituen bere etxeko iendeak eta mintzatu zitzaien, erraten zuela, ikhus zazue, ekharri ziarokuk gizon hebrear bat, gutaz musikatzeko, zeña ethorri baita enegana enekin etzatera: bañan egin diat deihadar haundi bat.

15. Eta aditu izan duen bezain sarri deihadar egin dudala, utzi dik bere beztimendua ene aldean, eta ihesi goan duk, eta ilkhi duk kanpora.

16. Eta iduki izan zuen Iosepen beztimendua berekin, haren nausia etxera ethor izan zedin artean.

17. Orduan mintzatu zitzaion hari perpauus hekien arabera, erraten zuela, muthil hebrear guri ekharri darozuana ethorri duk enegana, nitaz musikatzera.

18. Bañan nola deihadar egin baitut, utzi dik bere beztimendua ene aldean eta goan duk ihesi kanpora.

19. Haren nausiak aditu zituen bezain sarri bere emazteak erran ziotzan hitzak, ziotsala, hire muthillak egin ziarotak perpauus horion arabera, haren kolera piztu zen.

20. Hala Iosepen nausiak hartu zuen, eta ezarri kartzela hertsi batean, Erregeren presonjerak hertsuak ziren lekhan. Han izatu zen bada presondegian.

21. Bañan Eternala Iosepekin zen, eta hedatu izan zuen bere grazia haren gañera, eta eman zioen grazia presondegiko nausia baithan.

22. Eta presondegiko nausiak eman zituen Iosepen eskuan presondegian ziren presonjer guziak: eta han egiten zituzten gauza guziak, egiten zituen.

23. Eta presondegiko nausiak etzuen egortzen deusere haren eskuetan ziren gauza guzietarik, zeren eta Eternala harekin baitzen: eta hark egiten zuena, Eternalak ungi goan eragiten baitzuen.

BERROGOIGARREN KAPITULUA

Faraonen kopemaillea eta ogi iabea preso ematen dituzte, eta ematen diotzate karguz Iosepi. 6 Horrek esplikatzen diotzate egin zituzten amets batzuek, 20 halako manieraz non horren esplikazionea berehala ondoan konfirmatzen baita gauzak hala gerthaturik.

1. Gauza horion ondoan gerthatu zen, Ejiptuko Erregeren kopemailleak eta ogi iabeak ofentsatu zute-la Ejiptuko Errege bere launa.

2. Eta Farao hagitz hasarratu izan zen bere bi ganbarazañen kontra: erran nahi da, bere kopemaille haundiaren kontra, eta bere ogi iabe nausiaren kontra.

3. Eta begireragin zituen iauregiko prebostaren etxean, kartzela hertsian, Iosep herstua zen lekhuana.

4. Eta iauregiko prebostak eman zioen hekien kargua Iosepi, zeñak zerbitzatzen baitzituen, eta izatu ziren zenbeit egunez presondegian.

5. Eta biek egiñ izan zuten amets bat, batbederak bere ametsa gau batean, eta batbederak bere ametsaren esplikazionearen arabera, hanbat kopemailleak nola Ejiptuko Erregeren ogi-iabeak, presondegian herstuak zirenak.

6. Orduan Iosepek hekiengana goizean ethorririk, begiratu zioten, eta horra, triste ziren.

7. Eta galdetu zioten Faraonen ganbarazañei [zeñak baitziren harekiñ haren nausiaren presondegian] erraten zuela, zer arrazoñez duzue egun, horren bisaia gaxtoa?

8. Eta ihardetsi izan zioten, ametsak egin tiagu, eztuk nihor esplikatzen dituenik. Eta Iosepek erran zioten, esplikazioneak eztire lainkoarenak? Othoizten zaituztet, konda dietzakidatzue.

9. Eta kopemaille haundiak kondatu zioen bere ametsa Iosepi, erraten ziola, iduritzen ziaitaan ametssegitean ikhusten nuela mahatsondo bat ene aitziiñean:

10. Eta mahatsondoan bazirela hirur adar eta loratu nahi izan balu bezala zen, eta haren lorea ilkhi zen, eta haren mulkhoek ondueragin zitiztean mahatsak.

11. Eta Faraonen kopa ene eskuan zuan: eta hartzen nitian mahatsak eta hersten nitian Faraonen kopara, eta ematen nioan kopa bere eskura.

12. Eta Iosepek erran zioen: hau da horren esplikazionea: hirur adarrak hirur egun dire.

13. Hemendik hirur egunen barnean Faraonek altxatuko dik hire burua eta bihurtaraziko au hire estatura, eta emanen diok kopa Faraoni bere eskura lehenbiziko ofizioaren arabera, Kopemaille intzen orduan.

14. Bañan orhoit adi nitaz, hire gogara ezarria izanen aizen orduan, eta egin diezadak, othoizten aut, fagore hori, egin diozokoan nitaz aiphamen Faraoni, eta ilkhiaraz nazakaan etxe huntarik kanpora.

15. Ezen egiaz ebatsia izatu nauk hebrearren herritikan: eta oraño eztiat egin deusere hemen phutzu huntan ezar nintzaten merezi duenik.

16. Ogi iabe nausiak bada ikhusirik onera esplikatu zuela amets hura, erran zioen Iosepi, niri ere ametsetan iduritzen ziaitaan bazirela hirur otharre xuri ene buruaren gañean.

17. Eta otharrerik gorenean bazela okhiñ ofizioko ianhari guzietarik Faraonentzat, eta xoriek iaten zituztela ene buruaren gañean zen otharretikan.

18. Eta Iosepek ihardetsi zuen, ziotsala, huna hau duk horren esplikazionea; hirur otharreak hirur egun dituk.

19. Hemendik hirur egunen artean Faraonek altxatuko dik hire burua hire gañetik, eta urkharaziko au zur batean, eta xoriek ianen ditek hire haragia hire gañetikan.

20. Eta gerthatu izan zen hirurgarren egunean, zeña baitzen Faraonen sor eguna, egin ziotela festin bat bere sehi guziei, eta eman zituela presondegitik kanpora bere kopemaille haundia eta ogi iabe nausia, bere sehien artetikan:

21. Eta bihurrarazi zuen kopemaille haundia bere kopemaille estatura, zeñak eman baitzuen kopa Faraonen eskura:

22. Bañan urkharazi zuen ogi iabe nausia, Iosepek esplikatu zioten arabera.

23. Bizkitartean kopemaille haundia etzen orhoitu Iosepez bañan ahantzi izatu zitzaion.

BERROGOI ETA BATGARREN KAPITULUA

Farao bi amets egiñ

8 eta eziñ aurkhitu ahal izanez

nork esplika zetzan

9 abertitzen dute Iosepez:

14 zeña erakhartzen baitu bere aitziñera.

25 Iosepek esplikatzan diotza ametsak Faraoni,

33 eta ematen dio kontseillu on bat

ethorkizuneko goseteari probeditzeko.

37 Hargatik okhasione hortaz ezarria da

Erregez Ejiptuko gobernadore.

45 Iosepek, emaztea hartu eta harenganik

izaten ditu bi haur gosetea ethorri baño lehen.

53 Zeña hastean, errepartitzen diote ejiptuarrei

ogia egiñ izan zuen probisionetikan.

1. Ordean gerthatu zen bi urthe osoen buruan, Faraonek amets egin zuela, eta iduritzen zitzaiola ibaiaren ondoan zela.

2. Eta horra, zazpi xahal gazte ikhusteko eder, gizen eta ioriak, igaten ziren ibaietik kanpora eta iaten hari ziren lur urtsuetan.

3. Eta horra, bertze zazpi xahal gazte ikhusteko itsusi, eta meheak igaten ziren ibaietik kanpora bertzeen ondotikan, eta bertze xahal gazteen aldean ziren ibaiaren xirripan.

4. Eta xahal gazte, ikhusteko itsusi eta meheek ian izan zituzten zazpi xahal gazte ikhusteko eder eta gizenak. Orduan iratzarri izan zen Farao.

5. Gero loakhartu izan zen, eta egin zuen amets bigarrenean, eta iduritzen zitzaion zazpi ogiburu bihitsu eta eder ilkhitzen zirela pipa batetarik.

6. Gero iduritzen zitzaion bertze zazpi ogiburu mehar eta orienteko haizeaz iharturikako ilkhitzen zirela hekien ondotikan.

7. Eta zazpi ogiburu meharrek iretsi zituzten zazpi ogiburu bihitsu eta betheak. Orduan iratzarri zen Farao. Eta horra ametsa.

8. Gerthatu zen goizean haren izpiritua ikharatu zela, hargatikan egorri izan zuen deitzera Ejiptu-majiziano eta zuhur guziak, eta kondatu ziotzaten bere ametsak: bañan etzen nihorere esplika ziotzokonik.

9. Kopemaille haundia mintzatu zitzaion Faraoni, ziotsala, orhoitzen nauk egun ene ofentsez.

10. Farao hagitz hasarratu zen orduan bere sehien kontra eta guarderagin gintuenean ogi-iabe nausia eta ni iauregiko prebostaren etxean:

11. Orduan hark eta nik egin gindian amets bat gau batez, batbederak egiten zuela amets bere ametsaren esplikazionearen arabera.

12. Eta han zuan gurekien muthill hebrear bat iauregiko prebostaren zerbitzaria, eta kondatu giñozkaan, eta esplikatu ziarozkiguan gure ametsak, esplikatzen diotzatela batbederari bere ametsaren arabera.

13. Eta gerthatu zen nola ere esplikatu baitzarokun eta hala egiñ izatu zela. Hori da Erregek bihurrazazi ninduela neure estatura, eta urkharazi zuela bertzea.

14. Faraok bada bidaldu zuen Iosepen deitzera, eta berehala ilkharazi zuten phutzutik, eta mozhtu zuten, eta ganbiatu ziotzaten bere tresnak, gero ethorri izan zen Faraonengana.

15. eta Faraonek erran zioen Iosepi, egin diat amets bat, eta eztuk bat esplikatzen duenik. Bañan

entzun diat erraten hitaz, aditzen dituala ametsak, hekien esplikatzeke.

16. Eta Iosepek ihardetsi zioen Faraoni, erraten zuela, lainkoak ni gabetanik ihardetsiko du Faraonen prosperitateari dagokana.

17. Eta Faraonek erran Iosepi, nola amets egiten bainuen, iduritzen zitzaitan ibaiaren xirripa ondoan nintzela.

18. Eta horra, zazpi xahal gazte, gizen eta lori eta thailu ederretako igaten ziren ibaiatik kanpora, eta iaten had ziren lur ursuetan.

19. Eta horra, bertze zazpi xahal gazte igaten ziren hekien ondotik haiñ meharrak eta hain thailu itsusitakoak, eta hain meheak non ezpainuen ikhusi izatu hek bezalakorik itsustasunez Ejiptuko herri guzian.

20. Bañan xahal gazte mehe eta itsusiek iretsi zituzten lehenbiziko zazpi xahal gazte gizeñak:

21. Zeñak ethorri izan baitziren hekien barrenera, nihork ere ikhusi gabe hara ethorri izan zirela: ezen hain zituan itsusi ikhusteko nola hastean. Orduan iratzarri ninduan.

22. Ikhusi nian oraño ametsetan, eta iduritzen ziaitaan zazpi ogi buru ilkhitzen zirela pipa batetarik, betheak eta ederrak.

23. Gero horra, zazpi ogiburu ttipi, mehar eta orienteko haizeak iharturikakoak, zeñak ilkhitzen baitziren ondotik.

24. Bañan ogiburu meharrek iretsi zitiztian zazpi ogiburu ederrak. Eta erran zioteat majizianoei, bañan batek ere etziarotak deklaratu.

25. Eta Iosepek ihardetsi zioen Faraoni, Faraonek egin duen ametsa eztuk gauza bera baizen. Iainkoak deklaratu zioke Faraoni egitera dohan hura.

26. Zazpi xahal ederrak dituk zazpi urthe: eta zazpi ogiburu ederrak dituk zazpi urthe: amets bat duk hori.

27. Eta zazpi xahal gazte mehe eta itsusi hekien ondotik igaten zirenak zazpi urthe dituk: eta zazpi ogiburu huts eta orienteko haizeak iharturikakoak izanen dituk zazpi gosete urthe.

28. Hori duk Faraoni erran diodana, erran nahi da, Iainkoak Faraoni ikhusarazi dioela egitera dohan hura.

29. Horra, zazpi urthe heldu dituk zeñetan izango baituk abundantzia haundi bat Ejiptuko herri guzietan.

30. Eta urthe hekien ondoan altxatuko dituk zazpi gosete urthe. Orduan ahantzia izango duk abundantzia hori guzia Ejiptuko herrian eta goseteak kontsumituko dik herria.

31. Eta eztekek ezagutuko gehiago abundantzia hori herrian ondotik ethorriko den gosete hura dela kausa: ezen hagitz haundia izango duk.

32. Eta Faraonek ametsa bi aldiz egin duenaz bezanbatean: hori duk dela gauza arrastatua lainkoaz eta lainkoa khexa dela haren konplitzera.

33. Orai bada Faraonek probedi beza gizon aditu eta zuhur batez eta ezar beza haña Ejiptuko herriaren gañean.

34. Faraonek egin beza hau ere: ezar betza kome-sarioak herriaren gañean, eta har beza Ejiptuko herriko errentaren bortzgarrena zazpi abundantzia urtheren iraun denboran.

35. Eta bill betzate ethorriko diren urthe on heta-ko ianhari guziak, eta bill bezate ogia Faraonen eskua-ren azpian neurrimendutzat hiritara, eta begira beza-te.

36. Eta izango dire ianhari hek herriko probisione-tzat Ejiptuko herrian izango den zazpi urthetako gose-

te iraun denboran herria gosetez akhabatua izan ezta-dintzat.

37. Eta gauza agradatu zitzaion Faraoni, eta haren zerbitzari guziei.

38. Eta Faraonek erran zioten bere zerbitzariei, aurkhi ahal giñezake gizon bat hau bezalakoa, zeñetan izan dadiñ lainkoaren izpiritua.

39. Gero Faraonek erran zioen Iosepi lainkoak eman daroanaz geroz hauk guzien ezagutzeko dohaña, eztuk hi bezalako presuna aditu eta zuhurrik.

40. Hi izanen aiz ene etxearen gañean, eta ene poblu guziak musu emanen darok ahoan: solament hi baño haundiago nauk tronuz.

41. Hortaz gehiago Faraonek erran zioen Iosepi, begira zak ezarri aut Ejiptuko herri guziaren gañean.

42. Faraonek bada atheratu zuen bere erreztuna bere eskutik, eta eman zuen Iosepen eskuan, eta beztiarazi zuen liño fiñezko tresnez eta eman zuen urrelephoko bat haren lephoan,

43. eta iganarazi zuen haren orgaren ondoan bigarrena zen orgara eta oihu egiten zuten haren aitziñean, belhaurika beitez: eta ezarri izan zuen Ejiptuko herri guziaren gañean.

44. Eta Faraonek erran zioen Iosepi. Faraonak ni, bañan hi gabetanik eztiq nihork ere altxatuko bere eskua ez bere oña Ejiptuko herri guzian.

45. Eta Faraonek deithu zuen Iosepen izena Tsafenath-Pahaneah: eta eman izan zioen emazteztat Asenath Potiferah ongo gobernadorearen alaba. Hala Iosep goan izan zen Ejiptuko bazterretara

46. eta Iosepek hogoi eta hamar urtheren adina zuen, presentatu izan zen orduan Faraon Ejiptuko Erregeren aitziñean. Eta Erregeren presentziatik partiturikan, iragan izan Ejiptuko herri guzien artetikan.

47. Eta lurra ekharri zuen frankiaz zazpi urthetako abundantzia iraun denboran.

48. Eta Iosepek biri billkatu zituen, Ejiptuko herrian izatu ziren zazpi urthetako ianhari guziak, eta ezarri zituen ianhariak hirietan, erran nahi da, hiri bakoitzean batean inguruko lurreko ianhariak.

49. Iosepek bada biri billkatu zuen xoil hagitz ogi franko itsasoko harea bezala: halako maneraz non gelditu baitziren kondatzetik, zeren eta konturik gabe baitzen.

50. Eta lehenbiziko gosete urthea, ethorri baño lehen, sorthu zitzaizkon bi haur Iosepi, zeñak Asenath

Potiferah ongo gobernadorearen alabak egin baitzioztzan.

51. Eta Iosepek deithu zuen lehensorthuaren izena, Manase: ezen lainkoak, ziotsan, ahantzarazi darot ene neke guzia, eta ene aitaren etxe guzia.

52. Eta deithu zuen bigarrenaren izena, Efraim, ezen lainkoak, ziotsan, berretarazi nau ene aflikzio-nearen herrian.

53. Akhabatu ziren bada Ejiptuko herrian izatu zen abundantziaren zazpi urtheak.

54. Gero hasi ziren ethortzen zazpi gosete urtheak, Iosepek aitziñetik erran zuen bezala. Eta izatu zen gosetea herri guzietan, bañan bazen ogi Ejiptuko herri guzietan.

55. Ondoan gero Ejiptuko herri guzia gosez hami-tua izatu zen, eta pobluak egin zioen deihadar Faraoni ogiagatik. Eta Faraonek ihardetsi zioten ejiptuar guziei, zohazte Iosepengana, eta egizue errango darotzuena.

56. Gosetea beraz herri guziaren gañean zela, Iosepek ideki zituen ejiptuarren artean ziren granero guziak, eta errepartitu zioten ogia. Eta gosetea haunditu zen Ejiptuko herrian.

57. Ethortzen ziren herri guzietarik ere Ejiptura losepengana, ogi eroatera: ezen gosetea haunditu izan zen bazter guzietan.

BERROGOI ETA BIGARREN KAPITULUA

Iakobek egortzen ditu bere haurretarik

hamar Ejiptura ianhari erostera

7 Iosepek ezagutzen ditu eta

hek eztute ezagutzen Iosep,

interrogatzen dituzte eta

hartzen preso espioneak izatu balire bezala.

21 Hargatik ezagutzen dute

bere artean hori zela bere anaiaren kontra

kometitu izan zuten hobena zela kausa.

24 Iosepek idukitzen du Simeon,

Benjamin ekhar diozoten artean, eta uzten ditu

goatera bere bertze anaiak ianhariekiñ.

29 Hek bihurtu eta kondatzen diotzate

gauza guziak bere aitari.

35 Edireten dute bere dirua bere zakhuetan,

37 eta egiten dute bere egiñ ahala

siñhets eragiteko Iakobi utz dezala goatera

hekiekiñ Benjamin Ejiptura.

1. Eta Iakobek ikhusirik bazela ogia saltzeko Ejiptuan, erran izan zioten bere semeei, zergatik begiratzan diozue batak bertzeari?

2. Gehiago erran zuen, horra, entzun diat badela ogia saltzeko Ejiptuan, iausts zaitezte harat, eta eros diezaguzue handik. Bizi gaitezen, eta hill ezkaitezentzat.

3. Iautsi ziren bada Iosepen hamar anaiak erostera ogia Ejiptuan.

4. Ordean Iakobek etzuen egorri izatu Benjamin Iosepen anaia bere anaiekiñ: ezen baziotsan, guardia eman behar da zerbeit ondiko hillgarri gertha ezta-kion.

5. Eta Israelen semeak ethorri izan ziren ogi erostera bertze harat zihoazenen baltsan: ezen gosetea zen Kanaango herrian.

6. Iosep bada gobernadore zen herriaren gañean, zeñak errepartiarazitzen baitzioten ogia Lurreko poblu guziei: Iosepen anaiak beraz ethorri izan ziren, eta ahuspez iarri izan ziren haren aitziñean bisaia lurrean.

7. Orduan Iosepek ikhusi zituen bere anaiak eta ezagutu zituen: bañan alegia hura arrotz egiñ izan zuen hekien aldera, eta mintzatu zen hekiekiñ gogor-

ki, erraten ziotela, nondik heldu zarete? Eta ihardetsi zuten, Kanaango herritik, ianhari erostera.

8. Iosepek beraz ezagutu zituen bere anaiak bañan hek etzuten ezagutu hura.

9. Iosep bada orhoitu izan zen hetaz egiñ izan zituen ametsez, eta erran zioten, espioneak zarete, herriko lekhu flakoei begiratzera ethorri izan zarete.

10. Eta erran zioten, ez, ene iauna, bañan hire muthillak ethorri izan dituk ianhari erostera.

11. Gizon baten haurrak gaituk guziak lealak gaituk: hire muthillak eztituk espioneak.

12. Eta erran zioten, eztuk horrela, bañan herriko lekhu flakoei begiratzera ethorri izan zarete.

13. Eta ihardetsi zuten, bagintuan hamabi anaia hire muthillak, gizon baten haurrak, Kanaango herrian: zeñetarik xumeena baita egun gure aitarekiñ, eta bat ezpaita gehiago.

14. Berriz Iosepek erran zioten, hori duk nik erran darotzuedana, erran izan dudanean espioneak zarete.

15. Huntan frogaturik izango zarete: bizi bedi Farao, hemendik ilkhitzen baldin bazarete, non zuen anaia xumeena ethorri izan eztadiñ hunat.

16. Bidal zazue zuen artetikan bat ekhar dezan zuen anaia: bañan herstuak izango zarete, eta zuen

hitzak frogatuak izango dituk, iakiteko, ea erraten duzuen egia non ez, bizi bedi Farao, Espioneak zarete-la.

17. Eta hala, ezarri zituen guziak elkharrekiñ pre-sondegian hirur egunez.

18. Eta hirugarren egunean, Iosepek erran zioten, egizue hau, eta biziko zarete: lainkoaren beldur nauk.

19. Lealak baldin bazarete anaien artetikan, zuen artetikan bat izan bedi herstua zuek preso izatu zaret-en lekhuari, eta goan zaitezte, eramaten duzuela ogia probeditzeko, zuen famillen goseteari:

20. Eta ekhar diezadazue zuen anaia xumeena eta zuen hitzak aurkhituko dituk egiazko: hala etzarete hillen. Eta horrela egiñ izan zuten.

21. Eta erraten zioten batak bertzeari, egiaz faltadun gaituk gure anaiaren aldera: ezen ikhusi izan diagu haren arimako hestura, grazia eskatzen zarokunean eta eztiagu entzun izatu horrengatikan hestura hau ethorri izan ziaikuk.

22. Eta Rubenek ihardetsi zioten, ziotsala, ez narotzuen nik erraten, eztezazuela egin bekhatu hauraren kontra? Eta etzinduten entzun izatu. Hargatik ere horra haren odola galdetua da.

23. Eta hek etzeakiten Iosepek aditzen zituela: zeren eta baitzen adiarazitzaille bat hekien artean.

24. Eta hura aldaratu zen hekien gibelera, eta nigar egin zuen: gero hekiengana bihurtu eta, mintzatu zitzaioten hei, eta hartu zuen Simeon hekien artetik, eta amarratu zuen hekien begien aitzinean.

25. Gero Iosepek manatu zuen bethe zetzatela hekien zakhuak ogiz, eta ezar zezatela hetarik batbederaren dirua bere zakhuan, eta eman ziozotela probioenea bere bidekotzat. Eta horrela egiñ izan zioten.

26. Eta kargatu zuten bere ogia bere astoen gañean, eta goan izan ziren handik.

27. Eta hetarikan batek ideki zuen bere zakhua, emateko bazka astoari ostatatu ziren lekhuak. Orduan ikhusi zuen bere dirua zeña baitzen zakhuaren zintzureun.

28. Eta erran zioten bere anaiei: neure dirua bihurtua izan ziaitak eta errealki, horra hura ene zakhuan. Eta bihotza higitu zitzaien, eta sesituak izatu ziren altaramenduz, erraten ziotela batak bertzeari, zer da lainkoak egiñ izan darokun hori?

29. Eta ethorri ziren Kanaango herrira Iakob bere aitagana, eta kondatu izan ziotzaten gerthatu zitzaizkoten gauza guziak erraten zutela,

30. Personaia herriko iaun bat mintzatu ziaikuk dorpheki, eta iduki gaitik herriko espiontzat.

31. Bañan ihardetsi zioagu, lealak gaituk, ezkaituk espionak.

32. Hamabi anaia gintuan, gure aitaren haurrak: bat eztuk gehiago, eta ttipiena gure aitarekin duk egun Kamaango herrian.

33. Eta personaia herriko iaun hark erran ziarokuk, huntan ezagutuko dikeat lealak zaretela: utz zazue zuen anaietarik bat enekien, eta har zazue ogia zuen familletako goseteari probeditzeko, eta goan zaitezte.

34. Eta ekhar diezadazue, zuen anaia xumeena. Orduan ezagutuko dikeat etzaretela espioneak, bañan lealak: eta bihurtuko darotzuet zuen anaia, eta trafikatuko duzue herrian.

35. Eta gerthatu zen, hek bere zakhuak husten zituztela, horra, batbederaren diru paketa bere zakhuan zen: eta ikhusi zituzten bere diru paketak, hek eta hekien aitak, eta beldurtu izan ziren.

36. Erran zioten bada lakob bere aitak, gabearazi nauzue hurrez: Iosep eztuk gehiago eta Simeon eztuk gehiago, eta hartuko duzue Benjamin! gauza horiok guziak ene kontra dituk.

37. Eta Ruben mintzatu zitzaion bere aitari, ziotsa-
la, hillaraz zatzik ene bi haurrak, haña ekhartzen
ezpalin badaroat: eman diezadak karguz, eta ekharri-
ko daroat.

38. Eta ihardetsi zuen, ene semea eztuk iautesiko
zuekiñ: ezen haren anaia hil duk, eta hau gelditu bak-
harrik: eta zerbeit ondiko hillgarri gerthatuko litzaio-
kek goanen zareten bidean, hargatik iautesaraziko zin-
tuzkete ene ille xuriak dolorerekiñ hobira.

BERROGOI ETA HIRURGARREN KAPITULUA

lakob ertxatua izanik gosetez eta bere hurren othoitzez akordatzen da uzteko goatera Benjamin Ejiptura 11 eta ordenaturik bere hurrei eramatera presentak eta dirua doblean, gomendatzen diotza lainkoari.

15 Horiok Ejiptura ethorri eta, presentatzen dire Benjamiñekiñ losepen aitziñean.

18 Eta nahi diote bihurtu dirua hekien zakhuetan aurkhitu izan zena losepen iauregiko prebostari, 23 zeñak ekhartzen baitiote Simeon.

31. losepek egiten diote banket bat, eta maitatzen du beregainki Benjamin.

1. Ordean gosetea haundi egiten zen Lurrean

2. eta gerthatu zen, nola akhabatu baitzuten iatea

Ejiptutik ekharri zituzten ianhariak, bere aitak erran ziotela, bihur zaitezte, eta eros diezaguzue ianhari aphur bat.

3. Eta ludak ihardetsi zioen erraten zuela, personaia hark espresuki deklaratu daroku, diotsala, eztuzue ikhusiko ene bisaia non ezten zuen anaia zuekiñ.

4. Beraz egortzen baldin baduk gure anaia gurekiñ, iaustiko gaituk Ejiptura, eta erosiko darozkiagu ianhariak.

5. Bañan egortzen ezpaldin baduk, ezkaituk harat iaustiko: ezen personaia hark erran ziarokuk, eztuzue ikhusiko ene bisaia, non zuen anaia ezten zuekien.

6. Eta Israelek erran zuen, zergatik egin darotazue bidegabe hori, erratea personaia hari, bazindutela oraño anaia bat?

7. Eta ihardetsi zuten, Personaia hark arthaz galdetu izan ziarokuk gutaz eta gure ahaideez, erraten zuela, zuen aita bizi da oraño? eztuzue anaiarik? eta deklaratu diogu perpaus hekien arabera. Bagiñakien guk erranen zuela, iaustaraz zazue zuen anaia?

8. Eta ludak erran zioen Israel bere aitari, egor zak muthilla enekien, eta emanen giaizkok bideari, eta goango gaituk, hala biziko gaituk, eta ezkaituk hillen, ez gu ez hi ere, ez gure mañadak.

9. Neurori errendatzen nauk kauzione hartaz, galde zak ene eskutikan: ekhartzen eta presentatzen

ezpaldin badaroat, obligatua izango natzaik hiri penara bethierekotzat.

10. Berantetsi izan ezpaldin bagindu, egiaz iadan bihurtuak izango gintuan bertze aldi batez.

11. Orduan Israel bere aitak erran zioten, beraz horrela baldin bada, egizue hau, hartatzue zuen tokitan herriko gauza ospe gehien dutenak, eta eraman diozozue personaia hari present bat, zerbeit baltsamu guti, eta zerbeit ezti guti, drogak, mirra, piñu-fruituak eta arbendolak.

12. Eta har zazue dirua doblean zuen eskuetan: eta zuen zakhuen zintzurrean ezarririkako dirua, eramanen duzue zuen eskuetan: hori egiñ izatu ahal da ustekabez.

13. Eta har zazue zuen anaia, eta iar zakizkote bideari, eta bihur zaitezte personaia harengana.

14. Iainko borthitz guziz puxantak bada aurkhiaraz diezazuela miseriordia personaia haren aitziñean, libra diezazuentzat zuen bertze anaia eta Benjamin: eta nola gabetua izatu bainaiz hurrez, gabetua izatu naiz hetaz.

15. Hek bada hartu zuten presenta, eta hartu zuten dirua doblean bere eskuen artean eta Benjamin,

eta lothu zitzaizkon bideari, eta iausti izan ziren Ejiptura. Gero presentatu ziren Iosepen aitziñean;

16. Iosepek bada ikhusi zuen Benjamin hekiekiñ, eta erran zioen bere iauregiko prebostari eramantzatzik personaia horiok etxera, eta eta hiltzak zerbeit gauza, eta afaintzak: ezen ianen ditek eguberdian enekien.

17. Eta gizonak egin zuen Iosepek erran zioen bezala, eta eraman zituen personaia hek Iosepen etxera.

18. Hala beldurtu izan ziren personaia hek, zeren eta eramanak izatu baitziren Iosepen etxera, eta erran zuten, eramanak gaituk, gure zakhuetan lehenikan ezarria izatu zen dirua dela kausa, deskarga dadintzat eta eror gure gañera, eta har gaitzantzat esklabotzat, eta har detzantzat gure astoak.

19. Gero hurbildu izan ziren Iosepen iauregiko prebostagana eta mintzatu zitzaizkoten hari etxeko athean,

20. ziotsatela, helas, ene iauna! egiaz iausti izan gaituk hastean ianhari erostera.

21. Eta gerthatu zen, ethorri giñen orduan ostata-tu giñen lekhura, eta ideki gintuen orduan gure zakhuak: horra batbederaren dirua bere zakhuaren zin-

tzurrean zuan, bai gure diru bera bere pisuaren arabera: ekharri diagu geure eskuetan.

22. Eta ekharri diagu oraño bertze dirurik gure eskuetan ianhari erosteko: eta etzeakiagu nork ezarri lukeen gure dirua gure zakhuetan.

23. Eta erran zuen, gauza guziak ondo zihoaze zuentzat, eztuzuela beldurrik. Zuen lainkoak eta zuen aitaren lainkoak eman darotzue tresaur bat zuen zakhuetan. Zuen dirua ethorri izan duk enegana: eta ekharri zioten Simeon.

24. Gero gizonak sarrarazi zituen personaia hek losepen etxean, eta eman zioten ura, eta garbitu zituzten bere oñak: hekien astoei ere eman zioten bazka.

25. Eta preparatu zuten presenta, losep eguber-dian ethor zedin bitartean: ezen aditu izan zuten ianen zutela han ogia.

26. Orduan losep bihurtu zen etxera, eta presentatu zioten etxean bere eskuetan zuten presenta, eta iarri ziren ahuspez haren aitziñean lurreraño.

27. Eta galdetu zioten hekien prosperitateaz, zio-tsala, ungi dago zuen aita gizon zaharra zeñetaz mintzatu baitzaizkide? bizi da oraño?

28. Eta ihardetsi zuten, hire muthilla gure aita ungi zia gok. Bizi duk oraño. Eta makhurtu izan ziren, eta iarri ziren ahuspez.

29. Eta hark bere begiak altxatzen zituela ikhusi zuen Benjamin bere anaia bere amaren semea, eta erran zuen, hunako hau da zuen anaia ttipien mintzatu zaizkidatena? Gero erran zuen, ene semea, lainkoak egin diazala grazia.

30. Eta Iosep erretiratu izan zen berehala: ezen bere bihotza hasten zitzaion beratzen bere anaiagana, eta billha zebillan non nigar egiñ, eta ethorri zen guardaropara, eta nigar egin zuen han.

31. Gero garbitu zuen bere bisaia, eta ilkhi zen kanpora eta egin zioen bortxa bere buruari, eta erran zuen, emazue ogia.

32. Eta eman izan zioten apart, hei apart, eta ejiptuar harekin iaten zutenei apart, zeren eta ejiptuarrek eziñ ian ahal baitzezaketen ogia hebrearrekiñ: ezen abominazionea zaiote ejiptuarrei.

33. Iarri izan ziren bada haren aitziñean: zaharrena bere zahartasunaren arabera eta ttipiena bere ttipitasunaren arabera. Eta personaia hek espantaturik zeudezen bere artean.

34. Eta presentatu ziotzaten biandak bere aitziñetikan: ordean Benjamiñen portziona berte guziak baño haundiago zen bortzetan, eta edan zuten, eta xoill hagitz egin zuten bonaxera harekiñ.

BERROGOI ETA LAURGARREN KAPITULUA

*Iosepek bere anaiak ianhariz probeditu eta,
manatzen du haren thaza ezar dadillala
Benjamiñen zakhuan.*

*4 Eta haren anaiak partitu ondoan, iarraiki
eragiten diote ondotikan thaza azarkatzeko.*

11 Edireten da thaza Benjamiñen zakhuan.

*13 Hortaz haren anaia guziak harriturik osoki
bihurtzen dire Iosepengana*

16 eta beheratzen zaizko haren miserikordiari.

*18 Iudak guzien artian galdetzen dio Iosepi
idukia izatera esklabotzat Benjamiñen lekhu
an, Iakob bere aitari egin zioen promesa zela kausa.*

1. Eta Iosepek manatu izan zuen bere ianhari nau-
sia, ziotsala, bethetzak ianhariz iende horion zakhuak
iasan ahal dezaketen bezanbat, eta ezarzak batbede-
raren dirua bere zakhuaren zintzurrian.

2. Eta emak ene thaza, zillhar thaza, ttipienaren
zakhuaren zintzurrian, elkharrekiñ haren ogiaren

dirua. Eta egin zuen nola ere Iosepek erran baitzioen eta hala.

3. Goizean eguna izatu zen orduan, egorri zituzten personaia hek bere astoekiñ.

4. Hiritikan ilkhi izan ziren orduan, hagitz urrun goan zitezen baño lehen, Iosepek erran zioen bere ianhari nausiari, oha, ondotik iarraik akiote personaia hei: eta hek atzeman dituan orduan, erran diozotek, zergatikan bihurtu duzue gaitza onarentzat?

5. Eztuk hori non edaten baitu ene iaunak: zeña egiazki ezagutuko baitik? Gaizki egin duke egin duzuen hortan.

6. Eta ianhari-nausiak atzeman zituen, eta erran ziotzaten hitz hek.

7. Eta ihardetsi izan zioten, zergatik ene iaunak erraten ditu horlako hitzak? eztakiotela bada gertha hire muthillei egitera horlako gauzarik.

8. Horra, bihurtu daroagu Kanaango herritikan gure zakhuen zintzurrean ediren izan ginduen dirua, eta nola ebats giñezake dirua edo urrea hire nausiaren etxetikan?

9. Hire muthilletarik zeñetan ere aurkhituko baita eta hura hill bedi eta gu ere esklabo izanen giaizkok ene nausiari.

10. Eta erran zioten, egin bedi bada orai horrela zuen hitzen arabera: zeñetan ere aurkhituko baita eta hura izan bekik esklabo, eta zuek zaitezten inozent.

11. Eta berehala batbederak phausatu zuen bere zakhuak lurrean: eta batbederak ideki zuen bere zakhua.

12. Eta miratu zuen, hasten zela haundienaganik, eta akhabatzen zuela ttipienean. Eta thaza aurkhitu izan zen Benjamiñen zakhuan.

13. Orduan zathikatu zituzten bere tresnak, eta batbederak kargatu zuen bere astoa eta bihurtu ziren hirira.

14. Eta luda bere anaiekien ethorri zen losepen etxera, zeña baitzen oraño han eta iarri ziren ahuspez haren aitziñean lurrean.

15. Eta losepek erran zioten, zer akzione duk zuek egin duzuen hori? Eztakizue ni bezalako gizon batek eztuela faltatzen asmatzera.

16. Eta ludak erran zioen, zer erranen dugu, ene iauna? nola mintzatuko gare? eta nola iustifikatuko gare? Iainkoak ediren izan dik hire muthillen hobena. Horra, esklabo giaizkok ene iaunari, hanbat gu nola noren ere eskuan aurkhitu izan baita thaza eta hura.

17. Bañan erran zuen, eztakidala bada gertha horren egitera. Gizona, zeñaren eskuan aurkhitu izan baita thaza, izango ziaitak esklabo: bañan zuek, igan zaitezte bakean zuen aitarengana.

18. Iuda bada hurbildu zen harenganik, erraten zuela, helas, ene iauna! othoizten aut, hire muthillak erran dezan hitz bat, ene iaunak aditzen duela, eta hire kolerak eztezan irakit hire muthillaren kontra: ezen ez aiz Faraon baño gehiago ez gutiago.

19. Ene iaunak galdetu ziotean bere muthillei, zio-tsala, baduzue aitarik edo anaiarik?

20. Ihardetsi gindioan bada ene iaunari, badiagu gure aita zeña baita zaharra, eta haur gazte bat sort-hua haren zahartzean, zeña baita gure artean den tti-piena, zeñaren anaia hill baita, eta hau gelditu duk baxharra bere amaganik, eta bere aitak maite dik.

21. Eta erran diotek hire muthillei, iautsaraz zazue enegana, eta ikhusiko diat.

22. Eta erran gindioan ene iaunari, muthillak eziñ utz ahal lezakek bere aita: ezen uzten baldin badu, haren aita hillen duk.

23. Orduan erran zioten hire muthillei, zuen anaia ttipiena iausten ezpada zuekiñ, eztuzue ikhusiko gehiago ene bisaia.

24. Eta gerthatu izatu duk, hire muthill ene aitagana bihurtu eta, deklaratu giñotzaan ene iaunaren hitzak.

25. Gero gure aitak erran zian, bihur zaitezte, eta eros diezaguzue ianhari aphur bat.

26. Eta erran gindioan, eziñ harat iauts ahal giatetzkek: bañan gure anaia xumeena gurekin baldin bada, iautsiko gaituk harat: ezen eziñ ikhus ahal zikeagu personaia haren bisaia non gure anaia ttipiena ezten gurekien.

27. Eta hire muthill gure aitak ihardetsi ziarokuan, badakizue ene emazteak egin darozkidala bi haur:

28. zeñetarik bat goan baita eneganik: eta erran diat, zer ere baita segur duk zathikatua izatu dela, eta eztudala oraideraño.

29. Hau ere khentzen baldin baduzue ene aitzine-tik, eta zerbeit ondiko hillgarri gerthatzen baldin bazaio, iautsaraziko ditut zuela ene ille xuriak despla-zerekiñ hobira.

30. Orai bada, ethorriko naizen orduan hire muthill ene aitagana, eta muthilla gurekiñ izango eztenean, zeñaren arima baitu lothua berearekiñ,

31. gerthatuko duk ikhusi izanen duen bezain sarri eztela han izango muthilla hillen duk. Hala hire muthi-

Illek iautsaraziko tiztek dolorerekiñ hire muthill gure aitaren ille xuriak hobira.

32. Gehiago, hire zerbitzaria kauzione errendatu duk mutillarentzat ekhartzeko ene aitaganik, eta erran dik, ekhartzen ezpaldin badaroat, obligatua izango niatzaiok penara bethierekotzat ene aitari.

33. Hala orai, othoizten aut, hire muthilla egon dakion esklabo ene iaunari muthillaren lekhuari, eta muthilla igan dadiñ bere anaiekiñ.

34. Ezen nola igango naiz ni ene aitagana, muthilla enekiñ ezpaldin bada? begiratu behar da ikhus eztezadan ene aitari gertha zaioen desplazera.

BERROGOI ETA BORTZGARREN KAPITULUA

*Iosepek bere burua ezagutzera
ematen diote bere anaiei,*

*3 eta kontsolatzen ditu erakustera
ematen diotela lainkoaren probidentzia.*

*10 Gero Faraonen manuz ematen diotzate orgak
ekhartzeko bere aita bere mañadarekien,
22 eta egiten diotzate hetarik batbederari,
eta egortzen diotza bere aitari ere.*

*25 Iakob aditurikan Iosep bizi zela oraño
prestatzen da Ejiptura goateko.*

1. Orduan Iosepek eziñ iduki ahal izatu zuen gehiago bere burua present ziren guzien aitziñean, eta egin zuen oihu, ilkhiaraz zazue batbedera ene gibelera. Eta nihor ere etzen egotu harekien, bere burua eman zioten orduan ezagutzera bere anaiei.

2. Eta nigarrez zegoela, altxatu zuen bere boza, eta ejiptuarrek aditu izan zuten, eta Faraonen etxeak ere aditu zuen.

3. Eta Iosepek erran zioten bere anaiei, ni nauk Iosep: bizi da oraino ene aita? Bañan bere anaiek eziñ ihardetsi ahal ziozoketen ezen nahasiak ziren haren presentziaz.

4. Berriz Iosepek erran zioten bere anaiei, othoizten zaituztet hurbil zaitetze enegana. Eta hurbildu izan ziren. Gero erran zuen, ni nauk Iosep zuen anaia, zuek saldu izan duzuen eramana izateko Ejiptura.

5. Eta orai eztu zuela ez pena ez urrikirik zuen baithan zeren saldu nauzuen ekharria izateko hunat, ezen lainkoak egorri niauk zuen aitziñean begiratze-kotzat zuen bizia.

6. Ezen horra iadan bigarren gosete urthea Lurrean, eta oraino goititzen dituk bortz urthe, zeñetan ezpaita izango laborantzarik ez biltzerik.

7. Bañan lainkoak egorri niauk zuen aitziñean zuek egonarazteko goititurik lurrean, eta zuek bizi-arazteko ekzelenki libratu.

8. Orai beraz ez nauzue zuek egorri ni hunat, bañan bai lainkoak, zeñak ordenatu bainiauk aitatzat Faraonendako, eta iauntzat haren etxe guziaren gañean, eta erregiñatzailetzat Ejiptuko herri guzian.

9. Khexa zaitetze, eta igan zaitetze ene aitagana, eta erran diozue, horrela erran dik hire seme Iose-

pek, lainkoak ordenatu niauk iaun Ejiptu guziaren gañean: lauts bada enegana, ez adillala geldi.

10. Eta egongo aiz Goszengo herrian, eta izango aiz ene aldean, hi eta hire haurrak, eta hire haurren haurrak, eta hire arthaldeak, eta hire idiak, eta hire diren gauza guziak.

11. Eta entretenituko aut han: ezen baituk bortz gosete urthe: gal ez adintzat pobreziaz, hi eta hire etxea, eta hire diren gauza guztiak.

12. Eta horra zuen begi dakusatenak, eta ene anaia Benjamiñen begiak, ene ahoa mintzo zaitzuela zuei.

13. Erran diozozue beraz ene aitari nik Ejiptuan dudan loria guzia, eta ikhusi ditutzuen gauza guziak: eta khexa zaitezte, et iautseragin zazue hunat ene aita.

14. Orduan aurthiki zuen bere burua bere anaia Benjamiñen lephoaren gañera, eta nigar egin zuen. Orobat Benjamiñek nigar egin zuen haren lephoaren gañean.

15. Gero musu eman zioten bere anaia guziei, eta nigar egin zuen hekien gañean. Horren ondoan haren anaiak mintzatu ziren harekiñ.

16. Eta habarrotsa aditua izantzen Faraonen etxean, erraten zutela, losepen anaiak ethorri dire. Zer agradatu baitzitzaien Faraoni eta haren muthillei.

17. Faraonek bada erran zioen losepi, errotek hire anaiei, egizue hau, kargatzatzue zuen abreak, eta zohazte, bihur zaitezte Kanaango herrira,

18. eta hartatzue zuen aita eta zuen famillak, eta bihur zaitezte enegana, eta emanen darotzuet Ejiptuko herriko hoberenetik: eta ianen duzue herriko gizona.

19. Eta errezibitu duk manatzeko botherea. Egizue hau, hartatzue Ejiptuko herritik orgak zuen mañadarentzat eta zuen emazteentzat eta ekhartzazue zuen aita eta ethor zaitezte.

20. Eztezazuela utz deusere zuen mañadatikan: ezen Ejiptuko herri guziko hoberena zuena izango da.

21. Eta Israeleko hurrek horrela egiñ izan zuten eta losepek eman ziotzaten orgak Faraonen manua-
ren arabera: eman izan zioten probisionea ere bideko-
tzat.

22. Eta eman ziotzaten hek guzietarik batbederari aldatzeko arropak, eta Benjamiñi eman ziotzan hirur ehun zillhar pheza eta bortz aldatzeko arropa.

23. Egorri ziotzan orobat bere aitari hamar asto ekhartzen zituztenak Ejiptuko gauzarik ekzelentena eta hamar asto eme ekhar ziotena ogi-bihi, ogi eta bianda haren aitari bidekotzat.

24. Bidaldu zituen bada bere anaiak, zeñak partitu baitziren, eta erran zioten, eztezazuela iharduk bidean.

25. Hala igan izan ziren Ejiptutik, eta ethorri ziren lakob bere aitagana Kanaango herrira.

26. Eta ekharri zioten berria, ziotsatela, losep bizi duk oraño, eta iaun ere duk Ejiptuko herri guziaren gañean eta bihotzak eskas egiñ zioen: ezen etzituen siñhesten.

27. Eta erran ziotzaten losepek erran ziotzaten hitz guziak. Gero ikhusi zituen losepek haren ekhartzeko egorri zituen orgak. Eta izpiritua bihurtu zitzaion lakob hekien aitari.

28. Israelek bada erran zuen, aski duk, losep ene semea bizi duk oraño, goanen nauk, eta ikhusiko diat hil nadin baño lehen.

BERROGOI ETA SEIGARREN KAPITULUA

*lakob, launari sakrifikatua eta,
2 kontsolatua da eta konfirmatua
bere Ejiptura goateko erresoluzioean.*

*5 Halako manieraz non lotzen baitzaio
harakoko bideari bere iende guziekiñ.*

8 Zeñen kontua egin baita beregainki.

28 Ejiptura hurbiltzean

bidaltzen du luda losepengana,

*29 zeña ethortzen baitzaio aitziñera,
errezibitzen baitu,*

31 eta ematen baitio kontseillu,

eta orobat bere anaiei, zer egin beharko duten.

1. Israel bada partitu izan zen bere zituen gauza guziekien, eta ethorri zen Beer-Szebahra, eta sakrifikatu ziotzan sakrifizioak bere aita Isaaken lainkoari.

2. Eta lainkoa mintzatu zitzaion Israeli gauazko bisionetan, ziotsala, lakob, lakob: zeñak ihardetsi baitzuen, huna ni.

3. Gero erran zuen, ni nauk lainko borthitza, hire aitaren lainkoa ez adillala beldur iaustera Ejiptura: ezen han egiñaraziko aut nazione haundi bat.

4. Iautsiko nauk hirekiñ Ejiptura, eta handikan ere iganaraziko aut egiaz: eta losepek ezarriko dik bere eskua hire begien gañean.

5. Hala partitu izan zen Iakob Beer-Szebahtik, eta Israelen hurrek eman zituzten Iakob bere aita, eta bere mañada eta bere emazteak, Faraonek ekhartze-ko egorri zituen orgetan.

6. Ekharri zituzten bere haziendak ere, eta Kanaango herrian irabazi zituzten ontasun guziak. Eta Iakob eta haren arraza guzia harekien ethorri izan ziren Ejiptura.

7. Eta ekharri zituen berekiñ Ejiptura bere haurrak, eta bere hurren haurrak berekien, bere alabak, eta bere semeen alabak eta bere kasta guzia.

8. Hunako hauk dire bada Israelen haur Ejiptura ethorri zirenen izenak: Iakob eta haren haurrak: Iakoben lehensorthua izatu zen Ruben.

9. Eta Rubenen haurrak, Henok, Pallu, Hetsron, Karmi.

10. Eta Simeonen haurrak, Iemuel, Iamin, Ohad, Iakin, Tsohar, eta Szaul emazte kananear baten semea.

11. Eta Lebiren haurrak, Gerszon, Kohath, Kehath, eta Merari.

12. Eta Iudaren haurrak, Her, Onan, Szela, Farez, eta Zara. Bañan Her eta Onan hiltziren Kanaango herrian. Farezen haurrak ere izatu ziren Hetsron eta Hamul.

13. Eta Isakarren haurrak, Tolah, Puba, Iob, eta Szimron.

14. Eta Zabulonen haurrak, Sered, Elon, eta Iahleel.

15. Horiok dire Learen haurrak, Iakobi egin ziotzanak Paddan-aramen Dina bere alabarekiñ: haren Semeen eta haren alaben presuna guziak izatu ziren hogoi eta hamahirur.

16. Eta Gaden haurrak, Tsifjon, Haggi, Szuni, Etsbon, Heri, Arodi, eta Areli.

17. Eta Aszeren haurrak Jimna, Jiszua, Jiszui, Beriha, eta Serah hekien arreba. Beriharen haurrak, Heber, eta Malkiel.

18. Horiok dire Zilparen haurrak, zeña Labanek eman baitzioen Lea bere alabari: eta hark egin ziotzan hek lakobi, erran nahi da hamasei presuna.

19. Rakel lakoben emaztearen haurrak, izatu ziren, Iosep eta Benjamiñ.

20. Eta sorthu zitzaizkon Iosepi Ejiptuko herrian, Manase eta Efraim, zeñetaz erdi izan baitzitzaion Ase-nath Potiferath ongo gobernadorearen alaba.

21. Eta Benjamiñen haurrak, Belah, Beker, Aszbel, Gera Nahaman, Ehi, Ros, Muppim, Huppim, eta Ard.

22. Horiok dire Rakelen haur lakobi egin ziotzanak: presuna guziak izatu ziren hamalaur.

23. Eta Danen haurrak, Huszim.

24. Eta Nefthaliren, lahtseel, Guni, letser, Szillem.

25. Horiok dire Bilharen haurrak, Labanek Rakel bere alabari eman zioenarenak, eta horrek egin zio-tzan horiok lakobi erran nahi da zazpi presuna guziz.

26. Ejiptura ethorri izan ziren presuna guziak lako-bi zagozkanak, haren hankatik ilkhiak [lakoben hau-rreren emazteak gabe] dire guziz hirurhogoi eta sei.

27. Eta Iosepen haurrak, Ejiptuan sorthu zitzaizko-nak izatu ziren bi presuna. lakoben etxeko presuna guziak bada Ejiptura ethorri zirenak izatu ziren hirur-hogoieta hamar.

28. Eta lakobek egorri zuen luda bere aitziñean Iosepengana, gidatzeko Goszenera. Ethorri ikan ziren bada Goszengo herrira.

29. Eta Iosepek moldatu zituen bere orgak, eta igan zen goateko Israel bere aitaren aitziñera Goszenera, eta agertu zitzaion eta aurthiki zuen bere burua haren lephoaren gañera, eta egin zuen nigar zenbeit denboraz haren lepho gañean.

30. Eta Israelek erran zioen Iosepi, hil nadillala oraingo aldian, ikhusi dudana geroz hire bisaia, zeren bizi aizen oraño.

31. Gero Iosepek erran zioten bere anaiei eta aitaren famillari, iganen nauk, eta adiaraziko zioat Faraoni, eta erranen zioat, ene anaiak eta ene aitaren familia, Kanaango herrian zirenak, ethorri dituk enegana.

32. Eta presuna hek artzañak dituk, ezen hazienda zañ izatu dituk bethi: hala ekharri tiztek bere ardiak, eta bere idiak, eta hekien ziren gauza guziak.

33. Gerthatuko duk bada Faraonek deithuko zaituztela, eta erranen duela, zer da zuen ofizioa?

34. Orduan erranen duke, hire muthillak hazienda zañ izatu dituk bethi bere gaztarasunetik orai arteraño, hanbat gu nola gure aitak: egon zaiteztentzat Gos-

zengo herrian, ezen ejiptuarrek xoill-hagitz higintzen dituzte artzañak.

BERROGOI ETA ZAZPIGARREN KAPITULUA

*Iosepek adiarazitzen dio Faraoni
bere aitaren ethortzea,*

*2 eta presentatzen diotza bere anaietarik bortz,
4 zeñek galdetzen baitiote Erregeri
egon ahal daitezen Goszengo herrian:*

5 zer akordatzen baitzaie.

*7 Iakobek, Faraonen aitziñean presentatu
eta agur egiten dio hañari, eta
ondoan gero erretiratzen da Goszenera.*

*12 Non Iosepek neurritzen baitu
bere familia guziarekien.*

*13 Ejiptuarrek gosetez herstuak izaturik,
sakrifikatzailliez edo gobernadoreez landan,
bere diru guziak akhabatu eta,*

17 saltzen dituzte bere haziendak

19 eta ondoan gero bere lurra:

23 Zeña errendatzen baitzaie

*laborantza egiteko, kondizionerekien
pagatuko diotela errentaren bortzgarrena Faraoni.*

28 Iakobek ikhususirikan hiltzera zihoala iuramentu eragiten dio Iosepi, ehortziko duela Kanaango herrian.

1. Iosep beraz ethorri izan zen, eta adiarazi zioen Faraoni, ziotsala, ene aita eta ene anaiak bere arthal-deekiñ, eta bere idiekiñ eta hekien ziren gauza guziekien ethorri dituk Kanaango herritikan, eta horra Goszengo herrian dituk.

2. Eta hartu zuen parte bat bere anaietarik, erran nahi da bortz gizon, eta presentatu zituen Faraonen aitziñean.

3. Eta Faraonek erran zioten haren anaiei, zer da zuen ofizioa? Ihardetsi zioten Faraoni, hire muthillak artzañak dituk hanbat gu nola gure aitak.

4. Erran zioten oraño Faraoni, arrotz bezala egoterra ethorri gaituk herri huntara ezen bazkarikan eztuk hire muthillei dagozkaten arthaldeentzat: eta gosete haundi bat ere baduk Kanaango herrian. Orai bada othoizten augu hire muthillak egon daitezen Goszengo herrian.

5. Eta Faraon mintzatu zitzaion Iosepi ziotsala, hire aita eta hire anaiak ethorri dituk hiregana.

6. Ejiptuko herria hire manuko duk: egonaraz detzak hire aita eta hire anaiak herriko lekhurik hobereanean; egon daitezzen Goszengo herrian, eta ezagutzen baldin baduk, hekien artean badela iende balentik, ordenatuko dituk ene hazienden nausi.

7. Orduan Iosepek ekharri zuen Iakob bere aita eta presentatu zuen Faraonen aitzinean. Eta Iakobek bedinkatu zuen Faraon.

8. Eta Faraonek erran zioen Iakobi, zer adin duk?

9. Iakobek ihardetsi zioen Faraoni, ene pelegrintasun urtheen egunak ehun eta hogoi eta hamar urthe dituk: ene biziaren urtheen egunak laburrak eta gaitzak izatu dituk, eta eztiztek ardietsi ene aiten biziaren urtheen egunak, hekien pelegrintasun denborakak.

10. Iakobek beraz bedinkatu zuen Faraon, eta ilkhi zen haren aitzinetikan.

11. Eta Iosepek seinalatu zioten egoitza bere aitari eta bere anaiei ematen ziotela posesioea Ejiptuko herrian, herriko lekhurik hoberenean, erran nahi da Rahmesesko herrian, Faraonek manatu zuen bezala.

12. Eta Iosepek entretenitu zituen bere aita, eta bere anaiak, eta bere aitaren etxe guzia ogiz, hekien mañadako ahoen arabera.

13. Ordean etzen ogirikan Lur guzian: ezen gose-tea hagitz zen haundia. Hargatikan Ejiptuko herriak, eta Kanaango herriak etzeakiten zer egiñ gosetea zela kausa.

14. Eta Iosepek bildu zuen Ejiptuko herrian aurkhi-tu izan zen diru guzia eta Kanaango herrian, erosten zuten ogiarentzat: eta ekharri zuen dirua Faraonen kontutokira.

15. Orduan eskastu zen Ejiptuko herriko eta Kanaango herriko dirua. Ejiptuar guziak ethorri zitzaiz-kon Iosepi, erraten zutela, iguk ogia: eta zergatik hillen gintuzkek hire begien aitzinean zeren eskastu den dirua?

10. Iosepek ihardetsi zuen, indatzue zuen haziendak, eta emanen darotzuet zuen haziendarentzat, dirua eskastu denaz geroz.

17. Ekharri ziotzaten bada Iosepi bere haziendak, eta Iosepek eman zioten ogia zamarien alde, ardi art-haldeen alde, idi arthaldeen alde, eta astoen alde. Hala neurritu zituen ogiz hekien arthaldeentzat urthe hartan.

18. Urthe hura akhabatu eta bihurtu izan ziren ondoko urthean eta erran zioten, etzioagu estaliko ene iaunari, dirua eskastu baldin bada, eta hazienda

arthaldeak, gauza guziak ene iaunaren aldetik direnaz geroz, etzaiku gelditzen deusere gañerakorik gure iaunaren aitziñean, gure gorphutzak, eta gure lurak baizen.

19. Zergatik hillen gintuzkek hire begien aitziñean? Gutaz eta gure lurrez denaz bezanbatean, eros gaitzak, hanbat gu nola gure lurak ogiarentzat, eta gathibatuko giaizkok gu eta gure lurak Faraoni eta iguk zer ereiñ, bizi gaitezentzat eta hill ezkaitezentzat, eta lurra aflijitua izan eztadintzat.

20. Hala Iosepek ardietsi ziotzan Faraoni Ejiptuko lur guziak: ezen ejiptuarrek saldu zuten batbederak bere larrea, zeren eta gosetea haunditu baitzen hekien gañean. Hargatik lurra izatu zen Faraonentzat.

21. Eta iraganarazi zuen poblua hirietara Ejiptuko bazterretako buru batetikan haren bertze bururaño.

22. Solament etzituen ardietsi sakrifikatzailléen lurak. Ezen bazen Faraonek sakrifikatzaillēei señaleturikako probisioneak, eta iaten zuten bere portziona Faraonek eman izan ziotena: hargatikan etzituzten saldu izatu bere lurak.

23. Eta Iosepek erran zioen pobluari, horra, ardietsi ziotzaat gaur zuek eta zuen lurak Faraoni. Baduzue hemen hazia erein dezazuentzat lurrean.

24. Eta ethortzen denean bildenbora, emanen diozue bortzgarrena Faraoni, eta laur parteak zuenak izango dituk, larreak ereintzeko, eta zuen eta zuen etxetan direnen iatekotzat, eta zuen mañadaren iatekotzat.

25. Eta erran zuten, salbatu darokuk bizia: ediren dezagun beraz grazia hire baithan, ene iauna, eta gathiba gakizkon Faraoni.

26. Eta Iosepek egiñ izan zuen ordenantza bat, zeñak irauten baitu egun artean, Ejiptuko lurren gañean, Faraonentzat, pagatzeko bortzgarrena: lekhat xoillki sakrifikatzaillan lur Faraonentzat izatu etzirenak.

27. Israel bada egotu izan zen Ejiptuko herrian Goszengo bazterretan, eta gozatu izan ziren hartaz, eta berretu eta hauñitz egin ziren hagitz.

28. Eta Iakob bizi izatu zen Ejiptuko herrian hamazazpi urthez eta Iakoben biziaren urtheak izatu ziren ehun eta berrogoi eta zazpi urthe.

29. Ordean Israelen hiltzeko denbora hurbiltzean, deithu izan zuen Iosep bere semea, eta erran zioen, othoizten aut, ediren baldin badut grazia hire baithan, emak orai hire eskua ene ixterraren azpian, usatuko

duala ene aldera grazia eta egia, othoizten aut, ez nazakala ehortz Ejiptuan,

30. bañan lo natzan ene aitekien. Eramanen nauk beraz Ejiptutikan, eta ehortziko nauk hekien sepulturan. Eta ihardetsi zuen, egiñen diat hire hitzaren araber.

31. Eta erran zioen iuramentu egidak: eta iuramentu egin zioen eta Israel iarri zen ahuspez oheko buhurkiaren gañean.

BERROGOI ETA ZORTZIGARREN KAPITULUA

lakob eri datzala bisitatu da Iosepez,

3 zeña orhoitarazitzen baitu

Iainkoak egiñ izan ziotzan promesez.

5 Eta hautatzen ditu haren bi haurrak

bere haurtzat, primu izan daitezentzat

orobat haren bertze hurrekiñ.

8 Gero hei musu eman eta bedinkatzen ditu,

ezartzen duela Efraim Manaseren aitziñean.

21 Eta erraten du aitziñetik

bere ondorearen librantza.

1. Gerthatu zen bada, gauza horion ondoan erran zitzaiola Iosepi, horra, hire aita eri duk. Orduan hartu zituen bere bi semeak berekiñ, erran nahi da Manase eta Efraim.

2. Eta berria ekharri izatu zitzaion eta erran lako-bi, horra, Iosep, hire semea hiregana heldu dena: Israel bada entsaiatu zen, eta iarri ohe gañean.

3. Gero Jakobek erran zioen Iosepi, lainko borthitz, guziz puxanta agertu ziaitak niri Luzen Kanaango herrian eta bedinkatu niauk:

4. Erraten darotala, horra, berretaraziko aut eta hauñitz egiñaraziko, eta izanaraziko aut poblu bilduma bat eta emanen zioat herri hura hire ondoreari hire ondoan sekulako posesionetzat.

5. Orai bada hire bi haur Ejiptuko herrian sorthu zaizkianak, ni harat hiregana ethorri nintzen baño lehen, eneak dituk, Efraim eta Manase eneak izango dituk Ruben eta Simeon bezala.

6. Ordean lerro segida hekien ondoan enjendratuko duana, izango duk hirea: eta deithuak izango dituk bere anaien izenaren arabera bere primutasunean.

7. Eta Paddandik nindathorrenean, Rakel hil ziaitaan Kanaango herrian bidean, etzela gelditzen gehiago zenbeit herri espazio ttipi inguru baizen Efratara ethortzeko: eta han ehortzi nian Efratko bidean, zeña baita Beth-lehem.

8. Gero Israelek ikhusi zituen Iosepen semeak, eta erran zuen: nor dire hauk?

9. Eta Iosepek ihardetsi zioen bere aitari: hauk dituk ene semeak, lainkoak hemen eman darozkida-

nak. Orduan erran zuen, ekhar dietzakidak, othoizten aut, bedinka detzadantzat.

10. Ordean Israelen begiak pisatu ziren zahartasunez, halako maneraz non eziñ ikhus baitzekaken, eta hurbillarazi zituen beregana, eta musu eman zioten, eta besarkatu zituen.

11. Eta Israelek erran zioen Iosepi, ez nian uste ikhusi sekulan hire bisaia: eta horra, lainkoak ikhusarazi ziautak eta hi eta hire lerro segida ere.

12. Eta Iosepek erretiratu zituen haren belhaunetarik, eta iarri zen ahuspez bisaia lurraren kontra.

13. Iosepek beraz hartu zituen hek biak, Efraim bere eskuñean, Israelen ezkerretik, eta Manase bere ezkerrean Israelen eskuñetik: eta hurbillarazi zituen harengana.

114. Eta Israelek aitzindu zuen bere esku eskuña eta ezarri Efraimen buruaren gañean zeña baitzen ttipiena, eta bere ezkerrean Manaseren buruaren gañean: bere eskuak alde batetik bertzera berariaz ekhartzen zituela ezen Manase zen lehensorthua.

15. Eta bedinkatu zuen Iosep erraten zuela, lainkoak noren bisaiaren aitzinean ibilli baitire ene aitak Abraham eta Isaak, lainkoak, izatean naizenetik gaurko egun hau artereraño bazkatzen nauenak.

16. Aingeruak gaitz guzietarik begiratu nauenak, bedinka detzala haur hauk. Eta ene izena eta ene aita Abraham eta Isaken izena, izan dadillala deithua horion gañean, eta egin daitezela hauñitz arraňak bezala, berretzen direla lurrean.

17. Orduan Iosepek ikhusirik haren aitak ematen zuela bere esku eskuña Efraimen buruaren gañean, hori desagradatu zitzaion, eta altxatu azpitik bere aitaren eskua aldaratzeko Efraimen buruaren gañetik Manaseren buruaren gañera.

18. Eta Iosepek erran zioen bere aitari, eztuk horrela, ene aita: ezen hunako hau duk lehensorthua: emak hire esku eskuña hunen buruaren gañean.

19. Baňan haren aitak errefusatu zuen, ziotsala, bazeakiat hori semea, bazeakiat, hori ere egingo duk poblu bat, eta oraňo izango duk haundia: baňan guziarekiň ere horren anaia ttipiena hori baňo haundiago izango duk, eta haren ondorea izanen duk nazione abundantzia bethea.

20. Egun hartan bedinkatu zituen, erraten zuela, Israelek bedinkatuko dik hitan diotsala, lainkoak egiň azala Efraim eta Manase bezalako eta eman zuen Efraim Manaseren aitziňean.

21. Berriz Israelek erran zioen Iosepi, horra, hiltzera nihoak: bañan lainkoa zuekiñ izanen duk, eta bihurraziko zaituzte zuen aiten herrira.

22. Eta ematen daroat parte bat hire anaiei baño gehiago, zeña hartu izan baitiat ene ezpata eta bales-tarekiñ amorhearren eskutikan.

BERROGOI ETA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

*lakobek azkeneko hitzak,
zeñetan kondenatzen baititu
bere hirur haurren faltak
aitziñetik erraten diotzatela batean
guziei gerthatu behar zitzaizkoten gauza guziak
Mesias ethor zediñ arteraño
zeñaren ethortzea prometatzen baitu
Iudako famillara.*

*29 lakob hiltzen da deklaratu ondoan
bere borondatea bere sepulturaren gañean.*

1. Gero lakobek deithu zituen bere semeak eta erran zuen, bil zaitetze, eta deklaratu darotzuet zer gerthatu behar zaitzuen azkeneko egunetan.

2. Bil zaitetze, eta adi zazue, lakoben semeak, adi zazue, [zioat] Israel zuen aita.

3. Ruben hi aiz ene lehensorthua, ene berthutea, eta ene indarraren hasta: exelenta diñitatean, exelenta indarrean.

4. Buruz behera aurthiki izatu duk heure burua ura bezala: ez adillala aitzin: ezen igan izatu aiz hire aitarren etzan tokiaren gañera, orduan lizundu duk: ene ohea galdu izan duk.

5. Simeon eta Lebi anaia dituk, bortxa errementak bere kabanetan.

6. Ene Arima ez bedi sar hekien kontseillu sekretuan: ene loria ez bedi iunta hekien biltzarrarekin. Ezen hill izan tiztek iendeak bere koleraan, eta goratu tiztek idiak bere plazerera.

7. Madarika bedi hekien kolera, ezen ahalkegabea izatu duk: eta hekien fulia, ezen tieso egotu izan duk: errepertituko tiat lakobenean eta barraiatuko tiat Israelenean.

8. Iuda, hitaz denaz bezanbatean, hire anaiek laudatuko aute hire eskua hire etsaien lepho gañean izango duk, hire aitaren semeak iarriko dituk ahuspez hire aitzinean.

9. Iuda lehoin kume bat duk: ene semea bihurtu izan aiz zathikaturikan, makhurtu izatu duk eta bere indarrean den lehoin bat bezala ziagok, eta lehoin zahar bat bezala, nork iratzarriko du?

10. Szeptroa eztuk aldaratuko ludarenganik, ez legegillea haren oñen artetik, Szilo ethor dadiñ artean, eta hari dagoka pobluen bilduma.

11. Mahastiari amarratzen zioz bere astoa, eta mahats ondo exelentari bere asto kumea: arnoan garbituko dik bere beztimendua, eta mahats mulkho odolean bere kapa.

12. Begiak gorrieder tik arnoz, eta hortzak xuri esnez.

13. Zabulon alojituko duk itsas portuan, eta untzi portuan izango duk, eta haren aldea Sidon partera.

14. Isakar asto hezurtsu bat duk establiako barren artean dagoena.

15. Ikhusi dik sosegua ona zela, eta herria agrada-garria zela, eta beheratu dik bere sorbalda ekhartzeko, eta asuietitu zitzaioz esklabo egiñ izatu direnen tributuari.

16. Danek iuiatuko dik bere poblua Israeleko familletarik bertze bat bezaiñ ungi.

17. Dan suge bat izango bidearen gañean, eta itzal suge bat bide gañean ausikitzen dituela zamariaren zapatak zerengatikan erori baita zamalduna ahozgora.

18. O Eternala, iduriki diat hire salbamendua.

19. Gadez denaz bezanbatean, tropelak laster egingo dio gañera bañan hark laster egiñen dik gañera azkenean.

20. Ogi gizona ethorriko duk Aszerenganik eta emanen tik atsegiñ errealak ere.

21. Nefthali orkhaitzeme lexatu bat duk, hitz ederrak ematen tik.

22. Iosep erramu dakharken bat duk, erramu bat ithurri ondoan dakharkena, adarrek kurritu izan ditek harri-morroillaren gañera.

23. Hasarratu izan ditek minki: tiratu ditek haren kontra, eta fletxa-tiratzaille nausiek higindu izan ditek.

24. Bañan haren balesta bere indarrean egotu izan duk eta haren eskuen besoak borthiztuak izatu dituk: hori duk lakoben puxantaren eskutikan: handik duk artzaña, Israeleko harria.

25. Hori duk hire aitaren lainko borthitzaganik, zeñek lagunduko baihou, eta guziz Puxantaganik zeñek bedinkatuko baihou zero gañeko benedizio-nee, leze behereko benedizio-nee, bulharreko eta emasabeleko benedizio-nee.

26. Hire aitaren benedizio-nee indar handitakoagoak izatu dituk ezen ez ni enjendratu nautenen benedizio-neeak eternitate aldaken bururaño: Iosepen

buruaren gañean izango dituk, eta bere anaien artetikako nazaretarraren gañean.

27. Benjamiñ zathikatuko duen otso bat duk: goizean iretsiko dik arrapakia eta arratsean errepartituko dik atzemankia.

28. Hek guziak dire Israeleko hamabi famillak: hori ere da bere aitak erran ziotena, hek bedinkatzean, bai hetarik batbedera bedinkatzean bere benedizione propioaren arabera.

29. Gehiago manatu zuen, ziotsala, erretiratzera nihoak ene poblugana, ehortz nazazue ene aitekiñ, Hefron hetiendarraren larrean den arroka phutzuan.

30. Makpelako larrean den arroka phutzuan, zeña baita Mamreren aitziñaz aitziñ, Kanaango herrian: zeña Abrahamek ardietsi baitzuen Hefron hetiendarra-ganik, larrearekien sepultura posesionetzat.

32. Han ehortzi izan ditek Abraham Sara bere emaztearekiñ: han ehortzi izan tiztek Isaak eta Rebe-ka bere emaztea: eta han ehortzi diat Lea.

32. Ardietsi ditek hetiendarrenganik larrea eta arroka phutzu han dena.

33. Eta lakobek akhabatu zuen orduan bere semeei manatzera erretiratu zituen bere oñak ohera,

eta faltatu zen: hala erretiratu izan zen bere poblueta-
ra.

BERROGOI ETA HAMARGARREN KAPITULUA

*Iosepek urrindatzen du bere aitaren gorphutza
6 Faraonen permisionez eta Ejiptuko buruzagiez
eta bere anaiez lagundua izanik,
eramanarazten du Kanaango herrira:*

12 Non ehorzten baita:

*15 Iosepen beldurturik haren kontra egiñikako
dela kausa othoizten dute barkha diozotela.*

19 Iosepek kontsolatzen ditu eta entretenitzen.

*22 Gero ikhusi ondoan bere gibel illobetaraño,
25 eta iuramentu eragiñ ondoan eramanean zituztela
haren hezurak Kanaango herrira hiltzen da Ejiptuan,
ehun eta hamar urtheren adiñean.*

1. Iosepek bada aurthiki zuen bere burua bere aitaren bisaiaren gañera, eta nigar egin zuen haren gañean, eta musu eman zioen.

2. Eta Iosepek manatu zituen bere zerbitzari mirikuak urrindatzera haren aita; eta mirikuek urrindatu zuten Israel.

3. Gero berrogoi egunak konplitu ziren: ezen horrela konplitzen ziren urrindatzen zituztenen egunak. Eta ejiptuarrek nigar egin zuten hartaz hirurhogoi eta hamar egunez.

4. Eta nigar egin zuten denbora iragan ondoan, Iosep mintzatu zitzaien Faraonen etxeko zirenei, erra-ten zuela, othoizten zaituztet, ediren baldin badut grazia zuen baithan, adiaraz diotzotzue Faraoni perpaus hauk berak.

5. Ene aitak egiñarazi darotala iuramentu ziotsala, horra, hiltzera nihoak; ehortziko nauk ene sepultura Kanaango herrian zillhatu dudanean: orai bada, othoizten aut, igan nadiñ harat, eta ehortz dezadan neure aita: gero bihurtuko nauk.

6. Eta Faraonek ihardetsi zuen, igan adi, eta ehortz zak heure aita, iuramentu eragin daroan bezala.

7. Iosep bada igantzen bere aita ehorztera, eta harekiñ igan ziren Faraonen zerbitzari guziak, Faraonen etxeko zaharrak, eta Ejiptu herriko zahar guziak.

8. Eta Iosepen etxe guzia, eta haren anaiak, eta haren aitaren etxea ere harat igan ziren, utzi ondoan solament bere mañada, eta bere arthaldeak, eta bere idiak Goszengo herrian.

9. Eta igan ziren oraño harekiñ orgak eta zamaldunak: halako maneraz non han izatu baitzen iende bilduma haundi bat.

10. Eta ethorri ziren Adako airategiraño zeña baita lordaindik haratago, eta ekharri zuten dolu haundi eta min bat: eta Iosepek ekharri zuen bere aitaren dolua zazpi egunez.

11. Eta kananearrek herriko habitantek, ikhusirik dolu hura Atadko airategian, erran zuten, dolu hori min ziaiotek ejiptuarrei: hargatikan airategiaren izena deithua izatu zen Abelmitsraim, zeña baita lordaindik haratago.

12. Bere semeek beraz egin zioten nola ere manatu baitzioten eta hala.

13. Ezen bere semeek eraman izan zuten Kanaan-go herrira, eta ehortzi zuten Makpela larreko arroka phutzuan Mamreren aitziñaz aitziñ: zeña Abrahamek ardietsi baitzuen Hefron hetiendarraganik larrearekiñ, sepultura posesionetzat.

14. Eta Iosep, bere aita ehortzi ondoan, bihurtu zen Ejiptura, hura eta haren anaia guziak, eta harekien haren aitaren ehorztera igan ziren guziak.

15. Eta Iosepen anaiek ikhusirikan hekien aita hiltzela, erran zuten, beharbada, Iosepek higinduko gai-

tik eta ezetik faltatuko guri bihurtzera egiñ izan diogun gaitz guzia.

16. Hargatikan egorri zioten Iosepi erratera, zio-tsatela, hire aitak manatu zian hill baño lehen, erraten zuela,

17. horrela erranen diozue Iosepi, othoizten aut, barkha orai hire anaien hobena, eta hekien bekhatua: ezen gaizki egin darotek. Orai bada, othoizten aut, barkha zak hire aitaren lainkoaren zerbitzarien hobena. Bañan Iosepek nigar egin zuen hari mintzatu zitzaizkon orduan.

18. Haren anaiak ere goan ziren harat eta aurthiki zituzten bere buruak haren aitziñera, erraten zutela, horra, hire muthill gaituk.

19. Eta Iosepek erran zioten, etzaitezela beldur: ezen lainkoaren lekhuan nauk ni?

20. Gaizki phentsatu zinduten ene aldera, bañan lainkoak onera phentsatu dik, egiteko gaurko egun hunek erakusten duenaren arabera, begiratzekotzat bizirik poblu haundi bat.

21. Hargatikan eztuzuela beldurrik orai: nik neuro-rrek entretenituko zaituztet zuek eta zuen mañada. Eta kontsolatu zituen, eta mintzatu zitzaioten hei bere gogara.

22. Iosepek beraz Ejiptuan egin zuen bere egoitza, hark eta haren aitaren etxeak, eta bizi izatu zen ehun eta hamar urthe.

23. Eta Iosepek ikhusi ziotzan Efraini hirugarren ienerazioneko haurrak. Makir Manaseren semearen haurrak ere haziak izatu ziren Iosepen belhaunen gañean.

24. Eta Iosepek erran zioten bere anaiei, hiltzera nihoak, eta lainkoak ez tik faltatuko zuen bisitatzera eta iganaraziko zaituzte herritik Abraham, Isaak, eta Iakobi iuramentu egiñ izan dioten herrira.

25. Eta Iosepek iuramentu eragin zioten Israelen hurrei, eta erran zioten, lainkoak ez tik faltatuko zuen bisitatzera: eta hargatik eramanen ditutzue ene hezurrak hemendikan.

26. Gero Iosep hiltzen ehun eta hamar urtheren adiñean: eta urrindu zuten, eta ezarri zuten gathabuta batean Ejiptuan.

**MOISEREN
BIGARREN LIBURUA
ILKHITZEA DEITHUA**

LEHEN KAPITULUA

Israeleko haur Ejiptura iausti direnen nonbrea.

7 Eta hekien berretze mirakuilluzkoa.

*8 Errege berri batek, israeltarren berretzeari
beldurturik aflijitzen ditu asko trazaz.*

*15 Emagiñei manatzeraño hillaraztera
hekien haur harrak.*

*22 Eta azkenean emateraño ordena bat
hekien haur harrak aurthik daitezen ibaiarat.*

1. Hunako hauk dire bada Israelenen haur Ejiptuan sarthu zirenen izenak, hetarik batbedera sarthu izan zen han lakobekiñ eta bere famillakiñ.

2. Ruben, Simeon, Leui, eta Iuda,

3. Isakar, Zabulon, eta Benjamiñ,

4. Dan, eta Neftali, Gad, eta Aszer.

5. Iakoben hankatik ilkhirikako presuna guziak ziren hirurhogoi eta hamar losepekiñ zeña baitzen Ejiptuan.

6. Iosep bada hill izan zen, eta haren anaia guziak eta ienerazione hura guzia.

7. Eta Israelen haurrak berretu eta xoill hagitz hauñitz egin ziren eta multiplikatu eta borthiztu izan ziren, hanbat eta gehiago halako maneraz non herria bethe izatu baitzen hetaz.

8. Gerostikan altxatu izan zen Errege berri bat ejiptuarren gañean, zeñek ezpaitzuen ezagutu losep.

9. Eta hark erran zioen bere pobluari, horra, Israelen haurren poblua gu baño haundiago eta puxantago duk.

10. Ea bada konporta gaitezen zuhurki horren aldera hauñitz egiñ eztadin beldurrez, eta zenbeit gerla gerthatzen baldin baliz, iunta eztakioten gure etsaiei ere eta egin diezagun guri gerla, eta igan ezta-diñ herritikan.

11. Ordenatu zituzten beraz pobluaren gañean gabel komisarioak haren aflijitzeko kargatzen zutela gañetik ezen pobluak egin ziotzan munizioneko hiriak Faraoni, erran nahi da, Pithom, eta Rahamses.

12. Ordean zenbatenaz gehiago aflijitzen baitzuten eta hanbatenaz gehiago hauñitz egiten zen, eta hanbatenaz gehiago hagitz berretzen zen horrengatik higingarri zitzaizkoten Israelen haurrak.

13. Eta hala gathibatu zituzten Israelen haurrak gogorki.

14. Halako maneraz non errendatu baitzioten bere bizitzea gaitz dorphe, morthero egiteko, ardillu egiteko, eta larrean egiten diren obra guzien egiteko gathibutasun gogorra zela kausa: Laburki, hekienganik atheratzen zuten zerbitzu guzia gogortasunarekin zen.

15. Ejiptuko Erregek manatu zioten oraño emagiñ hebrearrei, zeñetarik batek baitzuen izena Szifra, eta bertzeak baitzuen izena, Puha:

16. eta erran zuen, hebrearren haurrak errezibitzen ditut zuen orduan eta ikhusten alkhi gañean: semea baldin bada, hil zazue bañan alaba baldin bada, bizi bedi.

17. Bañan emagiñak lainkoaren beldur izatu ziren, eta etzuten egiñ Ejiptuko Erregek erran izan zioten bezala: ezen utzi zituzten bizitzera Semeak.

18. Ejiptuko Erregek bada deithu zituen emagiñak eta erran zioten, zergatik egin duzue hori, utzi tutzue bizitzera semeak?

19. Eta emagiñek ihardetsi zioten Faraoni, zeren eta emazte hebrearrak ezpaitituk emazte ejiptuarrak bezala: ezen sendoak dituk, erdi dituk haurraz, emagiña hekiengana ethor dadin baño lehen.

20. Eta lainkoak egin zioten ontasun emagiñei, eta poblua multiplikatu zen eta hagitz borthiztu.

21. Eta zeren emagiñak izatu baitziren lainkoaren beldur, gerthatu zen, hei egin ziotzaten etxeak.

22. Orduan Faraonek manatu zioen bere poblu guziari, ziotsala, sorthuko diren seme guziak aurthik zatzue ibaiarat, bañan utztatzue bizitzera neskatxa guziak.

BIGARREN KAPITULUA

*Moise sorthu eta
hirur illhabetez gordea izaturik.*

3 Ezarria da ibaian:

*5 bañan ikhusia izanik Faraonen alabaz,
erretiratua da hirriskutik,*

9 eta emana bere ama propioari haztekozat:

*10 haundi egiñ eta hautatua da
semetzat Faraonen Alabaz.*

*11 Gero ejiptuar bat hill eta,
15 beldurturikan hill zezan Faraonek,
goaten da ihesi madianera.*

21 Non hartzen baitu emaztetzat Sefora.

*23 Farao hill eta, israeltarrak suspiraz
dagozka launari, zeñak entzuten baititu
hekien nigar auhenak.*

1. Goan izan zen bada Lebiren etxeko personaia bat, eta hartu zuen Lebiren alaba bat.

2. Zeñak kontzebitu baitzuen eta egiñ seme bat, eta ikhusirikan ederra zela, gorde izan zuen hirur illhabetez.

3. Bañan gorderik gehiago eziñ iduki izanez, hartu izan zioen ihiz egiñikako kofretxo bat, eta alkaternaztatu zuen eta breiaztatu: gero ezarri zuen haurra hartan barna, eta phausatu zuen arrosategi batean ibaia-
ren gañean.

4. Eta haren arreba urrunetik egotu izan zen iakitekoko zer egiñen hartaz.

5. Faraonen alaba bada iautsi izan zen garbitzera ibaian, eta haren neskatxak pasaietan zebiltzan ibaia-
ren gañean: eta ikhusirik kofretxoa arosategiaren erdian egorri izan zuen bere neskato bat zeñak hartu baitzuen.

6. Eta kofretxoa ideki eta ikhusi zuen haurra. Eta horra, haurra nigarrez zegoen: urrikaldu zitzaion bada haurra, eta erran zuen, hebrear horion haurretarik duk hau.

7. Orduan haren arrebak erran zioen Faraonen alabari, goanen othe naun deitzera hiri emazte bat hebrearren artetik bulharra eman dezan, eta emanen zion bulharra haur horri?

8. Eta Faraonen alabak ihardetsi zioen, oha. Eta neskatxa gaztea goan izan zen, eta deithu zuen haurraren ama.

9. Eta Faraonen Alabak erran zioen, eramán tzan haur hau eta bulharra eman diozon eta emanen daronát pagua: eta Emazteak hartu zuen haurra eta bulharra eman zioen.

10. Eta haurra haundi egiñ izan zen orduan eraman zioen Faraonen alabari, eta semetzat izatu zitzaion, eta deithu izan zuen haren izena Moise, zeren eta [ziotsan] uretarik atheratu izan baitut.

11. Eta gerthatu zen denbora hartan, Moise haundi egiñ izan zen orduan, ilkhi izan zela bere Anaiengana, eta ikhusi zituen hekien kargak: ikhusi izan zuen ejiptuar bat ere iotzen zuela hebrear bat bere anaien artetikakoa.

12. Eta begiratu ondoan harat hunat, ikhusi zuen etzela nihor: hala hill izan zuen ejiptuarra, eta gorde zuen hareapean.

13. Berriz ilki izan zen bigarren egunean, eta horra, bi gizon hebrearrek ihardukitzen zuten, hargatikan erran izan zioen falta zuenari, zergatik iotzen duk heure lagun proximoa?

14. Zeñak ihardetsi baitzuen, nork ezarri au Printze eta luietzat gure gañean? uste nauk ni hill, ejiptuarra hill izan duan bezala? eta Moise beldurtu zen, eta erran zuen, egiaz egiña ezagutua da.

15. Faraonek bada egiñ hori entzun eta ibilli izatu zen Moise hil nahiz. Ordean Moise ihesi goan izan zen Faraonen aitziañetik, eta gelditu Madiango herrian, eta iarri zen urphutzu baten ondoan.

16. Eta Madiango sakrifikatzaillak bazituen zazpi alaba, zeñak ethorri baitziren ur atheratzera, eta bethe zituzten askak bere aitaren arthaldeak edarateko.

17. Orduan artzañak ethorri ziren, eta khasatu zituzten hek: bañan Moise altxatu zen eta begiratu zituen, eta edaran zuen hekien arthaldea.

18. Eta bihurtu izan ziren orduan Rehuel bere aitagana, erran zioten, nola bihurtu zarete horren laster egun?

19. Ihardetsi zuten, gizon ejiptuar batek libratu giaitik artzañen eskutikan: eta oraño ura franko atheratu ziarokuk, eta edaran dik arthaldea.

20. Orduan erran zioten bere alabei, eta non da hura? Zergatik horla utzi duzue gizon hura? Deitzazue, eta ian beza ogia.

21. Eta Moise akordatu zen egoteko gizon harekien, zeñak eman baitzioen Sefora bere alaba Moisi.

22. Eta erdi izan zen seme batez, eta deithu zuen haren izena Gerszom ezen erran zuen herri arrotzean egotu izan nauk.

23. Gerthatu zen bada denbora luzearen ondoan Ejiptuko Errege hil zela: eta Israelen haurrak suspiraz egotu zirela gathibutasuna zela kausa, eta egin zute-la deihadar, eta hekien deihadarra, gathibutasuna zela kausa, igantzela lainkoagana.

24. Lainkoak beraz entzun zituen hekien nigar-auhenak: eta lainkoa orhoitu izan zen bere, Abraham, Isaak, eta Iakobekiko alientziaz.

25. Hala lainkoak begiratu zioten Israelen hurrei, eta ezagutu zituen.

HIRURGARREN KAPITULUA

*lainkoak Moisi agerturik su zatxekon hesi batean,
7 adiarazten dio nola ikhusi
izan duen israeltarren aflikzioea,
9 zeñetarik libratu nahi baititu haren bidez,
13 hargatikan hari bere izena erran eta egortzen du,
16 lehenik Israeleko poblugana,
18 gero ondoan Faraonengana:
19 eta erraten dio aitziñetik
komisione horren ondorea.*

1. Moise bada izatu zen lethro bere aita Giñharrau Madiango sakrifizatzaillaren arthaldearen artzañ: eta eramaten zuela arthaldea desertu gibelera, ethorri izan zen lainkoaren mendira Horeb-raño.

2. Eta Eternalaren aingerua agertu zitzaion su kharretan, hesi baten erditikan, eta begiratu zuen, eta horra, hesia sutan zegoen, eta hesia etzen kontsumitzen.

3. Orduan Moisek erran zuen, aldaratuko nauk orai, eta ikhusiko diat bisione handi hori, zergatik hesia ezten erretzen.

4. Eta Eternalak ikhushi zuen, Moise aldaratu zela begiratzeko: eta lainkoak deithu izan zuen hesiaren erditikan, ziotsala, Moise, Moise. Eta ihardetsi zuen, huna ni.

5. Eta lainkoak erran zuen, ez adillala hurbill hunat. Erauntz tzatzik hire zapatak hire oñetarik: ezen gelditu izan aizen lekhua, Lur saindua duk.

6. Erran zuen oraño, hire aitaren lainkoa nauk ni, Abrahamen lainkoa, Isaaken lainkoa, eta Iakoben lainkoa. Eta Moisek estali zuen bere bisaia, zeren eta beldur baitzen begira zezan lainkoaren aldera.

7. Eta Eternalak erran zuen, ikhushi diat bai ene pobluaren aflikziona, Ejiptuan dena: eta aditu diat aurthiki duten deihadarra hekien gabelurak direla kausa: ezen ezagutu tiat hekien dolareak.

8. Hargatikan iautsi nauk haren libratzera ejiptuarren eskutikan, eta iganaraztera herri hartarik herri on eta zabal batetara, esne eta ezti darion herri batetara: erran nahi da, kananearrak, hetiendarrak, amorhearrak, fereziarrak, hebiendarrak, eta iebuziarrak diren lekhura.

9. Eta orai horra, Israelen haurren deihadarra ethorri izan duk enegana eta ikhushi ere badiat herstura zeñetaz ejiptuarrek hersten baitituzte.

10. Orai beraz athor, eta egorriko aut Faraogana: eta erretiratuko duk ene Poblua, erran nahi da, Israelen haurrak, Ejiptutik kanpora.

11. Orduan Moisek ihardetsi zioen lainkoari, nor naiz ni, nohan Faraogana, eta erretira detzadan Israelen haurrak Ejiptutik kanporat?

12. Eta lainkoak erran zuen, zeren eta hirekiñ izango bainauk: eta señale hau izanen duk nik egorri audala. Ene poblua Ejiptutik kanporat erretiratu izango duanean, zerbitzatuko duzue lainkoa mendi horren ondoan.

13. Eta Moisek ihardetsi zioen lainkoari, horra, ethorri izango naizen orduan Israelen haurrengana eta erran izango diotedanean, zuen aiten lainkoak egorri niauk zuengana, beraz erraten baldin badarotet, zer da haren izena? zer erranen diotet?

14. Orduan lainkoak erran zioen Moisi: Naizena nauk ni. Erran zuen oraño, hunela errango diotek Israelen hurrei: Naizena deitzen denak egorri niauk zuengana.

15. Gehiago lainkoak erran zioen Moisi: hunela errango diotek Israelen hurrei, Eternalak, zuen aiten lainkoak, Abrahamen lainkoak, Isaaken lainkoak, eta lakoben lainkoak egorri niauk zuengana: hau duk ene

izena sekula sekuloronekotz, eta hau duk nitazko orhoitzapena mende guzietakotz.

16. Oha, eta biribil zatzak Israeleko zaharrak, eta erran diozotek, Eternala, zuen aiten lainkoa agertu ziaitak, Abraham, Isaak eta Jakoberen lainkoa, diotsala, bisitatzen zaituztet zintziñez, eta Ejiptuan egin darotzuena.

17. Hargatikan erran diat, iganaraziko zaituztet Ejiptuko aflikzionetik kananearren, hetiendarren, amorhearren, fereziendarren, hebiendarren, eta iebusiendarren herrira, esne eta ezti darion herrira.

18. Eta obedituko ziotek hire hitzari, eta goanen aiz, hi eta Israeleko zaharrak Ejiptuko Erregerengana eta erranen diozue, Eternala hebrearen lainkoa ethorri ziaikuk inkuntratzeraz: orai beraz othoizten augu, goan gaitezen hiruregunen bidez desertura, eta sakrifika dizagun Eternal gure lainkoari.

19. Eta bazeakiat Ejiptuko Erregek etzaituztela utziko goatera lekhat esku borthitzez:

20. Bañan hedatuko diat ene eskua, eta iazarriko ejiptuari ene haren erdian egingo ditudan mirakuillu guziez: eta ondoan gero utziko zaituzte goatera.

21. Eta emanen zioat grazia poblu horri ejiptuarren baithan, eta gerthatuko duk, goango zareten orduan, etzaretela goango hutsik.

22. Bañan batbederak galdetuko ziotzak bere hazoko emazteari eta bere etxeko andreari, zillhar baxerak eta urre baxerak, eta tresnak zeñak emango baitituzue zuen semeen eta zuen alaben soñean: hala biphilduko ditutzue ejiptuarrak.

LAURGARREN KAPITULUA

Moisek konfirmatua izaturik

bere bokazionean bi mirakuilluz,

8 lainkoak egitera manatu ziotzanez israeltarren

aitziñean berze hirugarren batekien,

10 errefusatzen du bizkitartean kargu hori:

11 bañan hartzen du azkenean

lainkoak bere fagorearen promesarekiñ

iuntatzen dioen orduan Aaron laguntzat.

18. Ejiptura goateko partitu eta inkuntratua da

bidean launaz, zeñak hillarazi nahi baitzuen,

Seforak bere semea zirkuntzisuatu ezpaldin balu.

27 Aaron badihoa Moisen atiziñera,

29 eta biak badihoaz Israelitengana

zeñek siñhesten baitute hekien mandatua.

1. Eta Moisek ihardetsi zuen, erraten zuela, bañan horra, ez niautek siñhetsiko, eta etziotek obedituko ene hitzari: ezen erranen ditek, Eternala etzaik agertu.

2. Eta Eternalak erran zioen, zer duk hire eskuan? Ihardetsi zuen: xigor bat.

3. Erran zuen, aurthik zak lurrera. Eta aurthiki zuen lurrera, eta billhatu zen suge: eta Moise ihesi zihoan aitzīñetik.

4. Orduan Eternalak erran zioen Moisi, heda zak hire eskua, eta sesi zak horren buztana: [eta hedatu zuen bere eskua, eta hartu zuen: eta xigor bihurtu zen haren eskuan.]

5. Eta hori siñhets dezatentzat Eternala, hekien aiten lainkoa, Abrahamen lainkoa, Isaaken lainkoa, eta Iakoben lainkoa agertu zaiala.

6. Gehiago Eternalak erran zioen, emak orai hire eskua hire galtzarbean. Eta eman zuen bere eskua bere galtzarbean: gero atheratu zuen eta horra haren eskua xuria, zen ezkabiaz elhurra bezala.

7. Gero erran zuen, emak oraño hire eskua hire galtzarbean. Eta eman zuen oraño bere eskua bere galtzarbean. Eta atheratu zuen oraño bere galtzarbetikan kanpora: eta horra, bihurtu izan zen oraño haren bertze haragia bezala.

8. Gerthatzen baldin bada ez autela siñhesten, eta eztiotela obeditzen lehenbiziko señalearen bozari, siñetsiko ditek azkeneko señalearen boza.

9. Eta gerthatzen baldin bada, eztuztela siñhesten bi señala hauk, eta eztiotela obeditzen hire hitzari,

hartuko duk ibaieko uretik, eta isuriko duk lurraren gañera: eta ibaietik hartu izango dituan urak odol bill-hatuko dituk lurraren gañean.

10. Eta Moisek ihardetsi zioen Eternalari, helas, launa! ez atzotik ez heren egunetik, ez nauk hitza aise duen gizona, oraño hire muthillari mintzatu atzaionaz gerostik: ezen ahoa eta mihia debekatuak ditiat.

11. Eta Eternalak erran zioen, nork egin dio ahoa gizonari? edo nork egiten du mutua, edo gorra, edo ikhusten duena edo itsua? eztut egiten nik Eternalak?

12. Oha beraz orai, eta hire ahoarekiñ izango nauk, eta erakutsiko daroat zer erran beharko duan.

13. Eta Moisek ihardetsi zuen, helas, launa! egor-tzak, othoizten aut nor ere egorri behar baituk eta hura.

14. Eta Eternalaren kolerak irakitu zuen Moisen kontra, eta erran zuen, Aaron Lebi famillakoa ezta hire anaia? bazeakiat xoill ungi mintzatuko dela. Eta oraño horra, non ilkhitzen duan hire aitziñera, eta hi ikhus-tean bozkario izanen dik bere bihotzean.

15. Mintzatuko atzaio beraz hari, eta emanen dio-tzak hitz hauk bere ahoan, eta hire ahoarekiñ eta harenarekiñ izango nauk, eta erakutsiko darotzuet zer egin beharko duzuen.

16. Eta hura mintzatuko ziaiok hiretzat pobluari, eta hala ahotzat izango atzaio hi, eta lainkutztat izango zaik hura.

17. Hartuko duk xigor hori ere hire eskuan, zeñarekien egingo baitituk señale hek.

18. Hala Moise goan zen, eta bihurtu izan zen lethro bere aitagiñharrauagana, eta erran zioen, othoizten aut, ni goan nadiñ, eta bihur nadiñ ene anaia Ejiptuan direnetara, ikhustera ea bizi diren oraño. Eta lethrok erran zioen, oha bakean.

19. Eternalak bada erran zioen Moisi Madiango herrian, oha, eta bihur adi Ejiptura ezen hire biziaren billha zebiltzan guziak hil dituk.

20. Hala Moisek hartu zituen bere emaztea, eta bere semeak, eta ezarri zituen asto baten gañean: eta bihurtu izan zen Ejiptuko herrira. Eta Moisek hartu zuen lainkoaren xigorra ere bere eskuan.

21. Eta Eternalak erran zioen oraño Moisi Ejiptura ohala eta bihurtzen aizela, begirauk, egingo dituk Faraonen aitziñean, hire eskuan ezarri ditudan mirakuillu guziak: ordean gogortuko diat haren bihotza, eta eztik utziko goatera poblua.

22. Erranen diok beraz Faraoni, horrela erran dik Eternalak, Israel duk ene semea, ene lehensorthua.

23. Eta erran daroat utzak goatera ene semea, zerbitza nazantzat: eta errefusatu duk uztera goatera. Horra banihoak hiltzera hire semea, hire lehensort-hua.

24. Gerthatu zen bada, nola Moise baitzen bide gañean, ostelerian, Eternalak inkuntratu zuela eta ibilli zela hura nola hill billha.

25. Orduan Seforak hartu zuen kanibet zorrotz bat eta hartaz ebaki izan zioen zioen prepuzioa, pitxomuthurra bere semeari, Moisen eta ezarri zuen oñetan: eta erran zuen, egiaz hi niri odol espos bat atzait.

26. Beraz partitu zen harenganik; hargatikan erran zuen, odol esposa: zirkuntzisionea dela kausa.

27. Eta Eternalak erran zioen Aaroni, oha Moisen aitzinera desertura. Goan zen bada harat, eta inkuntratu zuen lainkoaren mendian, eta eman zioen musu.

28. Eta Moisek erran ziotzan Aaroni: Eternal egorri zuenaren hitz guziak, eta señaile manatu izan ziotzan guziak.

29. Moise bada iarraiki zitzaion bere bideari Aaronekien: eta biribillkatu zituzten Israeleko haurren zahar guziak.

30. Eta Aaronek erran zituen ETERNALAK MOISI ERRAN izan ziotzan hitz guziak, eta egin zituen señaileak pobluak ikhusten zituela.

31. Eta Pobluak siñhetsi zuen: eta aditu zuten, ETERNALAK bisititzen zituela ISRAELEKO HAURRAK eta begiratzen ziotela HEKIEN AFLIKZIONEARI: eta MAKHURTURIKAN IARRI izan ziren ahuspez.

BORTZGARREN KAPITULUA

*Moisek eta Aaronek deklaratzeko diote
bere kargua Faraoni*

*4 zeñak akusatzen baititu trublagarriak direla
eta khasatzen bere aitziñetikan.*

*6 Eta kargatzen baitu oraño
gehiago Israeleko poblua.*

*19 Hargatik israelarren komesarioek
ihardukitzen dute Moise eta Aaronekiñ.*

22 Eta hortaz Moisek egiten dio errenkura launari.

1. Ondoan gero Moise eta Aaron ethorri izan ziren, eta erran zioten Faraoni, horrela erran izan du Eternalak, Israeleko lainkoak, utzak goatera ene poblua, zelebra diezadantzat bestaburu bat desertuan.

2. Ordean Faraonek erran zuen, nor da Eternala, obedi diozodan nik haren bozari, Israel goatera uzteko? eztiat ezagutzen Eternala, eta oraño eztiat utziko goatera Israel.

3. Eta erran zuten, hebrearren lainkoa ethorri ziaikuk inkuntratzeraz: othoizten augu, goan gaitezen orai hirur egunen bidez desertura, eta sakrifika diozogun

Eternal gure lainkoari, bere burua gure gañera aurthik eztezan beldurrez heriotzez edo ezpataz.

4. Eta Ejiptuko Erregek erran zioten, Moise eta Aaron zergatik aldararazitzen duzue Poblua bere obratikan? zohazte orai zuen kargetara.

5. Faraonek erran zuen oraño, horra, herri huntan poblu hauñitz da orai, eta geldiarazitzen ditutzue bere kargetarik.

6. Eta Faraonek manatu zioten egun hartan berean pobluaren gañean ziren Gabelurei, eta haren komesarioei, erraten zuela,

7. Eztiozue emanen gehiago lastorik poblu horri ardillu egiteko lehen bezala: bañan bihoaz eta bill bezate lastoa.

8. Bizkitartean kargatuko ditutzue lehen egiten zituzten ardillu kuantitatez handik deusere gutitu gabetanikan: ezen horiok astia-duten iendeak dire, hargatikan daudez oihuz, erraten dutela, goazen, eta sakrifika diozogun gure lainkoari.

9. Lana haundi bedi iende horion gañean, eta okupa beitez, eta ez bezate, iragan denbora gezur hitzketan.

10. Pobluaaren Gabelurak bada eta haren komesarioak ilkhi ziren, eta erran zioten pobluari, horrela

erran du Faraonek, eztarotzuet emanen gehiago lastorik.

11. Zohazte zeuok hartzera lastoa non ere aurkituko baituzue eta harat: ezen eztuk gutituko deusere zuen lanetikan.

12. Orduan Poblua barraiatu izantzen Ejiptuko herri guzian biltzeko lastoaren orde.

13. Eta Gabelurek khexarazitzen zituzten, erraten zutela, akhaba tzatzue zuen lanak, egun guziez bere lana, lastoa ematen zitzaitzuenean bezala.

14. Israeleko haurren komesarioak ere, Faraonen Gabelurek hekien gañean ezarri zituztenak zehatuak izatu ziren, eta erran zioten, zergatik eztuzue akhabatu zuen lana, eztutzue egiñ ardilluak atzo eta egun, lehen bezala?

15. Orduan Israeleko haurren komesarioak ethorri ziren oihu egitera Faraoni, ziotsatela, zergatik egiten diotek horrela hire muthillei?

16. Etziotek ematen lastorik hire muthillei, eta erraten ziarokutek, egitzue ardilluak. Eta horra, hire muthillak zehatuak dituk eta hire poblua punitua duk bekhatu egin balu bezala.

17. Eta ihardetsi zuen, baduzue asti. Baduzue asti: hargatikan erraten duzue, goazen sakrifika diozogun Eternalari.

18. Orai bada, zohazte, egizue lana: ezen lastoa etzaitzue emango, eta bitartean errendatuko duzue ardillu kuantitatea.

19. Eta Israeleko haurren komesarioek ikhusi zuten puntu gaxtoan zirela, erraten zutenaz geroz, eztuzue gutituko deusere zuen ardilluetarik egun bak-hotxeko lanetikan.

20. Eta Faraonenganik ilkhitzean, inkuntratu zituzten Moise eta Aaron zeñak ediren baitziren hekien aitziñean.

21. Eta erran zioten, Eternalak begira diezazuela eta iuia zaitzatela, ikhusirik higiñarazi gaitutzuela Faraoni eta haren zerbitzariei, ematen diozuela ezpata bere eskuan gure hiltzeko.

22. Orduan Moise bihurtu zen Eternalagana, eta erran zuen, launa, zergatikan gaizki tratarazi duk poblu hau? zergatikan egorri nauk?

23. Ezen Faraonengana ethorri naizenaz gerostik hire izenean mintzatzera, gaizki tratatu izan dik poblu hau, eta eztuk libratu batere heure poblua.

SEIGARREN KAPITULUA

*launak erreberitzen ditu bere promesak
Israeleko haurren librantzaz.*

*6 Egortzen du berriz Moise hekiengana,
9 bañan eztute entzuten.*

*11 Hargatik pretenitzen du eskusatzeraz
bere burua launaren baithan presentatzeaz
gehiago Faraonen aitzinean.*

*16 Moisen, Aaron eta bertze
Lebi familien ienerazionea.*

1. Eta Eternalak erran zioen Moisi orai ikhusiko duk zer egiñen diodan Faraoni: ezen utziko tik goatera bortxatua izanik esku borthitez, bai bortxatua izaturik esku borthitez khasatuko tik bere herritikan.

2. Gehiago lainkoa mintzatu zitzaion Moisi, eta erran zioen, Eternala nauk ni.

3. Agertu niatzaiotek lainko borthitz guziz puxanta bezala Abraham, Isaak, eta Iakobi: bañan ez nauk ezagutua izatu hetaz ene izen Eternalaren bidez.

4. Eta ezarri diat ene alientzia ere hekiekien, hei ematekotzat Kanaango herria, zeña baita hekien pelegrinkeria herria, non egotu izan baitire arrotz bezala.

5. Entzun ere baitiat Israeleko haurren nigar-auhenak, ejiptuarrak gathiba zitezen eta orhoitu izan nauk ene alientziaz.

6. Hargatikan erran diozotek Israeleko hurrei, ni nauk Eternala, eta atheratuko zaituztet ejiptuarren kargen azpitikan, eta libratuko zaituztet gathibutasunetik, eta erreskatatuko zaituztet beso hedatu batekien, eta iuiamendu handiekiñ.

7. Eta hartuko zaituztet niri izatekotzat poblu, eta izango natzaitzue lainko, eta ezagutuko duzue Eternal zuen lainkoa naizela, ejiptuarren kargen azpitikan atheratzen zaituztena.

8. Gero sarraraziko zaituztet herrian zeñarengatik altxatu baitut ene eskua, emanen niola hura Abraham, Isaak, eta lakobi, eta emanen darotzuet ontasuntzat: Eternala nauk.

9. Moise beraz mintzatu zitzaioten traza hortan Israeleko hurrei, bañan etzuten entzun izatu Moise bere Izpirituko aflikzioea zela kausa, eta gathibutasun gogorra zela kausa.

10. Eta Eternala mintzatu zitzaion Moisi, ziotsala,

11. oha eta mintza akio Faraο Ejiptuko Erregeri, utz detzala ilkhitzera Israeleko haurrak bere herritik.

12. Orduan Moise mintzatu zen Eternalaren aitziñean, ziotsala, horra, Israeleko haurrek ez niautek entzun izatu eta nola entzunen nau Faraonek ni ezpañez trebe ez naizena?

13. Guziarekiñ ere Eternala mintzatu zitzaioten Moisi eta Aaroni, eta eman zioten Israeleko haurrenganako eta Faraο Ejiptuko Erregerenganako manua, atheratzekotzat Israeleko haurrak Ejiptuko herritikan.

14. Hunako hauk dire bere aiten etxetako buruak. Ruben Israelen lehensorthuaren haurrak, Henok eta Pallu, Hetsron eta Karmi. Horiok dire Rubenen famillak;

15. eta Simeonen haurrak, Iemuel Iamin, Ohad, Iakin, Tsohar, eta Szaul emazte kananear baten Semea. Horiok dire Simeonen famillak.

16. Eta hunako hauk dire Lebiren haurren izenak bere ienerazioneen arabera, Gerszon, Kehath, eta Merari. Eta Lebiren bizi urtheak izatu ziren ehun eta hogoi eta hamazazpi urthe.

17. Gerszonen haurrak, Libni eta Szimhi bere famillen arabera.

18. Eta Kehathen haurrak, Hamram, Jitshar, Hebron eta Huziel. Eta Kehathen bizi urtheak izatu ziren ehun eta hogoi eta hamahirur urthe.

19. eta Merariren haurrak Mahli eta Muszi; horiok dire Lebiren famillak bere ienerazioneen arabera.

20. Hamramek bada hartu zuen lokebed bere izeba emaztetzat, zeña erdi baitzitzaion Aaron eta Moisez. Eta Hamramen biziaren urtheak izatu ziren ehun eta hogoi eta hamazazpi urthe.

21. Eta Jitsharen haurrak, Kore, Nefeg, eta Zikri.

22. Eta Huzielen haurrak Miszael, Eltsafan eta Sithri.

23. Eta Aaronek hartu zuen emaztetzat Eliszebah Hamminadaben alaba, Nahasonen arrebarena, zeña erdi baitzitzaion Nadabez, Abihuz, Eleazarez eta Ithamarez.

24. Eta Koreren haurrak, Asir, Elkana eta Abiasaf. Horiok dire koritarren famillak.

25. Bañan Eleazar Aaronen semeak hartu zuen beretzat emaztetzat Putielen alabetarik bat, zeña erdi baitzitzaion Fineesez. Horiok dire lebitarren aiten buruak bere famillen arabera.

26. Hori da bada Aaron hura eta hori da Moise hura, zeñei Eternalak erran baitzioten, erretira tzazue Israelen haurrak Ejiptutik: bandaz banda.

27. Horiok dire mintzaten zitzaizkonak Farao Ejiptuko Erregeri, erretiratzeko Israelen haurrak Ejiptutik: hori da Moise hura eta hori da Aaron hura.

28. Gerthatu zen beraz Ejiptuko herrian Eternala Moisi mintzatu zitzaion egunean,

29. Eternala, diot, Moisi mintzatu zitzaion orduan, ziotsala, ni nauk Eternala; errotzik Farao Ejiptuko Erregeri nik hiri erran darozkiadan hitz guziak

30. Orduan Moisek erran zuen Eternalaren aitziñean, horra, ez nauk trebe ezpañez, eta nola Faraok entzunen nau?

ZAZPIGARREN KAPITULUA

Moise eta Aaron egortzen dire Faraonengana launaren laguntzaren promesarekiñ.

7 Hekien adiña Faraonen aitziñean presentatu ziren orduan.

9 Segitzen dutela lainkoaren manua konbertitzen dute bere makhilla suge batetara,

11 bañan hori bezalako mirakuillu bat

majizianoek egiñ eta, Farao gogortzen da:

19 Hargatik launak egortzen du lehenbiziko plaga, zeña baitzen odolera bihurturikako urak.

1. Eta Eternalak erran zioen Moisi, horra, ordenatu aut hi izan akion lainko Faraoni, eta hire anaia Aaron izanen duk hire Profeta.

1. Erranen tuk nik hiri manatu darozkiadan gauza guziak, eta Aaron hire anaia mintzatuko ziaioek Faraoni, utz dezantzat goatera Israelen haurrak bere herri-tik kanpora.

3. Bañan gogortuko diat Faraonen bihotza, eta multiplikatuko tiat ene señaleak, eta ene mirakuilluak, Ejiptuko herrian.

4. Eta Faraonek etzaituzte entzunen: bañan ezarriko diat neure eskua ejiptuaren gañean, eta atheratu-ko tiat ene bandak, erran nahi da, ene poblua Israelen haurrak Ejiptuko herritikan, iuiamendu haundiekien.

5. Orduan ejiptuarrek iakingo ditek ni naizela Eternala, hedatu izango dudanean neure eskua ejiptuaren gañera, eta erretiratu izango ditudanean Israelen haurrak hekien artetik.

6. Moisek beraz eta Aaronek egin zuten hori: Eternalak manatu zioten bezala, eta hala egiñ izan zuten.

7. Eta Moisek laur hogoi urtheren adiña zuen, eta Aaronek laur hogoi eta hirurena, Faraoni mintzatu zitzaizkoten orduan.

8. Eta Eternala mintzatu zitzaien Moisi eta Aaroni, erraten zutela,

9. Farao mintzatuko zaitzuen orduan, diotsala, emazue aitziñera mirakuillu bat zuentzat: orduan erranen diok Aaroni, hartzak hire xigorra, eta etxa zak Faraonen aitziñean, eta billhatuko duk tragoin bat.

10. Moise beraz eta Aaron ethorri ziren Faraonengana, eta egin zuten Eternalak manatu zuen bezala. Eta Aaronek etxatu zuen bere xigorra Faraonen aitziñean eta haren zerbitzarien aitziñean, eta egiñ izantzen tragoin bat.

11. Ordean Faraonek ere erakharri zituen zuhurak eta lilluratzailleak: eta Ejiptuko Majizianoek egin orobat bere lilluramenduen bidez.

12. Etxatu zituzten beraz batbederak bere xigorrak, eta billhatu ziren tragoñ: bañan Aaronen xigorrak iretsi zituen hekien xigorrak.

13. Eta Faraonen bihotza gogortu zen, eta etzituen entzun izatu, Eternala mintzatu izan zen arabera.

14. Eta Eternalak erran zioen Moisi, Faraonen bihotza pisatu duk, errefusatu dik uztera goatera poblua.

15. Oha goizetik Faraonengana: horra, ilkhiko duk ur aldera: presentatuko aiz beraz haren aitziñera ibai bazterrean eta hartuko duk hire eskuan xigor sugerat xanjatu dena:

16. Eta erranen diok, Eternal hebrearren lainkoak egorri nindian hiregana, ziotsala, utzak goatera ene poblua, zerbitza nazaten desertuan: eta horra, ez nauk entzun orai arteraño.

17. Horrela erran dik Eternalak, huntan iakiñen duk ni naizela Eternala: horra, banihoak iazartzera eskuan dudan xigorrak ibaieko urak, eta odolerat bihurtuko dituk.

18. Eta arrañ ibaiean dena hillen duk, eta ibaia usainduko duk, eta, ejiptuarrak nekhatuko dituk ibaieko uretik edaten.

19. Eternalak erran zioen oraño Moisi, errok Aaroni, hartzak hire xigorra, eta hedazak hire eskua ejiptuarren uren gañera hekien arri beren gañera hekien xirripen gañera eta hekien lekhu urtsuen gañera, eta hekien ur bilduma guzien gañera: eta billhatuko dituk odol, eta izanen duk odola Ejiptuko herri guzien, zurezko eta harrizko tokietan.

20. Moisek beraz eta Aaronek egin zuten Eternalak manatu izan zuen arabera: eta Aaronek xigorra altxaturik, iazarri zioten hartaz ibaiean ziren urei, Faraonek eta haren zerbitzariak zakusatela; eta ibaiean ziren ur guziak bihurtu ziren odolera.

21. Ibaiean zen arraña ere hill izantzen: eta ibaia usaindu zen, halako maneraz non ejiptuarrek eziñ edan beitzezaketen ibaieko uretarik: eta izatu zen odola Ejiptuko herri guzian.

22. Orobat egin zuten Ejiptuko Majizianoek bere lilluramenduen bidez, hargatikan Faraonen bihotza gogortu izan zen, halako maneraz non ezpaitzitzen entzun izatu, Eternala mintzatu izan zen arabera.

23. Eta Farao, hei gibela bihurtu eta, ethorri izantzen bere etxera eta etzioen ez gehiago iratxaki bere bihotza huni.

24. Ejiptuar guziek bada egin zituzten phutzuak ibaiaren inguruan aurkhitzeko edateko ura, zeren eta eziñ edan baitzezaketen ibaieko uretikan.

25. Eta zazpi egun iragan ziren Eternalak ibaiari iazarri zioenaz gerostik.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

Iainkoak egortzen du

Faraonen kontra bigarren plaga,

erran nahi da, negelak,

15 eta bizkitartean Farao ostriñaturik dago,

libratu izatu ondoan Moisek othoitz egiñik:

16 hargatikan punitua da hirugarren plagaz,

erran nahi da zorriz:

20 Eta ez humiliatu izanez,

aflijitua da laugarren plagaz

erran nahi da, bestiatxo bilduma batez:

30 Zeñetarik libratu eta Moisen othoitzaren bidez,

bitartean bere gogortasunean dago.

1. Ondoan Eternalak erran zioen Moisi, oha Faraonengana, eta errok, hunela erran dik Eternalak, utzak goatera ene poblua, zerbitza nazatentzat.

2. Errefusatzen baldin baduk uztera hura goatera, banihoak iazartzera negelez hire herri guziak.

3. Eta ibaiak gaindi egingo dik negelez, zeñak igango baitire, eta sarthuko hire etxean, eta etzaten aizen gelan, eta hire ohearen gañera, eta hire zerbi-

tzarien etxean, eta hire poblu guziaren artean, eta hire labetan, eta hire [...]

4. Hala negelak igango dituk hire gañera, hire pobluaren gañera, eta hire zerbitzari guzien gañera.

5. Eternalak beraz erran zioen Moisi, errok Aaroni, heda zak hire eskua hire xigorrarekiñ Ibaien gañera, arriberen gañera, eta lekhu urtsuen gañera, eta iganaraz zatzik negelak Ejiptuko herriaren gañera.

6. Hala Aaronek hedatu zuen bere eskua Ejiptuko uren gañera, eta negelak igan izan ziren, eta estali zuten Ejiptuko herria.

7. Eta majizianoek orobat egin zuten bere sorginkeriez, eta iganarazi zituzten negelak Ejiptuko herri-rat.

8. Orduan Faraonek zitoen deithu Moise eta Aaron, eta erran zuen, ertxa zazue Eternala zuen othoitzen bidez, khen detzan negelak ene gañetikan, eta ene pobluaren gañetikan: eta utziko diat goatera poblua, sakrifika diozotentzat Eternalari.

9. Eta Moisek erran zioen Faraoni, glorifika adi ene bidez ertxatu izango dudan orduan ene othoitzen Eternala hiretzat eta hire zerbitzariantzat, eta hire pobluarentzat, desterra detzantzat negelak hire, eta hire etxeen gibelerat? Ibaian xoillki geldituko tituk.

10. Orduan ihardetsi zuen, biharkotz, eta Moisek erran zuen, egingo duk hire hitzaren arabera, iakin dezaantzat, eztela nihor ere Eternal gure lainkoa bezalakorik.

11. Negelak beraz erretiratuko dituk hireganik eta hire etxetarik, eta hire zerbitzarienganik, eta hire pobluaganik: eta ibaian xoillki geldituko dituk.

12. Orduan Moise eta Aaron ilkhi izan ziren Faraonenganik, eta Moisek egin zioen oihu Eternalari negelez, Faraonen gañean ekarri zituenez.

13. Eta Eternalak egin zuen Moisen hitzaren arabera. Hala negelak hill izan ziren, halako maneraz non ezpaitziren izatu gehiago etxetan, ez basa herritan, ez larretan.

14. Eta bildu zituzten hek multzoka, eta lurra usaindu zen.

15. Ordean Faraonek, ikhusirik bazuela hats hartzeko astia eta hark pisatzeko bere bihotza: eta etzitzen entzun izatu, Eternala mintzatu izantzen arabera.

16. Eta Eternalak erran zioen Moisi, errok Aaroni, heda zak hire xigorra, eta iazar diozok lurreko herrautsari, etabillhatuko duk zorri Ejiptuko herri guzian.

17. Eta horrela egiñ izan zuten: Aaronek hedatu zuen bere eskua bere xigorrarekiñ, eta iazarri zioen lurreko herrautsari, zeña billhatu baitzen zorri gizonen gañean eta hazienden gañean: herriko herrauts guzia zorri billhatu zen Ejiptuko herri guzian.

18. Eta Majizianoek orobat egin zuten bere sorginkeriekiñ zorriak erakhartzeko bañan eziñ egiñ ahal zuten. Zorriak bada izatu ziren hanbat gizonetan nola haziendetan.

19. Orduan Majizianoek erran zioten Faraoni, hemen duk lainkoaren erhia. Bizkitartean Faraonen bihotza gogortu izantzen, eta etzituen entzun izatu, Eternala mintzatu izan zen arabera.

20. Gero Eternalak erran zioen Moisi, iaiki adi goiz goizetik, eta presenta adi Faraonen aitziñean. Horra, ilkhiko duk ur aldera: eta erranen diok, horrela erran dik Eternalak, utzak goatera ene poblua, zerbitza nazatentzat.

21. Ezen uzten ezpaduk goatera ene poblua, horra, banihoak egortzera hire kontra, hire zerbitzarien kontra, hire pobluaen kontra, eta hire etxeen kontra, bestiatxo bilduma bat, eta ejiptuarren etxeak betheko dituk bilduma hartaz, eta lurra ere zeñaren gañean izanen baitire.

22. Bañan apartatuko diat egun hartan Goszengo herria, non baitago ene poblua, halako manieraz non ezpaita izango han bestiatxo bilduma batere, iakin dezaantzat, ni naizela Eternala lurraren erdian.

23. Eta emango diat diferentzia hire pobluaren eta ene pobluaren artean. Bihar gerthatuko da señaletan hori.

24. Eta Eternalak horrela egiñ izan zuen eta bestiatxo bilduma haundi bat sarthu izatu zen Faraonen etxean, eta haren zerbitzarien etxe bakhotxean, eta Ejiptuko herri guzian: Lurra galdu izatu zen bilduma hartaz.

25. Orduan Faraonek deithu zituen Moise eta Aaron, eta erran zuen zohazte, sakrifika diozozue zuen lainkoari herri hartan.

26. Bañan Moisek erran zuen ez lukek gerthatuko ungi horrela egiteaz: ezen gure lainko Eternalari ejiptuarren gauza higingarria sakrifika giñozoke. Horra sakrifikatzen baldin bagindu ejiptuarren gauza higingarria hekien begien aitzinean, ezkintuzkete lapidatuko?

27. Goanen gaituk hirur egunen bidez desertura, eta sakrifikatuko zioagu gure lainko Eternalari, erranen darokun bezala.

28. Orduan Faraonek erran zuen, utziko zaituztet, goatera sakrifikatzerara desertuan zuen lainko Eternalari: guziarekiñ ere etzarete urrunduko batere zuek goatean. Pazega zazue Eternala enetzat othoitzen bidez.

29. Eta Moisek erran zuen, horra, ilkhitzen nauk ni hireganik, eta pazegatuko diat Eternala othoitz egiñik, bestiatxo bilduma erretira dadin bihar Faraonenganik, haren zerbitzarienganik, eta haren poblueganik. Ordean Faraonek ez beza kontinua trufatzerara, uzten eztuela goatera poblua Eternalari sakrifikatzerara.

30. Orduan Moise ilkhi zen Faraonenganik, eta sosegatu zuen Eternala othoitzen bidez.

31. Eta Eternalak egin zuen Moisen hitzaren arabera: eta bestiatxo bilduma erretiratu zen Faraonenganikan, eta haren zerbitzarienganikan, eta haren poblueenganikan: etzen gelditu bestiatxo bat xoillki.

32. Bañan Faraonek pisatu zuen oraño bere bihotza aldi hortan, eta etzuen utzi goatera poblua.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

*Farao punitua da bortzgarren plagaz,
erran nahi da, heriotzeaz,
horrengatik Ejiptuko hazienda hiltzen da:
8 Ondoan gero seigarrenaz, erran nahi da
zauri bixika dakharketenez.*

*13 Eta zeren baitago gogorturik,
lainkoak hagitz mehatxatu eta,
22 egortzen du zazpigarren plaga,
erran nahi da babazuza:*

*27 Hori dela kausa Farao bortxatua da
aithortzera bere eskasa,*

*34 bañan bitartean ostriñaturik dago
bere bekhatuan, lainkoak erlaxamendua
ematen dioen bezain sarri.*

1. Orduan Eternalak erran zioen Moisi, oha Farao-nengana, eta erran diozok, horrela erran dik Eternalak, hebrearren lainkoak, utzak goatera ene poblua, zerbitza nazatentzat.

2. Ezen errefusatzen baduk uztera goatera eta idukitzen baldin baituk oraño,

3. horra, Eternalaren eskua izango duk hire hazienda larrean denaren gañean, hanbat zamarien gañean, nola astoen, kameluen, idien, eta ardien gañean, erran nahi da, heriotze xoill haundi bat.

4. Eta Eternalak ezarriko dik diferentzia israeltarren haziendaren eta ejiptuarren haziendaren artean: Israelen haurren diren gauzetarik deusere hill eztadintzat.

5. Eta Eternalak señalatu zuen termiñoa, ziotsala, bihar Eternalak egiñen zioz hori herriari.

6. Eternalak beraz egin zuen hura biharamunetik: eta ejiptuarren hazienda guzia hiltzen bañan Israelen haurren haziendatik etzen hill izatu zathi bat xoillki.

7. Eta Faraonek egorri zuen ikhustera: eta horra, etzen zathi bat ere xoillki hillikan Israelen haurren haziendatik. Guziarekiñ ere Faraonen bihotza pisatu izantzen, eta etzuen utzi goatera poblua.

8. Orduan Eternalak erran zioten Moisi eta Aaroni hartatzue zuen esku barneak labetikako hautsez betherik: eta Moisek barraia beza zeruen aldera Faraonen aitziñean.

9. Eta hori herrauts billhatuko duk Ejiptuko herri guziaren gañean: eta hartaz egingo tuk zauri bixika dakharketanak, hanbat gizonen gañean, nola bestien gañean, Ejiptuko herri guziaren gañean.

10. Hartu zuten bada labetikako hautsa, eta egotu ziren Faraonen aitziñean: eta Moisek barraiatu zuen hautsa zeru aldera eta billhatu zen zauri bixiak dakharketenekiñ hanbat gizonetan nola bestietan.

11. Eta Majizianoak eziñ egotu ahal izatu ziren Moisen aitziñean zauriak zirela kausa ezen baziren zauriak majizianoetan ejiptuar guzietan bezala.

12. Eta Eternalak gogortu zuen Faraonen bihotza: eta etzituen entzun izatu, Eternala Moisi mintzatu zitzaion arabera.

13. Gero Eternalak erran zioen Moisi, iaiki adi goiz goizetik, eta presenta adi Faraonen aitziñean, eta erran diozok, hunela erran dik Eternalak, hebrearren lainkoak, utzak goatera ene poblua, zerbitza nazatentzat.

14. Ezen oraingo aldian banihoak erakhartzera ene plaga guziak hire bihotzera eta hire zerbitzarien gañera, eta hire pobluaeren gañera: iakin dezaantzat eztela nihor ere ni bezalakorik Lur guzian.

15. Ezen hedatu izan baldin banu ene eskua ionen indudan heriotzez, hi eta hire poblua: eta urratua izango intzen lurretikan.

16. Bañan egiaz, hagoan idukiarazi aut hunengatik ikhusaraz dezaantzat ene puxantza, eta mintza daitezentzat ene izenaz lur guzian.

17. Prestatzen aiz oraño ene pobluaren kontra, ez uztekozt goatera?

18. Horra, uria eragitera nihoak bihar oren huntan berean babazuza bat xoill hagitz borthitza hori bezalakorik Ejiptuan izatu ezten bat, fundatua izatu den egu-netik eta orai arteraño.

19. Orai beraz egortzak biribillkatzera hire hazien-dak, eta larrean dituan gauza guziak. Ezen babazuza eroriko duk gizon guzien gañera, eta bestia larrean edirengo direnen, eta etxerat erretiratuak izango ezti-renen gañera, eta hillen dituk.

20. Faraonen zerbitzari lainkoaren hitzaren beldur izatu zen. Hark ihes eragin zioten etxetara haren zerbitzariei eta haren bestiei.

21. Bañan Eternalaren hitzari bere bihotza iratxa-ki etzioenak, utzi zituen haren zerbitzariak eta bestiak larrean.

22. Orduan Eternalak erran zioen Moisi, heda zak hire eskua zeru aldera eta izanen duk babazuza Ejiptuko herri guzian, gizonen gañean, eta bestien gañean, eta larreko belhar guzien gañean Ejiptuko herrian.

23. Moisek beraz hedatu zuen bere xigorra, zeru aldera, eta Eternalak egorri zituen ihurtziriak eta babazuzak, eta sua pasaietan zebillan lurrean, eta Eternalak uri babazuza hariarazi zuen Ejiptuko herriaren gañera.

24. Eta han izatu zen babazuza suarekien zeña kontzerbatzen baitzen babazuzaren artean, zeña baitzen harrigarri borthitza, hori bezalakorik ezpaitzen izatu Ejiptuko herri guzian, nazione egiñ izatu zenaz geroz.

25. Eta babazuzak io zituen larrean ziren gauza guziak gizonetarik bestietaraño. Babazuzak io zituen larreko belharki guziak ere, eta porroskatu zituen larreko arbola guziak.

26. Solament Goszengo herrian, non baitziren Israelen haurrak etzen izatu babazuzarik.

27. Orduan Faraonek egorri zituen deitzera Moise eta Aaron, eta erran zioten, bekhatu egin diat oraingo

aldian: Eternala iustua duk, bañan ni eta ene pblua gaxtoak gaituk.

28. Sosegaraz zazue othoitz egiñik Eternala: izan dadiñ aski, eta izan estadin gehiago lainkoaren ihurtziririk, eta babazuzarik: ezen utziko zaituztet goatera, eta etzaituzte geldiaraziko gehiago.

29. Orduan Moisek erran zuen, hiritikan ilkhitzen naizen bezain sarri, hedatuko tiat neure eskuak Eternalarengana: eta lhurtziriak geldituko tituk, eta eztuk izango gehiago babazuzarik, iakin dezaantzat Lurra Eternalarena dela.

30. Bañan nitaz eta hire zerbitzariez denaz bezanbatean, bazeakiat etzaretela oraño lainko Eternalaren beldur izanen.

31. Liñhoa eta garagarra bada ioak izatu ziren. Ezen garagarra egintzen buru ontzen hari, eta liñhoa pipantzen.

32. Bañan ogia eta [...] etziren ioak izatu, zeren eta gordeak baitziren.

33. Moisek beraz, hiritik Faraonenganikan ilkhi eta, hedatu ziotzan bere eskuak Eternalari eta ihurtziriak gelditu ziren, eta babazuza, eta uria etzen erori gehiago lurraren gañera.

34. Faraonek ikhusirik uria, babazuza eta ihurtzi-riak gelditu zirela kontinuatu zuen bekhatu egitera, eta pisatu zuen bere bihotza, hark eta haren zerbitzariak.

35. Faraonen bihotza beraz gogortu izantzen, eta etzituen utzi goatera Israelen haurrak, Eternala Moisen medioz mintzatu izantzen arabera.

HAMARGARREN KAPITULUA

*Moisek adiarazten dio zortzigarren plaga,
erran nahi da, larrepoteak, Faraoni,
7 zeñak okhasione hori dela kausa
bere zerbitzarien kontseilluz, akordatzen baitu
gizonak xoillki Israelen haurren artetik
dohazen sakrifikatzer:*

*12 Eta punitua izaturik plaga hortaz aithortzen baitu
bere bekhatua libratua izateko hartarik:*

*20 Bañan ondoan gero perseberatzen duela
bere gogortasunean punitua da
bederatzigarren plagaz,
erran nahi da, illhunbeez,*

*28 hargatikan ethortzen da khasatzera
bere aitziñetik Moise mehatxuekien.*

1. Eta Eternalak erran zioen Moisi, oha Faraonen-gana: ezen pisatu diat haren bihotza, eta haren zerbitzarien bihotza, ezartzeko ene señale horiok haren barnean.

2. Eta konda detzaantzat aditzen duela hire semeak, eta hire semeen semeek Ejiptuan egiñ izan-

go ditudan gauzak, eta ene señale hekien izango artean eman ditudanak: hargatikan iakingo duzue Ni naizela Eternala.

3. Moise beraz eta Aaron ethorri ziren Faraonengana, eta erran zioten, hunela erran dik Eternalak, hebrearren lainkoak: Noiz artean errefusatuko duk humiliatzera ene bisaiaren aitziñean? Utzak goatera ene poblua, zerbitza nazatentzat.

4. Ezen errefusaten baldin baduk uztera goatera ene poblua, horra, banihoak erakhartzera bihar xartalak hire herritara:

5. Zeñek estaliko baitute ikhus ahal daiteken lur guzia, halako maneraz non eziñ ikhus ahal izango baitute lurra: eta ianen baitute eskapatu izatu den goitia, babazuzak utzi darotzuana: eta ianen baitituzte larrean botoñ egiten zaizkitzuen arbola guziak.

6. Eta betheko baitiztek hire etxeak, eta hire zerbitzari guzien etxeak, eta ejiptuar guzien etxeak: zer gauza hire aitek ezpaitute ikhusi, ez hire aiten aitek, lurraren gañean izatu diren egunaz gerostik egungo egun arteraño. Eta bihurtu zioten gibela, eta ilkhi izan zen Faraonenganik.

7. Eta Faraonen zerbitzariak erran zioten, noiz artean hunek idukiko gaitik trebekaturikan? Utzatzik

goatera iende horiok, eta zerbitza bezate bere lainko Eternala. Iakingo duk Ejiptua galdu baño lehenago.

8. Orduan bihurtarazi zituzten Moise eta Aaron Faraonengana: eta erran zioten, zohazte, zerbitza zazue zuen lainko Eternala. Zein dire goanen diren guziak?

9. Eta Moisek ihardetsi zuen, goanen gaituk gure iende gazte eta zaharrekien, gure seme eta alabekien, gure hazienda xehe eta larriekien; ezen badiagu bestaburu bat Eternalarentzat.

10. Erran zioten bada, hala Eternala dela zuekiñ, nola utziko baitzaituztet goatera zuek eta zuen mañanda. Begirautzue, ezen gaitza zuen aitziñean duk.

11. Eztuk horrela izango, bañan zuen gizonen artean, zohazte orai, eta zerbitza zazue Eternala: ezen hori duk zuek galdetzen duzuen, eta khasatu zituzten Faraonen aitziñetikan.

12. Orduan Eternalak erran zioen Moisi, heda zak hire eskua Ejiptuko herriaren gañera larrepoteak erakartzeko, igan daitezentzat Ejiptuko herriaren gañera eta ian lurreko belhar guzia, eta babazuzak utzi ditu goiti guziak.

13. Moisek beraz hedatu zuen bere xigorra Ejiptuko herriaren gañera, eta Eternalak gidatu zuen lurre-

tik orienteko haize bat egun hartan guzian, eta gau guzian: eta goiza ethorri eta orienteko haizeak altxatu zituen xartalak.

14. Eta iganarazi zituen xartalak Ejiptuko herri guzien gañera, eta phausatu zituen Ejiptuko herri guzietan: gaxtoak ziren hagitx. Etzen izatu hetaz lehenago hek bezalakorik, eta ezta izanen hek bezalakorik hekien ondoan.

15. Eta estali izan zuten herri guziko ikhus ahal zitekena: halako maneraz non lurra hetaz estalia izatu baitzen eta lan izan zuten lurreko belhar guzia, eta babazuzak utzi izan zuen arboletako fruitu guzia, eta etzen gelditu berdurarik batere arboletan ez larreko belharretan Ejiptuko bazter guzietan.

16. Orduan Faraonek deitarazi zituen berehala Moise eta Aaron: eta erran zuen, bekhatu egin diat zuen lainko Eternalaren kontra eta zuen kontra.

17. Orai bada, othoizten aut, barkha diezadak neure bekhatua, xoillki oraingo aldian: eta sosegaraz zazue zuen lainko Eternala othoizten bidez, khi dezantzat ene gañetikan hunako heriotze hau xoillki.

18. Ilkhi izan zen bada Faraonenganik eta sosegarazi zuen Eternala othoitz egiñikan.

19. Eta Eternalak altxarazi izatu zuen aitziniñetikan uesteko haize hagitz borthitz bat, zeñak goratu baitzi-tuen larrepoteak, eta ondoratu itsas gorrian etzen gel-ditu izatu larrepote bat solament Ejiptuko bazter guzietan.

20. Bañan Eternalak gogortu izan zuen Faraonen bihotza, eta etzituen utzi goatera Israelen haurrak.

21. Orduan Eternalak erran zioen Moisi, heda zak hire eskua zeru aldera, eta izan daitezen illhunbeak Ejiptuko herriaren gañean, hanbat non uki detzaten eskuz illhunbeak.

22. Moisek beraz hedatu izan zuen bere eskua zeru aldera: eta egiñ izatu ziren illhunbe hagitz goibelak Ejiptuko herri guzian hirur egunez:

23. Halako maneraz non batek ezpaitzuen ikhus-ten bertzea, eta nihorere etzen altxatu bere lekhuti-kan hirur egunez: bañan Israelen haur guziei izatu zitzaien argia bere egoitz lekhuana.

24. Orduan Faraonek deithu zuen Moise, eta erran zuen, zohazte, zerbitza zazue Eternala: xoillki zuen arthalde xehe eta larria geldituko duk: oraño zuen mañadagoanen duk zuekien.

25. Ordean Moisek ihardetsi zuen, utziko darozkiguk eramatera sakrifizio eta holokausta gure lainko Eternalari egingo diotzogunak ere.

26. Eta gure arthaldeak ere ethorriko dituk gurekien, hetarik behatz bat gelditu gabe: ezen hartuko diagu hetarik gure lainko Eternala zerbitzatzeko: eta etzeakiagu zertaz zerbitzatu behar dugun Eternala, lekhu hartara ethor gaitezen artean.

27. Bañan Eternalak gogortu zuen Faraonen bihotza halako maneraz non ezpaitzizaion agradatu hekuztera goatera.

28. Eta Faraonek erran zioen, oha ene gibelera: begirauk behintzat, ene bisaia gehiago ikhustetik: ezen ene bisaia ikhusiko duan egunean, hillen aiz.

29. Orduan Moisek ihardetsi zuen, ungi erran duk: eztiat ikhusiko gehiago niholere hire bisaia.

HAMEKAGARREN KAPITULUA

*Iainkoak manatzen du Moise
iakiñaraz diozola Faraoni azkeneko plaga,
erran nahi da, lehensorthu guzien heriotzea,
hanbat gizonena nola besteena, zeñagatikan
bortxatua izango baita poblua goatera uztera:
4 Hori egiñ eta Moise partitzen da
hasarraturik osoki, Faraonenganikan.*

1. Eternalak bada erran zioen Moisi, erakharriko diat oraño plaga bat Faraonen gañera, eta ejiptuaren gañera: ondoan gero utziko zaituzte goatera hemen-dik kanpora, bai guziak goatera utziko zaituztenean, khasatuko zaituzte osoki.

2. Mintza adi orai pobluk aditzen duela, gizon bat bederak galde diotzontzat bere hauzoko gizonari eta emazte batbederak bere hauzoko emazteari, zillhar untziak eta urre untziak.

3. Eta Eternalak emantzioen grazia pobluari ejiptuarren baithan. Eta oraño Moise estimatua zen gizon haundi batentzat Ejiptuko herrian, hanbat Faraonen zerbitzariez, nola pobluez.

4. Eta hargatikan Moisek erran zuen, hunela erran dik Eternalak, gauerdiren inguruan banihoak iragatera Ejiptu guzia trebes.

5. Eta lehensorthu guziak hillen dituk Ejiptuko herrian, Faraonen lehensorthu, haren tronuaeren gañean iarri behar zuenetik eta neskato ehotzen enplegatua denaren lehensorthuraño, oraño bestien lehensorthu guzietaraño.

6. Eta izanen duk deihadar haundi bat Ejiptuko herri guzian, halakorik egundaño izatu ezten bezalako, eta gehiago izanen ezten bezalako.

7. Bañan Israelen haur guzien kontra, ozar batek eztik higituko bere mihia, gizonaganik bestietaraño, iakin dezazuentzat lainkoak eman izatu duela diferentzia ejiptuarren eta israeltarren artean.

8. Eta hire zerbitzari horiok guziak ethorriko dituk enegana, eta iarriko dituk ahuspez ene aitziñean, erraten dutela, ilkhi adi, hi, eta hire azpian den poblu guzia: eta gero ilkhiko nauk. Hala Moise ilkhi izan Faraonenganik kolera haundi batekien.

9. Eternalak beraz erran izan zioen Moisi, Faraonek etzaituzte entzunen, ene mirakuilluak multiplika daitezentzat Ejiptuko herrian.

10. Eta Moisek eta Aaronek egin zituzten mirakui-llu horiok guziak Faraonen aitziñean. Eta Eternalak gogortu zuen Faraonen bihotza, halako maneraz non ezpaitzitzen utzi goatera Israelen haurrak bere herri-tik kanpora.

HAMABIGARREN KAPITULUA

*Iainkoak ordenatzen du
urthe kondatzeko traza berri bat:*

*3 Ezartzen du Bazko bildotsaren sakramendua,
iateko behar diren zeremoniekien,
orobat ogi lemamigabekoak:*

*12 Eta erakusten du sakramendu horren
siñifikazionea ematen duela manu bat
haren zelebratzekotzat bethierekotz,*

25 eta erakustekotzat haurrei zeremonia hori.

*29 Gero hillarazi ondoan ejiptuarrei
lehensorthu guziak*

*hanbat gizonak nola bestiak, bortxatzen du Farao
uztera goatera Israelen haurrak Ejiptutik kanporat:*

*35 Zeñak ejiptuarren aberastasunak
eramaten dituztela,*

*37 ilkhillzen baitire kontuz sei ehun milla oñezko
gizon,*

*40 Iainkoak Abrahami prometatu zioen
denbora berean.*

43 Ordenak bazko bildotsaren gañean.

1. Eta Eterنالak erran zioten Moisi eta Aaroni Ejiptuko herrian, ziotsala,

2. illhabethe hori izango zaitzue illhabetheen has-tea, hori izanen zaitzue lehenbizikoa urtheko illhabetheen artean.

3. Mintza zakizkote Israelen bilduma guziari, erra-ten duzuela, illhabethe hunen hamargarren egunean, hetarik batbederak har dezala xumetxo bat ardien artetikan, edo ahuntzen artetikan aiten famillen ara-bera, xumetxo bat ardien artetikan edo ahuntzen artetikan famillarentzat.

4. Bañan familia gutiago baldin bada behar ezten baño xumetxo bat iateko ardien artetik, edo ahuntzen artetik, har dezala bere hauzokoa haren etxearen aldean dena presunen nonbrearen arabera: kondatu-ko tutzue zenbat beharko diren iateko xumetxo bat ardien artetik edo ahuntzen artetik, begiraturikan zue-tarik batbederak ian ahal dezakenari.

5. Ordean ardien artetikako edo ahuntzen arteti-kako xumetxoa izanen duk notharik gabea, harra, urthe bat duena, hartuko duzue ardien artetikan edo ahuntzen artetikan,

6. eta idukiko duzue guardaturik illhabethe hunen hamalaurganen eguneraño, eta Israelen bildumaren

kongregazione guziak larrutuko dik hura bi bezperarik artean,

7. eta hartuko ditek haren odola, eta ezarriko ditek athepillero gañetan, eta hura ianen duten etxetako athalapustaren gañean,

8. eta ianen ditek haragia errerik suan gau hartan, eta ianen ditek ogi lemamigabeekiñ, eta belhar khi-ratsdunekiñ.

9. Eztezazuela lan deusere erdi errerik ez urean egosirik niholere, bañan suan errerik: haren burua bere zangoekien eta bere erraiekien.

10. Eta hartarikan eztezazuela utz deusere goitirik goiz artean: bañan goiz artean goititu izango dena, erreko duzue suan.

11. Eta ianen duzue horrela, zuen errañak troxatuak izango dire, zuen zapatak oñetan, eta zuen mak-hilla zuen eskuan, eta ianen duzue khexaz. Hori duk Eternalaren Bazkoa.

12. Ezen iraganen nauk gau hartan Ejiptuko herri-tikan, eta ionen tiat lehensorthu guziak Ejiptuko herrian gizonetarik bestietaraño, eta hala egingo iuia-mendua Ejiptuko lainko guzien gañean. Ni nauk Eter-nala.

13. Eta odola izanen zaitzue señaletzat etxe izanen zaretenen gañetan: ezen ikhususiko diat odola, eta iragango nauk zuen gañetikan, eta eztuk izango plaga desegingarririk zuen artean, iazarriko diodan orduan Ejiptuko herriari.

14. Eta egun hura izanen zaitzue orhoitzapentzat, eta zelebratuko diozue bestaburutzat Eternalari zuen adiñetan: zelebratuko duzue bestaburutzat sekulako ordenaz.

15. Ianen ditutzue zazpi egunez ogi lemmamiga-beak: hargatikan khenduko duzue lehenbiziko egunetik lemmamia zuen etxetarikan. Ezen nork ere ianen baitu lemmamiarekiko ogia, lehenbiziko egunetik eta zazpigarreneraño, haren presuna ebakia izango duk Israelen artetikan.

16. Lehenbiziko egunean izanen duk iende bilduma saindua, eta zazpigarren egunean ere iende bilduma saindua: eztuk egiñen izango lanik batere egun hetan, xoillki alogatuko darotzue presuna bakhotxaren iatekotzat izanen dena.

17. Guardia emanen diozue beraz ogi lemmamiga-beei: ezen egun propio hartan erretiratu izango tiat zuen bandak Ejiptuko herritikan begiratuko duzue egun hura zuen adiñetan, sekulako ordenaz.

18. Lehenbiziko illhabethean, illhabethearen hamalaurgarren egunean, ianen tutzue arratsean ogi lemamigabeak, illhabethearen hogoi eta batgarren eguneraño arratsean.

19. Eztuk aurkhituko lemamirikan zuen etxetan zazpi egunez: ezen nork ere ianen baitu lemamiarekiko ogia, presuna hura ebakia izango duk Israelen bildumatik, hanbat arrotz bezala dagoena, nola herrian sorthu dena.

20. Eztuzue ianen ogi lemamidunik, bañan ianen duzue egonen zareten lekhu guzietan ogi lemamigabeak.

21. Moisek bada deithu zituen Israelen zahar guziak eta erran zioten, hauta zazue eta hartzazue xumetxo bat ardien artetikan edo ahuntzen artetikan, zuen famillen arabera, eta larru zazue Bazkoa.

22. Gero hartuko duzue isopo buket bat eta trenpatuko duzue bazin batean barna izango den odolean: eta ihinztatuko duzue baziñean izango den odolaz, athalapusta, eta bi athe pilleroak. Eta zuetarik nihor ere eztuk ilkhiko bere etxeko athetik goiz artean.

23. Ezen Eternala iraganen duk Ejiptua zehatzera, eta ikhusiko dik odola athalapustean, eta bi athepille-roetan: eta Eternala iraganen duk athearen gañeti-

kan, eta ezetik peremitituko destruitzaillea sar dadin zuen zuen etxetan zehatzera.

24. Begiratuko duzue hori sekulako ordena den bezala hiretzat eta hire haurrentzat.

25. Sarthu izango zareten orduan beraz Eternalak emango darotzuen herrian, mintzatu izan den arabera, begiratuko duzue zerbitzu hori.

26. Eta zuen hurrek erranen darotzuenean, zer erran nahi darotzue zerbitzu hunek?

27. Orduan ihardetsiko duzue, hau duk bazkoko sakrifizioa Eternalari, zeña iragan izatu baitzen Ejiptuan Israelen haurren etheen gañetikan, Ejiptua zehatu zuen orduan, eta gure etxeak begiratu; orduan poblua makhurtu eta ahuspez iarri izantzen.

28. Hala Israelen haurrak goan izatu ziren, eta egin zuten hori nola ere Eternalak manatu baitzioten Moisi eta Aaroni, eta hala egiñ izan zuten.

29. Eta gerthatu zen gau erdian Eternalak iazarri ziotela Ejiptuko herriko lehensorthu guziei, Faraonen lehensorthu, haren tronuaren gañean, iarri behar zue-netik eta presondegian ziren esklaboen lehensorthue-taraño, orobat bestien lehensorthu guziei.

30. Eta Faraο iaiki zen gauaz, hura eta haren zerbitzariak, eta ejiptuar guziak: eta izatu zen deihadar

haundi bat Ejiptuan, zeren eta ezpaitzen etxe batere non etzen hill bat.

31. Deithu zituen beraz Moise eta Aaron gauaz, eta erran zuen, ilkhi zaitezte ene pobluaren erditikan, hanbat zuek nola Israelen haurrak: eta zohazte, zerbitza zazue Eternala, mintzatu izan zareten bezala.

32. Hartzatzue zuen hazienda xehe eta larriak ere, mintzatu izan zareten bezala, eta zohazte, eta bedinka nazazue ni ere.

33. Eta ejiptuarrek bortxatzen zuten poblua, khe-xatzen zirela hek egortzera herritikan kanporat: ezen baziotsaten, hill gaituk guziak.

34. Pobluk beraz hartu zuen bere pasta, altxatua izatu baño lehen, bere mairak bere beztimenduekiñ amarratuak zituztela bere sorbalden gañean.

35. Israelen haurrek bada egin zuten Moisen hitzaren arabera, eta ejiptuarrek prestaturik hartu zituzten zillhar eta urre untziak, eta beztimenduak.

36. Eta Eternalak eman zioen grazia pobluari ejiptuarren baithan zeñek prestatu baitziotzaten hek: har-gatikan bere ontasunez gabetu zituzten ejiptuarrak.

37. Hala Israelen haurrak Rahmesestik partitu eta ethorri izan ziren Sukothera, sei ehun milla oñezko gizonen ingurua, mañadarik gabe.

38. Goan izatu zen oraño hekiekiñ bilduma haundi bat iende mota suerte guzietarik: eta hazienda xehe eta larrietarik hagitz tropela haunditan.

39. Eta zeren izatu baitziren khasatuak Ejiptutik kanpora eta ezin gehiago egon ahal izatu baitziren, eta ezpaitzuten egiñ oraño probisione batere, erre izan zuten ophillak egiñik lemamigabe Ejiptutik ekharrri izan zuten orhea ezen etzuten altxarazi izatu.

40. Israelen haurren egoitza bada Ejiptuan egotu diren bezala, izatu zen laur ehun eta hogoi eta hamar urthe.

41. Gerthatu zen beraz laur ehun eta hogoi eta hamar urtheren buruan, gerthatu zen [diot] egun propio hartan, Eternalaren banda guziak ilkhi zirela Ejiptuko herritikan.

42. Hori da gaua hagitz begiratu behar zaiona Eternalari, zeren eta orduan erretiratu baitzituen Ejiptuko herritik gau hura begiratu behar zaio Eternalari, Israelen haur guzientzat bere adiñetan.

43. Eternalak oraño erran zioten Moisi eta Aaroni, hori duk bazkoko ordena, arrotz batek ere ezтик ianen hortarik.

44. Bañan esklabo diruz erosi izango dituzten guziek, hik hek zirkuntzisa izango dituanean, ianengo ditek orduan hortarik.

45. Arrotzak eta sarizaleak ez titek ianen hortarik.

46. Etxe batean ianen ditek hori, eta ez tuzue eramanen haren haragitikan etxetik kanporat, eta ez tuzue hautsiko haren hezurretarik.

47. Israelen iende bilduma guziak egiñen dik hori.

48. Zenbeit baldin badago hire artean, eta egin nahi baldin badio bazko Eternalari, hari dohazkon haur har guziak zirkuntzisa beitez, eta orduan hurbilduko dituk haren egitera, eta izanen duk herrian sorthu den hura bezala: bañan zirkuntzisa izatu ezten batek ere ez tik ianen hortik.

49. Legua bera izango duk herrian sorthu denarentzat, eta zuen artean dagoen arrotzarentzat.

50. Zer egin baitzuten Israelen haur guziek: nola ere Eternalak manatu baitzioten Moisi eta Aaroni eta hala, egiñ izan zuten.

51. Gerthatu zen beraz egun propio hartan Eternalak erretiratu zituela Israelen haurrak Ejiptuko herri tik, bere banden arabera.

HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

*Moisek proposatzen diote Israelen haurrei
lainkoaren manamendua bazko
bildotsaren sakramenduaz.*

*11 Orobat lehensorthuen
kontsekracionearen sakramenduaz,
14 manatzen dituela deklaratzera bethi
haren siñifikazioea bere haurrei.*

*17 Bidea lainkotik Israeleko haurrak Ejiptutik
kanporat traza mirigarri batez gidatu dituen.*

18 Iosepen hezur Ejiptutik kanpora ekharririkakoak.

1. Eta Eternala mintzatu zitzaion Moisi, ziotsala,

2. santifika dietzakidak lehensorthu guziak emasabel guzia idekitzen dutenak Israelen haurren artean, hanbat gizon nola bestia kumeak: ezen eneak dituk.

3. Moisek beraz erran zioen pobluari, duzuen egun hartazko orhoitzapena zeñetan ilkhi izan baitzarete Ejiptutik, esklabo etxetik, ezen Eternalak erretiratu zaituzte esku borthitzez, ezitiek ianen beraz ogi lebatirik.

4. Ilkhitzen zarete gaur ogiburuak ontzen diren illhabethean

5. Eternalak beraz sarrarazi izango auenean kananearren, hetiendarren, amorhearren, hebiendarren, iebusiendarren herrian, zeña egin baitiote iuramentu hire aitei, emanen daroala, zeña baita herri bat esne eta ezti dariona: orduan egingo duk zerbitzu hau illhabethe huntan.

6. Zazpi egunez ianen dituk lemamigabeko ogiak, eta zazpigarren egunean izanen duk bestaburua Eternalarentzat.

7. Ianen tiztek zazpi egunez lemamigabeko ogiak: eta eztuk ikhusi izango hire baithan lebaturikako ogi batere, ez eztuk ikhusi izango oraño lemamirikan hire herri guzietan.

8. Egun hartan adiaraziko diotek hire haurrei, diotala, horrengatik Eternalak egin ziarotak, ni erretiratzean Ejiptutik.

9. Eta hori izanen zaik señaletzat hire eskugañean, eta orhoitzapentzat hire begien artean, Eternalaren legea izan dadintzat hire ahoan, zeren eta Eternalak erretiratu izango bai hau Ejiptutik esku borthitzez,

10. begiratuko duk beraz ordena hori bere sasosñean urthetik urthera.

11. Oraño Eternalak sarrarazi izango auenean kananearren herrian, hiri eta hire aitei iuramentu egin dioten arabera, eta eman izango daroanean:

12. Orduan presentatuko diotzok Eternalari athea idekitzen duten guziak, oraño ilkhitzean bestien athea idekitzen duten guziak izango dituan harrak Eternalarentzat izango dituk.

13. Bañan erreskatatuko dituk ardien artetikako edo ahuntzen artetikako kume batez astoen athea idekitzen duten guziak: eta erreskatatzen ezpaldin baituk, ebakiko diotek lephoa. Orobat erreskatatuko dituk lehensorthurikako gizon guziak hire haurren artean.

14. Eta hire semeak interrogatuko auenean hemendik aitzinera, diotsala, zer erran nahi du hunek? orduan erranen diok, Eternalak erretiratu giaitik esku borthitzez Ejiptutik kanpora, esklabotasun etxetikan.

15. Ezen gerthatu zen Farao gogortu izantzen orduan gu ez uztera goatera, Eternalak hil zituela lehensorthu guziak Ejiptuko herrian, gizonen lehensorthuetarik eta bestien lehensorthuetaraño: hargatikan sakrifikatzen ziotzaat Eternalari har athea idekitzen duten guziak, eta hala erreskatatzen tiat ene haurren lehensorthuak.

16. Hori izanen zaik beraz señaletzat hire esku gañean, eta guarda bekhokitzat hire begien artean Eternalak erretiratu gaituela Ejiptutikan esku borthitzez.

17. Faraok bada utzi zuen orduan goatera poblua, lainkoak etzituen gidatu izatu filistintarren herriko bidez, laburrena zelarik: ezen lainkoak baziotsan, probeditu behar da pobluari perbentura urriki ezta-kion gerla ikhusiko duenean eta eztadin bihur Ejiptura.

18. Bañan lainkoak bira bira erabillarazi zuen poblua desertuko bidez itsas gorri aldera. Hala Israelen haurrak igan izatu ziren armaturik Ejiptuko herritikan.

19. Eta Moisek hartu zituen berekien losepen hezurak: zeren eta losepek iuramentu eragin baitzioten espresuki Israelen haurrei, ziotsala, lainkoak bisitatuko zaituzte egiaz, eramanen ditutzue beraz zuekiñ ene hezurak hemendik.

20. Eta partitu ziren Sukothik, eta gelditu ziren Ethamen, zeña baita desertuaren buruan.

21. Eta Eternala egunaz hedoiezko koluna batean goaten zen hekien aitziñean, hek bidean gidatzeko:

eta gauaz suzko koluna batean, hei argi egiteko, bidean goan zitezentzat egunaz eta gauaz.

22. Eta etzituen khendu hedoeizko koluna eguneko ez suzko koluna gauazkoa pobluaren aitziñetik.

HAMALAU GARREN KAPITULUA

*Faraonek ardiesten ditu Israelen haurrak
itsas gorritikan hurbill,
10 hargatik espantatu eta
egiten diote errenkura Moisi,
13 zeñak kontsotatzen baititu,
prometatzen diotela librantza:
19 lainkoaren aingerua ezartzen da
bi armaden artean,
21 eta Itsasoa bi parte egiten da,
22 halako manieraz non israeltarrak
iragaten baitire haren erditik leihorrean bezala
oñak batere busti gabe,
23 eta ejiptuarrak hareraño hei iarraikitu izanik,
ithotzen dire guziak bere Erregerekien.
31 Hargatikan Israelen haurrak
launaren beldur izaten dire.*

1. Eta Eternala mintzatu zitzaion Moisi, ziotsala,

2. mintza akiote Israelen haurrei, aldara daitezela,

eta geldi Pi-Hahiroth aitziñean Migdol eta itsasotik

artean, Bahal-Tsefonen aitziñaz aitziñ: geldituko zarete haren aldean itsasotik hurbill.

3. Orduan Faraonek erranen dik Israelen haurrez [...] desertuak zarratu tik.

4. Eta gogortuko diat Faraonen bihotza, eta iarraikiko zaitzue ondotik: hala glorifikatua izango nauk Faraonen baithan, eta haren armada guzian: hargatikan ejiptuarrek iakingo ditek ni naizela Eternala. Eta horrela egiñ izan zuten.

5. Erran zioten bada Ejiptuko Erregeri, poblua ihesi zihoala. Eta Faraonen eta haren zerbitzarien bihotza poblua aldera mudatu izan zen: ezen erran zuten, zer egin dugu, utzi izatu dugun goatera Israel, halako maneraz non ezpakaitu zerbitzatuko gehiago?

6. Orduan prest eragin zuen bere karreta, eta hartu izan zuen bere poblua berekiñ.

7. Hartu zituen beraz sei ehun karreta hautuzkoak, Ejiptuko karreta guziak, eta baziren kapitañak hek guzien gañean.

8. Eta Eternalak gogortu izan zuen Farao Ejiptuko Erregeren bihotza, zeña iarraikitu baitzitzaien ondotik Israelen hurrei. Israelen haurrak bada ilkhi izan ziren eskuak gora.

9. Ejiptuarrak beraz iarraikitu zitzaizkoten ondotik, eta Faraonen karretetako zamari guziek, haren zamal-dunek, eta haren armadak ardietsi zituzten, hek gelditurik zeudezela itsasotik hurbill, Pi-Hahiroth aldean Bahal-Tsefonko partean.

10. Nola Farao hurbildu baitzen, Israelen haurrek altxatu zituzten bere begiak, eta horra, ejiptuarrak hekien ondotik zihoazen. Israelen haurrek beraz xoill beldur haundia izatu zuten, eta egin zioten oihu Eternalari.

11. Erran zioten Moisi ere nola sepulturarik batere Ejiptuan ez izanez erakharri gaituk hiltzera desertuan? zer egiñ izan darokuk ilkhiarazi baikaituk Ejiptutik kanpora?

12. Eztuk hori zeñetaz mintzatzen baikiñaizkian Ejiptuan, erraten ginduela, utz gaitzak, eta zerbitza detzagun ejiptuarrak? ezen hobeki lukek guretzat hek zerbitzatzia ezen ez desertuan hiltzea.

13. Eta Moisek erran zioen pobluari, etzaitezela beldur: geldi zaitezte, eta ikhusazue Eternalaren librantza, gaur emango darotzuena. Ezen ejiptuar egun ikhusi ditut zuenak; eztitutzue ikhusiko sekulan gehiago.

14. Eternala gudukatuko duk zuentzat, eta egongo zarete geldirik.

15. Eternalak bada erran zioen Moisi, zergatik oihuz agot niri? mintza akiote Israelen haurrei, dohazela.

16. Eta hik altxa zak hire xigorra, eta heda zak hire eskua itsas gañera eta erdira zak: eta Israelen haurrak sar beitez itsasoaren erdian leihorrean bezala idorrik.

17. Eta nitaz denaz bezanbatean, horra, banihaak gogortzera ejiptuarren bihotza, sar daitezentzat hekien ondoan: eta glorifikatua izango nauk Faraonen baithan, eta haren armada guzian, haren karretetan, eta haren zamaldunetan.

18. Eta ejiptuarrek iakingo ditek ni naizela Eternala glorifikatua izango naizenean Faraonen baithan, haren karretetan, eta haren zamaldunetan.

19. Eta lainkoaren aingerua Israelen armadaren aitziñean zihoana partitu izan zen eta goan hekien gibelera: eta hedoi koluna partitu zen hekien aitziñetikan: eta egotu zen hekien gibelean.

20. Eta ethorri zen ejiptuarren armadaren eta Israelen armadaren artera. Hura beraz hedoia zen eta goibeltasuna, eta argitzen zuen gaua: eta bat etzen hurbildu bertzeaganik gau guzian.

21. Moisek bada hedatu izan zuen bere eskua itsasoaren gañera: eta Eternalak gibelarazi zuen itsasoa gau guzian orienteko haize baten bidez zeña baitzen haundia: eta egin zuen itsasoa leihor, eta urak erdiratu izan ziren.

22. Eta Israelen haurrak sarthu ziren idor itsasoaren artetikan: eta urak harri morroill bat bezala zitzaizkoten eskuñetik eta ezkerretik.

23. Eta ejiptuarrek iarraikitzen zitzaizkotela sarthu ziren hekien ondoan itsasoaren erdian: erran nahi da, Faraonen zamari guziak, haren karretak eta haren zamaldunak.

24. Bañan gerthatu zen goizaren gañera Eternalak suzko kolunan zegoela, eta hedoiean begiratu zioela ejiptuarren armadari, eta desegiñ izan zuela.

25. Eta khendu zituela haren karreten arrodak eta egin zuela eraman zetzaten hagitz neketz. Ejiptuarrek bada erran zuten, goazen ihesi israeltarren aitzinietikan: ezen Eternala guduan hari duk hekien alde ejiptuarren kontra.

26. Eta Eternalak erran zioen Moisi, heda zak hire eskua itsasoaren gañera, eta urak bihurtuko dituk ejiptuarren gañera, hekien karreten gañera, eta hekien zamaldunen gañera.

27. Moisek beraz hedatu zuen bere eskua itsasoaren gañera, eta itsasoa bihurtu zen bere goiara goiza, heldu zela, eta ejiptuarrak ihesi zihoazkon. Hala Eternalak hil zituen ejiptuarrak itsasoaren erdian.

28. Ezen urak bihurtu ziren eta estali zituzten karretak, eta Faraonen armada guziko zamaldunak, itsasoan barna Israelen ondotik sarthu zirenak eta etzen goititu batetaraño xoillki.

29. Bañan Israelen haurrak goan ziren idor itsasoaren erdian: eta urak harrimorroill bat bezala zitzaizkoten eskuñetik eta ezkerretik.

30. Eternalak beraz egun hartan deskantsatu zuen Israel ejiptuarren eskutik. Eta Israelek ikhusi zituen ejiptuarrak hillik itsas bazterrean.

31. Hala Israelek ikhusi zuen puxantza haundi Eternalak ejiptuarren kontra desplegatu zuena eta Poblua Eternalaren beldur izatu zen, eta siñhetsi zituzten Eternala eta Moise haren zerbitzaria.

HAMABORTZGARREN KAPITULUA

Moisen kantika, hark eta Israelen haurrek launari kantatua, hari eskerrak emateko bere librantzaz.

20 Moisen arrebak eta bertze emazteek ihardesten diote

kantika hari berari kharra harturik bezala.

22 Israelen haurrak, ez edirenez urik hirur egunez, eta Marako urak gaitz aurkhitu izanez

murmuratzen dire Moisen kontra,

25 zeñek ezitzen baititu Marako urak,

hekien barnera aurthikirik

lainkoak erakusten dioen zur batetarikan.

1. Orduan Moisek eta Israelen haurrek kantatu zioten kantika hau Eternalari, eta iarri ziren erraten,; kantatuko zioat Eternalari; ezen gora altxatua izatu duk: Aurthiki tik itsasorat zamaria eta haren zamalduna.

2. Eternala duk ene indarra eta laudorioa eta izatu ziaitak Salbatzaille. Hori duk ene lainko borthitza,

egin go zioat etxe eder bat, hori duk ene aitaren lainkoa, hori gora altxatuko diat.

3. Eternala duk gerlari baient bat, hazen izena duk Eternala.

4. Etxatu tik Faraonen karretak itsasorat, eta haren armada haren kapitaiñ hautuzkoak ondoratutuk Itsas Gorrian.

5. Pulunbioek estali tiztek, iautsi tuk ondorat harri bat bezala.

6. Hire eskuña, o Eternala, hagitz haundi agertu izan duk indarrean: hire eskuñak, o Eternala, lehertu dik etsaia.

7. Desegiñ izatu tuk hire haltotasun haundiaz hire kontra altxatzen zirenak, utzi izatu duk hire kolera, zeñak kontsumitu izan baititu lastoa bezala.

8. Hire sudurretako xiztuaz urak multzokatu izan dituk: kurri urak gelditu tituk multzo bat bezala, ur pulunbioak hormatu izan dituk itsasoaren bihotzean.

9. Etsaiak erraten zian, iarraikiko niaitzaiok, atze-manen diat, errepartituko diat pillalaia ene arima sasia-tuko duk: billuziko diat neure ezpata, ene eskuak desegiñen tik.

10. Haize egiñ izan duk hire haizeaz, itsasoak estali tik: ondoratu izan tuk beruna bezala ur haundietan.

11. Nor da hi bezalakorik borthitzen artean, o Eternala? nor da hi bezalakorik, agerturikakorik haundi saindutasunean, ohoratu behar dutenik laudoriotan, egiten dituenik gauza miragurriak?

12. Hedatu izan duk hire eskuña, lurrak iretsi tik.

13. Gidatu izan duk hire graziaz erreskatatu duan poblu hau, gidatu izan duk hire indarraz hire saindutasunaren etxe ederrerat.

14. Pobluek entzun ditek hori, eta ikharatu tuk doloreak sesitu tik Palestinako habitantak.

15. Orduan galduko tuk Edomgo Printzeak, eta ikharak sesituko tik Moabko borthitzak: Kanaango habitant guziak urthuko dituk.

16. Beldurra eta lastima eroriko tuk hekien gañera: hire besoaren haunditasunaz tonto egingo dituk harri bat bezala, hire poblua, o Eternala, iragan dadiñ artean: poblu irabazi izan duan hau iragan dadiñ artean.

17. Sarraraziko dituk, eta landatuko hire primuontasun mendian, hire egoitzatzat prestatu izan duan

lekhuana, o Eternala; hire eskuek ezarri duten sanktuariorioan, o launa.

18. Eternalak erregiñatuko dik sekula guzikotz eta bethierekotz.

19. Ezen Faraonen zamaria sarthu duk bere karreta eta zamaldunekiñ itsasoan barna, eta Eternalak erakharri tik hekien gañera Itsasoko urak: bañan Israelen haurrak goan dituk idor itsasoaren erditik.

20. Eta Maria Profeta, Aaronen arrebak, hartu zuen thanburin bat bere eskuan: eta emazte guziak ilkhi ziren haren ondotik thanburiñekiñ eta xirolekiñ.

21. Eta Mariak ihardesten zioten, kanta diazozue Eternalari, ezen gora altxatu duk, aurthiki tik itsasorat zamaria eta haren zamalduna.

22. Gero Moisek partiarazi zituen israeltarrak itsas gorritikan: eta tiratu zuten Szur desertu aldera: eta hirur egunez desertuan ibilli ondoan, etzuten aurkhitzen urik.

23. Handik ethorri ziren Mararat, eta eziñ edan zezaketen Marako uretarik, zeren eta khiratsa baitzuten: horrengatik haren izena izatu zen deithua Mara.

24. Orduan Poblua murmuratu zen Moisen kontra, ziotsala, zer edango dugu?

25. Hargatik Moisek oihu egin zioen Eternalari: eta Eternalak erakutsi zioen zura zeña aurthiki baitzuen uretara: eta urak egin ziren ezti. Han proposatu zioen ordenantza eta iuiamendua, eta han ere frogatu izen zuen.

26. Eta erran zuen, entzuten baldin baduk atenzionerekiñ hire lainko Eternalaren boza, eta egiten zuzen dena haren aitziñean eta hedatzen badiotek beharria haren manamenduei, eta begiratzen baituk haren ordenantza guziak, eztiat ezarriko hire gañean infirmitaterik batere, Ejiptuan ezarri ditudan bezalakorik: ezen ni nauk Eternala hi sendatzen auena.

27. Gero ethorri ziren Elimerat, non baitziren hamabi ur ithurri, eta hirur hogoi eta hamar palmondo: eta han gelditu izan ziren uren ondoan.

HAMASEIGARREN KAPITULUA

Israeltarrak Singo desertura ethorri eta ogirik ez aurkhitu izanez murmuratzen dire berriz.

*7 Horren gañean Moisek erakusten du
hekien murmuratzeak lainkoaren kontra
dohazela propiki,
eta ez haren zerbitzarien kontra.*

13 lainkoak ematen diotza Israeleko pobluari kaillak,

14 eta ondoan gero mana,

16 deklaritzen diotela haren biltzeko traza,

*33 eta manatzen diotela guarda dezatela
neurri bat señaletzat:*

35 Israeltarrek iaten dute mana berrogei egunez.

1. Gero Israeleko haurren bilduma guzia Elimetik partitu eta, ethorri zen Singo desertura, zeña baita Elim eta Sinairen artean bigarren illhabetheko hama-bortzgarren egunean Ejiptuko herritikan ilkhi izatu ziren ondoan.

2. Israeleko haurren bilduma guzia murmuratu zen desertu hartan Moisen eta Aaronen kontra.

3. Eta Israeleko haurrek erran zioten, oxala bada hill izan bagiñe Eternalaren eskuz Ejiptuko herrian, iarririkan giñaudezen orduan haragi eltzeen ondoan, iaten ginduen orduan gure ase a ogi! Ezen erakharri gaitutzue desertu huntara, hillarazitze ko gosez kongregazione hau guzia.

4. Orduan Eternalak erran zioen Moisi, horra, banihoak zuei uria eragitera zeruetarikan ogiz, eta poblua ilkhiko duk, eta bilduko dik egun guzietz egun batetako probisione a, froga dezadantzat ea ibilliko den ene legean edo ez.

5. Bañan seigarren egunean presta bezate ekharri izango dutena, eta hori izan bedi egunetik egunera bilduko dutenaren doblea.

6. Moisek beraz eta Aaronek erran zioten Israeleko haur guziei, arratsa ethorri eta iakiñen duzue Eternalak atheratu zaituztela Ejiptuko herritikan.

7. Eta goiza ethorri ondoan ikhusiko duzue Eternalaren gloria: zeren eta aditu baititu zuen murmurazio-neak Eternalaren kontra. Eta egiazki zer gare gu, murmura zaitezten zuek gure kontra?

8. Oraño gehiago Moisek erran zuen, hori izanen duk Eternalak eman izanen darotzuen orduan arratsean haragia iatera, eta goizean zuen ase a ogi: zeren

eta aditu baitik zuen murmurazioeak haren kontra murmuratu zaretenak. Ezen zer gaire gu? zuen murmurazioeak ez zire gure kontra bañan Eternalaren kontra.

9. Eta Moisek erran zioen Aaroni, errok Israeleko haurren bilduma guziari, hurbil zaitezte Eternalaren presentziara, ezen aditu tik zuen murmurazioeak.

10. Gerthatu zen bada Aaron mintzatu zitzaion bezain sarri Israeleko haurren bilduma guziari, begiratu izan zuten desertu aldera, eta horra, Eternalaren gloria agertu zen hedoiean,

11. eta Eternala mintzatu zitzaion Moisi ziotsala,

12. entzun tiat Israeleko haurren murmurazioeak: mintza akiote hei, dioala, bi bezperen artean ianen duzue haragi, eta goizean aseko zarete ogiz eta iakiñen duzue ni naizela zuen lainko Eternala.

13. Ehorri zen orduan arratsaren gañera igan izan ziren kaillak, zeñek estali baitzuten armada lekhuia, gero goizean izatu zen ihintz bat barraiatua armada lekhuaren inguruan.

14. Eta ihintz hala barraiaturikakoa urmariatu eta horra desertuaren gañeko aldean gauza xume biribill mehar bat, bihia bezala lurraren gañean.

15. Hori ikhusi eta Israeleko haurrek erran zioten batak bertzeari, hori duk man: ezen etzeakiten zer-

tzen hori. Eta Moisek erran zioten, hori duk ogi Eternalak iateko eman darotzuena.

16. Hori duk Eternalak manatu duena biltzazue batbederak hartarik bere iatekotzat behar duen bezanbat, erran nahi da, Homer neurri bat bakhotxak, zuen presunen nonbrearen arabera: batbederak hartuko dik hartarik bere hedetxean dituenentzat.

17. Horrela beraz egiñ izan zuten Israeleko haurrek: eta batzuek bildu zuten gehiago hartarik, bertzeek gutiago.

18. Gero neurtzen zuten Homer neurritz, eta hauñitz bildu izan zuenak etzuen behar etzuen baño gehiago eta guti bildu zuenak, etzuen gutiago bañan batbederak biltzen zuen ian ahal zezakeen arabera.

19. Eta Moisek erran zioten, nihork ez beza utz goitirik hartarikan goiz artean.

20. Izatu ziren Moise obeditu etzutenak: ezen batzuek goititu zuten goiz artean: eta harrak egin zitzaizkon, eta usaindu zen: horrengatikan Moise hagitz hasarratu izantzen hekien kontra.

21. Horrela biltzen zuten goiz guziez batbederak iatekotzat behar zuen arabera: eta iguzkia ethortzen orduan bero izatera, urtzentzen.

22. Eta ethorri zen orduan seigarren egunerat, bildu zuten ogia doblean, erran nahi da, bi Homer neurri baxhotxarentzat. Beraz bildumako buruzagiak ethorri ziren hori Moisi erratera.

23. Zeñek ihardetsi baitzioten, hori duk Eternalak erran duena, bihar duk errepausua, Sabbath saildua Eternalari: erretzeko duzue, errearaz zazue: eta egosteko duzue, egosaraz zazue: eta goitituko den guzia, herts zazue begiratzeko goiz artean.

24. Herstu zuten beraz goiz artean, Moisek manatu zuen bezala eta etzen usaindu, eta etzen izatu harrik hartan barna.

25. Orduan Moisek erran zuen ian zazue hori gaur: ezen gaur duk Eternalaren sosegua. Gaur eztuzue aurkhituko hartarik larrean.

26. Sei egunez bilduko duzue: bañan zazpigarrena duk sosegua hortan eztuk izango hartarik.

27. Gerthatu zen bada zazpigarren egunean poblutikako batzuek ilkhi izan zirela haren biltzera; bañan etzuten aurkhitu.

28. Orduan Eternalak erran zioen Moisi, noiz arte-raño errefusatuko tutzue begiratzera ene manamenduak eta ene legeak?

29. Iklusazue Eternalak ordenatu darotzuela sosegua: eta horrengatik ematen darotzue seigarren egunean bi egunetako ogia: egon zaitezte batbedera bere lekhan: nihor ere ez bedi ilkhi bere lekhitik zazpigarren egunean.

30. Poblua bada sosegatu zen zazpigarren egunean.

31. Eta Israeleko etxeak deithu zuen haren izena, man: zeña baitzen, koriandra hazia bezala, eta xuria, eta haren guztua [...]

32. Eta Moisek erran zuen, horra, Eternalak manatu dik, bethe bezate hartarik Homer neurri bat hura begiratzeko zuen adiñetan ikhus dezatentzat desertuan ianarazi darotzuedan ogia, Ejiptuko herritikan erretiratu izan zintuztedan ondoan.

33. Moisek beraz erran zioen Aaroni, hartzak pegar bat, eta han emak Homer neurri bat manaz betherik, eta ezar zak Eternalaren aitziñean, begiratu izateko zuen adiñetan.

34. Ilaunak Moisi manatu zioen bezala, Aaronek ere phausatu zuen hura lekhuako aitziñean begiratu izateko.

35. Eta Israeleko hurrek ian zuten mana berrogoi urthez, herri habitaturat ethorri izatu ziren artean: ian

zuten, diot, mana, ethorri izatu ziren artean Kanaan herriko bazterretara.

36. Homer bat bada Epha baten hamargarren parte da.

HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

*Israeltarrak Befidimerat ethorri
eta murmuratzen dire oraño
zeren eta uraren eskasa baitute.*

*4 launak, Moisek othoitz egiñik
ilkhiarazten ura arroka batetarik hek edanarazteko,
8 eta ematen diote bitoria ha-lekitarren kontra,
14 deklaratzeko duela, egun batez
desegiñak izan behar dutela osoki.
15 Moisek, bitoria hazen ezagutzatzat
egiten dio aldare bat Eternalari.*

1. Gero Israeleko haurren bilduma partitu zen Singo desertutik bere bidean goateko usantzaren arabera, Eternalaren manua segitzen zutela: eta gelditu izan ziren Refidimen, non ezpaitzen urik pobluak edateko.

2. Horrengatik pobluak iharduki zuen Moisen kontra, eta erran zuten, iguzue ura edateko. Eta Moisek erran zioten, zergatik ihardukitzen duzue ene kontra? zergatik tentatzen duzue Eternala?

3. Han beraz egarritu zen ur faltaz: eta hala poblua murmuratu zen Moisen kontra, ziotsala, zergatik iganarazi gaituk Ejiptutik kanpora, egarriz hillarazitzeko, gu, eta gure haurrak, eta gure arthaldeak?

4. Eta Moisek oihu egin zioen Eternalari, ziotsala, zer egiñen diot poblu huni? Sarri harrika iazarriko ziarotatek.

5. Eta Eternalak ihardetsi zioen Moisi, iragan adi pobluaren aitzinean, eta hartatzetik heurekañ Israeleko zaharrak: eta hartzak hire eskuan xigor hartaz ibaia io duana, eta ethor adi.

6. Horra, banihoak egoterat han hire aitzinean arroka gañean Horeben, eta ionen duk arroka, eta handik ilkhiko tuk urak, eta pobluak edanen dik. Moisek beraz horrela egin zuen, Israeleko zaharrek ikhusten zutela.

7. Eta deithu zuen lekhuaren izena Masa eta Meriba: Israeleko hurren ihardukitzea zela kausa, eta zeren tentatu baitzuten Eternala, erraten zutela, Eternala gure erdian othe duk, ala ez?

8. Orduan Hamalek ethorri zen eta egin zioen gerla Israeli Refidimen.

9. Hargatik Moisek erran zioen losueri, hauta dieztakiguk gizonak, eta ilkhi adi guduan haritzera Hama-

leken kontra eta egongo nauk ni bihar bizkarkiaren gañean, eta lainkoaren xigorra ene eskuan izango duk.

10. Eta losuek egin zuen Moisek manatu zioen bezala, gonbatitzen zela Hamaleken kontra. Ordean Moise eta Aaron eta Hur igan ziren bizkarkiaren gañera.

11. Eta gerthatzen zen, Moisek bere eskua altxatzen zuenean, orduan Israel zela borthitzena bañan bere eskua phausatzen zuenean, orduan Hamelek zen borthitzena.

12. Eta Moisen eskuak egin ziren pisu: hargatikan hartu zuten harri bat, eta ezarri zuten haren azpian, eta iarri gañean. Aaronek ere eta Hurrek sustengatzen zituzten haren eskuak, batek hemendik eta bertzeak handik hargatik haren eskuak tieso izatu ziren iguzkia sarthu arteraño.

13. Hala losuek desegin zuen Hamalek eta haren poblua ezpata zorrotzarekiñ.

14. Orduan Eternalak erran zioen Moisi, iskriba zak hori orhoitzapentzat liburuan, eta adiaraz diozok losueri urratuko dudala osoki Hamaleken orhoitzapena zeruen azpitikan.

15. Eta Moisek egin zuen aldare bat, eta deithu zuen haren izena Eternal ene señailea.

16. Erran zuen oraño zeren eskua altxatua izatu den Eternalaren tronuaren gañera, Eternalak gerla dik Hamaleken kontra adiñetik adiñera.

HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

*Iethro Moisen aitagiñharrauak israelarren
librantza entzun eta, ekhartzen dio bere suhiari
haren emaztea bere hurrekiñ:*

*7 Eta errezibitua izaturik ungi, alegeratzen da
Israel pobluko zaharrekiñ Eternalaganik
errezibitu zituzten ungiegiñez
12 zeñari oraño sakrifikatzen baitio.*

*13 Gero kontseillu on bat emanik
pobluaren gobernuaren gañean,
27 bihurtzen da bere herrirat.*

1. Iethrok bada Madianeko sakrifikatzaille Moisen aitagiñharrauak, aditurik Eternalak Moisi, eta Israel bere pobluari egiñ izan ziotzan gauza guziak,

2. hartu zuen Sefora Moisen Emaztea, bidaldu izan zuen ondoan,

3. eta haren bi semeak zeñetarik baten izena baitzen Gerszom, [zeren erran baitzuen, bideangoaille izatu nauk herri arrotzean],

4. eta bigarrenaren izena Eliheser: [ezen neure aitaren lainkoa, diotsa, izatu ziaitak laguntzatzat, eta begiratu niauk Faraonen ezpatatik].

5. Iethro beraz Moisen aitagiñharraua ethorri zen Moisegana, haren hurrekien eta emaztearekien, deserturat, non baitzegoen gelditurik lainkoaren mendian.

6. Eta erran zioen Moisi, ni Iethro hire aitagiñharraua baniat hork hiregana, hire emaztearekiñ, eta haren bi semeekiñ harekien.

7. Eta Moise ilkhi zen bere aitagiñharrauaren aitzina, eta ahuspez iarririk musu eman zioen: eta galdetu zioten batak bertzeari bere prosperitateaz, gero ethorri izan ziren pabillunerat.

8. Gero Moisek kondatu ziotzan bere aitagiñharrauari Eternalak Faraoni eta ejiptuarrei egin ziotzaten gauza guziak, Israelen amoreagatik, eta bidean izatu zituzten neke guziak, zeñetarik Eternalak libratu baitzituen.

9. Eta Iethrok atsegiñ izatu zuen Eternalak Israeli egin ziotzan ontasun guziez, zeren libratu baitzituen ejiptuarren eskutik.

10. Gero Iethrok erran zuen, benedika bedi Eternala, zeñak libratu baitzaituzte ejiptuarren eskutik, eta

Faraonen eskutik, eta zeñak libratu baitu poblua ejiptuaren esku azpitik.

11. Ezagutzen diat orai, Eternala dela haundia lainko guzien gañetik: ezen urgillutsu egiñ izan diren hartan berean, hekien garai izatu da.

12. Iethro Moisen aitagiñharrauak hartu zuen oraño holokausta bat eta sakrifizioak lainkoari ofrendatzekotzat: eta Aaron eta Israeleko zahar guziak ogi iaterat Moisen aitagiñharrauarekien, lainkoaren presentzian.

13. Gerthatu zen biharamuneun, nola Moise kadiran baitzegoen poblua iuiatzeko, eta poblu baitzegoen Moisen aitziñean, goizetik arratseraño:

14. Moisen aitagiñharrauak ikhusi zituela hark pobluari egiten ziotzan gauza guziak, eta erran zuela, zer da pobluari egiten dioan hori? Zergatik iarririk ago baxharrik, eta poblu guzia ziagok hire aitziñean, goizetik arratseraño?

15. Eta Moisek ihardetsi zioen bere aitagiñharrauari, hori duk poblua ethortzen baita eneganat galdetzerat lainkoaz.

16. Zerbeit egiteko duten orduan, eneganat ethortzen dituk: orduan iuiatzen diat bataren eta bertzea-

ren artean, eta adiarazitzen ziotzateat lainkoaren ordenantzak eta haren legeak.

17. Bañan Moisen aitagiñharrauak erran zioen, hik egiten duana eztuk ona.

18. Segur faltatuko aiz, eta hi eta poblu hirekin den hori ere ezen hori pisuegi duk hiretzat, eta eziñ egiñ ahal ezake hori hik bakharrik.

19. Entzun zak bada ene kontseillua: kontseillatuko aut, eta lainkoa hirekien izanen duk. Izan adiñ pobluarentzat lainkoaren aldera eta adiaraz diotzokotan egitekoak lainkoari:

20. Eta iakiñaraz diotzotean ordenantzak eta legeak: eta adieragin diozotean bide nondik goango direna, eta zer egin beharko duten.

21. Eta probedi adiñ poblu guziaren artetik, gizon prestuez, lainkoaren beldurtasuna dutenez, gizon egiazkoez, irabazi deshonestia higintzen dutenez: eta ekartzatzik hek hekien gañean gobernadore zenbeit millen gañean, eta zenbeit ehunen, berrogoietahamarren eta hamarren gañean.

22. Eta iuia dezaten poblua denbora guzietan: bañan erreporta dietzakitean egiteko haundi guziak, eta iuia detzaten diferentzia ttipi guziak. Hala lagunduko aute, eta iasanen ditek bere partea hirekien.

23. Hori egiten baduk, eta lainkoak manatzen darok, egongo ahal aite hagoan: eta oraño pobluguzia helduko duk prosperitate onean bere lekhurat.

24. Moisek beraz obeditu zioen bere aitagiñharrauaren hitzari, eta egin zituen hark erran ziotzan guziak.

25. Hala Moisek berezi zituen Israel guzitikan, gizon prestuak, eta ezarri zituen buruzagi pobluaren gañean; gobernadore zenbeit millen gañean, zenbeit ehunen, berrogoitahamarren eta hamarren gañean,

26. zeñek iuiatu behar baitzuten poblua noiz nahi: bañan erreportatu behar ziotzaten gauza gaitzak Moisi eta iuiatu behar zituzten gauza ttipi guziak.

27. Eta Moisek bidaldu zuen bere aitagiñharraua, zeña goan baitzen bere herrirat.

HEMERETZIGARREN KAPITULUA

*Israeleko hurrei Sinaiko desertuan gelditu
eta lainkoak adiarazitzen diote
egin nahi duela bere alientzia hekiekiñ,
obedient izan dakizkon kondizionerekien.
7 Hori hek azeptatu eta,
manatzen du Moise hekien santifikatzera,
12 eta ezartzera mugarriak
Sinaiko mendiaren inguruan,
20 zeñaren gañera iausten baita
hirur egunen ondoan maiestate ikharagarri
eta ezin konprehendituzko batean.*

1. Hirurgarren illhabetheko lehen egunean, Israeleko haurrak Ejiptuko herritik ilkhi ondoan, egun hartan berean ethorri izan ziren Sinaiko deserturat.

2. Refidimtik beraz partitu eta, ethorri ziren Sinaiko deserturat, eta gelditu izan ziren desertuan: Israel, diot, gelditu zen mendiaren aitziñaz aitziñ.

3. Eta Moise igan zen lainkoagana: ezen Eternalak deithu zuen menditikan, hori errateko, hunela erranen

diok Jakob en etxeari, eta deklaratuko diotek Israelen haurrei,

4. ikhusi duzue zer egin diotedan ejiptuarrei, eta nola ekharri zaituztedan arrano hegalean gañean, eta erakharri zaituztedan enegana,

5. orai beraz obeditzen baldin badiozue zintziñez ene bozari eta begiratzen baldin baduzue ene alien-tzia, zuek izanen zarete poblu guzien artetikan ene joiarik preziatuena, Lur guzia enea den arren.

6. Eta izanen zaizkidate sakrifikatzaille erresuma bat, eta nazione saindu bat. Horiok dituk Israelen haurrei erranen diotzatean perpausak.

7. Gero Moise ethorri zen eta deithu zituen poblu-ko zaharrak, eta eman zituen hekien aitziñean Eternalak manatu ziotzan gauza hek guziak.

8. Orduan poblu guziak elkarharrekiñ akort ihardetsi zuen, ziotsala, egiñen tiagu Eternalak erran dituen guziak. Eta Moisek erreportatu ziotzan Eternalari pobluaren hitz guziak.

9. Eta Eternalak erran zioen Moisi, horra, ethorriko natzaik hiri hedoi lodi batean, pobluak adi dezantzat hiri mintzatuko natzaianean, eta oraño siñhets azaantzat sekulakotz: ezen Moisek erreportatu ziotzan Eternalari pobluaren hitzak.

10. Eternalak erran zioen oraño Moisi, oha poblua-
renganat, eta sanktifikatzak gaur eta bihar, eta garbi
detzatela bere tresnak,

11. eta prestpresta egon daitezela hirugarren
egunekotzat: ezen hirugarren egunean Eternala iau-
tsiko duk Sinaiko mendi gañera, poblu guziak dakusa-
la.

12. Ezarriko diotzak bada mugarriak pobluari ingu-
ruan, eta erranen duk, begirautzue igatetik mendirat,
eta ukitzetik haren bazter batere. Nork ere ukituko
baitu mendia, hillaraziko ditek heriotzeaz.

13. Esku batek ere ezтик hura ukituko: bañan segur
lapidatua izango duk, edo tiratua fletxez nahiz bestia,
nahiz gizona, eztuk biziko. Adartronpetak iotzen duen
orduan luzean, iganen dituk mendi alderat.

14. Eta Moise iautsi zen menditikan poblua-
renganat, eta santifikatu zuen poblua, eta garbitu zituzten
bere tresnak.

15. Eta erran zioen pobluari, zaudete prestpresta
hirugarren egunekotz, eta etzaitezela hurbill emaz-
teaganik.

16. Eta hirugarren egunean goiza izatu zenean,
izatu ziren ihurtziriak eta xixmixtak, eta hedoi lodi bat
mendi gañean, eta adartronpeta soñu bat hagitz bort-

hitza: zeñagatikan armadalekhuan zen poblu guzia ikharatu baitzen.

17. Orduan Moisek ilkhiarazi zuen armadalekhutik poblua lainkoaren aitziañera: eta gelditu izan ziren mendiaren azpian.

18. Eta Sinaiko mendia khetan zen osoki, zeren eta Eternala iautsi baitzen gañera sutan: eta haren khea igaten zen labe batetako khea bezala, eta mendi guzia ikharatzen zen hagitz.

19. Eta nola adartrorpeta soñua borthizten baitzen gehiago baño gehiago, Moise mintzatu zen, eta lainkoak ihardetsi zioen boza batez.

20. Eternalak beraz, Sinaiko mendirat, mendiaren puntarat iautsi eta, deithu zuen Moise mendiaren puntarat; eta Moise igan izan zen harat.

21. Eta Eternalak erran zioen Moisi, iauts adi, dei egiok pobluari hauts eztetzaten beldurrez mugarriak igateko Eternalagana, ikhusteko, eta gal eztadintzat iende haundia hekien artetikan.

22. Oraño sakrifikatzaile Eternalaganat hurbiltzen direnak sanktifika daitezen, perbentura Eternala eror eztadin beldurrez hekien gañerat.

23. Eta Moisek erran zioen Eternalari, poblua eziñ igan ahal izango duk Sinaiko mendirat, zeren eta dei

egin baitarokuk, erraten duala, ematzik mugarriak mendian, eta santifika zak.

24. Eta Eternalak erran zioen, oha, iausts adi, gero iganen aiz, hi, eta Aaron hirekiñ ordean sakrifikatzaileek eta pobluak eztetzatela hauts mugarriak igatekotch Eternalaganat perbentura eror eztadin beldurrez hekien gañera.

25. Moise beraz iausti izan zen pobluaganat eta hori erran zioten.

HOGOIGARREN KAPITULUA

*lainkoak ematen du bere lege
hamar manamendutan herstua:
18 Eta poblua osoki espantaturik
lainkoaren maiestateaz eta bozaz*

othoitzez dago launa eztakioten mintza hei gehiago.

23 urre edo zillharrezko lainko egiteko defentsa.

24 Ordena aldare egiteko moldearen gañean.

1. Orduan lainkoak erran zituen hitz horiok guziak, ziotsala,

2. ni nauk hire lainko Eternala, Ejiptuko herritikan atheratu audana, esklabotasun etxetikan.

3. Eztuk izanen bertze lainkorik ene bisaiaren aitziñean.

4. Eztuk egingo heuretzat imajina thailaturik ez gañean zeruetan, ez beherean lurrean ez uretan lurra-
ren azpian diren gauzen iduririk batere.

5. Ez aiz ahuspez iarriko hekien aitziñean, eta ezti-
tuk zerbitzatuko: ezen ni nauk Eternal hire lainkoa,
lainko borthitza, ieloskor dena, punitzen duena aiten

hobena haurren gañean, ni higintzen nautenen hirurgarren eta laurgarren ienerazioean.

6. Eta egiten diotena Misericordia milla ienerazioetan, ni maitatzen nautenei eta ene manamenduak begiratzen dituztenei.

7. Eztuk hartuko Eternal hire lainkoaren izena alferrik: ezen Eternalak ez tik idukiko inozentzat haren izena hartu izango duena alferrik.

8. Orhoit adi errepausu egunaz, haren santifikatzeko.

9. Sei egunez traillaatuko aiz eta egiñen dituk hire lan guziak.

10. Bañan zazpigarren eguna duk Eternal hire lainkoaren Errepausua. Eztuk egingo lan batere hartan, hik, ez hire semeak, ez hire alabak, ez hire muthillak, ez hire neskatoak, ez hire abreak, ez hire arrotz hire athetan barna denak.

11. Ezen sei egunez Eternalak egin tik zeruak eta lurra, eta itsasoa, eta hetan diren guziak, eta errepausatatu izan duk zazpigarren egunean: eta horrengatik Eternalak bedinkatu dik errepausu eguna eta santifikatu.

12. Ohoratzak hire aita eta hire ama, hire egunak luza daitezentzat lurraren gañean, zeña Eternal hire lainkoak ematen baitarok.

13. Eztuk hillen.

14. Eztuk egiñen haragizko bekhatunik.

15. Eztuk ebatsiko.

16. Eztuk erranen faltso testimoniorik hire lagun proximoaren kontra.

17. Eztuk gutiziatuko hire lagun proximoaren etxea: eztuk gutiziatuko hire lagun proximoaren emaztea, ez haren muthilla, ez haren neskatoa, ez haren idia, ez haren astoa, ez hire lagun proximoaren diren gauzarik batere.

18. Eta poblu guziak ikhusten zituen ihurtziriak [...], adartronpeta soñua eta khea egiten zuen mendia: pobluari beraz hori ikhusi eta ikhara zerion, eta urrun zegoen.

19. Hargatik erran zioten Moisi, hi mintza adi gurekiñ, eta entzunen diagu: bañan lainkoa ez bedi mintza gurekiñ, hill ezkaitezen beldurrez.

20. Orduan Moisek erran zioen pobluari, etzaitez-tela beldur: ezen lainkoa ethorri duk zuen frogatzera, eta haren beldurtasuna izan dadintzat zuen aitziñean, bekhatunik egiñ eztezazuentzat.

21. Poblua beraz egotu izan zen urrun: bañan Moise hurbildu zen illhunbetik baitzen lainkoa.

22. Eta Eternalak erran zioen Moisi, hunela erranen diotek Israelen haurrei: Ikhusi duzue mintzatu natzaitzuela zuei zeruetarik.

23. Eztiozue egiñen zeuei enekien zillharrezko lainkorik, eta eztiozue egiñen zeuei urrezko lainkorik.

24. Egingo darotak lurrezko aldare bat zeñaren gañean sakrifikatuko baitituk hire holokaustak, eta hire prosperitate ofrendak, hire hazienda xehe eta larria: zeñere lekhutan ezarriko baitut ene izenaren orhoitzapena, ethorriko nauk hireganat, eta bedinkatuko aut.

25. Egiten baldin badarotak harrizko aldare bat, eztituk pikatuko: altxatzen baldin baduk burdiña haren gañera, lizunduko duk:

26. Eta ez aiz iganen ene aldarera eskabeletarik, hire ahalkisuna ager eztadintzat haren aldean.

HOGOIETA BATGARREN KAPITULUA

Politika legeak esklaboen gañeko

nausitasunari ukitzen zaizkonak,

12 heriotze nahi izanak eta ez nahi izanak,

15 aita edo ama zehatzen edo madarikatzen dutenak

16 gizon bat ebatsi dutenak,

18 bata bertzea zehatzen dutenak ihardukitzean,

20 bere esklaboei bidegabe egiten diotenak,

22 liskartzean emazte izor bat

zehatzen edo butatzen dutenak,

28 gizona edo bestia jotzen duen idia,

33 eta urphutzu zillhatu dituztenak

estaltzen eztituztenak.

1. Hunako hauk dituk proposatuko diotzatean legeak.

2. Erosten baldin baduk esklabo hebrear bat, zerbitzatuko au sei urthez, eta zazpigarrenean ilkhiko duk izateko deskantsu deusere pagatu gabe.

3. Ethorri baldin bada bere gorphutzarekiñ xoillki, ilkhiko duk bere gorphutzarekiñ: baldin bazuen emaztea, haren emaztea ere ilkhiko duk harekiñ.

4. Bere nausiak eman baldin badio emaztea semeak eta alabak egiñ izatu diotzana, emaztea eta haren haurrak haren nausiarentzat izanen dituk: bañan ilkhiko duk bere gorphutzarekien.

5. Esklaboak erraten baldin badu frankoki, maite diat ene nausia, ene emaztea, eta ene haurrak, ez nauk ilkhiko deskantsu:

6. Orduan bere nausiak erakharriko dik hura iuieen aitzinera, eta hurbillaraziko dik atherat, edo atheko-pillerorat, eta bere nausiak zillhatuko zio beharria ezten batez: eta zerbitzatuko dik bethi.

7. Norbaitek saltzen baldin badu haren alaba esklabo izateko, eztuk ilkhiko esklaboak ilkhitzen diren bezala.

8. Desagradatzen baldin bazaio bere nausiarri promes eman izatu eztioenari, erreskataraziko dik, eta eztik izanen puxantza haren saltzeko poblu arrotzari desloialki konportatzen dela haren alderat.

9. Bañan hura prometatu baldin badio bere semeari, egiñen zio alaben zuzenaren arabera.

10. Hartzen baldin badu bertze bat beretzat, ezтик gutituko deusere haren neurrimendutik, haren beztizetik ez hari zor zaion maitarasunetik.

11. Egiten ezpadiotza hirur gauza horiok, ilkhiko duk diru batere pagatu gabe.

12. Gizona zehatu izango duena halako maneraz non hiltzen baita, hillaraziko ditek heriotzeaz.

13. Guziarekiñ ere guardian egotu izango eztena, bañan lainkoak okhasionez inkuntrarazi izango duena haren eskuan, ordenatuko daroat lekhu bat zeñetara ihes egingo baitu.

14. Bañan norbait altxatu baldin bada bere nahiz espresuki bere lagun proximoaren kontra haren hiltzeko fiñeziaz, atheratuko duk haña ene aldaretikan, hildadintzat.

15. Bere aita edo bere ama zehatu izango duena, hillaraziko ditek heriotzeaz.

16. Nork ere ebatsi izango baitu gizon bat, eta saldu izango baitu, edo edireten baldin bada haren eskuen artean, hillaraziko ditek heriotzeaz haña.

17. Nork ere madarikatu izango baitu bere aita edo bere ama, eta hura hilleragingo ditek heriotzeaz.

18. Zenbeitek iharduki baldin batute eta batek io baldin badu bertzea harri batez edo ukhabillaz zeñetarik ezpaita hill izatu, bañan erori baita oherat:

19. Iaikitzen baldin bada, eta ibiltzen kanpoan prematzen dela bere makhillaren gañean, nork ere io izango baitu haña kito izanen duk: guziarekiñ ere bihurtuko dik egiñ eztuen travailluaren intresa, eta sendaraziko dik haña osoki.

20. Norbaitek io baldin badu haren gizaesklaboa edo haren emaesklaboa makhill batez, halako maneraz non hill izatu baita haren eskuaren azpian, eztitek faltatuko haren punitzera.

21. Guziarekiñ ere bizitzen baldin bada egun bat edo biez, eztuk izango hartazko punizionerik, ezen hori duk haren dirua.

22. Batzuek gudukatzen diren orduan, eta zehatu izango dutenean izorra den emazte bat, eta haren haurrak ilkhitzen baldin badire, eta guziarekien ere kolpea ezpaldin bada mortala, kondenatua izan beharko dik pagatzerat emaztearen senharrak iratxakiko dioen arabera, eta emango dik pagua iuieek ordenatuko duten arabera.

23. Bañan kolpea mortala baldin bada, emango duk biziabiziarentzat,

24. begia begiarentzat, hortza hortzordañ, eskua eskuordañ, oña oñordañ,

25. Errea erreordañ, zauria zauriordañ, uspela uspelordañ.

26. Norbaitek iotzen baldin badu bere gizaesklaboaren begia edo bere emaesklaboaren begia, eta galtzen badio begia, utziko dik hura goatera libro izatekotzat bere begiagatikan.

27. Erorarazitzen baldin badio hortz bat bere gizaesklaboari edo bere emaesklaboari, utziko dik haña goaterat izatekotzat libro bere hortzagatikan.

28. Idi batek iotzen baldin badu gizona edo emaztea eta hiltzen baldin bada presuna kolpetik, idia lapidatua izango duk, ekzepzionerik batere gabe eta ezittek ianen haren haragitikan: eta idiaren iabea kito izango duk.

29. Bañan idia lehenago kostumatua baldin bazen iotzera, eta haren iabea abertitua izatu baldin bazen protestazionerekiñ eta ezpaldin bazuen begiratu zerengatik hillarazi izatu baldin badu gizona edo emaztea; idia lapidatua izango duk: eta oraño hillaraziko ditek haren iabea.

30. Dirua iratxakitzen baldin badiote bere burua erreskatatzeko, emango dik bere biziaren erreskatura iratxaki izango zaizkon gauza guzien arabera.

31. Iotzen baldin badu semea edo Alaba, egingo ziaio lege horren beraren arabera.

32. Idiak iotzen badu esklabo bat, nahiz gizona nahiz emaztea, noren ere baita idia eta hark emanen ziotzak hogoi eta hamar zillhar pheza haren nausiar, eta idia lapidatua izango duk.

33. Norbaitek idekitzen badu phutzu bat, edo norbaitek zillhatzen badu phutzu bat, eta ezpaldin badu estaltzen, eta harat erortzen bada idi bat edo asto bat,

34. phutzuaren iabeak errekonpentsatuko dik, eta errendatuko zio dirua haren nausiar: bañan hil dena harena izango duk.

35. Eta norbaiten idiak kolpatzen badu bere lagun proximoaren idia, eta hargatik hiltzen baldin bada: salduko ditek idi bizia, eta errepartituko ditek dirua erditik eta idi hilla ere errepartituko ditek erditikan.

36. Bañan ezagun baldin bada, idia lehenago kostumatua zela iotzera, eta nausiak begiratu ezpadu, bihurtuko dik osoki idia idiordañ bañan idi hilla harena izango duk.

HOGOI ETA BIGARREN KAPITULUA

Politika legeak ohoinkeria ukitzen dutenak.

*5 Hazienden edo larreari iratxakirikako
suaren bidegabea,*

7 gauza guardatzera emanikakoak,

14 gauza prestatu eta alokairuan emanak.

16 Birjina bat zuritzen duena.

18 Emasorgiña,

19 Bestiaren konpañia duena.

20 Imajinadoratzaillea.

21 Biolentzia.

25 Usurak.

26 Bahitzat harturikako gauzak.

28 Buruzagiei ekharri behar zaien ohorea.

*29 Fiñean lainkoak bere pobluari
eskatzen diotzan premizez eta saindutasunaz.*

1. Norbaitek ebatsi baldin badu idi bat edo zenbeit bestia xehe, eta hill baldin badu edo saldu, bihurtuko tik bortz idi idiaren orde, eta laur bestia xehe bestia xehearen orde.

2. [Ohoña aurkhitzen baldin bada zillhatzen eta iotzen bada eta hiltzen handik, hura io izango duena eztuk izanen faltadun hill izanez.

3. Iguzkia altxatu baldin bada haren gañera, faltadun izango duk hill izanez.] Egingo dik beraz Errestitu-zione osoa: eta ezpaldin badu deusik, saldua izango duk bere ohoinkeriaren orde.

4. Ohoinkeria aurkhitzen baldin bada osorik haren eskuen artean [nahiz idia, astoa, edo bestia xehea, bizirikan] errendatuko dik doblea.

5. Norbaitek ianarazitzen baldin badu larrea edo mahastia, lexatu eta iatera utzirik bere bestia bertze-ren larrean: errendatuko dik bere larreko hoberenetikan, eta bere mahastiko hoberenetikan.

6. Sua ilkhitzen baldin bada eta aurkhitzen baldin baitu elhorriak [...]